



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

GIZARTE-ZERBITZUEN ETA GIZARTE-EKINTZAREN ESTATISTIKA GIZARTE-ZERBITZUEN GASTU PUBLIKOA 2015-2018

Emitza nagusiak
2021ko martxoaren 4a

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren
Estatistika Organo Espezifikoa*



AURKIBIDEA

1.Sarrera.....	5
2.Zerbitzuen eskaintza	9
2.1. Egoitza-plazak.....	9
2.2. Egoitzakoak ez diren plazak	14
3. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua	21
3.1. Gastu osoa.....	21
3.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua	24
3.2.1. Arloa eta zentro edota zerbitzu mota	24
3.2.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoen arabera	33
3.3. Gizarte-prestazioetako gastua.....	37
3.3.1. Prestazio motak.....	37
3.3.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoen arabera	40
4. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa	43
4.1. Finantzaletaren alderdi orokorrak	43
4.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketa	44
4.2.1. Arloa eta zentro edota zerbitzu mota	45
Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoak	55
4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa	59
4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera.....	61
4.5. Udal-erakundeen parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera	71
5. Gizarte-zerbitzuetako langileak.....	95
5.1. Alderdi orokorrak	95
5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa	96
5.3. Enpleguaren banaketa profesionala	103
5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera	110
6. Kudeaketa-adierazle nagusiak zentro eta zerbitzuen arabera.....	115
6.1. Egoitza-zentroak	115
6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak	124
KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA	135
ALDERDI OROKORRAK.....	135
Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak	135

Zentroa edo zerbitzua	136
Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra.....	136
Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea	137
Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea	138
Egoitza-zentro eta -zerbitzuak.....	138
Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak)	140
Erabiltzaileak.....	142
SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK	143
Plazak.....	143
Plazen titulartasuna.....	143
GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK	144
Gastu arrunta.....	144
FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK.....	145
Finantzaketa: administrazio-jatorria.....	145
Finantzaketa: izaera.....	146
Finantzaketa-adierazleak	146
LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK.....	147
Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera	147
Langileak, kualifikazioaren arabera	147
Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB.....	148
KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK	149
Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea.....	149
Gastu arrunta erabiltzaileko	149
Erabiltzaileko batez besteko kuota	149
LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko.....	149
Langileko (LOB) batez besteko soldata.....	149
LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK	150
Udalerrri motak.....	150



1.Sarrera

Txosten honetan garatu dugu GZEZE **Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren, Erakundeen eta Zentroen Estatistikaren** emaitza nagusien deskribapenaren urteko agiria aurkezteko proiektua. Proiektu hori 2017an taxutu eta zehaztu zen, 2012-2015 aldirako lehen datuak argitaratzearekin batera. Horrela, bada, 2015-2018 aldiari buruzko emaitza berriak aurkeztean, sendotu egin da joan den hamarkadaren erdialdera arte Eustatek gauzatzen zuen hedapen-lanari berriro ekiteko helburua; izan ere, EAEko administrazio publikoen finantza-krisialdian ezin izan baitzizaion egiteko hari guztiz eutsi.

GZEZEren helburu nagusia da gizarte-zerbitzuekin, gizarteratzeko politikekin eta, oro har, gizarte-ekintzarekin lotutako eskaintza ezagutzea. Norabide horretan, GZEZEek gizarte-zerbitzu- eta prestazioekin lotutako hainbat aldagai ekonomiko biltzen ditu, eta sistemaren erabiltzaile eta onuradunen zenbaketa orokorrera gerturaten da. Eragiketa estatistikoak aintzat hartzen ditu, batetik, eskumenen banaketa berezitik; eta, bestetik, gizarte-zerbitzuen zein gizarteratze-politiken munduan aktiboki parte hartzen duten eragileen dibertsitatetik sortzen diren askotariko jarioak. Horrekin, sistema osoaren (egoitzak, finantzaketa-jarioak, etab.) ikuspegi bat eman nahi da.

Gizarte-zerbitzuen sektorea beste arlo orokor batzuek estaltzen ez zituzten gizarte-premiei erantzuteko baliabide eta jarduera multzo gisa sortu zen hein handian, eta sektore horren helburua zehazten joan da termino juridikoetan; horri esker, esparru horren azalpen estatistikoa zehaztu da.

Hastapenetan, eta estatistika-termino haietan, gizarte-zerbitzuak sistema ireki gisa zehaztu ziren, pixkanaka mugatzen joateko. 1988. urtean hasi zen estatistika, eta orduz geroztik, hainbat zerbitzu, hala nola haurtzaindegi eta adingabekoen erreforma-zentroenak, sistematik kanpo geratu dira, beste erakunde batzuek hartu baitituzte euren gain.

Enplegu-zentro bereziak autonomo bihurtzea eta lan-sistemarekin lotzea izan da beste funtsezko elementu bat, bai eta diru-sarrerak bermatzeko prestazio batzuk Lanbidera igarotzea ere. Aintzat hartutako zentro eta prestazio askok, aldiz, GZEZEren estatistika-jarraipenaren xede izaten jarraitzen dute. Horren arrazoia da informazioari jarraipena ematea bermatzea, GZEZErik gabe ez baitzen euskal estatistika-ekintzaren testuinguruan jasoko.

Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuen sistema finkatzeari esker, sektore honi buruzko azterketak gehiago zehaztu ahal izan dira. Nahiz eta hurbilketa estatistikoa, egonkortasun-bokazioagatik, ezin den erabat subsumitu dauden mugaketa juridikoetan (aldakortasun potentzialagatik), garai honetan esan daiteke oinarritzko justaposizioa dagoela gizarte-zerbitzuen sektorearen definizio estatistiko eta juridiko-administratiboetan, diru-sarrerak bermatzeko eta familia babesteko politikei lotutako jarduerak barne. Hori dela eta, erabilgarria da gizarte-zerbitzuen egungo konfigurazioaren azterlan zehatz bat, euskal administrazio publikoek eta gainerako eragileek, eta, bereziki, hirugarren sektorearekin lotutakoak, aintzat hartzen duten moduan.

Azken urteotan gizarte-zerbitzuen arloko edukiak lortu duen zehaztasun ia-ia behin betikoa aintzat hartuta, txostenean aipatzen diren informazioa tratatzeko bi arlo handiak gizarte-ekintzaren bi alderdi nagusiei lotzen zaizkie: lehena gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari, eta bigarrena prestazioen sistema osagarriari. Bigarren esparru hori lotzen da, batik bat, 1980ko hamarkadaren amaiera aldera ezarritako diru-sarrerak bermatzeko politikarekin, baina baita familiak babesteko ekintzekin ere. Zerbitzu horiek gizarte-zerbitzuen eta familia-politiken sail eskumendunak bultzatuko zituela adostu zen mendearen hasieratik (une honetan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila).

Prestazio horien zati bat (GLL, adibidez) gizarte-zerbitzuen egitura sistematikoaren partetzat hartzen dira. Gainerakoek esparru berezia eta autonomia dute, baina sistemarekin lotuta egoten jarraitzen dute, antzeko eraketa-funtsa dutelako, Gizarte Zerbitzuen eraketa- eta estatutu-eskumenaren garapenarekin lotzen den heinean.

Azpimarratu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da txosten honek GZEZE eta **Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa** batera ustatzen dituela. Estatistika osagarri horren helburua da zehaztasunez jasotzea administrazio publikoek gizarte-zerbitzuei, gizarte-prestazioei eta gizarteratzeko prozesuekin lotutako zerbitzuei eustera bideratzen duten gastu publiko korronea.

Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa aintzat hartzean, asmoa da hedapenean, dokumentu bakar koordinatu baten bitartez, estatistika-eragiketa honen edukia GZEZEkoarenean sartzeari, paraleloki eta gehienbat subsidiarioki (erakunde eta zentzuei hurbiltzeko mekanismoei dagokienez). Erabaki hori garrantzitsua da; izan ere, datuen ustiapen-diseinuan ahalegin osagarri bat egitea ekarri du, tradizionalki Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoen estatistiketan jasotako informazioa antolatzeari dagokienez.

GZEZEren eta Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoaren 2015-2018 txostenak, funtsean, 2014-2017 aldian egindako lanean (2019an hedatu zena) zehaztutako lan-ildoari jarraituko dio. Lan-ildo horren joera da gizarte-zerbitzuak aztertzeari lotutako estatistika-eragiketen emaitza nagusiak elkarrekin aurkeztea.

Edukiari dagokionez, agiriak alderdi hauek hartzen ditu ardatz gisa:

- a) Gizarte-zerbitzuen sektoreko zentro, zerbitzu eta programen sistemaren aurkezpen orokorra, bereziki aipatuz egungo plazen egitura (egoitza-plazak direnena eta ez direnena).
- b) Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuari lotutako emaitza nagusien deskribapena. Ikuspegiaren ardatza soilik gastu korronearen analisisa da.
- c) Gastu korronearen finantzaketa-egituraren analisisa; erreferentzia berezia eginez administrazio publikoen eta erabiltzaileen zereginari.



d) Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko langileen egituraren xehetasunak, aintzat hartuta sektorearen alderdiak nahiz langile horien ezaugarri diren alderdi hertsiki profesionalak.

Hurbilketan, langile azpikontratatuak eta boluntarioen zereginari buruzko alderdiak ere txertatu dira.

e) Azkenik, gizarte-zerbitzuen sektorea osatzen duten zentro eta zerbitzuen araberako kudeaketaren adierazle handietako batzuen aurkezpena egingo da. Adierazle horiei esker, errazagoa da egungo zentro eta zerbitzu batzuen profil espezifikoak ulertzea.

Datuen aurkezpenarekin batera, adierazitako atal gehienetan, atxikitako lurralde-datu nagusiak adierazten dira, bai lurralde historikoaren ikuspegitik, bai txostenean baliatutako udalerrien multzokatze-sistemaren eta hiriburuen ikuspegitik ere. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde desberdinetan eta udalerrietan ikus daitezkeen aldeak zehaztu nahi dira.



2. Zerbitzuen eskaintza

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuek lurralde osoan eskaintzen dituzte zerbitzuak eta zentroak. Gizarte-prestazioen sistemak bermatzen duen babesaz gain, eskaintza hori plaza kopuru jakin batean zehazten da, eta bi plaza mota dira: batetik, egoitza-plazak, eta, bestetik, egoitzakoak ez direnak.

2.1. Egoitza-plazak

2018an, 1. taulan ikus daitekeen bezala, EAeko gizarte-zerbitzuen sistemak 29.041 egoitza-plaza eskaini dituen guztira. % 2,8ko igoera adierazten du horrek, 2017an antzemandako 28.248 plazekin erkatuta. Horiek horrela, 2012-2013 aldiko jaitsieraren eta 2014ko egonkortasunaren ostean, 2014tik 2015era bitartean hasitako errekupeazio-lerroa sendotu da, eta plaza kopurua % 1,0 igo da aldi horretan. 2016-2017 aldian zertxobait moteldu zen, eta % 2,1 baino ez zuen gora egin (2015-2016 bitarteko % 2,6 baino gutxiagoa); 2017-2018 aldian, ordea, plaza kopuruaren igoera berriro piztu da, zehazki, % 2,8.

Egoitzako plazen % 71,1 pertsona zaharren arretarako erabili dira; 2018an, 20.654 plaza egon dira. 2017-2018 bitartean, plaza horiek % 0,9 egin dute gora; hortaz, aldiaren batezbesteko orokorra baino % 1,9 txikiagoa izan da. 2015-2016 aldiko % 1,6 emaitzarekin erkatuta, moteltzeko joerak jarraitu egiten du, baina egoitza-plaza gehiago sortzeko dinamika ere pixkanaka aurrera doa, 2016-2017 aldiko % 0,4ko balioarekin erkatuta. Termino absolutuetan 179 plaza garbi sortu dira, 2017. eta 2018. urte artean. 2015-2016 aldian, ordea, 314 sortu ziren, beraz, horrekin erkatuta txikiagoa da; baina 2016-2017 aldian sortu ziren 75 plaza garbiak gainditu ditu, eta 2014-2015 aldiko 165 plazak ere bai.

Bigarren arreta arloa gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zentroena da: 3.630 plaza eskaintzen dira, guztizkoaren % 12,5. Horietatik, 3.062 (guztizkoaren % 10,5) etxebizitzak edo egoitza-zentroak dira, eta 568 (guztizkoaren % 2) gaueko harrera-zentroak. 2017. eta 2018. urte bitartean berriro igo da bazterketa-egoeran dauden pertsonen zuzendutako plaza kopurua; zehazki, % 7,4 igo da, 2017ko 3.379 plaza kopuruarekin erkatuta. Dena den, igoera hori 2016-2017 aldiko % 11 baino txikiagoa da; baita 2015-2016 aldiko % 11,4 kopuruaren aldean ere. Edonola ere, 2016-2017 bitartean gora egiteko joera etxebizitzari edota egoitza-zentroi lotzen zaie: 2017-2018 bitartean % 9,4 egin du gora (baina 2015-2016 aldiko % 12,5 eta 2016-2017 aldiko % 13,5 baino txikiagoa da). Harrera-zentroetako plazen beherakada -% 2,2 izan da; 2016-2017 aldian, ordea, egonkortuta zegoen, eta % 0,3 baino ez zuen gora egin. Egonkortasun- eta beherakada-joera hori ez dator bat 2015-2016 aldiko plazen % 7ko igoerarekin.

Bazterketaren esparruan, 251 plaza garbi sortu dira 2017-2018 aldian, 2015-2016 aldiko 311 plazetatik eta 2016-2017 aldiko 335 plazetatik behera, baina argi eta garbi gainditu ditu 2014-2015 aldiko 33 plazak. Horrela, 2012tik 2015era bizi izandako eskaintzaren jaitsierak eta ondorengo egonkortzearen hauste-dinamikak aurrera egin dute. Igoera egoitza-zentroi lotzen zaie, zentro mota horretan behera egiteko joera behatu zen 2015. urtea arte: 2.192 plaza urte horretan; eta 2012an, ordea, 2.261 plaza. 2015. eta 2016. urte artean, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako zentroetan 273 plaza gehitu dira (eta 2016-2017 aldian, 333 izan ziren). 2017-2018 aldian 264 plaza sortu dira; beraz, zertxobait moteldu da, baina argi dago gora egiten jarraitzen duela.

1. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera. 2015-2018 (Datu absolutuak, % bertikalak eta urte arteko bariazioa %-tan)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak	Egoitza-plazak
Zentro/Zerbitzu mota	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%
Egoitza-zentroak	20.068	20.382	20.457	20.636	74,4	73,7	72,4	71,1	0,9
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	18	18	18	18	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	20.086	20.400	20.475	20.654	74,5	73,7	72,5	71,1	0,9
Egoitza-zentroak	2.608	2.700	2.711	2.718	9,7	9,8	9,6	9,4	0,3
Atsedena- eta babes-zerbitzuak	44	44	44	44	0,2	0,2	0,2	0,2	0,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	2.652	2.744	2.755	2.762	9,8	9,9	9,8	9,5	0,3
Egoitza-zentroak	1.071	1.047	1.184	1.562	4,0	3,8	4,2	5,4	31,9
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	1.071	1.047	1.184	1.562	4,0	3,8	4,2	5,4	31,9
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	178	183	207	185	0,7	0,7	0,7	0,6	-10,6
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	250	250	248	248	0,9	0,9	0,9	0,9	0,0
EMAKUMEAK GUZTIRA	428	433	455	433	1,6	1,6	1,6	1,5	-4,8
Ostatu/egoitza-zentroak	2.192	2.465	2.798	3.062	8,1	8,9	9,9	10,5	9,4
Gaueko harrera-zentroak	541	579	581	568	2,0	2,1	2,1	2,0	-2,2
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	2.733	3.044	3.379	3.630	10,1	11,0	12,0	12,5	7,4
GUZTIRA	26.970	27.668	28.248	29.041	100,0	100,0	100,0	100,0	2,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika
OHARRA: Ikus atsedena- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

2. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitza-plazak (publikoak, itunduak eta pribatuak), zentro/zerbitzu motaren arabera. 2015-2018 (Plaza guztien gaineko %)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
Zentro/Zerbitzu mota	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	36,7	37,0	36,7	36,3	33,2	31,2	30,3	31,8	30,1	31,8	33,0	31,8
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	32,2	31,8	29,4	28,0	61,8	62,8	64,4	68,0	6,0	5,4	6,2	4,1
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	86,1	86,5	87,4	90,4	12,9	11,8	11,0	8,1	1,0	1,6	1,6	1,5
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	35,4	32,8	30,0	36,8	33,7	29,0	32,4	33,5	30,9	38,3	37,7	29,7
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	95,6	95,6	95,6	95,6	2,0	3,2	3,6	1,6	2,4	1,2	0,8	2,8
EMAKUMEAK GUZTIRA	70,6	69,1	65,7	70,4	15,2	14,1	16,7	15,2	14,3	16,9	17,6	14,3
Ostatu/egoitza-zentroak	30,0	29,6	29,8	28,7	24,8	23,9	22,0	18,9	45,2	46,5	48,2	52,4
Gaueko harrera-zentroak	76,5	76,3	77,8	76,9	5,9	9,0	9,0	12,0	17,6	14,7	13,3	11,1
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	39,2	38,5	38,1	36,3	21,1	21,1	19,7	17,9	39,7	40,4	42,2	45,9
GUZTIRA	39,0	39,0	38,8	38,9	33,7	32,2	31,3	32,0	27,3	28,8	29,9	29,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsoneri arreta emateko eremuan, ordea, 2017-2018 aldian igoera txikia egon da berriro (% 0,3; eta 2016-2017 aldian % 0,4 izan zen, baina argi dago 2014-2015 urte bitarteko % 1,3 eta 2015-2016 urte bitarteko % 3,5 baino txikiagoa izan dela). Plaza kopurua 2.762 izan da 2018an; eta ia 18 plaza garbi gehiago egon dira (2016an 2.744 izan ziren). Edonola ere, eskaintzak 2013. eta 2015. urteetako kopurua (2.600 plazatik gorakoa) eta 2012koa (2.566) gainditu ditu.

Desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsoneri emandako arretak gizarte-zerbitzuen hirugarren arreta-eremuan jarraitzen du: 2018an % 9,5 plaza (baina 2016koa % 9,9 izan zen, beraz, lau hamarren txikiagoa izan da)

Adingabeentzako, gazteentzako eta familientzako egoitza-zentroek plaza guztien % 5,4 hartzen dute; beraz, kasu horretan kopuru hori 2016koa (% 3,8) eta 2017koa (% 4,2) baino handiagoa da. Kasu horretan 2016-2017an jada hautsi zen plaza kopurua murrizteko aurreko joera: 2012an, 1.144 izan ziren; 2015ean, 1.071; eta 2016an, 1.047. Hala, 2017an aldaketa nabaria egon da, eta 137 plaza garbi gehitu dira, zehazki, 1.184 plaza kopurua osatu arte, 2012ko kopurua gaindituta. Gora egiteko joera 2017-2018 aldian handitu da, 491 plaza garbi sortu direlako. Termino erlatiboetan 2017-2018 aldiko igoera % 31,9 izan da, eta hori 2016-2017 aldiko % 13,1 baino askoz ere altuagoa da.

2012. eta 2015. urte bitartean emakumeentzako plaza-kopurua 433tik 428ra murriztu ondoren (-% 1,2), 2016an % 1,2 hazi zen, eta berriro iritsi ziren 2012ko 433 zenbaterokora. Gora egiteko dinamika nabarmenagoa izan zen 2017an, eta, guztira 455 plaza zeuden kolektibo horretan. 2018an, ordea, berriro egin du behera, eta 2012ko eta 2016ko 433 plaza kopurua osatu da; 2017ko datuekin erkatuta, -% 4,8 egin du behera. *

Arreta-eremu horretan plaza kopuruaren beherakada lotzen zaio tratu txarren biktimak izan ez diren emakumeei eskainitako plaza kopuruari: 185 plaza, 2018an (-% 10,6; 2017an 207 izan ziren). 2015eko eta 2016ko 178 eta 183 baino handiagoa izan da, eta 2012ko kopurutik (187) hurbil dago. Bestalde, eta 2012-2016 urteen artean hein handi batean gertatzen zen bezala, egonkortasuna da genero-indarkeria edo tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeentzako eskaintzaren ezaugarri nagusia. 2018an 248 plaza zeuden, funtsean 2015-2017 urte bitarteko maila berean, eta 2012an baino handixeagoa da (246 zeuden).

2. taulan ikus daitekeen bezala, gizarte-zerbitzu guztiei erreparatuta, egoitza-plazen banaketa titulartasunaren arabera aztertuz gero, plaza publikoek eta itunpeko plaza pribatuek pisu nabarmena dute. 2018an, % 38,9 eta % 32,0, hurrenez hurren, esfera publikoari eta esfera pribatuari dagozkie, eta araubide guztiz pribatuko ehunekoa % 29,1 da. Sektore guztiz pribatuaren pisu erlatiboak gora egiten jarraitzen zuen (2015ean % 27,3 izan zen), eta 2017an % 29,9 izan zen, baina 2017. eta 2018. urte bitartean nabarmen jaitsi da.

Plaza publikoen eragin erlatibo handiena, berriz, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroetan ikusi da 2018an (% 95,6), bai eta adingabe, gazte edo familientzako zentroetan ere (% 90,4). Proporzio hori oso altua da gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroen kasuan ere (% 76,9).

Kontrako egoeran, plaza publikoen proportziorik txikiena bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroein dagozkie (% 28,7), bai eta desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako egoitza-zentroein ere (% 28,0). Genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktimak izan ez diren emakumeei arreta emateko eremuan plaza publikoen proportzioa ere oso txikia da, zehazki,



% 36,8. 2018ko ehunekoa % 36,3tik hurbil dago, eta pertsona zaharren egoitza-zentroei dagokie: % 36,7.

Sektore horietan plaza publikoak mugatuta daude: plaza horien pisu erlatiboaren 2018ko murrizte-joerak aurrera egin du, desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsonen dagokienez (2014an, % 32,9; eta 2018an, % 28). Genero-indarkeriaren edo tratatu txarren biktimak izan ez diren emakumeei zuzendutako arretak ordea behera egiteko joera hautsi du (2015ean % 35,4 eta 2017an % 30 izan zen). 2018an % 36,8 izan da; beraz, 2015ekoa baino handiagoa ere izan da.

Gainerako zentroetan egonkortasuna da ezaugarri nabarmena. Gaueko harrera-zentroen ehunekoa % 76,9 da 2018an, eta 2016an % 76,5 izan zen. Gauza bera gertatzen da pertsona zaharren plaza publikoen kopuruarekin: % 36,3 da, eta 2015ean, % 36,7 izan zen.

Itunpeko plazei erreparatuz, horien pisu erlatiboa bereziki altua izan da 2018an, desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan. Zehazki, eskaintzen diren plaza guztien % 68 dira, berreskuratze-joera argi eta jarraituan, bai 2014ko % 58,5arekin alderatuz, eta baita 2013ko % 60,9, 2015eko % 61,8, 2016ko % 62,8 eta 2017ko % 64,4 ere kontuan hartuta.

Maila horiek EAEko % 32ko batezbesteko orokorraren ingurukoak dira adinekoentzako eta genero-indarkeriako arazoak ez dituzten emakumeentzako egoitza-zentroei dagokienez (% 31,8 eta % 33,5, hurrenez hurren). Bi kasuetan ikusi da berriki gora egin duela, aztertutako emakumeen kasuan, 2016tik 2017ra jada hautematen zen proportzioan (ehunekoak etengabe egin du gora, kasu honetan, 2016ko % 29tik 2018ko % 33,5era, ia berriro ere 2015eko % 33,7ko mailetan). Adinekoen arretari dagokionez, 2015etik 2017ra bitartean % 33,2tik % 30,3ra jaitsi ondoren, 2018an plaza publikoen proportzioa % 31,8ra iritsi da, baina oraindik ere 2015eko erregistroa baino ehuneko 1,5 puntu txikiagoa da.

Adierazitako zentro motak baino dezente beherago, itundutako plazen pisua % 18,9 da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan; eta kopuru horrek aurreko urteetan hautemandako beheranzko joerari jarraitu dio (2015ean, % 24,8). Kasu horretan, 2018koa izan da 2012tik aurrerako proportziorik txikiena.

Itunpeko plazen proportzioa askoz txikiagoa da arreta-zentroen gainerako arloetan: % 12,0 gaueko harrera-zentroetan, % 8,1 adingabe, gazte edo familientzako egoitza-zentroetan; eta % 1,6 indarkeriaren edo tratatu txarren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroetan.

Azkenik, nabarmenezkoa da plaza pribatuek bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetara eta egoitza-zentroei dagokienez duten pisua (% 52,4)¹. EAEko batezbestekotik gora daude, orobat, adinekoentzako eta indarkeriaren biktimak izan ez diren emakumeentzako egoitza-zentroei dagokienez (% 31,8 eta % 29,7 hurrenez hurren). Proportzioa askoz txikiagoa da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentroetan (% 11,1). Plaza pribatuen ehunekoa % 1,5 eta % 4,1 bitartean dago desgaitasunak edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako, adingabe, gazte eta familientzako zein genero-indarkeriaren edo tratatu txarren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroetan.

¹ Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako arreta-zerbitzuen kasuan, ñabardura batzuk aintzat hartu behar dira itunpeko plazek duten rolari dagokionez. Kontuan hartu behar dira Kontzeptuen eta Definizioen eranskinean arreta-sektore horren barruko itunpeko plazei buruz egin diren zehaztapenak.

Aurreko urteetan ikusitakoari dagokionez, eta plaza pribatuen presentzia handiena duten hiru zentro motei dagokienez, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza-zerbitzuen eta egoitza-zentroen esparruan soilik finkatu da mota horretako plazen goranzko joera oraintsuko bilakaeran. Kasu horretan, 2018ko plaza pribatuen % 52,4ko kopuruak jarraipena eman dio 2013ko gorakadalerroari (urte horretako kopurua % 41,9 baita). 2017ko % 48,2 izan daiteke 2012az geroztiko zifrarik altuena, beraz, esan daiteke berriro osatzen ari dela egoitza-zentro horietako plaza pribatuen gorakada-fase bat.

Plaza pribatuen pisuak, aldiz, behera egin du plaza horien presentzia erlatibo handia zuten beste zentro batzuetan. Horrela gertatu da, adibidez, pertsona zaharren egoitza-zentroetan (2018an, % 31,8; 2017an, % 33; eta 2012an, % 33,1; beraz, 2014. eta 2015. urteetako % 30,1 eta % 30,6 ehunekoetatik gora). Genero-indarkeriaren biktimak izan ez diren emakumeentzako zentroen egoera argiagoa da: 2018an, % 29,7, beraz, 2016-2017 aldiko zifretatik eta 2012-2013 aldiko zifretatik (37,7 eta 40,1) beherakoa. Azken kasu horretan, 2018koa izan da plaza pribatuen kopururik murriztuena, 2012az geroztik.

Gainerako egoitza-zentroi dagokienez —zeinetan nabaria baita plaza pribatuen presentzia erlatibo txikiagoa—, 2017tik 2018ra plaza pribatuen pisuak behera egiten jarraitu du eskaintza osoan, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-bizitokien arloan gorakada txikia izan arren (% 0,8tik % 2,8ra).

2.2. Egoitzakoak ez diren plazak

Gizarte-zerbitzuen euskal sisteman egoitzakoak ez diren plazen eskaintza 3. taulan jasota dago. Ikus daitekeen bezala, sistema horrek 2018an egoitzakoak ez diren 15.107 plaza dituen guztira; horrenbestez, % 5,7 igo da 2017an zeuden 14.296 plazekin alderatuta². 2012. eta 2013. urteen artean hautemandako igoeraren ondoren (12.683 tokitik 13.151 tokira), eta 2013. eta 2015. urteen bitartean zenbatekoak egonkortu ondoren, 2015-2016 aldiak gizarte-zerbitzuen eskaintzaren susperraldia ekarri du egoitzakoa ez den arretan; zehazki, % 5,5 egin du gora plaza-kopuruak. 2016tik 2017ra jaitsi arren, plaza kopuruak % 2,1 egin zuen gora (14.007tik 14.296ra); eta 2017-2018 aldian gora egin du berriro plaza kopuruak, zehazki, % 5,7 egin du gora.

Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonen sektoreak ditu mota horretako plaza gehien: 7.190 (guztizkoaren % 47,6). Hori % 7,4ko gehikuntza izan da, 2017ko 6.692 plazekin alderatuta. 2016-2017 aldian igoera moteldu ostean, 2017-2018an plaza kopurua igo da berriro; zehazki, % 2,2. Izan ere, 2014-2015 aldian eta 2015-2016 aldian ere gorakada egon zen: % 4,5 eta % 5,9, hurrenez hurren.

Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzakoa ez den arretan, eskuragarri dauden plaza gehienak eguneko asistentzia-zentroetan daude, bai eta eguneko zentroetan ere; azken horiek aldagai okupazionala eransten diote. 2018an 2.188 plaza daude, beraz, 2017an baino % 3,9 gehiago; eta 2014tik aurrerako emaitzekin erkatuta, kopuru egonkorra erregistratu da, 2.098 eta 2.188 bitarteko aldakuntzak egon baitira 2014tik 2018ra. Bestalde, aldagai okupazionala duten eguneko zentroek 2.955 plaza izan dituzte 2018an; eta 2017an 2.803 izan zituzten, beraz, % 5,4 igo dira. % 7,3 igo da, 2016ko 2.755 plazekin erkatuta.

Bestalde, suspertze- eta arreta-zentroek 778 plaza dituzte, hau da, 2016an baino % 1,7 gehiago, urte horretan 765 plaza zituztelako. 2018ko plaza kopurua, ordea, 2016koa baino –% 5,2 txikiagoa da, urte horretan 821 plaza zituztelako; izan ere, 2014tik aurrera osatu diren kopuru txikienen artean

² Analisisian sartu dira egoitza-zentroetan eskuragarri dauden egoitzakoak ez diren plazak.



bigarren postuan dago kopuru hori (urte horretan 790 plaza egon ziren zentro mota horretan). Laneratzeko zentroetan 1.261 plaza egon dira 2017an; hortaz, 2014tik aurrerako gorakada jarraituari eutsi zaio (urte horretan 296 plaza zeuden).

Adineko pertsonen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren 5.577 plaza daude 2018an, guztizkoaren % 36,9. 2015-2016ko % 4,4ko igoeraren ondoren (5.213 plazatik 5.440 plazara), 2017an egonkortu zen, % 0,3ko igoera baino ez baitzen egon, eta 5.456 plaza zeuden. 2017-2018 aldian zertxobait igo da; zehazki, % 2,2. Izan ere, esan bezala, 2018an 5.577 daude.

Eguneko asistentzia-zentroak eskaintza horren funtsezko zatia dira, 4.452 plaza biltzen baitituzte, baina kopuruak -% 0,3 egin du behera, 2017ko 4.464 plaza kopuruarekin erkatuta. Gizarte-zerbitzuen jarduera-eremu horren hedapena atzera egiten ari da. 2014-2016 aldian % 1,8 eta % 1,9 bitartean egin zuten gora (eta plaza kopurua 4.255etik 4.414ra pasa zen); 2016-2017 aldian % 1,1 baino ez zuen gora egin; eta, azkenik, 2017-2018 aldian kopuru negatiboak jaso dira.

Bestalde, adineko pertsonentzako jantokiek 763 plaza dituzte. Beraz, 2014ko eta 2015eko 528 plazekin erkatuta, nabarmen egin du gora (2017-2018 aldian, % 16; 2016-2017 aldian, % 17,9; eta 2015-2016 aldian, % 5,7; azken horrekin erkatuta igoera handia egon da).

Horrekin batera, 179 plaza gehiago ere daude adineko pertsonentzako beste zentro batzuetan.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko zerbitzuetan egoitzakoak ez diren 1.909 plaza zenbatu dira, guztizkoaren % 12,6. Izan ere, 2014-2015 aldian beherakada egon zen (1.734tik 1.560ra), baina 2015-2016 aldian % 8,7 igo zen, eta harrezkero igotzen jarraitu du: 2016-2017an % 5 egin zuen gora, eta 2017-2018 aldian % 7,2. 2018ko 1.909 plaza kopurua 2014ko baino % 10,1 handiagoa da.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroek 1.233 plaza eskaini dituzte 2018an. 2016-2017an beherakada egon zen: -% 6,9koa (kopurua 1.197tik 1.114ra jaitsi zen). 2017-2018 aldian, ordea, gora egiteko joerari eutsi zaio, eta plaza erabilgarriek % 10,7 egin dute gora, 2015-2016 aldikoekin erkatuta. Zifra handiena 2013koa da, urte horretan 1.262 egon baitziren, beraz, kopuru horretatik hurbil geratu da.

2016-2017an nabarmen egin zuten gora: % 35,9, gizarte-jantokietako plaza kopurua 473tik 643ra aldatu zen. 2018an egonkortzeko joera erregistratu da, 653 plaza egon baitira, eta 2017ko baino % 1,6 handiagoa. Gizarte-jantokien eskaintzak, duda barik, 2012koa gainditu du (urte horretan 483 plaza egon baitziren).

Azkenik, egoitzakoak ez diren plazen % 2,9 dagozkio adingabeen, gazteen eta familien arloari: 431 plaza, guztira. Kasu horretan kopuruak % 17,1 egin du gora, beraz, agerikoa da goranzko joera: 2017an 368 plaza zeuden, eta urte horretan jada 2016ko % 12,3 gainditu zen (urte horretan 324 egon baitziren). 2018ko eskaintza handiena izan da, 2013ko plaza kopuruarekin (363) eta 2017koarekin (368) erkatuta.

3. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak, zentro/zerbitzu motaren arabera 2015-2018
(Datu absolutuak, % bertikalak eta urte arteko bariazioa %-tan)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%
Zentro/Zerbitzu mota									
Egoitza-zentroak	92	208	87	91	0,7	1,5	0,6	0,6	4,6
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	122	122	92	92	0,9	0,9	0,6	0,6	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	4.330	4.414	4.464	4.452	32,6	31,5	31,2	29,5	-0,3
Jantokiak	528	558	658	763	4,0	4,0	4,6	5,1	16,0
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	141	138	155	179	1,1	1,0	1,1	1,2	15,5
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	5.213	5.440	5.456	5.577	39,2	38,8	38,2	36,9	2,2
Egoitza-zentroak	8	19	14	8	0,1	0,1	0,1	0,1	-42,9
Atsedeen- eta babes-zerbitzua					0,0	0,0	0,0	0,0	
Eguneko zentroak	2.098	2.150	2.106	2.188	15,8	15,3	14,7	14,5	3,9
Suspertze- eta arreta-zentroak	809	821	765	778	6,1	5,9	5,4	5,1	1,7
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	2.787	2.755	2.803	2.955	21,0	19,7	19,6	19,6	5,4
Laneratze-zentroak	483	803	1.004	1.261	3,6	5,7	7,0	8,3	25,6
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	6.185	6.548	6.692	7.190	46,6	46,7	46,8	47,6	7,4
Adingabe/familien egoitza-zentroak	4		4	4	0,0	0,0	0,0	0,0	
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	320	324	364	427	2,4	2,3	2,5	2,8	17,3
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	324	324	368	431	2,4	2,3	2,6	2,9	17,1
Ostatu eta egoitza-zentroak.	22	25	23	23	0,2	0,2	0,2	0,2	0,0
Eguneko zentroak	1.080	1.197	1.114	1.233	8,1	8,5	7,8	8,2	10,7
Jantoki sozialak	458	473	643	653	3,4	3,4	4,5	4,3	1,6
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	1.560	1.695	1.780	1.909	11,7	12,1	12,5	12,6	7,2
GUZTIRA	13.282	14.007	14.296	15.107	100,0	100,0	100,0	100,0	5,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



4. taula. Gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plazak: publikoak, itunduak eta pribatuak. 2015-2018

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Zentro/Zerbitzu mota	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018
	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Publikoak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Itunduak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak	Pribatuak
	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %	Plazen %
Egoitza-zentroak	6,5	8,7	31,0	30,8	15,2	8,7	23,0	17,6	78,3	82,7	46,0	51,6
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	70,6	70,0	69,6	69,1	18,8	18,7	17,9	20,1	10,6	11,3	12,5	10,8
Jantokiak	96,2	96,4	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,8	3,6	0,0	0,0
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	9,2	7,2	6,5	19,0	56,7	50,7	0,0	0,0	34,0	42,0	93,5	81,0
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	71,1	69,5	71,4	71,6	17,4	16,8	15,0	16,3	11,5	13,8	13,6	12,1
Egoitza-zentroak	0,0	31,6	14,3	0,0	25,0	36,8	28,6	0,0	75,0	31,6	57,1	100,0
Atsedeen- eta babes-zerbitzua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Eguneko zentroak	19,4	19,0	18,7	20,0	78,0	76,7	75,4	75,3	2,6	4,3	5,9	4,7
Suspertze- eta arreta-zentroak	0,0	0,0	3,4	2,6	16,9	11,6	2,0	0,0	83,1	88,4	94,6	97,4
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	21,2	21,2	20,9	19,4	2,5	2,5	2,5	4,8	76,3	76,2	76,6	75,8
Laneratze-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	100,0	100,0	100,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	16,1	15,3	15,1	14,3	29,8	27,8	25,1	24,9	54,0	56,9	59,9	60,8
Adingabe/familien egoitza-zentroak	100,0	0,0	100,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	46,3	45,7	44,0	44,0	0,0	38,3	23,4	8,2	53,8	16,0	32,7	47,8
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	46,9	45,7	44,6	44,5	0,0	38,3	23,1	8,1	53,1	16,0	32,3	47,3
Ostatu eta egoitza-zentroak.	100,0	88,0	87,0	87,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	12,0	13,0	13,0
Eguneko zentroak	12,5	11,3	13,2	12,6	31,2	40,1	33,2	33,3	56,3	48,6	53,6	54,1
Jantoki sozialak	0,0	3,2	2,3	2,3	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	96,8	97,7	97,7
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	10,1	10,1	10,2	10,0	21,6	28,3	20,8	21,5	68,3	61,5	69,0	68,5
GUZTIRA	37,7	36,4	36,7	35,8	23,3	23,8	20,7	20,8	39,0	39,8	42,6	43,4

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

4. taula aztertzen badugu, gizarte-zerbitzuetako egoitzakoak ez diren plaza erabilgarrien % 35,8 publikoak dira, eta % 20,8 plaza itunduak dira. Gainerako % 43,4 plazak pribatuak dira.

Plaza publikoei dagokienez, adineko pertsonen alorrean, plaza mota horren inpaktua oso handia da eguneko asistentzia-zentroetan (% 69,6), baita adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuetan eta jantokietan ere (mota bietan % 100 osatzen dute). Guztira, adinekoen arretaren arloan, egoitzakoak ez diren plazen % 71,6 dira publikoak. 2017an aldatu egin zen azken urteotako beherakada. Hartara, 2012. eta 2013. urteen artean % 71,3tik % 72,8ra igo ondoren, proportzioa mailaka-mailaka jaitsi da: 2015ean % 71,1 zen eta 2016an % 69,5; gero, 2017an berriro igo zen, % 71,4raino; eta gaur egun % 71,6 hartu du.

Plaza publikoen presentzia garrantzitsua da, halaber, adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan: % 44, 2018an. Kasu horretan argi ikusi da plaza publikoen garrantziak gorakada jarraitua izan duela: 2012an, % 30,9 eta 2015ean % 46,3raino iritsi zen. 2016. eta 2017. urte artean eskaintza publikoa jaitsi zen: % 44raino, 2017an; eta proportzio horri eutsi zaio 2018an ere bai.

Desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsonen arreta emateko eremuan, eguneko asistentzia-zentroetako plaza publikoen kopurua txikiagoa da, okupazio-jarduerekin konbinatu gabe edo haiekin batera (% 20 eta % 19,4, hurrenez hurren). Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan ere (% 12,6) gauza bera gertatzen da.

Kasu horietan 2012tik 2014-2015 aldia arte gora jotzeko joera behatu zen plaza publikoen kopuruari dagokionez. 2015etik 2017ra, ordea, desgaitasun-egoeran edo gaixorik dauden pertsonentzako zentroetan egonkortasuna edo behera jotzeko joera behatu zen (okupazio-jarduerak ere eskaintzen zituzten zentroetan % 21,2tik % 20,9ra jaitsi zen; eta okupazio jarduerarik gabeko eguneko zentroetan % 19,4tik % 18,7ra). Joera horrek 2018a arte jarraitu zuen eguneko eta okupazio-zentroetan, eta plaza publikoen kopuruak berriro egin zuen behera, % 19,4raino. Eguneko asistentzia-zentroetan, ordea, gora egin du plaza publikoen proportzioak, zehazki, % 20raino. 2012az geroztik zifrarik altuena izan da hori (baina, zentro mota horien modadun tarteak % 18,1 eta % 20 artean egon da 2012-2018 aldi osoan).

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan 2012-2015 aldian gora egin zuen plaza publikoen kopuruak: % 8,3tik % 12,5era; baina gero, 2016an, berriro egin zuen behera, % 11,3raino. 2017an berriro hasi da igotzen, eta % 13,2ra iritsi da; baina 2018an, ordea, zertxobait jaitsi da, % 12,6raino (2015ean ere % 12,5 izan zen, beraz, antzekoak izan dira).

Plaza asko daukaten beste zerbitzu mota batzuetan ere oso txikia da plaza publikoen kopurua; edo ez dago bat ere, 2018an gertatu zen bezala. Hori gertatzen da, adibidez, desgaitasun eta gaixotasun eremuetan: suspertze- eta arreta-zentroetan (% 2,6), laneratzeko zentroetan (% 0,0); eta bazterketa arloan ere gauza bera gertatzen da gizarte-jantokietan (% 2,3).

Itunpeko plazen pisua oso altua da desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan, guztiaren % 75,3. Proportzio hori 2015eko % 78 baino txikiagoa da; baita 2012ko % 76,2 baino txikiagoa ere.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetako plazen % 33,3 itunduak dira. 2017an itunpeko plazek % 33,2 osatzen zuten, beraz, antzeko kopuruak dira. Hortaz, 2014ko % 26,2ko igoera osatu zenetik, igotzen jarraitu du. Hala eta guztiz ere, 2012., 2013. eta 2016. urteetako % 40ko kopuruetatik baino txikiagoa da.

Adineko pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan ere handi samarra da itunpeko plazen kopurua. Kasu horretan 2018ko % 20,1 izan da 2012tik aurrerako zifrarik handiena (2012an



% 19,5era iritsi zen). Dena den, % 18 eta % 20 bitarteko modadun tarteari eutsi zaio zentro mota horretan.

Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako suspertze- eta arreta-zentroetan 2015ean gora egin zuen (% 16,9); baina 2016an jada behera egiten hasi zen (% 11,6). Gero, 2017an % 2 izan zen, eta 2018an, % 0. Horrekin batera, gazte eta familientzako eguneko arreta-zentroetan ere behera doa itunpeko plazen kopurua: 2018an % 8,2 izan dira.

Hertsiki pribatuak diren plazen kopurua oso txikia da adineko pertsonentzako arreta-zentroetan, eta jantoki-zerbitzuetan ez dago bat ere. Laguntza-zentroetan ere oso txikia da plaza pribatuen kopurua. Laguntza-zentroetan kopuruak apur bat gora egin zuen 2014tik 2017ra (% 10,2tik % 12,5era), baina 2018an berriro egin du behera, % 10,8ra.

Beste zerbitzu batzuetan, aldiz, kontrakoa gertatzen da, plaza gehienak pribatuak direlako. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan, adibidez, 2014tik 2016ra behera egin zuten (% 64,3tik % 48,6ra), baina 2017an berriro igo zen: % 53,6raino, eta 2018an % 54,1era iritsi zen.

Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako arreta-zentroetan oso handia da plaza pribatuen kopurua: eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan % 75 baino handiagoa da; eta suspertze- eta arreta-zentroetan ere bai (% 75,8 eta % 97,4, hurrenez hurren). Eguneko zentroetan eta okupazio-zentroetan egonkortasun handia erregistratu da 2015etik aurrera (% 75,3 eta % 76,7 bitarteko proportzioa). Suspertze- eta arreta-zentroetan, ordea, behera egin zuen 2013tik 2015era (% 93tik % 83,1era) baina, harrezkero, arreta pribatuaren arloan gora egin du kopuruak, eta zifrarik altuena 2018koa izan da: % 97,4.

Bestalde, arreta pribatua % 100ekoa da desgaitasun- eta gaixotasun-arazoak dituzten pertsonentzako laneratze-zentroetan. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gizarte-jantokietan ere antzeko kopurua erregistratu da (2018an % 97,7).

Arreta pribatuan (itunduan zein ez) 2015. eta 2016. urte bitarteko aldaketa nagusia adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretan ikusi da. Kasu horretan 2016ko eskaintza osoaren % 38,3 eskaintza itundua izan da; izan ere, 2015etik 2016ra behera egin zuen hertsiki pribatua den eskaintzak (% 53,8tik % 16ra). 2016. eta 2018. urte bitartean hertsiki pribatua den arretak gora egin du, eta % 47,8raino iritsi da 2018an. Itunpeko plazak, ordea, gutxiagotu dira 2016tik 2018ra (% 38,3tik % 8,2raino, zehatz-mehatz).

Suspertze- eta arreta-zentroetako ekintza pribatuaren monopolizazioarekin eta beste elementu batzuekin batera, adingabe, gazte eta familientzako eguneko arretako zentroen dinamika ere faktore erabakigarria da egoitzakoak ez diren zerbitzu guztietako plaza pribatuen pisu erlatiboaren gorakada-prozesuan. Plaza pribatuen proportzioak % 37,5 egin zuen gora 2012an, eta 2016an % 39 eta % 40 bitarteko ehunekoetan egon zen. 2017an % 42,6 izan, eta 2018an % 43,4ra iritsi zen.



3. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastua

Atal honetan gizarte-zerbitzuetako eta prestazio ekonomikoetako gastu korrante osoa aztertzen dugu, zentro edota zerbitzu eta prestazio mota aintzat hartuta.

3.1. Gastu osoa

Gastuari buruzko datu garrantzitsuenak 5. eta 6. tauletan aurkezten dira. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian eta prestazioen sisteman eginiko gastua 2.150,48 milioi eurokoa izan zen 2018an. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiak gastu horren % 71,2 hartzen du: guztira 1.530,89 milioi izan dira 2018an. Prestazio-sistemak gainerako % 28,8 hartzen du: 619,59 milioi. Ia-ia guztia sektore publikoko prestazioei dagokie (614,37 milioi, hirugarren sektoreko erakundeek kudeatutako 5,22 milioiren aldean).

Oro har, biztanleko gastua 986,26 eurokoa izan da pertsonako 2018an. 702,10 euro gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari dagokio; eta gainerako 284,16 euroak, prestazioen sistemari.

2018ko gastua 2015ekoa baino % 7,45 handiagoa izan da (urte hartan 2.001,34 milioi gastatu baitziren). Hala eta guztiz ere, aurreko urteetako gastua gero eta handiagoa zen (2014-2015 aldian, % 1,10; 2015-2016 aldian, % 3,60; eta 2016-2017 aldian ere % 2,97ra iritsi zen) baina 2017-2018 aldian behera egin du gora jotzeko prozesuak eta % 0,72ko izan da.

Gastuaren barne-dinamikaren azterketa xehatua egiteko zenbait ñabardura esanguratsu aipatu behar dira. Batetik, 2017. eta 2018. urte bitartean gastuaren errealitate negatiboaren bilakaera egiaztatu da prezio konstanteetan: -% 0,24 izan da, eta % 0,72koa termino korrantetan. Kontuan hartzen badugu 2015-2016 aldian % 2,05 eta 2016-2017 aldian % 1,87 izan zela kopuru konstanteetan, aldaketa hori garrantzitsua izan da. Diferentziala handixeagoa da biztanleko gastu konstantearen bilakaerari erreparatzen badiogu: 2015-2016 aldian % 2,11 egin zuen gora, eta 2016-2017 aldian, % 1,68, baina 2017-2018 aldian, ordea, negatibo bihurtu da: -% 0,45.

Hala eta guztiz ere daturik deigarriena eta esanguratsua hau da: 2015-2017 aldian bezala, 2017. eta 2018. urte bitartean gastuaren gorakada finkatu egin da, eta hertsiki lotu zaio gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari. Horiek horrela, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiak 2017. eta 2018. urte bitarteko gastuaren gorakada-joerari eutsi dio: % 3,54, termino korrantetan; % 2,55, termino konstanteetan; eta % 2,33, gastu konstantean.

Dinamika horrek finkatu egin du 2015ean eta 2016an behatu zen gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua suspertzeko lerro argia. Zehazki, 2014. eta 2015. urte bitartean gastuaren beherakada erreal gertatu zen (termino konstanteetan eta termino korrantetan); 2015-2016 aldian, ordea, % 5,11ra igo zen; eta 2016-2017 aldian, % 5,51ra (ia iritsi zen 2013-2014 aldiko kopuruetara; zehazki, aldi horretako gastuaren gorakada nominala % 5,79 izan zen). Gora egiteko erritmoak 2017. eta 2018. urte bitartean behera egin duen arren, positiboa izaten jarraitu du, eta % 3,54 izan da.

5. taula.

Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2015-2018
(Gastu nominala -euroak milioitan-, % bertikalak, % BPGd, biztanleko gastua eurotan eta gastuaren %-aren urte arteko bariazioa)

Gastu mota	2015				2016				2017				2018				Urte arteko bariazioa %-tan			
	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua/biz.	2015/2016	2016/2017	2017/2018	2015/2018
Gastu arrunta guztira	2.001,34	100	2,92	920,92	2.073,39	100	2,91	954,65	2.135,03	100	2,90	981,25	2.150,48	100	2,80	986,26	3,60	2,97	0,72	7,45
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.333,14	66,6	1,95	613,44	1.401,25	67,6	1,97	645,18	1.478,49	69,2	2,01	679,51	1.530,89	71,2	1,99	702,10	5,11	5,51	3,54	14,83
Gizarte-prestazio publikoak	663,53	33,2	0,97	305,32	669,86	32,3	0,94	308,42	651,71	30,5	0,88	299,52	614,37	28,6	0,80	281,76	0,95	-2,71	-5,73	-7,41
Gizarte-prestazio pribatuak	4,67	0,2	0,01	2,15	2,28	0,1	0,00	1,05	4,84	0,2	0,01	2,22	5,22	0,2	0,01	2,40	-51,08	111,69	8,06	11,90

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

6. taula.

Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta. 2015-2018 (Gastua 2018ko prezioetan -euroak milioitan- eta urte arteko bariazioa %-tan)

Gastu mota	2015	2016	2017	2018	Urte arteko bariazioa %-tan			
	Miloi euro	Miloi euro	Miloi euro	Miloi euro	2015/2016	2016/2017	2017/2018	2015/2018
Gastu arrunta guztira	2073,73	2116,19	2155,72	2150,48	2,05	1,87	-0,24	3,70
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1381,36	1430,17	1492,81	1530,89	3,53	4,38	2,55	10,82
Gizarte-prestazio publikoak	687,53	683,68	658,02	614,37	-0,56	-3,75	-6,63	-10,64
Gizarte-prestazio pribatuak	4,84	2,33	4,88	5,22	-51,82	109,42	7,02	8,00

(Gastua 2018ko prezioetan -euro/biztanleko- eta urte arteko bariazioa %-tan)

Gastu mota	2015	2016	2017	2018	Urte arteko bariazioa %-tan			
	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	2015/2016	2016/2017	2017/2018	2015/2018
Gastu arrunta guztira	954,22	974,36	990,76	986,26	2,11	1,68	-0,45	3,36
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	635,63	658,49	686,09	702,10	3,60	4,19	2,33	10,46
Gizarte-prestazio publikoak	316,37	314,79	302,43	281,76	-0,50	-3,93	-6,83	-10,94
Gizarte-prestazio pribatuak	2,23	1,07	2,24	2,40	-51,79	109,04	6,80	7,64

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Duela gutxiko hobetze-lerroa agerikoa izan da 2018ko prezio konstanteetan ere: 2017-2018 aldian, % 2,55; baina 2016-2017 aldiko % 4,38 eta 2015-2016 aldiko % 3,53 baino txikiagoa, eta oraindik ere urrun dago 2013-2014 aldiko % 6,49. Oso antzekoa bada ere, duela gutxiko hobekuntza txikixeagoa da biztanleko gastuari dagokionez, prezio konstanteetan: 2017-2018 aldian % 2,55 egin zuen gora; 2015-2016 aldian, ordea, % 3,60; eta 2016-2017 aldian, % 4,19.

Datuek erakusten dute 2017. eta 2018. urte bitartean jarraitu egin dutela gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren gastuen gorakada esanguratsuek, apur bat behera egin duten arren. Gastuaren beherakada, beraz, era eskusiboan lotzen zaie gizarte-prestazioei. 2012. eta 2015. urte bitarteko gizarte-prestazio publikoen gastuaren gorakada nagusiaren aldean, 2016-2017 aldian gastu hori behera egiten hasi zen (-% 2,71), eta lehenengo aldiz kopuru negatiboak jaso ziren aurreko urteetan hasitako gastua txikiagotzeko joera horretan. Ildo horretatik, 2013-2014 aldian % 10,41 egin zuen gora; baina 2014-2015 aldian, ordea, % 4,80ra jaitsi zen; eta 2015-2016 aldian, % 0,95ekoa baino ez zen izan. 2017-2018 aldian behera egiteko 2016-2017 aldiko joera egonkortu zen, eta prestazio publikoen gastu korrontearen beherakada -% 5,73koa izan zen.

Gastu konstanteari dagokionez, beherako bilakaera askoz ere argiagoa da: % 11,13ko gehikuntza izan zen 2013. eta 2014. urte bitartean, % 4,48koa 2014. eta 2015. urte bitartean, eta -% 0,56ko jaitsiera izan da 2015. eta 2016. urte artean. Dena den, beherakada 2016. eta 2017. urte bitartean bizkortu zen, eta -% 3,75era eta 2017-2018 aldian -% 6,63ra ere iritsi da. Termino konstanteetan prestazio publikoetan 2018an eginiko gastua oso urrun dago 2015eko gastu kopurutik (-% 10,64 beherakada izan du, zehazki, 687,53 milioitik 614,37 milioira). Prezio konstanteetan egin den gastu-efortzua oso bestelakoa izan da aldi horretan gizarte-zerbitzuen nukleoan: gastuak % 10,82 egin du gora 2015. eta 2018. urte bitartean.

Eremu pribatuan, ordea, prestazioetako gastuak aurrera egiten jarraitu du 2017. eta 2018. urte bitartean. Kasu horretan gastu korronte nominalak % 7,02 egin du gora, eta suspertze-lerro hori lotu zaio 2016-2017 aldiko % 111,69ko gorakadari. Dena den, 2015-2016 aldian gastu horrek -% 51,08 egin zuen behera. 2015-2018 aldi osorako, % 8,0koa izan da zifra konstanteetako gorakada.

Aipatutako aldaketek eragina dute gastu korronte osoaren banaketan, eta gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiak pisu erlatibo gorakorra izan du. Sektore pribatuak guztizko gastuari egindako ekarpena % 68,7 izan zen 2013an, eta % 66,6ra jaitsi zen 2015ean. 2016an, ordea, % 67,6ra igo da; 2017an, % 69,2ra; eta 2018an, % 71,2ra. 2012az geroztik, 2018an % 70eko ataria lehenengo aldiz gainditu da.

Sektoreak ekonomian duen garrantzi osoa kontuan hartzen badugu, gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen gastuak barne-produktu gordinen duen pisuak behera egin du, eta 2018an % 2,80 baino ez da izan. Horrela, 2015ean (% 2,92) hasi zen beheranzko joerak jarraitu egin du: 2016an (% 2,91); eta 2017an (% 2,90). 2014ko kopuruarekin erkatuta, gizarte-zerbitzuen gastuak barne-produktu gordinaren gainean duen pisu txikiagoak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian ere eragin txikiagoa izan du. 2013ko barne-produktu gordinaren % 1,95etik 2014ko % 2,02ra igo zen gastua. Ondoren, 2015ean % 1,95era itzuli zen, eta, geroago, gora egin zuen, 2017ko % 2,01eraino. Kopurua 2018ko kopuruetatik hurbil dago (% 1,99), behera egiteko joera egon arren.

Guztizko gizarte-gastuaren beherakadan, ordea, askoz ere erabakigarriagoa da prestazio publikoen dinamika. 2015. eta 2016. urte artean eta, lehenengo aldiz 2012az geroztik, gizarte-prestazioek barne-produktu gordinen duten partaidetzak behera egin zuen: % 0,97tik % 0,94ra. Jarrera horrek aurrera egin zuen 2017an, eta urte horretan prestazio horien pisuak % 0,88ra egin zuen behera. Proporzioa % 0,80 izan da 2018an.

3.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua

3.2.1. Arloa eta zentro edota zerbitzu mota

7. eta 8. taulek erakusten dute zer gastu korrante izan den gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, gastuaren sektorearen eta zentro edo zerbitzu motaren arabera.

7. taulan ikus daitekeen bezala, 2018an gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren ezaugarri diren 1.530,89 milioi euroetatik gehien-gehiena mendekotasuna duten biztanleen arretara bideratu da oro har, bai eta adinekoen edo desgaitasun edo gaixotasunen arloko arazoak dituzten pertsonen arretara ere. 2018an gastuaren % 73,5 kolektibo horretara bideratu zen, guztira, 1.125,03 milioi euro.

Gastu-sektore horren zatirik handiena adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuena da; zehazki, guztizko gastuaren % 44,3 gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian metatzen da (677,52 milioi euro). Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako zentroei edo zerbitzuei esleitutako partidak guztizko gastuaren % 14,1 hartzen du (215,49 milioi); ondoren, mendekotasuna arintzeko prestazioek % 9,0 hartzen dute (137,50 milioi). Etxeko laguntza-, telelaguntza- eta zaintzaileei laguntzeko programek gastu aztertuaren % 6,2 hartzen dute (94,53 milioi).

Mendekotasunari, adineko pertsonen eta desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonen arreta emateko gastu-lineak gora egin du 2017. eta 2018. urte artean, eta aztertutako aldian % 3,31koa izan da gehikuntza nominala. Hazkunde-erritmo hori 2015-2016 aldikoa (% 4,11) eta 2016-2017 aldikoa (% 3,96) baino txikiagoa izan da. Prezio konstanteen terminoetan gorakada % 2,32koa izango da, baina kopuru hori 2015-2016 aldikoa (% 2,55) eta 2016-2017 aldikoa (% 2,85) baino txikiagoa da.

2015ean eta 2017an bezala, mendekotasunari, adineko pertsonen eta desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonen arreta emateko gastua (% 3,31) 2017an eta 2018an berriro jaitsi da gizarte-zerbitzuen nukleoaren hazkunde orokorraren batezbestekotik behera (% 3,54). Horrela, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren arloko gastuak 2015etik aurrera izan duen beherakada-lerroak jarraitu egin du. Pisu hori % 75,5 izan zen 2015ean, eta 2013ko kopuruak (% 76) baino ez du gaindu emaitza hori. Honela aldatu da: 2016an, % 74,8; 2017, % 73,7; 2018an, % 73,5. Aipatutako proportzioa 2012. eta 2014. urteetan erregistratutako zifretatik hurbil dago (% 74ko zenbatekoak baino txikiagoak izan ziren).

Aintzat hartutako arreta-eremuetan (mendekotasuna, adinekoak eta desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonak) oso dinamika desberdinak hauteman dira 2017. eta 2018. urteetan izandako gastuaren bariazioan, zentro, zerbitzu edo programa motaren arabera. Gastu-terminoetan etxeko laguntzak, telelaguntzak eta zaintzaileei laguntzeko programek izan dute bilakaera txikiena, aldi horretan.



**7. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta gastu-sektorearen arabera. 2015-2018
(Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta bariazioa 2017-2018, nominala eta 2018ko prezioetan)**

	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2017-2018 aldian	
	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Arrunta	2018ko prezioak
	%	%	%	%	%	%	%	%	%-tan	%-tan
GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	1.333.143.130	1.401.251.572	1.478.488.049	1.530.887.362	100	100	100	100	3,54	2,55
Egitura orokorra (defizita/superabita)	67.421.180	81.941.791	77.544.634	68.185.726	5,1	5,8	5,2	4,5	-12,07	-12,91
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	100.032.383	103.902.703	132.789.052	142.116.991	7,5	7,4	9,0	9,3	7,02	6,00
EGITURAREN GASTUA	167.453.563	185.844.494	210.333.686	210.302.717	12,6	13,3	14,2	13,7	-0,01	-0,97
Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak	611.830.963	630.951.935	651.613.538	677.522.083	45,9	45,0	44,1	44,3	3,98	2,98
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak	192.715.394	200.394.544	209.221.280	215.487.782	14,5	14,3	14,2	14,1	3,00	2,01
Etxeo laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesa	90.064.125	90.974.870	97.233.029	94.526.586	6,8	6,5	6,6	6,2	-2,78	-3,72
Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak	111.520.144	125.136.069	130.904.487	137.496.963	8,4	8,9	8,9	9,0	5,04	4,03
GASTUA MENDEKOTASUNA, ADINEKOAK, DESGAITASUNA	1.006.130.626	1.047.457.418	1.088.972.334	1.125.033.414	75,5	74,8	73,7	73,5	3,31	2,32
Haur, gazte eta familientzako eta emakumeentzako zentro eta zerbitzuak	75.316.250	78.829.668	87.523.874	97.350.385	5,6	5,6	5,9	6,4	11,23	10,16
Tratu txarren, harreraren, adopzioaren arloko arretarako programak eta familiako esku-hartzearen arloko programak	39.708.398	42.258.054	42.935.253	45.173.721	3,0	3,0	2,9	3,0	5,21	4,20
Tratu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoak	922.866	897.156	1.068.408	1.014.551	0,1	0,1	0,1	0,1	-5,04	-5,95
GASTUA HAUR, GAZTE, FAMILIA (tratu txarren prebentzioa/arreta barne)	115.947.514	121.984.878	131.527.535	143.538.657	8,7	8,7	8,9	9,4	9,13	8,08
GASTUA BAZTERKETA	43.611.427	45.964.782	47.654.494	52.012.574	3,3	3,3	3,2	3,4	9,15	8,10

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

**8. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren arabera. 2015-2018
(Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta 2017-2018 bariazioa, nominala eta 2018ko prezioetan)**

	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2017-2018 aldian	
	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Arrunta	2018ko prezioak
	%	%	%	%	%	%	%	%	%-tan	%-tan
Zerbitzu mota										
GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	1.333.143.130	1.401.251.572	1.478.488.049	1.530.887.362	100	100	100	100	3,54	2,55
Egitura orokorra (defizita/superabita)	67.421.180	81.941.791	77.544.634	68.185.726	5,1	5,8	5,2	4,5	-12,07	-12,91
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	100.032.383	103.902.703	132.789.052	142.116.991	7,5	7,4	9,0	9,3	7,02	6,00
EGITURA	167.453.563	185.844.494	210.333.686	210.302.717	12,6	13,3	14,2	13,7	-0,01	-0,97
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	552.158.949	569.669.073	588.394.522	610.024.477	41,4	40,7	39,8	39,8	3,68	2,68
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	113.053.812	117.307.554	120.399.510	124.548.032	8,5	8,4	8,1	8,1	3,45	2,45
Adingabeentzako/familientzako egoitza-zentroak	64.574.190	66.793.735	74.016.355	83.033.120	4,8	4,8	5,0	5,4	12,18	11,11
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	5.852.371	6.477.572	6.542.123	6.451.721	0,4	0,5	0,4	0,4	-1,38	-2,33
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	33.630.796	35.346.655	37.690.315	40.782.295	2,5	2,5	2,5	2,7	8,20	7,17
EGOITZA-ZENTROAK	769.270.118	795.594.589	827.042.825	864.839.645	57,7	56,8	55,9	56,5	4,57	3,57
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	58.472.319	60.096.117	61.810.463	65.374.398	4,4	4,3	4,2	4,3	5,77	4,75
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	34.899.592	35.334.280	34.356.388	34.964.594	2,6	2,5	2,3	2,3	1,77	0,79
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	36.049.470	38.391.707	43.709.450	42.799.472	2,7	2,7	3,0	2,8	-2,08	-3,02
Adingabe/familientzako eguneko arreta	2.590.978	2.948.756	4.262.654	4.992.928	0,2	0,2	0,3	0,3	17,13	16,01
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	8.004.870	8.867.857	8.433.338	9.598.764	0,6	0,6	0,6	0,6	13,82	12,73
EGUNEKO ZENTROAK	140.017.229	145.638.717	152.572.293	157.730.156	10,5	10,4	10,3	10,3	3,38	2,39
ETXEKO LAGUNTZA	81.337.202	81.533.374	88.542.862	85.952.755	6,1	5,8	6,0	5,6	-2,93	-3,86
TELELAGUNTZA ETA ZAINZTAILEENTZAKO BABESA	8.726.923	9.441.496	8.690.167	8.573.831	0,7	0,7	0,6	0,6	-1,34	-2,29
ESKU-HARTZE ETA EKINTZA FAMILIARREKO PROGRAMAK	42.007.109	44.867.659	45.637.995	48.046.337	3,2	3,2	3,1	3,1	5,28	4,27
MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK ETA BESTE	112.443.010	126.033.225	131.972.895	138.511.514	8,4	9,0	8,9	9,0	4,95	3,95
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	11.887.976	12.298.018	13.695.326	16.930.407	0,9	0,9	0,9	1,1	23,62	22,44

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



lido horretatik, 2016. eta 2017. urte artean gastuak % 6,88 egin zuen gora (% 5,73 termino konstanteetan). Dinamika hori ez zettorren bat 2015-2016 aldiko gehikuntza nominalarekin; zehazki, % 1,01 izan zen, eta horrek gastuaren beherakada erreala eragin zuen (-% 0,50). 2017-2018 aldian antzeko egoera osatu da: etxeko laguntzari, telelaguntzari eta zaintzaileei laguntzeko programei lotutako gastuak -% 2,78 egin du behera (eta termino konstanteetan, -% 3,72).

8. taulan ikus daitekeen moduan, bilakaera horren funtsezko alderdia etxeko laguntzari lotutako gastuaren hurrengo beherakada izan da, zehazki, 2017. eta 2018. urte bitartekoa, 2016an eta 2017an osatu zen suspertzearen aldean.

Aurreko urteekin erkatuta, 2015-2016 aldian gastuak termino nominaletan lehenengo aldiz egin zuen gora (+% 0,24), baina termino konstanteetan aurreko aldietako lerro negatiboak jarraitu egin zuen, zehazki, -% 1,26ko beherakada osatu zen. 2016. eta 2017. urte artean etxeko laguntzari lotutako gastu korrontek % 8,6 egin zuen gora (% 7,43, termino konstanteetan). Gizartegintzaren arlo horretako gastua errekuiperatzea aldi horretako datu esanguratsuenetakoa izan zen, 2016-2017 aldiaren alderdi onen artean. 2017an eta 2018an, ordea, etxeko laguntzaren arloko gastuak -% 2,93 egin zuen behera, gastu korronteari dagokionez; eta -% 3,86, gastu konstanteari dagokionez.

2017an eta 2018an telelaguntza-gastuak ere behera egin zuen, zaintzaileei laguntza emateko programa guztiekin batera aztertuta (-% 1,34 eta -% 2,29, hurrenez hurren).

7. taulari erreparatzen badiogu, deigarria da mendekotasun-prestazioei lotutako gastuaren gehikuntza 2017-2018 aldian (% 5,04 gastu nominalean, eta % 4,03 termino konstanteetan). Argi dago zifra horiek 2015-2016 aldikoak baino txikiagoak direla (% 12,21 eta % 10,53, hurrenez hurren), baina gora jotzeko erritmoak 2016-2017 aldikoak baino handiagoak dira (% 4,61 nominalean; eta % 3,49, termino konstanteetan); hortaz, prestazio horiei lotutako gastua suspertzeko funtsezko lerroa sendotu dute. 2015-2018 aldiko dinamikak, beraz, aldaketa handia ekarri du prestazio horiek 2014. urte artean izan zuten gastuaren gorakada mugatuarekin erkatuta. Izan ere, urte horretatik aurrera, hain zuzen, gastua berriro igotzen hasi zen.

Halaber, desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako zentroen edota zerbitzuen arloko gastuak ere 2017-2018 aldian gora egin zuen: termino nominaletan, % 3; eta prezio konstanteetan, % 2,01. Eta are argiagoan, adinentzako zentroen eta zerbitzuen arloetan (% 3,98, termino nominaletan; eta % 2,98, prezio konstanteetan).

Adineko pertsonentzako arretari dagokionez, 2015etik aurrera gastua prezio konstanteetan nabarmen areagotu zen: 2015-2016 aldian, % 1,58ko gorakada; 2016-2017 aldian, % 2,17; eta 2017-2018 aldian, % 2,98. 2012an eta 2015ean gertatu zen bezala, 2017-2018 aldian adineko pertsonentzako zentroetan edota zerbitzuetan egindako gastuaren gorakada-mailak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekotik gorakoak izan dira. Horrela, zentro mota horretako gastua hedatzeko dinamika finkatu da 2012-2018 aldian.

Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako zentroyen edota zerbitzuen arloan ere antzeko joera osatu da. 2015etik aurrera, hazkunde-erritmoak gora egin du termino konstanteetan: 2015-2016 aldian, % 2,43; 2016-2017 aldian, % 3,29. Gorakada-lerroak 2017an eta 2018an jarraitu egin du; baina % 2,01ekoa izan da, hots, 2015-2017 aldiko kopuruak baino txikiagoa. Gastuaren dinamika hedakorra 2012-2018an nabaria da, baina adineko pertsonentzako arretan behatutakoa baino txikixeagoa.

Haur, gazte eta familien arretara bideratutako zentro, zerbitzu eta programetan egindako gastua, aldiz, horren barruan sartuta genero-indarkeriaren eta tratu txarren aurkako prebentziora eta borrokara bideratutako ekintzak ere, 143,54 milioi eurora iritsi zen 2018an, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusira lotutako gastu osoaren % 9,4.

Gastu horren muina haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuei dagokie, gastu osoaren % 6,4 hartzen baitute (97,35 milioi euro). Tratu txarrei, adopzioari arreta emateko programek eta familietan esku hartzeko gainerako programek gastuaren % 3 hartzen dute (45,17 milioi). Gainerako % 0,1 genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktimei zuzendutako prestazioei dagokie (1,01 milioi).

Arreta-eremu horretan, eta jada 2012an eta 2017an behatutakoaren ildotik, gehikuntza nominala % 9,13koa izan da (% 8,08 termino konstanteetan). Horrela, 2017-2018 aldiko gastuaren gorakada gizarte-zerbitzuen nukleo osoarena baino handiagoa da.

Kasu horretan ere, ordea, alde handiak daude barnean. Hauxe da daturik deigarriena: 2017-2018 aldian haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuen gastua handitzeko erritmoak (% 11,23, termino korrontetan) modu argian gairitu du gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren gastua. Termino konstanteetan % 10,16ko gehikuntza osatu da, beraz, jada handia zen 2016-2017 aldiko % 9,84tik gorakoa da; eta 2015-2016 aldiko % 3,1 baino hiru aldiz handiagoa da.

Hortaz, 2014tik 2015era behatzen hasi zen joera-aldaketa hori 2015-2018 aldian indartu egin da zentro eta zerbitzu mota horretako gastua handitzeko erritmoaren bidez. Hortaz, 2013-2014 aldiko murrizketari amaiera eman zitzaion. Murrizketa horrek 2012-2015 aldiko gastu-mailaren egonkortasuna zehaztu zuen; izan ere, gastua ia ez zen igo aldi horretan.

8. taulan ikus daitekeen bezala, aipatutako dinamika adingabeentzako eta familientzako egoitza-zentroetan eginiko gastuaren bilakaerari dagokio. Termino konstanteetan zentro mota horretako gastuak -% 1,69 egin zuen behera 2012. eta 2015. urte artean; eta 2015. eta 2016. urte artean % 1,89 egin du gora. Horren ostean, gastuak nabarmen egin du gora: 2016-2017 aldian % 9,62ko igoera konstantea izan du; eta 2017-2018 aldian, % 11,11koa.

Dinamika horrekin batera, 2015etik aurrera, emakume, adingabe eta familiei eguneko arreta emateko programei esleitutako gastua nabarmen areagotu da: 2015-2016 aldian prezio konstanteetan % 12,10 izatetik 2016-2017 aldian % 43,01 izatera aldatu zen, eta 2017-2018 aldian oraindik ere % 16,01 zen.

Berriro 7. taulari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu 2017-2018 aldian tratu txarrei, harrerari eta adopzioari arreta emateko eta familietan esku hartzeko gainerako programetan gastua errekuperatu dela. Programa horiek nabarmen handitu ziren 2012-2016 aldian; eta, bereziki, 2015. eta 2016. urte artean (+% 4,83, prezio konstanteetan). Hala eta guztiz ere, 2016. eta 2017. urte artean, hazkunde-erritmoa nabarmen baretu zen: % 1,60 termino nominaletan; eta % 0,51, prezio konstanteetan. 2017. eta 2018. urte artean gastuak berriro egin zuen gora, zehazki, % 5,21eko gehikuntza ezarrita



(+% 4,20, prezio konstanteetan), eta gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekoa gainditu zuen.

Aztertu dugun arreta-eremuan, 2016-2017 aldiko gastuaren gehikuntzarik handiena tratu txarren biktimei zuzendutako prestazio ekonomikoetara bideratu zen (% 19,09, eta % 17,81 termino konstanteetan). Esku hartze horretan, hain zuzen ere, gastua biziki txikiagotu zen 2015-2016 aldian (-% 4,24, zifra konstanteetan). Horrela, esku-hartze horretan 2014-2015 aldian behatu zen gastua igotzeko joera berreskuratu zen. 2017-2018 aldian berriro murriztu da, eta beherakada nominala -% 5,04 (-% 5,95, prezio konstanteetan). 2018an termino nominaletan tratu txarren biktimei emandako prestazio ekonomikoen gastua 2014koa baino % 15,7 handiagoa izan da.

Edonola ere, 2018an haurren, gazteen eta familien sektoreko gastuan ikusten den gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekotik gorako ildoak berekin ekartzen du nukleo nagusi horrek guztizko gastuan partaidetza handixeagoa baino ez edukitzea, baina, halaber, partaidetza esanguratsua da. 2014ko % 8,4tik 2015-2016 aldiko % 8,7ra aldatu zen, eta 2017an % 8,9ra igo zen. 2018an, % 9,4 izan da, beraz, gastuaren partaidetza-ehunekoa 2013koa baino % 9 handiagoa da.

Gizarte-bazterketaren aurkako zentroetan, zerbitzuetan eta programetan egindako gastua guztira 52,01 milioi eurokoa izan zen 2010ean, hau da, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren gastu osoaren % 3,4; beraz, 2012koa (% 3,1) eta 2015-2016 aldikoa (% 3,3) baino handiagoa. Gizarte-zerbitzuen 2015. eta 2016. urte arteko gastuaren batez besteko hazkundearen erritmoa gainditu eta gero, % 3,82ko gehikuntza erregistratuta, kasu horretan 2016-2017 aldian apur bat moteldu da igotzeko abiadura. Hala, aldi horretan gastuak % 3,68 egin zuen gora termino nominaletan, eta % 2,56, termino konstanteetan: 2015ean eta 2016an behatutakoa baino -% 1,26 txikiagoa. 2017-2018 aldian, ordea, sektore hori izan da gizarte-zerbitzuetan gehien handitu dena: hazkunde nominala % 9,15koa izan da (+% 8,10, termino konstanteetan).

Gizarte-zerbitzuetako egituraren gastua guztizkoaren % 13,7 izan da 2018an, 210,30 milioi eurokoa, zehazki. Horietatik, 142,12 milioi, hau da, guztizko gastuaren % 9,3, oinarriko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatu orokorreiei dagozkie. Gainerako % 4,5, berriz, egitura orokorrari dagokio, 68,19 milioi, eta partida horren barruan dago urteko emaitza (defizita edo superabita).

2015-2016 aldian egon zen % 10,98ko gorakada handia (% 9,32, termino konstanteetan) abiapuntutzat hartuta, 2016-2017 aldian sendotu egin da gizarte-zerbitzuen egituraren egindako gastuaren igoera esanguratsua. Gastu nominalak aldi horretan % 13,18 egin zuen gora (+% 11,96, termino konstanteetan). 2017-2018 aldian argi aldatu zen bilakaera horren joera, eta gastuaren beherakada egonkortuz joan zen: -% 0,01, termino nominaletan; eta -% 0,97, termino konstanteetan.

Bilakaera hori lotzen zaio egitura orokorreko gastua geldiarazteko joerari, lehenago hasia zen defizit eta superabit binomioaren dinamikak baldintzatuta. Hori dela eta, 2015-2016 aldian prezio konstanteetan % 19,72ko gehikuntza egon arren, 2016-2017 aldian partidak jada -% 6,38 egin zuen behera prezio konstanteetan. Joera hori 2017-2018 aldian areagotu da, eta egitura orokorreko gastuak behera egin du: -% 12,07 (-% 12,91, termino konstanteetan). Bilakaera horrek erakusten du gizarte-zerbitzuen kudeaketaz arduratzen diren erakundeek ezohiko ekarpenak mugatu nahi izan dituztela, oro har, defizita kontrolatu nahi dutela.

Bestalde, doikuntza lan garrantzitsu horrek bide ematen du oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan gastua paraleloan igotzen jarraitzeko. Zerbitzu horietako gastuak % 7,02 egin du gora 2017-2018 aldian (+% 6, termino konstanteetan). 2016-2017 aldian gizarte-zerbitzuen jardun-eremu garrantzitsu horretako gastu-maila horrenbeste igo ondoren (+% 26,43, prezio konstanteetan), 2017-2018 aldiko hazkunde-erritmo handiek —izan ere, gizarte-zerbitzuen batezbestekotik gorakoak dira— sektore hori sendotzen lagundu dute 2016. eta 2018. urte artean.

2012-2013 aldian erregistratu zen beherakada handiaren aldean, 2016-2018 aldiko dinamikak bultzada handia eman dio oinarrizko zerbitzu horietan eta zerbitzu espezializatuetan gastua berreskuratzeko lineari. Linea hori jada 2013tik gauzatzen hasi zen, baina 2016an oraindik gastu nominala (103,90 milioi) 2012koa (105,01 milioikoa) baino txikiagoa izan zen. Are gehiago, kontuan hartu behar dugu 2015-2016 aldian gastuak gora egin zuela, baina horren ondorioa % 2,31ko igoera baino ez zen izan, prezio konstanteetan. Gehikuntza-linea hori oraindik gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekotik behera zegoen. 2016-2018 aldian egoera aldatu zen, eta gastua 142,12 milioi eurokoa izan zen; horrek 2012koa baino % 35,3 handiagoa zen termino nominaletan.

Aztertu diren zerbitzuetan, eta 7. edo 8. tauletan azaltzen den desagregazioa alde batera utzita, aipatzekoa da aurreko urteetan ere oinarrizko gizarte-zerbitzuen bilakaera jada aldekoa zela zentzu hertsian, 2015etik aurrerako joera hazkundera moteltzea izan arren.

lido horretatik, oinarrizko egiturako gainerako zerbitzuetan ikusitakoa ez bezala, oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuak gora egin zuen etengabe 2012-2015 aldian, eta % 15,2ko hazkundera izan zuen guztira (40,29 milioi, 2012an; eta 46,43, 2015ean). Hala eta guztiz ere, 2014-2015 aldian behatu zen gorakada (+% 7,4) argiaren ostean, 2015-2016 aldian hazkunderaren erritmoa apur bat txikiagotu zen, hau da, % 4,5 egin zuen gora eta 2016an 48,52 milioi euroko gastua egin zen. Hazkundera are gehiago moteldu zen 2016-2017 aldian: gehikuntza % 2koa izan zen termino nominaletan; eta gastua, 49,48 milioi eurokoa. 2017-2018 aldian, ordea, gastua berriro handitu da, eta 2018an 52,21 milioi eurokoa izan da. Gastu hori 2012koa baino % 29,6 handiagoa da.

2014an % 3,2 izan ondoren, oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastu osoan duen pisu erlatiboa honela bilakatu da: 2015ean eta 2016an, % 3,5; eta 2017an, % 3,3. Gastua berreskuratu arren, oraindik % 3,4 izan da 2018an, hots, 2015eko eta 2016ko mailetatik beherakoa.

2016-2017 aldian gastua nabarmen geldiarazi zen oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, eta, horren ondorioz, gastuak 2016-2017 aldian oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezialitatean gora egin zuen, eta, gastu-gorakada hori zerbitzu espezializatuetan metatu zen, batik bat. Euskal administrazio publikoen finantzaketa-krisien ondorioak gainditu ondoren, erreferentzia-aldian posiblea izan zen langile-egitura espezializatuetan gastua berriz handitzea.

2014-2016 aldian laguntza-egitura espezializatuetan egindako gastua 52 milioi euro ingurukoa izan zen; 2017an, 80,83 milioikoa; eta 2018an, % 87,07koa, 2012ko kopurua baino % 40,7 handiagoa.



Horixe izan da, neurri handi batean, finantzaketa-krisiaren ondoko urteak ezaugarritu zituen defizita txikiagotzeko gaitasunaren ondorioa.

Zentro, zerbitzu edo programa motaren ikuspegiari erreparatuta, eta 8. taulan jasotako datuei berriro helduz, gastuaren xede nagusia egoitza-zentroak direla egiazta daiteke. Zentro horietan egindako gastua 864,84 milioi eurokoa izan da 2018an, eta horrek gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastu osoaren % 56,5 hartzen du. Zatiirik handiena adineko pertsonentzako egoitzetara bideratzen da, gastu horrek gastu osoaren % 39,8 hartzen du (610,02 milioi). Kasu horretan aipatutako proportzioaren beheranzko joera egonkortu zen. Beherakada hori 2015ean (% 41,4) eta 2013an (% 41,1) jada behatu zen, eta oraindik ere ondorioak ditu: 2017an eta 2018an % 39,8 izan da, eta kopuru hori 2012ko % 39,6tik hurbil dago.

Adineko pertsonentzako egoitzetan egiten den gastuaren pisu erlatiboak era nabarmenean gainditzen ditu desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko egiten den gastua (124,55 milioi, % 8,1) eta adingabeei laguntzeko gastua (83,03 milioi, % 5,4). Beste % 2,7 erabiltzen da bazterketa-egoeran dauden pertsonen etxebizitza, harrera eta egoitza emateko (40,78 milioi); eta % 0,4 osagarria bideratzen da emakumeei etxebizitza eta egoitza emateko, genero-indarkeria edo tratatu txarrak jaso dituztenei eta jaso ez dituztenei ere bai (horretarako 6,45 milioi bideratu dira).

2015-2017 aldian bezala, egoitza-zentroetara bideratutako gastu nominalaren gehikuntzak orokortzeko joera izan du 2017-2018 aldian. Gora jotzeko linea nagusia adingabe, gazte eta familiekin egindako esku-hartzeei dagokie. Kasu horretan gastu-mailak argi gainditu du gizarte-zerbitzuen batezbesteko orokorra, % 12,18koa izan baita. 2012. eta 2014. urte arteko beherakaden ostean, 2014-2015 aldian gastua berreskuratu zen, eta harrezkero areagotu da. 2016-2017 aldian gastua % 9,62ra iritsi zen, prezio konstanteetan; 2017-2018 aldian, hazkundea % 11,11ra igo zen. Bi aldi horietako gastuak sobera gainditu du 2015eko eta 2016ko % 1,89.

Gizarte-zerbitzuen 2015. eta 2016. urte arteko gastuaren batez besteko erritmoetara hurbildu eta gero, 2016. eta 2018. urte artean gorakadak batezbesteko hori gainditu zuen bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroetan: 2016-2017 aldian % 6,63ko gorakada nominala behatu zen; eta 2017-2018 aldian % 8,20koa (+% 5,49 eta % 7,17, termino konstanteetan, eta 2015-2016 aldiko % 3,53tik gorakoa).

Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan egindako gastuak ere bizkortzen jarraitu du 2017. eta 2018. urteetan. Prezio konstanteetan urteko gehikuntza honela bilakatu da: 2015-2016 aldian, % 1,63; 2016-2017 aldian, % 2,18; 2017-2018 aldian, % 2,68; beraz, jada, sobera gainditu du gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekoa.

2015-2016 aldian bezala, desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan 2016-2018 aldian egin den gastuaren hazkundea gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren batezbestekotik beherakoa da. Kasu horretan behatu da hazkundearen erritmoa zertxobait moteldu dela: 2015-2016 aldian % 2,21 izan zen; eta 2016-2017 aldian, ordea, % 1,54. Dena den, 2017-2018 aldian berriro piztu da: % 2,45eko gorakada izan baitu prezio konstanteetan. Gaur egungo goranzko linea neurritsua da, konparazioa eginez gero, baina, edonola ere, 2012. eta 2014. urte arteko hazkunde-dinamikari jarraipena eman dio, urte horietan gizarte-zerbitzuen batezbestekotik gorakoa izan baitzen.

Aitzitik, 2015. eta 2016. urte artean prezio konstanteetan % 9,02 igo ondoren, behatu egin da 2016-2018 aldian genero-indarkeria edo tratatu txarrak jaso dituzten eta jaso ez dituzten emakumeei etxebizitza eta egoitza emateko zerbitzuetako gastuak behera egin duela. 2016-2017 aldian ia

egonkortu egin zen prezio konstanteetan (-% 0,09), baina 2017-2018 aldian -% 2,33ko beherakada izan du. 2012. eta 2016. urte artean zerbitzu horiek batezbestekoa gainditu ohi zuten, baina azken beherakada horrek gora egiteko joera hautsi du. Termino nominaletan 2018ko gastuak, ordea, 2014koa gainditu du, zehazki, % 10,2 handiagoa izan da.

2017. eta 2018. urte artean, egoitza-zentroetako gastuak % 4,57 egin zuen gora (+% 3,57, termino konstanteetan). Aldi horretan, 2016an eta 2017an behatutakoa ez bezala, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren gastuaren gehikuntza orokorra gainditu zuen. Hazkunde konparatu hori dela eta, zerbitzuen eremu horretako gastuaren pisuak beheranzko lerro berria hautsi zuen. Honelakoa izan zen aurreko beherakada hori: 2015ean, % 57,7; 2016an, % 56,8; eta 2017an, % 55,9 (eta 2013an ere % 57,4tik beherakoa izan zen). 2018ko erregistroa % 56,5era iritsi da, beraz, 2016ko mailetara hurbildu da.

Zentro, zerbitzu edo programen araberrako gastua aztertuz gero, gastuaren bigarren arlo aipagarria eguneko zentroena da: gastua, guztira, 157,73 milioi eurokoa izan da, hau da, 2018ko gastu osoaren % 10,3.

Kasu horretan, desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonen arretarako zentro mota desberdinek biltzen dute gastuaren zatirik handiena, 77,76 milioi, zehazki (guztizkoaren % 5,3). Adinekoentzako eguneko zentroetara bideratutako partida dago bigarren tokian 65,37 milioi euroekin (guztizkoaren % 4,3). Gainerako % 1 adingabe, gazte, familia eta gizarteratze-premiak dituzten pertsonentzako eguneko arretarako zentroei dagokie, 14,59 milioi euro, hain justu ere.

Gastuaren bilakaera positiboa izan zen 2017-2018 aldian eguneko arreta-zentro mota gehienetan. 2012. eta 2017. urte artean gertatu bezala, hazkunderik handiena haur, gazte eta familientzako zentroetan behatu da. Zentro horietako urte arteko hazkunde-tasek argi gainditu dute % 10 nominala (% 17,13 eta % 16,01 prezio konstanteetan).

2017. eta 2018. urte artean gastuaren bilakaera berriro izan da positiboa gizarteratzeko-premiak dituztenei eguneko arreta emateko zentroetan. Kasu horretan 2016-2017 aldian -% 5,92ko murrizketa egon zen termino konstanteetan; 2017. eta 2018. urte artean, ordea, gastuak % 12,73 egin zuen gora termino konstanteetan (% 13,82 termino nominaletan); horrela, 2012. eta 2016. urte arteko linea positiboa berreskuratu zen.

2017an eta 2018an adineko pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan egindako gastua ere nabarmen handitu zen berriro. Kasu horretako gehikuntza nominala % 5,77ra iritsi zen, 2015az geroztik lehenengo aldiz gizarte-zerbitzuen nukleo nagusi osotik gorakoa izan zen. Termino konstanteetan 2015-2016 aldian % 1,24 egin zuen gora; 2016-2017 aldian, % 1,75; eta 2017-2018an, % 4,75. Horrela nabarmen azpimarratu da gastuaren goranzko joera, eta lerro horrek zentro horiek ezaugarritu ditu 2012tik.

Desgaitasunak edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan, neurrizkoagoa izan zen gastu-igoera 2017. eta 2018. urte artean: % 1,77ko gorakada (% 0,79, zifra konstanteetan). Hala eta guztiz ere, igoera hori bereizten da 2015ean eta 2017an gertatu ziren beherakadetatik: termino konstanteetan -% 0,27, 2015-2016 aldian; eta -% 3,81, 2016-2017 aldian. Aldaketa hori bat dator 2015. urte arteko linea nagusiarekin. Zehazki, 2012tik 2015era % 8,59ko gehikuntza egon zen termino konstanteetan, eta 2018ko gastu nominala 2015ekoa baino % 0,2 handiagoa izan zen.



Gaixotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko beste zentro batzuetan ere (hertsiki laguntza-zentroak ez direnetan) gastuak beheranzko joera dauka; talde horretan daude eguneko zentro okupazionalak³. Kasu horretan 2017-2018 aldian $-2,08\%$ ko beherakada egon da ($-3,02\%$, zifra konstanteetan); eta horrek 2015. eta 2017. urte artean behatutakoa aldatu du. Urte horietan handi samarrak izan dira gastuaren hazkunde-erritmoak: 2015-2016 aldian, $4,90\%$; 2016-2017 aldian $12,63\%$. Horren ondorioz, zentro horietako gastu-maila 2014koa baino txikiagoa izan da 2018an.

Gastuari dagokionez, espezializatutako zentro, zerbitzu edo programa nagusien artean, hirugarren mota garrantzitsua etxeko laguntza da. Eredu horretan 85,95 milioi gastatu ziren 2018an. Zifra horrek argi gaitzen ditu 2016ko 81,53 milioi euroak, baina beherakada handia da 2017ko 88,54 milioi euroekin edo 2012ko 88,54 euroekin erkatuta. Etxeko laguntzako gastuak gizarte-zerbitzuen nukleo nagusi osoan duen pisua $6,9\%$ tik $5,8\%$ ra jaitsi zen 2012. eta 2016. urte artean; eta 2018an berriro ere jaitsi zen, eta $5,6\%$ ia ez zen iritsi. Proporzio hori txikiagoa izan da 2012az geroztik, eta argi aldentzen da 2017an lortu zen 6% tik.

3.2.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoen arabera

2018an, gizarte-zerbitzuetako nukleo nagusira bideratutako gastu korrontean berriro ere zenbait alde behatu dira lurralde historikoaren arabera; alderdi hori beha daiteke 9. taulan jasotako biztanleko gastuen aldeetan. Gastu handiena Arabako lurralde historikoari dagokio berriz ere: 812,72 euro biztanleko. Ondoren, Gipuzkoari (biztanleko 701,22 euro) eta, azkenik, Bizkaia (biztanleko 671,08 euro).

Aldeen azalpenaren zati bat 2012-2015 artean gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian biztanleko gastua gutxien hazi zen lurralde historikoa Bizkaia izateari zor zaio. Linea horrek 2015. eta 2016. urte artean jarraitzeko joera izan zuen: $4,84\%$ ko gehikuntza nominala izan zuen, baina Arabako $5,05\%$ eta Gipuzkoako $5,53\%$ baino txikiagoa zen.

Hala eta guztiz ere, 2015-2016 aldiko datuek erakusten dute lurraldeen emaitzak gero eta antzekoagoak direla, eta joera hori 2016-2017 aldian sendotu dela, behintzat Bizkaian eta Araban. Horiek horrela, 2016. eta 2017. urte artean Bizkaiko gastuak ($3,67\%$) Arabakoa ($3,14\%$) gainditu du. Bizkaiko lurraldean ere 2016-2017 aldiko igoeraren beherakada gertatzen ari zen arren, gastu-gorakadak Arabaren alde izateari utzi zion, aurreko aldiarekin erkatuta (2015-2016 aldian ehuneko 0,21 puntu negatibo izatetik 2016-2017 aldian 0,54 puntu positibo izatera aldatu zen). Norabide-aldaketa hori 2017. eta 2018. urte artean sendotu da, Bizkaian $7,91\%$ ko gehikuntza nominalera iritsi delako, eta Arabakoa ($4,86\%$) argi gainditu delako.

³ Zehaztu behar da kasu horretan, zentro okupazionalen eta enplegu-zentroen arteko jardueraren alboratze- edota konbinazio-dinamikak baldintzatzen duela bilakaera; horren ondorioz, benetako egitura-dinamikak irudikatzen ez dituzten aldaketa handiak gerta daitezke (zentro bat enplegu-zentro bereziko plazak soilik eskaintzen hastea, adibidez).

Edonola ere, 2016-2017 aldiko hazkundearen erritmoak behera egin eta gero, zifra aurkeztuek erakusten dute lurralde bietan gastuetan goranzko joerak berreskuratuko direla. Araban % 4,86 osatu da 2017-2018 aldian. Horrek 2016-2017 aldiko % 3,14 gainditu du, eta 2015-2016 aldiko % 5,05era hurbildu da. Bizkaian are argiagoa izan da suspertze hori: 2017. eta 2018. urte artean, % 7,91 igo da, eta horrek 2016-2017 aldiko % 3,67 eta 2015-2016 aldiko % 4,84 gainditu ditu.

2017-2018 aldian, azpimarratzekoa da Bizkaia dela nabarmenki gastua gehien handitu duen lurraldea; eta, horri lotuta, Bizkaiak izan du gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren gastuaren igoera handiena ere. Zehazki, 2015etik 2018ra: % 17,29 igo da, Arabatik gora (% 13,62). Dena den, 2014-2015 aldian Araban hazkunde handi eta bereizgarria (+% 3,12, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, behera egin zuen) egon zen; horrez gain, hazkunde egonkorra izan du, eta 2017-2018 aldian ere gora egin du, beraz, horri esker, Arabako hazkunde-dinamika eta Bizkaikoa ez dira hain ezberdinak.

2015-2018 aldian Gipuzkoa izan da gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua gutxien handitu duen lurraldea. Aldi horretan % 11,88 handitu du. 2017-2018 aldiko gastuaren -% 3,09ko beherakadaren ondorioa da, eta kontraste handia da aurreko urteetan behatutako bilakaerarekin. Ildo horretatik, 2016. eta 2017. urte artean gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastua Gipuzkoan gora ari zen, eta Araban eta Bizkaian, ordea, hazkundera moteltzen ari zen. Lurralde horrek 2014-2015 aldian -% 2,69ko hazkunde negatiboa izan zuen arren, 2015-2016 aldian % 5,53 egin zuen gora, eta 2016-2017 aldian % 9,40ra iritsi zen.

Duela gutxiko bilakaeraren ondorioz, Bizkaiko lurraldeak pisua galdu du Euskadiko gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastu korrontearen banaketan. Horiek horrela, 2012an % 49,5eko partaidetza izan zuen, 2014-2016 aldian % 48,8 eta % 49 kopuruetara jaitsi zen, eta 2017an % 48koa izan zen. 2018an, aldiz, berriro igo eta % 50era iritsi zen. Gipuzkoako gastua % 32,7koa izan; eta Arabakoa, % 17,3koa.

Horrek beste ondorio bat ere izan du: Bizkaiko gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian Bizkaiko barne-produktu gordinak duen pisua hurbildu egin da beste lurralde batzuetako pisura, nahiz eta lehenago beste lurralde batzuen handiagoa izan. Horiek horrela, 2018an Bizkaian gizarte-zerbitzuetan eginiko gastuak barne-produktu gordinen izan zuen pisua % 1,97ra iritsi zen, beraz, Gipuzkoako % 1,96tik gorakoa izan zen.

Arabakoa % 2,14koa izan da, beraz, gainerako guztien aurrean jarri da, duda barik. Lurralde horretan gastuaren linea jarraitua izan zen 2014-2015 aldian, zehazki, % 2,08koa izan zen 2015ean, baina harrezkero gora egin du, % 2,14ra iritsi arte. 2014-2015 aldian Bizkaian % 1,95etik % 1,88ra egin du behera; horrek berekin ekarri du barne-produktu gordinaren gaineko gastua zertxobait egonkortzea. Harrezkero, zifrek zertxobait egin dute gora, 2017an % 1,90era iritsi arte, baina 2018an berriro hasi da igotzen, % 1,97ra iritsi arte. Gipuzkoan, ordea, defizita murrizteko eta gastu-partida batzuk (bereziki, diru-sarrerak bermatzeko laguntzena) likidatzen joateko prozesuak abian jarri direnez, BPGd/gastua 2015eko mailetara iritsi da (2018an, % 1,96 izan da).

Dena den, datuek oraindik ere erakusten dute biztanleko barne-produktu gordinaren eta biztanle bakoitzeko gizarte-zerbitzuen gastuaren arteko korrelazioa. Horiek horrela, Arabako biztanleko BPGd handiagoak berekin ekarri du biztanleko 812,72 euroko gastua; beraz, Gipuzkoa eta Bizkaikoa baino askoz ere handiagoa izan da. Gipuzkoako BPGd/gastua Bizkaikoa baino txikixeagoa izan den arren, biztanleko gastua, ordea, Bizkaikoa baino handiagoa izan da: 701,22 eurokoa; eta Bizkaikoa, 671,08.



9. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta (erdigunea), lurralde historikoen arabera. 2015-2018
(Gastu nominala -euroak milioitan-, % bertikalak, % BPGd, biztanleko gastua eurotan eta urte arteko bariazioa gastuaren %-tan)

	2015				2016				2017				2018				Urte arteko bariazioa %-tan			
	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	Abs.	%	BPGd-aren %	Gastua /biz.	2015/2016	2016/2017	2017/2018	2015/2018
Lurralde historikoa																				
EAE	1.333,14	100	1,95	613,44	1.401,25	100	1,97	645,18	1.478,49	100	2,01	679,51	1.530,89	100	1,99	702,10	5,11	5,51	3,54	14,83
Araba	232,85	17,5	2,08	723,63	244,61	17,5	2,11	758,86	252,28	17,1	2,12	779,64	264,55	17,3	2,14	812,72	5,05	3,14	4,86	13,62
Gipuzkoa	447,69	33,6	1,98	630,56	472,44	33,7	2,01	664,75	516,85	35,0	2,12	725,10	500,86	32,7	1,96	701,22	5,53	9,40	-3,09	11,88
Bizkaia	652,60	49,0	1,88	571,74	684,21	48,8	1,89	600,79	709,35	48,0	1,90	622,55	765,47	50,0	1,97	671,08	4,84	3,67	7,91	17,29

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

10. taula. Gizarte-zerbitzuetako gastu arrunta, gastu motaren eta lurralde historikoen arabera. 2018
(BPGd-aren %-a eta bariazioa 2017-2018 gastuaren %-tan)

Gastu mota	BPGd % 2018				Bariazioa 2017/2018 aldian %-tan			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
GIZARTE-ZERBITZUAK: ERDIGUNEA	2,14	1,96	1,97	1,99	4,86	-3,09	7,91	3,54
Egitura orokorra	0,10	0,03	0,12	0,09	-4,17	-79,99	122,41	-12,07
Egitura espezifiko	0,21	0,18	0,18	0,19	6,01	11,15	4,90	7,02
EGITURAREN GASTUA GUZTIRA	0,31	0,21	0,30	0,27	2,37	-35,64	32,69	-0,01
Adinekoentzako zentro/zerbitzuak	1,02	0,85	0,86	0,88	5,34	1,42	5,17	3,98
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako zentro/zerbitzuak	0,28	0,28	0,28	0,28	6,13	5,22	0,61	3,00
Haur/gazte/familientzako zentro/zerbitzuak	0,15	0,12	0,12	0,13	9,02	5,09	16,82	11,23
Bazterketa-egoeran daudenentzako zentro/zerbitzuak	0,05	0,08	0,07	0,07	7,03	8,30	10,36	9,15
ZENTRO ETA ZERBITZUETAKO GASTUA GUZTIRA	1,51	1,33	1,33	1,36	5,91	2,92	5,37	4,65
Mendekotasunaren arloko programak	0,15	0,11	0,12	0,12	3,57	7,59	-10,32	-2,78
Familien arloko programak eta beste batzuk	0,05	0,07	0,06	0,06	6,95	2,04	7,38	5,21
PROGRAMEN GASTUAK GUZTIRA	0,20	0,18	0,18	0,18	4,36	5,44	-5,34	-0,33
Mendekotasunen arloko prestazioak	0,11	0,24	0,16	0,18	0,36	3,27	8,01	5,04
Tratu txarren biktima direnentzako prestazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	-40,68	-11,65	22,99	-5,04
PRESTAZIOEN GASTUAK GUZTIRA	0,12	0,24	0,16	0,18	-0,57	3,21	8,13	4,95

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Lurraldeen arabera gastu-diferentzia handienak dituzten zentroak, zerbitzuak edo programak barne-produktu gordinaren ikuspegitik aztertzen baditugu, datu osagarri garrantzitsu batzuk lortzen dira 2018an. 10. taulako datuak abiapuntutzat hartuko ditugu, alderdi horiek aztertzeko.

Arabako 2018ko egoerari dagokionez, adineko pertsonen zentroi eta zerbitzuei lotutako gastu diferentziala behatu da, eta, neurri txikiago batean honako hauei lotuta: gizarte-zerbitzuen egitura espezifikokoei (egitura espezifikoak oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta zerbitzu espezializatuak dira), haur, gazte eta familientzako zentroi eta zerbitzuei eta mendekotasunari aurre egiteko programei. Ere horietan hauxe da lurraldeko barne-produktu gordinaren eta gastuaren arteko erlazioa: Araban % 1,53, Gipuzkoako % 1,26tik eta Bizkaiko % 1,29tik baino 0,25 edo 0,27 puntu handiagoa.

Diferentzia horiek neurri handi batean erakusten dute Araban 2012tik 2016ra egin zen adinentzako zentro eta zerbitzuetako gastuaren gorakada diferentziala. 2015era arte dinamika horrek indarrean jarraitu zuen Arabako haur, gazte eta familientzako zentro eta zerbitzuetan. 2012-2013 aldian gastua nabarmen murriztu zen, batez ere, gizarte-zerbitzuen alderdi espezifikoan (oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan), eta horrek zertxobait konpentsatu zituen diferentziak, baina Arabako gastu mota hori 2015-2016 aldian biziki igo zenez (zehazki, % 9,51; Gipuzkoan, % 1,91; eta Bizkaian, % 2,41), azkenean gastuaren zati horretako diferentziak finkatu egin ziren 2016an.

Dena den, interesgarria da frogatzea Bizkaiak jardun-alderdi horietan, hain zuzen, gasturik handiena egin duela 2016-2018 aldian: barne-produktu gordinaren gaineko gastua % 1,21 izan zen 2016an; eta 2018an % 1,29 izan da. Gehikuntza garrantzitsu hori erreferentzia-aldian aztertu diren lau eremuetan behatu da. Hala eta guztiz ere, hobekuntza nagusia egitura espezifikoan egin da (oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan), Bizkaiko barne-produktu gordinaren gaineko 2016ko gastua % 0,13 izan zen arlo horretan; eta 2018an, % 0,18koa izan da. Halaber, garrantzitsua da haur eta familientzako gastuaren gehikuntza (2016an, % 0,10; eta 2018an, % 0,12).

Arabian eta Gipuzkoan datuak egonkor jarraitu dute, baina 2016an jada % 1,50 eta % 1,26 izan ziren ehuneko horiek. Gipuzkoan ere Bizkaian behatutako joera osatu da, hots, barne-produktu gordinaren gaineko gastua oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan biziki igotzea: zehazki, 2016ko % 0,13tik 2018ko % 0,18ra. Dena den, gorakada hori Gipuzkoan nolabait konpentsatu da jaitziera txikiak egon direlako adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan eta mendekotasuna arintzeko programetan (barne-produktu gordinaren % 1,01etik % 0,96ra); hortaz, horrek erakusten du lurralde horretan partida horiei lotutako aldi baterako gaingastuak hartu direla.

Aztertu diren lau eremu horiek alde batera utzita, 2016an eta 2017an bezala, Gipuzkoan eta Bizkaian 2018an ere bereizgarria izan da mendekotasuna arintzeko prestazioetan eginiko gastua, Arabakoa baino handiagoa baita. Gipuzkoako 2016ko BPGd % 0,24 izan zen, beraz, argi gaudituz zuen Arabako % 0,11, zeina kasu horretan Bizkaikoa (% 0,16) baino txikiagoa izan baitzen. Beraz, Araban 2017-2018 aldian gastuak % 0,36 egin du gora prestazio horietan; Gipuzkoan % 3,27; eta Bizkaian, % 9,21. Horren arabera, Bizkaian 2016an eta 2017an bezala, 2017-2018 aldian ere berriro egin da gastuaren esfortzu diferentzial handiena.

Gainerako zentro, zerbitzu eta programetan (desgaitasuna edo gaixotasuna, bazterketa, mendekotasuna arintzeko programa espezifikoetan, familiei laguntzeko programetan edo tratu txarrak jasan dituzten biktimei laguntzeko prestazioetan), egitura orokorrari dagokion zatia alde batera utzita, 2017an gastuaren eta barne-produktu gordinaren arteko erlazioak osoa antzekoa



izaten jarraitu du EAEko hiru lurraldeetan: Araban, % 0,39; Bizkaian % 0,40 (Arabakoa txikiagoa da); eta Gipuzkoan, % 0,43. Ehuneko horiek eta aurreko urteetan erregistratuak antzekoak dira.

Hala ere, komeni da aipatzea Gipuzkoa 2018an egin den gastu txikiagoaren zati bat gastuaren doikuntza gardenari lotzen zaiola. Lurralde horretan doikuntza hori egin da sistemaren egitura orokorrean⁴. Bizkaian partida hori barne-produktu gordinaren % 0,14tik % 0,06ra murriztu zen 2016tik 2017ra, eta 2018an berriro igo da, % 0,12ra iritsi arte. Bestalde, Araban egonkor jarraitu du, barne-produktu gordinaren % 0,10 eta % 0,11 artean. Gipuzkoan, ordea, aldaketa hori nabarmen handitu da 2016-2017 aldian: % 0,09tik % 0,18ra, eta 2018an % 0,03 baino ez zen gutxitu.

Egitura orokorrari dagokion zatia baztertzen badugu, Bizkaitik Arabara eta Gipuzkoara hurbiltzeko urratsa ez da hain esanguratsua izan. Horiek horrela, Arabako gastuak BPGd/gastuaren % 2 inguruko balioak lortu ditu (2018an, % 2,03); Gipuzkoan ere egonkor jarraitu du, % 1,93; Bizkaian gora egiten jarraitu du, 2016ko % 1,77tik 2018ko % 1,85era. Hortaz, Bizkaiaren eta Arabaren barne-produktu gordinaren ehunekoaren artean 0,19 puntuko aldea dago (baina 2016an 0,25 puntukoa izan zen alde hori, beraz, txikiagoa izan da). Horrez gain, egitura orokorra alde batera uzten badugu, Bizkaiko BPGd gastua Gipuzkoakoa baino txikiagoa izan da, zehazki, 0,08 puntu txikiagoa (baina kasu horretan ere 2016koa baino txikiagoa da, 0,16 puntukoa baita).

3.3. Gizarte-prestazioetako gastua

3.3.1. Prestazio motak

Gizarte-prestazioek, oro har, pertsoneri eta familiei eginiko transferentziek, 619,59 milioi euro jaso zituzten guztira 2018an; transferentzia publikoak (614,37 milioi euro) eta hirugarren sektoreko erakundeetan eginikoak (5,22 milioi), besteak beste.

Aztertutako gastua diru-sarrerak bermatzeko sistemara bideratu da nagusiki, honako hauetara, hain zuzen: Diru Sarrerak Bermatzeko Errentara (DSBE), Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara (GLL). DSBE/EGPO/GLL sistemak 486,56 milioi euroko gastua izan zuen 2018an, autonomia-erkidegoan garatzen diren pertsona eta familientzako transferentzietako gastu osoaren % 78,5 (2015eko % 77,2 eta 2016ko % 77,7 baino gehiago). Proporzioa zertxobait txikiagotu da 2017ko % 78,6rekin erkatuta.

Gastuaren zati zentrala DSBEri dagokio: 2018an 371,33 milioi izan dira, gastu osoaren % 59,9. Zifra horrek 2015-2016 aldiko % 59,6 eta % 59,7 gainditu ditu, baina apur bat atzera egin du 2017ko % 60,2rekin erkatuta. Bestalde, EGPOri dagokionez, emaitza % 13,3 izan da 2018an, eta 82,24 milioi euroko gastua egin da. Horrek erakusten du % 13,5eko beherakada egon dela, 2016. urtearekin erkatuta. GLLri dagokion pisuak, ordea, gora jarraitu du, % 5,3koa izan arte, eta 2014ko % 4,4 argi eta garbi gainditu du. Kasu horretan, guztizko gastua 33,00 milioi eurokoa izan da 2018an.

Prestazio horietan eginiko gastuak gora jarraitu du 2015-2016 aldian termino nominaletan; zehazki, % 1,20 egin du gora, baina prezio konstanteetan -% 0,31ko beherakada behatu da. Dinamika hori 2016tik 2017ra areagotu da, aldi horretan lehenengo aldiz beherakada bat behatu baitzen termino nominaletan. Horiek horrela, DSBE/EGPO/GLL sistemako gastu nominalak -% 1,16 egin zuen behera aldi horretan; eta -% 2,22, prezio konstanteetan. 2017tik 2018ra, gastuaren beheranzko joera sendotu egin zen: termino nominaletan -% 5,71ra iritsi zen, eta prezio konstanteetan -% 6,62ra.

⁴ Hein batean, egitura orokorraren barruan dauden lurraldeko erakunde publiko edo pribatuen defizit/superabit faktoreari zor zaio.

11. taula.

Gizarte-prestazioak (familiantzako transferentziak) 2015-2018 (Gastu nominala eurotan, % bertikalak eta bariazioa 2017-2018, nominala eta 2018ko prezioetan)

Prestazio-mota	Gastua				% bertikalak				Bariazioa 2017-2018 aldian	
	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Nominala	2018ko prezioak
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%-tan	%-tan
GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA	668.198.661	672.142.270	656.543.647	619.594.114	100	100	100	100	-5,63	-6,53
LISMI	641.401	571.052	462.833	430.242	0,1	0,1	0,1	0,1	-7,04	-7,93
KGP/GOF	59.587.446	61.327.170	62.667.680	65.626.973	8,9	9,1	9,5	10,6	4,72	3,72
LISMI/KGP/GOF GUZTIRA	60.228.847	61.898.222	63.130.513	66.057.215	9,0	9,2	9,6	10,7	4,64	3,63
DBE	398.372.575	401.369.381	395.414.968	371.326.395	59,6	59,7	60,2	59,9	-6,09	-6,99
EPO	88.510.073	90.964.126	88.247.164	82.236.397	13,2	13,5	13,4	13,3	-6,81	-7,71
GLL	29.012.874	29.759.950	32.382.214	32.995.578	4,3	4,4	4,9	5,3	1,89	0,92
DBE/EPO/GLL GUZTIRA	515.895.522	522.093.457	516.044.346	486.558.370	77,2	77,7	78,6	78,5	-5,71	-6,62
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak	27.713.936	26.502.437	25.835.404	24.308.001	4,1	3,9	3,9	3,9	-5,91	-6,82
Familia eta lana kontziliatzea	31.302.795	29.316.925	23.911.838	23.088.957	4,7	4,4	3,6	3,7	-3,44	-4,37
FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK GUZTIRA	59.016.731	55.819.362	49.747.242	47.396.958	8,8	8,3	7,6	7,6	-4,72	-5,64
Gizarte-larrialdiko laguntzak	8.564.361	2.063.577	8.938.408	8.640.655	1,3	0,3	1,4	1,4	-3,33	-4,26
Beste prestazio ekonomiko batzuk	19.824.102	27.983.628	13.847.982	5.716.076	3,0	4,2	2,1	0,9	-58,72	-59,12
BESTE PRESTAZIO BATZUK GUZTIRA	28.388.463	30.047.205	22.786.390	14.356.731	4,2	4,5	3,5	2,3	-36,99	-37,60
PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK GUZTIRA	663.529.563	669.858.246	651.708.491	614.369.274	99,3	99,7	99,3	99,2	-5,73	-6,63
Familiantzako transferentzia pribatuak	4.669.098	2.284.024	4.835.156	5.224.840	0,7	0,3	0,7	0,8	8,06	7,02
FAMILIANTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUETAKO GASTUA GUZTIRA	4.669.098	2.284.024	4.835.156	5.224.840	0,7	0,3	0,7	0,8	8,06	7,02

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Beherakada horrek, besteak beste, ekonomiaren eta enpleguaren hobekuntza erakutsi zuen; hortaz, prestazioek behar zituzten pertsonak gutxiagotu ziren. Neurri handi batean DSBEri lotu zaio. Kasu horretan % 0,75eko gehikuntza nominalarekin batera, 2015-2016 aldian % 0,76ko beherakada behatu zen prezio konstanteetan. Beherakada hori 2016-2017 aldian $-\% 2,54$ iritsi zen termino konstanteetan eta 2017-2018 aldian $-\% 6,99$ iritsi zen ($-\% 6,09$ termino nominaletan).

2015-2016 urte artean oraindik ere gora (% 1,23) jarraitzen zuen arren, 2016-2017 aldian beheranzko linea EGPO prestaziora zabaldu zen, eta DSBEen are gehiago murriztu zen gastua: $-\% 2,99$, prezio nominaletan; eta $-\% 4,03$, termino konstanteetan. 2017-2018 aldian sendotu egin zen joera hori, eta beherakada nominala $-\% 6,81$ ekoa izan zen ($-\% 7,71$ koa, prezio konstanteetan)⁵.

GLL prestazioetako gastuak gora egin zuen 2016-2018 urteetan, bai termino nominaletan, baita prezio konstanteetan ere. Prestazio horietako gastuaren igoera 2016. eta 2017. urte artean areagotu zen (% 8,81 termino nominaletan eta % 7,64 prezio konstanteetan), aldi horretan gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiko gastuaren igoera eta 2015-2016 aldiko igoera erregistratuak (aldi horretan % 1,04ko igoera eskasa izan zuten prezio konstanteetan) baino askoz ere handiagoa zen. 2017tik 2018ra GLLren gorakada nabarmen baretu zen, baina oraindik positiboa zen, bai prezio nominaletan, baita prezio konstanteetan ere (% 1,82 eta % 0,92, hurrenez hurren).

DSBE/EGPO/GLL sistemako gastuaren dinamikak Euskadin erakutsi zuen barne-banaketa aldatzen ari zela. Batetik, eta partida horietako gastua soilik kontuan hartzen badugu, DSBEren gastuaren pisu erlatiboa era jarraituan murriztu da: 2014an % 77,5 izan zen, eta 2018an % 76,3 izan da. 2014tik 2016ra gora egin zuen ekarpenak: % 16,8tik % 17,4ra, hurrenez hurren. Partaidetza hori, ordea, 2018an murriztu zen EGPOri dagokionez; zehazki, % 16,9koa izan zen, 2015ekoa (% 17,2) baino txikiagoa. GLLren pisuak, ordea, gora egin zuen: prestazio horiek 2014-2016 aldian prestazio-sistemako gastu osoaren % 5,6 eta % 5,7 hartu zuten; eta gero, 2018an, % 6,8.

LISMI, GOF eta, funtsean, kotizatu gabeko pentsioen (KGP) gastua bigarren tokian agertzen da, DSBE/EGPO/GLL sistematan egindakotik distantzia handira badago ere. Gastu osoaren % 10,7 hartzen du, eta 2018an transferentzia pertsonalak eta familiako arteko transferentziak egiteko erabili da (66,06 milioi euro). Gorakada hori lehena izan da 2012az geroztik. Halaber, 2015eko % 9 eta 2013ko % 9,7 gairitu ditu. Prestazio multzo horretako gastuaren igoera % 4,64koa izan da 2017-2018 aldian, termino nominaletan; eta % 3,63, prezio konstanteetan. Prezio konstanteetan 2017-2018 aldian izandako igoerak era deigarrian gairitu du 2015-2016 aldiko % 1,23, baita 2016-2017 aldiko % 0,90 ere.

Aztertutako prestazioen dinamiketan barneko diferentzia handiak behatu dira. Batetik, LISMI prestazioetako gastua nabarmen jaitsi zen 2017-2018 aldian, eta beherakada $-\% 7,93$ koa izan da prezio konstanteetan. Horrek azaltzen du gastu horrek prestazio horietan galdu duen pisua (beherakada $-\% 12,30$ ekoa izan zen prezio konstanteetan, 2015etik 2016ra; eta 2017tik 2018ra, $-\% 19,82$ koa). KGP/GOF partidako gastuak, ordea, goranzko joera dauka, duda barik: 2015-2016 aldian % 1,38ko igoera izan zuen prezio konstanteetan; 2016-2017 aldian % 1,09koa izan zen; eta 2017-2018 aldian % 3,72ra iritsi da.

Garrantzizko hirugarren gastu-arloa familientzako prestazioena da. 2018an gastua 47,40 milioi euro arte iritsi da, eta horrek transferentzien gastuaren % 7,6 hartu du. Bizitza pertsonala eta familiarra

⁵ Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren gaineko araudiaren garapena (horrek barne hartzen du etxebizitzaren gastuak ordaintzeko prestazio osagarria ere bai) garrantzitsua da EGPOko gastua DSBEko gastua baino gehiago murriztu dela azaltzeko.

uztartzeko gastua 23,09 milioi eurokoa izan da (gastu osoaren % 3,7), eta familiei eta seme-alabei zuzendutako prestazio ekonomikoena 24,31 milioikoa (gastu osoaren % 3,9).

Jaiotze-tasaren beherakadarekin paraleloan, 2017-2018 aldiko dinamikak prestazio familiarren gastua murrizten jarraitzen du, eta, berez, prestazio guztien gastuak $-\% 4,72$ egin du behera ($-\% 5,64$ termino konstanteetan). Horrek azaltzen du ekarpen hori prestazioen multzo osoaren gastuan gero eta txikiagoa izatea. 2015ean $\% 8,8$ koa izan zen, gastuaren linea 2014an berreskuratu eta gero; 2016an, $\% 8,3$; eta 2017an eta 2018an $\% 7,6$ (oraindik ere 2014ko $\% 7,4$ baino handixeagoa da).

Gainerako prestazio publikoek, gizarte-larrialdiko laguntzek eta beste prestazio ekonomiko batzuek 14,36 milioi euro hartu zituzten⁶. Kasu horretan, 2016-2017 aldiko joerak argi hautsi zuen 2012-2016 aldiko ezaugarri nagusia izan zen gastuaren igoera deigarriko linea. Horrela, 2016-2017 aldian beherakada nominala $-\% 24,16$ koa izan zen partida horretan ($-\% 24,98$ prezio konstanteetan), 2015-2016 aldian aurrerapena egon arren ($+\% 4,26$ koa izan zen, termino konstanteetan). Gipuzkoan joera hori oso lotuta dago diru-sarrerak bermatzeko laguntzetako gastuaren bilakaerarekin. 2017. eta 2018. urte artean gastua $-\% 36,99$ murriztu zen ($-\% 37,60$ prezio konstanteetan). Prestazioetako gastu osoaren partaidetza $\% 2,6$ izan zen 2012an, eta 2016an, ordea, $\% 4,5$ era egin zuen aurrera. 2017an bat-batean $\% 3,5$ era jaitsi zen, eta 2018an $\% 2,3$ baino ez zen izan.

Gobernuz kanpoko pertsoneri eta familiei egindako transferentziek guztira 5,22 milioi euro hartu dute, aztertu dugun gastu osoaren $\% 0,8$. 2016ko emaitzekin erkatuta, nabarmen egin dute gora, eta mailarik gorena 2018an lortu zuten termino nominaletan; hala ere, prestazioetan egindako gastu osoan duten ekarpena 2012koa ($\% 0,9$) baino txikiagoa da.

3.3.2. Gastuaren aldeak, lurralde historikoen arabera

Prestazioetako gastuaren datuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero —12. taulan jaso dira—, interes nabarmeneko aldeak jartzen dira agerian. Araudi erkideari lotuta egon arren, eta pobrezia-errealitate desberdinek baldintzatu arren, 2018an deigarria da gastuak DSBEn eta EGPOn duen eragin oso ezberdina.

Bizkaiak egin du partida horietan gasturik handiena, lurraldeko barne-produktu gordinaren $\% 0,71$; ondoren, Araba dator, $\% 0,59$ ko gastuarekin. Gipuzkoa oso urrun dago, barne-produktu gordinaren $\% 0,40$ ko gastua baino ez baitu egin. Hiru lurraldeetan behatu da 2017. eta 2018. urte artean nabarmen jaitsi dela prestazio horretako gastua. DSBEn dagokionez, Araban osatu da beherakada nominalik handiena ($-\% 8,14$; Gipuzkoan, $-\% 6,94$ eta Bizkaian, $-\% 5,22$). EGPOri dagokionez, beherakadarik handiena Gipuzkoako lurraldekoa izan da: $-\% 7,73$ (Arabako $-\% 6,78$ eta Bizkaiko $-\% 6,45$ baino handiagoa).

⁶ Partidak definitzean egon diren ausazko aldeak direla eta, gizarte-larrialdietarako laguntzen bilakaera eta prestazio-atal horretan sartu diren gainerako gizarte-prestazioena kontuz aztertu behar dira. Hori dela eta, txostenean aplikatu dugun trataera oinarritzen da beste prestazio batzuetan egin den gastuaren hurbilketa bateratuan.



2015. eta 2017. urte arteko joera horiek direla eta, Arabako barne-produktu gordinaren gaineko ekarpenak gehiago egin zuen behera (Arabako ehuneko -0,129 puntu, 2016ko % 0,72tik 2018ko % 0,59ra). Bizkaiko barne-produktu gordinaren gaineko beherakada -0,104 puntukoa izan zen (% 0,82tik % 0,71ra) eta Gipuzkoan -% 0,083koa (% 0,49tik % 0,40ra).

12. taula.

Gizarte-prestazioetako gastua (familiantzako transferentziak) lurralde historikoen arabera. 2018
(Gastu nominala eurotan, BPGd-aren %-a eta urte arteko bariazioa 2017-2018 gastuaren %-tan)

	BPGd % 2018				Bariazioa 2017/2018 aldian %-tan			
	Araba.	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa	Araba.	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa
GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA	0,84	0,59	0,93	0,81	-3,16	-10,23	-4,28	-5,63
LISMI	0,00	0,00	0,00	0,00	-3,92	-2,30	-9,87	-7,04
KGP/GOF	0,07	0,08	0,10	0,09	7,19	5,84	3,58	4,72
LISMI/KGP/GOF GUZTIRA	0,07	0,08	0,10	0,09	7,09	5,80	3,48	4,64
DBE	0,49	0,32	0,59	0,48	-8,14	-6,94	-5,22	-6,09
EPO	0,11	0,08	0,13	0,11	-6,78	-7,73	-6,45	-6,81
GLL	0,05	0,04	0,05	0,04	3,59	-2,82	3,95	1,89
DBE/EPO/GLL GUZTIRA	0,64	0,44	0,76	0,63	-7,16	-6,75	-4,92	-5,71
Familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak	0,04	0,03	0,03	0,03	15,59	-9,57	-10,97	-5,91
Familia eta lana kontziliatzea	0,04	0,03	0,03	0,03	5,61	3,07	-10,73	-3,44
FAMILIA ARLOKO PRESTAZIOAK GUZTIRA	0,08	0,06	0,06	0,06	10,53	-3,73	-10,86	-4,72
Gizarte-larrialdiko laguntzak	0,04	0,01	0,00	0,01	13,79	-37,99	82,80	-3,33
Beste prestazio ekonomiko batzuk	0,01	0,01	0,01	0,01	60,49	-76,20	-22,17	-58,72
BESTE PRESTAZIO BATZUK GUZTIRA	0,05	0,02	0,01	0,02	19,86	-65,48	0,39	-36,99
PRESTAZIO PUBLIKOEN GASTUAK GUZTIRA	0,84	0,59	0,92	0,80	-3,37	-10,07	-4,46	-5,73
Familiantzako transferentzia pribatuak	0,01	0,00	0,01	0,01	26,98	-70,21	13,31	8,06
FAMILIANTZAKO TRANSFERENTZIA PRIBATUEN GASTUA GUZTIRA	0,01	0,00	0,01	0,01	26,98	-70,21	13,31	8,06

Iurria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Aurreko ekitaldi ekonomikoetan Gipuzkoan DSBE/EGPO laguntzetan egiten zen gastu txikiagoa lotuta zegoen lurralde horretan beste prestazio batzuetan egiten zen esfortzu diferentzialarekin: esaterako, beste prestazio batzuetan egindako gastuak barne-produktu gordinaren % 0,06 hartzen zuen 2017an; Araban % 0,04 hartzen zuen, eta Bizkaian % 0,01 baino ez. 2012tik 2015era gauzatu zen igoera handiaren ostean, 2016koa lausoagoa izan zen, eta neurri handi batean lotuta egon zen diru-sarrerak bermatzeko laguntzarekin. 2016an eta 2017an, ordea, gastu nominalak beherakada handia izan zuen Gipuzkoako beste prestazio ekonomiko batzuetan (-% 30,61), eta 2017an eta 2018an areagotu egin da (-% 65,48).

Hori dela eta, Gipuzkoako BPGd/gastua % 0,02 eskasa izan da 2018an, eta Arabako urte bereko % 0,05etik behera dago, duda barik. Arabako gastuak 2016tik 2017ra prestazio horietan izan duen beherakada handia (-% 19,18) eta gero, gastu mota hori 2017tik 2018ra igo da (+% 19,86).

Bizkaian honela bilakatu da ekarpena: 2016tik 2017ra % 5,24 egin du gora, 2017-2018 aldian egonkortu da, eta prestazio osagarri horietako gastua % 0,39 baino ez da handitu. Bizkaian barne-produktu gordinaren gastua gehienez ere % 0,01 izan da 2018an.

Edonola ere, datu aurkeztuek erakusten dute zein lurralde den, BPGd/gastuaren aldaketa handiak gertatu direla prestazio horietan. Gipuzkoak gastura egin duen ekarpena % 0,09koa izan zen 2016an, eta 2018an, ordea, % 0,02 baino ez; Araban, ordea, % 0,04 eta % 0,05 maila artean egonkortu da. Barne-produktu gordinari dagokionez, Bizkaiko gastua egonkortu da, eta 2017an % 0,01 baino ez zen izan.

Bestalde, nabarmentzekoa da 2016an GLLko gastua lurraldetan berdindu zela: zehazki, barne-produktu gordinaren % 0,04 izan zen lurralde horietan. Berdinketa hori gertatu zen Bizkaian eta Gipuzkoan % 5,7 eta % 4 bitarteko gorakadak egon zirenean, eta Araban, ordea, gizarte-laguntzetako gastua 2015etik 2016ra -6 murriztu zenean. Aldaketa deigarri horrek hautsi zuen Araban 2012-2015 aldian partida hori igotzeko osatu zen joera (urte horietan % 109,8 areagotu zen, eta Gipuzkoan % 70,9 eta Bizkaian % 43,6 baino ez zen).

2016an eta 2017an, Araban goranzko joera berreskuratu zen, eta gastuak % 6,14 egin zuen gora; horrela, Bizkaian osatutako % 8,52ra hurbildu zen). Lurralde bietan gizarte-laguntzetan egindako BPGd/gastua % 0,05 igo zen. Bestalde, Gipuzkoan % 0,04 emaitzak jarraitu zuen, nahiz eta partida horrek 2016-2017 aldian lurralde horretan hazkunderik handiena izan (% 10,96).

2017-2018 aldian Araban eta Bizkaian gastuaren goranzko lineak bere horretan jarraitu zuen, baina erritmo motelagoan, eta gorakada nominalak % 3,59 eta % 3,95 izan ziren, hurrenez hurren. BPGd/gastuak ere bere horretan jarraitu du, eta % 0,05 izan zen kasu bietan. Gipuzkoan, aldiz, GLLko gastua jaitsi zen aldi horretan ($-2,82$), eta % 0,04 izan zen.

KGP eta GOF eremuan, alde txikiagoak daude, Bizkaiko gastua handixeagoa izan arren: Bizkaian, % 0,10; Gipuzkoan, berriz, % 0,08 eta Araban % 0,07. Zenbateko horiek egonkor jarraitu dute 2016ko kopuruekin erkatuta, nahiz eta prestazio horiek 2017. eta 2018. urte artean nabarmen igo ziren (Bizkaian, % 3,58; Gipuzkoan, % 5,84; Araban, % 7,19).

Familientzako prestazioen arloan ere antzeko balioak osatu dira, baina prestazio horietako gastua Araban handiagoa izan da (Araban, barne-produktu gordinaren % 0,08; Bizkaian eta Gipuzkoan, % 0,06). Gipuzkoan eta Bizkaian prestazio horretako gastua murriztu zen 2017-2018 aldian ($-3,73$ eta $-10,86$, hurrenez hurren; eta BPGd/gastua Bizkaian 2017ko % 0,07tik 2018ko % 0,06ra jaitsi zen). Araban, ordea, gastu hori nabarmen hazi zen ($+10,53$), eta hori deigarria da familientzako eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoen kasuan ($+15,59$).

Bizkaian DSBE eta EGPO prestazioak nagusitu ziren prestazio-sisteman, eta Bizkaiko ekarpen diferentzialak BPGd/prestazio gastu bateratu handiagoa eragin zuen lurralde horretan: BPGd osoaren % 0,93; baina Araban, % 0,84 eta Gipuzkoan, % 0,59.

2017an barne-produktu gordinaren beherakadarik handiena (ehuneko $-0,10$ puntukoa) Gipuzkoan gertatu zen: % 0,69 puntutik % 0,59 puntura. Balioak biribiltzen baditugu, ehuneko 0,08 puntukoa izan da Bizkaian, % 1,02tik % 0,93ra. Beherakada txikiena Arabakoa da: % 0,90 puntutik % 0,84 puntura (guztira, ehuneko $-0,06$ puntu). Gipuzkoan diru-sarrerak bermatzeko laguntza kendu zen, eta beheranzko joera orokor hori lotu zaio DSBE eta EGPO prestazioen eskaeraren beherakadari. Beheraka horren zergatiak, besteak beste, egoera ekonomikoaren hobekuntza eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren ezarpena izan daitezke.



4. Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako gastuaren finantzaketa

Txostenaren atal honetan, gizarte-zerbitzuetako eta horiekin lotutako gizarte-prestazioetako gastu korrante osoaren finantzaketa-egitura aztertu dugu. Azterketaren ardatza zentro edota zerbitzu motak eta prestazio motak dira berriro ere, bai eta lurraldearen alderdi osagarriak ere. Hurbilketak zehatz-mehatz ezartzen du, gainera, erabiltzaileen partaidetza eta foru-aldundiek eta udalek finantzaketan duten eginkizuna.

4.1. Finantzaketaren alderdi orokorrak

Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusia eta gizarte-prestazioak elkarrekin aztertuta, 13. taulan egiazta daiteke foru-aldundiek jarraitzen dutela sistemaren finantzatzaile nagusiak izaten. 2018an gastuaren finantzaketaren % 42,7 euren gain hartu zuten, eta proportzio hori argi eta garbi gainditu du 2017an lortutako gehieneko kopurua, hots, % 41,4. 2015-2016 aldiko % 5,29ko hazkunde-eritmoarekin erkatuta, 2017-2018 aldian foru-gastua % 3,69 da, beraz, oraindik ere altua da, eta 2016-2017 aldiko % 3,76ko kopurutik hurbil dago. Gizarte-zerbitzuen eta prestazioen gastu orokorraren batez bestekoigoera (% 0,72) baino askoz ere altuagoa da foru-gastuaren gehikuntza.

Eusko Jaurlaritza da bigarren finantzaketa-iturria. 2017tik 2018ra gastuak -% 5,33 egin zuen behera, beraz, 2016-2017 aldian baino gehiago (aldi horretakoa -% 0,66 izan zen). Haren ekarpena murriztu eta honela bilakatu zen: 2014-2016 aldiko % 30,8 eta % 31,0; 2017an, % 29,8; 2018an, % 28,0.

13. taula.
Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako (publikoak eta pribatuak) gastu arrunta finantzabidearen arabera.
2015-2018
(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2017-2018 aldian gastuaren %-tan)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017- 2018 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Finantzabidea					% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
Gastu arrunta guztira	2.001,34	2.073,39	2.135,03	2.150,48	100	100	100	100	0,72
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	64,17	72,46	102,00	83,13	3,2	3,5	4,8	3,9	-18,50
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	620,21	640,29	636,08	602,15	31,0	30,9	29,8	28,0	-5,33
Foru-finantzaketa	809,83	852,71	884,78	917,43	40,5	41,1	41,4	42,7	3,69
Udal-finantzaketa	185,58	178,07	171,09	190,88	9,3	8,6	8,0	8,9	11,56
Finantzaketa pribatua	321,55	329,87	341,07	356,90	16,1	15,9	16,0	16,6	4,64
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	1.333,14	1.401,25	1.478,49	1.530,89	100	100	100	100	3,54
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	64,17	72,46	102,00	83,13	4,8	5,2	6,9	5,4	-18,50
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	52,45	68,77	77,22	74,27	3,9	4,9	5,2	4,9	-3,82
Foru-finantzaketa	732,59	774,01	810,96	847,67	55,0	55,2	54,9	55,4	4,53
Udal-finantzaketa	167,05	158,43	152,07	174,14	12,5	11,3	10,3	11,4	14,51
Finantzaketa pribatua	316,89	327,58	336,24	351,67	23,8	23,4	22,7	23,0	4,59
Gizarte-prestazioak	668,20	672,14	656,54	619,59	100	100	100	100	-5,63
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	567,76	571,52	558,86	527,88	85,0	85,0	85,1	85,2	-5,54
Foru-finantzaketa	77,24	78,70	73,82	69,76	11,6	11,7	11,2	11,3	-5,51
Udal-finantzaketa	18,53	19,64	19,02	16,74	2,8	2,9	2,9	2,7	-12,01
Finantzaketa pribatua	4,67	2,28	4,84	5,22	0,7	0,3	0,7	0,8	8,06

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Arlo publikoan udalen ekarpena agertzen da hirugarren postuan (% 8) 2012ko % 8,7tik 2015eko % 9,3ra igo ondoren, 2016ko datua aldaketa (% 8,6) nabarmena da, udalen ekarpen erlatiboa bere mailarik baxuenera daramana 2012tik hona. Joera hori ez zen batere aldatu, eta 2016-2017 aldiko gastuaren beherakada nominala (-% 3,92) dela eta, 2017an udalen eta mankomunitateen ekarpen finantzarioa % 8 baino ez zen izan.

2017-2018 aldian dinamika hori nabarmen aldatu zen, eta udal finantzaketa % 11,56 handitu zen aldi horretan. Hori izan zen gehikuntzarik handiena, erakunde motaren arabera erkatuta. Udalek finantzaketan pisua berreskuratu zuten, eta 2018ko ekarpena % 8,9koa izan zen, beraz, 2013ko eta 2014ko % 9tik oso hurbil geratu zen.

Autonomiaz gaindiko finantzaketak, ordea, beheranzko joera dauka, nahiz eta aurreko aldietan igoera handiak izan. Termino nominaletan, guztizko gastuaren finantzaketak erkidegoz gaindi izandako ekarpena (mendekotasunaren arloko sistemari dagokiona, batik bat) % 12,91 areagotu zen 2015etik 2016ra, eta, bereziki, 2016tik 2017ra (% 40,77). Dena den, 2017-2018 aldian ekarpen hori -% 18,50era murriztu zen⁷. Horren ondorioz, 2018ko ekarpen finantzarioa 83,13 milioi eurokoa izan da, eta, termino nominaletan ia ez da 2013ko 81,12 milioietara iritsi.

Partaidetza erlatiboak 2013ko % 4,4tik 2014ko % 2,7ra egin zuen behera, baina 2014az geroztik hasi zen goranzko joeraren ondorioz, autonomiaz gaindiko erakundeek ekarpen erlatiboa % 4,8koa izan zen 2017an. Proporzioa, ordea, % 3,2ra jaitsi da 2018an; balio hori bakarrik erkatu daiteke 2015eko balioarekin, eta soilik 2014ko % 2,7 baino handiagoa izan da.

Sektore pribatuari 2018an gainerako gastuaren % 16,6ko finantzaketa dagokio soilik, 2017ko % 16 baino sei hamarren handiagoa. Horrela, 2013az geroztik behatu zen protagonismoaren galera sendotu zen. Urte horretan % 16,8ko proportzioa izan zuen, eta 2016an % 15,9ra iritsi zen, ehunekorik txikiena, 2012az geroztik aztertuta. 2015-2016 aldian gastuaren finantzaketa pribatuak % 2,59 egin zuen gora termino nominaletan, eta 2016-2017 aldian % 3,40ra iritsi zen igoera. Finantzaketa pribatuaren hazkunde-erritmoaren goranzko dinamika hori 2017-2018 aldian sendotu zen: gehikuntza % 4,64koa izan zen, eta udal-gastuak baino ez zuen gainditu.

4.2. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketa

Zerbitzu eta prestazio guztiak batera aztertzean ikusitakoarekin alderatuta, 13. taulak ere erakusten du foru-finantzaketak pisu handiagoa duela, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian hura nagusitzen delarik, hain zuzen ere. Kasu horretan, foru-aldundiek % 55,4ko ekarpena egin diote gastuari 2018an, 2012. urtearen osteko proportziorik handiena, hain zuzen ere. 2017tik 2018ra, % 4,53 igo zen foru erakundeek gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketari egiten dioten ekarpen absolutua. Hazkunde-erritmoa oso handia da, baina behera egin du, 2015-2016 aldiko % 5,65 edo 2016-2017 aldiko % 4,77 kontuan hartzen baditugu.

2018an, udalek gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiaren finantzaketaren % 11,4 eman zuten. 2017ko % 10,3 balioarekin erkatuta, ordea, gora egin du; beraz, zifra hori 2016ko balioetara (% 11,3) hurbiltzen da, eta 2012-2015 aldikoak (% 11,9 eta % 12,5 bitartekoak) baino txikiagoa da. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egindako ekarpen absolutua, ordea, nabarmen igo zen 2016tik 2017ra

⁷ 2015-2017 aldiko joera hori hein batean azaltzen da 2017an zenbateko geroratuak jaso baitziren partida garrantzitsu batzuen transferentzietan; bereziki, etxez etxeko laguntza-zerbitzuek foru-aldundiei egiten zizkieten ekarpen batzuei dagokienez. Horrek gastuaren banaketari eragin dio gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian.



(zehazki, % 14,51); horrek apurtu zuen 2015-2016 aldiko beheranzko joera (-% 5,16), baita 2016-2017 aldikoa ere (-% 4,01).

2018an ekarpen autonomikoa % 4,9 eskasa izan zen gizarte-zerbitzuen nukleoan, % 5,4tik beherakoa, eta autonomiaz gaindiko erakundeei dagokie⁸. Kasu bietan proportzio horiek 2015eko zifretatik (% 3,9 eta % 4,8, hurrenez hurren) gorakoak dira, baita 2014ko zifretatik gorakoak ere (urte horretako autonomiaz gaindiko ekarpena % 4 izan zen). Hala eta guztiz ere, beherakada handia erakusten dute 2017ko balioekin erkatuta (finantzaketa autonomikoa % 5,2 izan zen, eta autonomiaz gaindiko ekarpena % 6,9). Horiek horrela, 2017-2018 aldian ekarpen absolutua nabarmen jaitsi da: -% 18,50, autonomiaz gaindiko erakundeei dagokienez; eta -% 3,82, finantzaketa autonomikoari dagokionez.

Finantzaketa pribatuaren pisua % 23,0 izan da; beraz, 2017ko % 22,7tik gora dago. Azken proportzio horrek 2013ko % 24,2tik beheranzko linea erakutsi zuen, eta baliorik txikiena zen 2012az geroztik. 2018an oraindik ere ehuneko baxuenetako bigarrena izan da. Zenbateko absolutuei erreparatuz gero, ekarpen pribatuak goranzko joera du, 2017 eta 2018 bitartean % 4,59 igo baita. 2015-2016 aldiko % 3,38tik 2016-2017 aldiko % 2,64ra jaitsi ondoren, berriro piztu zen gizarte-zerbitzuen finantzaketaren zati pribatua. Ekarpenera foru-aldundiei eta udalei zegokiena baino txikiagoa izan zen 2017tik 2018ra, eta, horrexegatik izan du finantzaketa-pribatuak suspertze mugatua termino erlatiboetan.

4.2.1. Arloa eta zentro edota zerbitzu mota

14. taulan ikus daitekeen bezala, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean (sektoreko zerbitzu orokorrak eta defizita/superabita) foru-aldundiek izan duten ekarpena, funtsean, % 16,1 izan zen 2018an. 2012tik 2013ra % 45,5etik % 54,1era igo ondoren, harrezkero beheranzko joera osatu da, 2014-2016 aldian beherakada txikiagoak izan arren (2016an % 47koa izan zen), harrezkero beherakada areagotu zen, eta 2017an % 33,2 eta 2018an % 16,1 izan da. Atal honi lotutako finantzaketaren beherakada handiak oso lotuta daude ezohiko ekarpenen premiarekin, ezohiko ekarpenak nabariak izan baitira azken urteetan (2016tik 2017ra -% 33,17; eta 2017tik 2018ra, -% 57,21). Behatutako dinamika horretan, gastuaren defizita kontrolatzeko prozesuak erabakigarriak izan dira.

Defizit-egoerak gero eta gehiago kontrolatzeko joera horri lotuta, udal-erakundeen joera ere antzekoa da, eta egitura orokorrari lotutako finantzaketa nabarmen jaitsi da (-% 52,53, 2017tik 2018ra). 2016tik 2017ra behatutako egonkortze-prozesuan (% 0,88), beherakada berri hori 2015-2016 artekoa (-% 28,35) areagotu du. Gastu mota horretan udalek izan duten pisuak behera egin du: 2015ean % 13,7 izan zen, baina 2016-2017 aldian % 8,1 eta % 8,6 bitartekoa izan da, eta 2018an, % 4,6 baino ez da izan.

Udal- eta foru-erakundek defizita pixkanaka kontrolatu nahi izan dute; hori dela eta, gizarte-zerbitzu autonomikoen egitura orokorraren finantzaketa arlo horretako finantzaketa-erreferentzia nagusia izan da. Horiek horrela, finantzaketa autonomikoaren pisua % 58,4 izan zen 2017an; eta 2018an % 62,8ra ere iritsi zen.

Erakunde autonomikoen egin duten ekarpen nagusi horrekin batera, autonomiaz gaindiko erakundek beste % 16,5 ere egin dute, oro har, gizarte-zerbitzuetako orotariko funtsei lotzen zaie.

⁸ Ikus 7. oharra.

Bestalde, ekarpen pribatuak egitura orokorrean egiten zuen gastuaren beheranzko linea ere sendotu da; eta 2016tik aurrera ekarpen garbi negatiboa egin du finantzaketan, zeinak erakunde horien 2016-2018 aldiko superabit-lerroa erakusten baitu.

14. taula.
Gizarte-zerbitzuen egiturako gastu arrunta finantzabidearen arabera. 2015-2018
(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017- 2018 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Gastu-sektorea eta finantzabidea									%-tan
EGITURA GUZTIRA	167,45	185,84	210,33	210,30	100	100	100	100	-0,01
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,55	0,04	0,18	11,25	0,3	0,0	0,1	5,3	6173,13
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	27,46	40,27	47,77	44,89	16,4	21,7	22,7	21,3	-6,04
Foru-finantzaketa	81,62	89,86	108,60	99,14	48,7	48,4	51,6	47,1	-8,71
Udal-finantzaketa	56,55	53,43	53,85	54,98	33,8	28,8	25,6	26,1	2,10
Finantzaketa pribatua	1,27	2,24	-0,08	0,03	0,8	1,2	0,0	0,0	-142,88
Egitura orokorra (defizita/superabita)	67,42	81,94	77,54	68,19	100	100	100	100	-12,07
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,55	0,03	0,18	11,25	0,8	0,0	0,2	16,5	6238,96
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	23,94	35,44	45,29	42,79	35,5	43,3	58,4	62,8	-5,51
Foru-finantzaketa	32,44	38,49	25,72	11,01	48,1	47,0	33,2	16,1	-57,21
Udal-finantzaketa	9,22	6,61	6,67	3,17	13,7	8,1	8,6	4,6	-52,53
Finantzaketa pribatua	1,27	1,38	-0,31	-0,03	1,9	1,7	-0,4	0,0	-91,14
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-larrialdiak eta espezializatuak	100,03	103,90	132,79	142,12	100	100	100	100	7,02
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,00	0,02	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	3,52	4,83	2,49	2,10	3,5	4,6	1,9	1,5	-15,70
Foru-finantzaketa	49,18	51,38	82,88	88,14	49,2	49,4	62,4	62,0	6,34
Udal-finantzaketa	47,33	46,82	47,19	51,82	47,3	45,1	35,5	36,5	9,82
Finantzaketa pribatua	0,00	0,86	0,23	0,06	0,0	0,8	0,2	0,0	-74,32

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

14. taulan ere erakusten duen bezala, oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta zerbitzu espezializatuak dagokienez, foru-erakundearen eta udalen finantzaketa oraindik nagusi izan da 2018an.

Ekarpen finantzarioak gizarte-zerbitzu aztertuetako gastuen % 62 hartzen du. 2017ko % 62,4tik behera dago, baina proportzio horrek oraindik ere islatzen du foru-erakundeek azken urteotan egin duten ekarpen erlatiboaren gehikuntza nabaria: bai 2016ko % 49,4, baita 2012ko % 56,1 ere. Izan ere, 2013tik gora egin du foru-aldundiek oinarrizko gizarte-zerbitzuei eta zerbitzu espezializatuak egin dieten ekarpen absolutua: 2015-2016 aldian % 4,46 gehitu ondoren, 2016-2017 aldiko % 61,32ko balioak aldaketa kualitatiboa erakusten zuen. Gastuaren linea hedakor horrek bere horretan jarraitu zuen 2017-2018 aldian, eta foru-finantzaketan % 6,34 egin zuen gora.

2018an foru-aldundiek oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta zerbitzu espezializatuak egin zuten ekarpen kuantitatiboa 88,14 milioi eurokoa izan zen, eta kopuru horrek 2017ko 82,88 milioiak nabarmen gaintu ditu. 2017-2018 aldiko zifrak urrun daude 2016ko 51,38 milioietatik. Zifra oraindik ere baldintzatu du 2012. eta 2013. urte arteko beherakadaren eraginak (2012ko 58,93 milioi eurotik 2013ko 42,49 milioi eurora).



Udalei eta mankomunitateei dagokienez, udal-partaidetzak gora egin du zerbitzu horien finantzaketan: 2012ko % 38tik 2015eko % 47,3ra, hain zuzen ere. 2016an proportzioa % 45,1era murriztu zen; eta 2017an % 35,5ekoa izan zen; 2018an apur bat suspertu zen, baina % 36,5era baino ez zen iritsi. Bilakaera hori neurri handi batean 2016-2017 arteko bilakaerari lotu zaio: aldi horretan foru-finantzaketa biziki handitu zen (+% 61,32) eta, aldi berean, udal-eremuko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako, gizarte-larrialdietako eta zerbitzu espezializatuetakoko gastua ez zen igo (2016tik 2017ra % 0,78 baino ez zen igo, nahiz eta 2015-2016 aldian -% 1,08 erori zen).

Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da 2017-2018 aldian udal-gastuaren esfortzua berriro nabarmendu dela, % 9,82ra iritsi baita (foru-erakundeena % 6,3koa izan da). Hori izan da, hain zuzen ere, udal-finantzaketa suspertzearen oinarria; hau da, horregatik igotzen hasi zen berriro oinarrizko gizarte-zerbitzuen, gizarte-larrialdien eta zerbitzu espezializatuen finantzaketa globalean udal-finantzaketak aldi horretan zuen pisu erlatiboa.

Gastuaren suspertze hori oso garrantzitsua da: lehenengo aldiz, 2015etik, udal-gastuak aurrerapauso handia eman zuen zerbitzu horietan; izan ere, udal-gastua zeharo baldintzatu zuen aurreko krisialdiak. Izan ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, gizarte-larrialdietan eta zerbitzu espezializatuetan udal-gastuaren gorakadaren linea neurritsua izan zen 2012tik 2015era: 39,90 milioitik 47,33 milioira aldatu zen aldi horretan; baina 2015etik 2017ra egonkortasuna izan da nagusi, eta horren adibide dira 2017ko 47,19 milioiak. Zifra hori izan zen 2012tik aurrerako ekarpen handienetako bigarrena, termino nominaletan. Hala eta guztiz ere, oraindik ere erakusten zuen udal-gastua oinarrizko gizarte-zerbitzuetan kontrolatu beharra. 2018an gastua berriro indartu zen. Udal-ekarpena 51,82 milioikoa izan zen, beraz, lehenengo aldiz 2015eko 47,33 milioitik gorakoa izan zen, eta 50 milioiko ataria ere gainditu zen.

Autonomien ekarpena nabarmen jaitsi zen 2016tik 2017ra; eta 2017-2018 aldian jaisten jarraitu zuen. Hortaz, erakunde autonomikoen posizio marjinala zuten oinarrizko zerbitzu mota horren finantzaketan. Horiek horrela, 2016an erakunde autonomoen oinarrizko gizarte-zerbitzuen gastuaren % 4,6 finantzatu zuten, baina 2018an, ordea, % 1,5 baino ez. Dena den, joera hori koherentea da Euskadiko gizarte-zerbitzuen sisteman ezarritako ahalmen-banaketaren ereduarekin.

Bestalde, finantzaketa pribatuak oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egiten duen ekarpena ia nulua izan da 2018an (% 0,0).

15. taulak aurkezten du adinekoentzako, desgaitasunak edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketa-egitura. Taula horren arabera, foru-aldundiek gizarte-zerbitzuen sektore horretako gastuaren % 54,0 finantzatu dute, 2016ko % 54,1 baino hamarren bat gutxiago. Horrek foru-aldundien protagonismoaren suspertzea erakusten du, 2017an % 52,7ra erori ondoren.

2016-2017 aldian foru-gastu hori biziki murriztu zen, 2015-2016 gastuarekin erkatuta: % 1,26 eta % 5,29, hurrenez hurren. 2017-2018 aldian berriro igo zen zentro eta zerbitzu mota horretako gastua, zehazki, % 5,85era igo zen; hortaz, 2015-2016 aldikoa baino handiagoa ere izan zen.

15. taula.

Adinekoentzako eta Desgaitasuna/gaixotasunak nahiz mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen gastu arrunta, finantzabidearen arabera. 2015-2018
(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2017-2018 aldirian %-tan)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017- 2018 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	%-tan
Gastu-sektorea eta finantzabidea									
MENDEKOTASUNAREN, ADINEKOEN ETA DESGAITASUNEN ARLOA GUZTIRA	1006,13	1047,46	1088,97	1125,03	100	100	100	100	3,31
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	63,34	70,77	97,64	66,19	6,3	6,8	9,0	5,9	-32,22
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	15,55	19,13	19,40	19,66	1,5	1,8	1,8	1,7	1,34
Foru-finantzaketa	538,27	566,74	573,90	607,47	53,5	54,1	52,7	54,0	5,85
Udal-finantzaketa	79,05	72,23	67,30	86,58	7,9	6,9	6,2	7,7	28,64
Finantzaketa pribatua	309,92	318,59	330,72	345,14	30,8	30,4	30,4	30,7	4,36
Adinekoentzako zentro eta zerbitzuak	611,83	630,95	651,61	677,52	100	100	100	100	3,98
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	36,09	38,52	54,70	44,69	5,9	6,1	8,4	6,6	-18,29
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,16	3,52	2,80	3,11	0,0	0,6	0,4	0,5	11,15
Foru-finantzaketa	268,36	275,36	272,72	290,89	43,9	43,6	41,9	42,9	6,66
Udal-finantzaketa	36,65	34,25	31,05	32,74	6,0	5,4	4,8	4,8	5,43
Finantzaketa pribatua	270,57	279,30	290,34	306,09	44,2	44,3	44,6	45,2	5,42
Desgaitasunak/gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak	192,72	200,39	209,22	215,49	100	100	100	100	3,00
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	13,90	16,62	19,75	3,86	7,2	8,3	9,4	1,8	-80,44
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	9,27	9,00	10,85	10,71	4,8	4,5	5,2	5,0	-1,30
Foru-finantzaketa	140,93	146,45	149,86	173,21	73,1	73,1	71,6	80,4	15,58
Udal-finantzaketa	0,58	0,82	0,65	1,24	0,3	0,4	0,3	0,6	89,41
Finantzaketa pribatua	28,02	27,52	28,11	26,47	14,5	13,7	13,4	12,3	-5,81
Ettxeko laguntza, telelaguntza eta zainzaileen babesa	90,06	90,97	97,23	94,53	100	100	100	100	-2,78
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	2,93	3,42	7,30	3,08	3,3	3,8	7,5	3,3	-57,86
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	6,12	6,61	5,76	5,84	6,8	7,3	5,9	6,2	1,54
Foru-finantzaketa	27,88	32,05	36,32	20,43	31,0	35,2	37,4	21,6	-43,74
Udal-finantzaketa	41,82	37,13	35,58	52,59	46,4	40,8	36,6	55,6	47,81
Finantzaketa pribatua	11,32	11,77	12,27	12,58	12,6	12,9	12,6	13,3	2,50
Mendekotasunaren arloko prestazio ekonomikoak	111,52	125,14	130,90	137,50	100	100	100	100	5,04
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	10,42	12,22	15,89	14,55	9,3	9,8	12,1	10,6	-8,40
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Foru-finantzaketa	101,10	112,89	115,00	122,93	90,7	90,2	87,9	89,4	6,90
Udal-finantzaketa	0,00	0,03	0,02	0,01	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00
Finantzaketa pribatua	0,00	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Adinekoentzako, desgaitasunak edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen eremuan ere 2017-2018 aldirian nabarmen igo da udal-ekarpena: udalek eta mankomunitateek % 28,64 handitu baitute ekarpena. Horrela, ekarpena murrizteko 2015-2017 aldiko joera aldatu da: 2015-2016 aldirian -% 8,63 izan zen, eta 2016-2017 aldirian -% 6,83.

2015etik 2017ra osatu ziren beherakadak direla eta, udalek sektore horretan egiten zuten ekarpena nabarmen murriztu zen 2017an. Hala, 2012tik 2015era egonkortasuna nagusitu zen, eta partaidetza % 7,6 eta % 8,1 bitartekoa izan zen. Harrezkero, ordea, ekarpena biziki murriztu zen: 2016an, % 6,9 eta 2017an % 6,2. 2018an berriro igo da % 7,7ra, eta udalen finantzaketaren pisua 2012. eta 2015. urte artean ohikoak ziren mailetara iritsi da.



Foru-erakundeen eta udalen gastuaren igoerarekin batera, murriztu egin zen autonomiaz gaindiko erakundeek adinekoentzako, desgaitasunak edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako sektorean egindako ekarpena. Ekarpene hori % 37,97 handitu zen 2016tik 2017ra; eta 2015-2016 aldikoa (% 11,74) baino handiagoa ere izan zen, baina, Estatuko Administrazio Orokorrek finantzaketa-arazoak izan zituenean, aurreikusi baina geroratu behar izan zituen finantzaketa-kopuruek zerikusi handia izan zuten⁹. Horregatik, 2017-2018 aldian autonomiaz gaindiko ekarpenak berriro egin zuen behera, zehazki, -% 32,22.

2014ko % 5,3ra iritsi ondoren, autonomiaz gaindiko administrazioek goranzko joerari eutsi zioten, eta adinekoentzako, desgaitasunak edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako zerbitzuen % 9ko ekarpena egin zuten 2017an. Proporzio hori 2012ko eta 2013ko mailetara ere iritsi zen (2012an, % 8,2; eta 2013an, % 8,4). 2018ko doikuntza eta gero, proporzio aztertua % 5,9koa izan zen, 2012tik aurrerako baliorik txikiena.

Bestalde, autonomien ekarpena % 1,7koa izan zen 2017an; beraz, 2016ko eta 2017ko % 1,8tik hurbil dago. 2015ean eta 2016an ekarpen autonomikoa nabarmen igo ondoren (% 23,01era iritsi zen), 2016-2018 aldian handitzeko erritmoa egonkortu zen (2016-2017 aldian, % 1,44; 2017-2018 aldian, % 1,34).

Finantzaketa pribatuak, 2012ko eta 2014ko % 31 eta % 31,6 bitarteko balioetatik behera egon ondoren, gora egin zuen arlo horretan: 2016-2017 aldian, % 30,4; eta 2018an, % 30,7. Foru-erakundeen eta udalen gastuaren igoeretara iritsi ez arren, finantzaketa pribatuak sektore horretan egin zuen ekarpenak gora egin zuen 2015etik 2018ra. Horrela, finantzaketa pribatua 2015-2016 aldiko % 2,80tik % 3,81era igo zen 2016-2017 aldian eta % 4,36ra 2017-2018 aldian.

Sektorean izandako jarduketa motak aztertuz gero, ondoriozta daiteke foru-erakundeen finantzaketaren pisuak gailurra jotzen duela mendekotasunaren arloko prestazioetan, % 89,4ko ekarpenarekin. Foru-erakundeen ekarpena 2015-2016 aldian % 11,66 igo zen, baina 2016-2017 aldian % 1,87 baino ez zen handitu, eta 2017-2018 aldian berriro igo zen, % 6,90era.

Autonomiaz gaindiko erakundeek ekarpenak behera egin zuen 2017-2018 aldian; eta, bereziki, etxez etxeko laguntza-zerbitzuan bildu ziren. 2016-2017 aldian autonomiaz gaindiko erakundeek ekarpena % 30,02 izan zen (beraz, 2015-2016 aldiko % 17,25 baino handiagoa), baina 2017-2018 aldian, ordea, -% 8,40 murriztu zen. Prestazio horiek finantzaketa globalean egiten duten ekarpena % 12,1era iritsi zen 2017an (beraz, 2014-2015 aldiko % 9,1 eta % 9,3 balioak eta 2016ko % 9,8 baino handiago izan zen); baina 2018an % 10,6ra jaitsi zen. Balio hori 2013ko % 14,1etik oso urrun dago.

Bilakaera horrek erakusten du finantzaketa-krisialdian autonomiaz gaindiko erakundeek ekarpena biziki jaitsi zela, mendekotasunaren arloari dagokionez: 2012-2013 aldian 13,20 eta 14,94 milioi euro; 2014an 9,72; 2015ean 10,42; eta 2016an 12,22. Finantzaketaren benetako egoera erakusten ez bazuen ere, 2017an ordainketa aurreratuak gauzatu ziren, eta 15,89 milioiko ekarpena egin zen; hortaz, horrek 2013ko 14,94 milioiko kopurua gainditu zuen termino nominaletan zein termino konstanteetan. Hala eta guztiz ere, 2018an % 14,55 milioiko ekarpena egin zen, eta maila berriro ere izan zen 2013ko baliotik beherakoa.

Foru-aldundiek parte-hartze handiko beste arlo bat desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuena da. Kasu horretan foru-finantzaketak 2016an sektore

⁹ Ikusi 7. oharra.

osoaren finantzaketa globalaren % 73,1 ere hartu zuen, 2015ean bezala, baina 2012-2014 aldiko % 68,4 eta % 69,7 bitarteko balioekin erkatuta, igoera handia da.

Autonomiaz gaindiko finantzaketa, beraz, gora egiten ari zen, baina 2017an, ordea, zertxobait jaitsi zen, eta % 71,6 hartu zuen. 2018an, aldiz, berriro igo eta % 80,4ra iritsi zen. 2017tik 2018ra foru-erakundeen finantza-ekarpenak gora egin zuen: % 15,58. Igoera oso handia izan zen 2016-2017 aldiko % 2,33 eta 2015-2016 aldiko % 3,91 balioekin erkatuta.

Autonomiaz gaindiko erakundeek desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako zerbitzuen sektorean egin zuten ekarpena % 9,4ra igo zen 2017an, beraz, 2012ko % 9,7tik hurbil egon zen; baina 2018an, ordea, % 1,8ra jaitsi zen. Zenbateko absolutuetan, autonomiaz gaindiko erakundeen ekarpena 2012ko 17,25 milioi eurotik 2014ko 12,80 milioira jaitsi zen. 2015-2016 aldian gastua % 19,53 igo zen, eta 2016-2017 aldian, % 18,88; hori eta gero, 2017ko 19,75 milioiko kopurua 2012tik aurrerako baliorik altuena izan zen. 2018an, ordea, ekarpena % 3,86 baino ez zen izan.

2018an autonomiaz gaindiko erakundeen ekarpena sektore horretan % 5,0 izan zen; beraz, 2016ko % 4,5 balioarekin erkatuta, handiagoa zen, baina 2017ko % 5,2 baino txikiagoa. Sektore horretan 2016-2017 aldian egindako gastu autonomikoak (+% 20,59) aldatu zuen 2015-2016 aldiko joera (-% 2,99), baita 2012ko % 5,4tik aurrerako beheranzko partaidetza ere. 2017tik 2018ra, ekarpen autonomikoa -% 1,3 murriztu zen, eta gastua 10,71 milioi eurokoa izan zen.

Bestalde, desgaitasuna edota mendekotasuna duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketan udalek egin zuten ekarpena oraindik ere oso murriztua zen 2017an (% 0,6 baino ez).

Desgaitasunaren edota gaixotasunaren arloetan, finantzaketa pribatuak gora egin zuen 2016-2017 aldian, zehazki, % 2,15. Ordea, 2015-2016 aldian, -% 1,82 egin zuen behera sektorean egindako ekarpenak. 2017-2018 aldian, ordea, ekarpena biziki murriztu zen, zehazki, -% 5,81eko beherakada osatu zen.

Finantzaketa pribatuaren azken dinamikak indartzen du finantzaketa horren ekarpenaren beherakada erlatiboa. 2012tik 2014ra % 15,2tik % 17,8ra igo zen. Horren ostean, murriztu egin zen sektoreko gastuaren finantzaketa, eta 2016an % 13,7koa izan zen; 2017an, % 13,4koa, eta 2018an, % 12,3koa; beraz, 2018koa izan da 2012tik aurrerako baliorik txikiena. Zenbateko absolutuei erreparatuz gero, ekarpen pribatuaren 2018ko 26,47 milioi euroak 2012ko zenbatekotik (27,04) gertuago daude, 2014an 35,46 milioi eurora iritsi ondoren.

Adinekoentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez, berriz, foru-erakundeek % 42,9ko ekarpena egin diote finantzaketa orokorrari 2018an. 2012ko % 40,7tik eta 2017ko % 41,9tik gora dago, baina, hala ere, 2014an lortutako % 44,7tik beherakoa da oso. Aldea handi samarra da 2015-2016 aldiko balioekin (% 43,6 eta % 43,9) erkatzen badugu.

Indar-galera hori neurri handi batean lotuta dago foru-ekarpenaren 2016-2017 urte bitarteko beherakada absolutuarekin; izan ere, murrizketa -% 0,96koa izan zen. Adineko pertsonen edo mendekotasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arreta emateko zerbitzuetan gauzatu zen garai hartan foru-aldundiek egindako finantzaketa-murrizketa bakarra. Sektore horretako foru-gastuari dagokionez, 2015etik 2016ra adineko pertsonentzako zerbitzuetako gastua gutxien handitu zena izan zen (% 2,61ekoa izan zen, eta sektore horretan guztira % 5,29koa izan zen). 2017tik 2018ra, ordea, egoera aldatu zen, eta foru-erakundeen ekarpena biziki handitu zen; are gehiago, adineko pertsonen edo mendekotasuna edo gaixotasuna duten pertsonen arreta emateko sektorean egin zuen ekarpen orokorra baino handiagoa izan zen (% 6,66; eta sektore orokorrekoa, % 5,85).



Berrito ere, foru-erakundeek ekarpenarekin batera, autonomiaz gaidiko erakundeek ekarpena murriztu egin zen. Zenbateko absolutuei begira, ekarpena 27,53 milioi eurotik 54,70 milioi eurora igo zen 2014tik 2017ra, beraz, 2012. eta 2013. urteetako 40 milioitik gorakoa izan zen. Aurrerapen handi horrek erantzun zion autonomiaz gaidiko erakundeek ekarpenaren bolumen absolutuaren 2016-2017 aldiko % 42,01eko gehikuntzari. Hala eta guztiz ere, 2017-2018 aldirian, ekarpenak % 54,70etik % 44,69ra egin zuen behera, eta murrizketa erlatiboa –% 18,9koa izan zen. Terminu erlatiboetan, 2014an % 4,6ko ekarpena baino ez zen egin; eta 2017an % 8,4koa izan zen. Hori eta gero, autonomiaz gaidiko erakundeek adinentzako zentro eta zerbitzuen finantzaketan egin duten ekarpena 2012ko % 7,2tik 2017ko % 6,6ra jaitsi da.

Udalen ekarpenak, ordea, gora egin du finantzaketan: zehazki, % 5,43 handitu da 2017tik 2018ra. Zenbateko erlatiboetan ekarpenak, ordea, % 4,8 (2017ko balioa) izaten jarraitzen du. Maila horrek behea jo du 2012tik hona, eta 2012-2013 aldirian izandako ehunekoetatik (% 6,5 eta % 6,6) aldentzen da, baita 2014-2015 aldiko mailetatik ere (% 5,9 eta % 6,0), eta 2016ko % 5,4tik ere bai. Egoera horretara iritsi zen udalen ekarpena 2015-2017 aldirian nabarmen jaitsi baitzen adinentzako zentroen eta zerbitzuen mantentze-arloan (2015-2016 aldirian, –% 6,55; eta 2016-2017 aldirian, –% 9,35). Finantzaketa berrito igo zen 2017-2018 aldirian; baina ez zen gai izan joera hori iraultzeko: udalen ekarpena 32,74 milioi eurokoa izan zen 2018an, eta hori urrun dago 2015eko 36,65 milioi euroko kopurutik.

Adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan ekarpen pribatua nabarmentzen da: gastu osoaren % 45,2 hartzen du. Ehuneko horrek agerian uzten du 2015az geroztik gora egiten ari dela, 2015ean % 44,2 izan baitzen. Dinamika horren oinarrian ekarpenaren gehikuntza esanguratsua dugu. Honela: 2015-2016 aldirian, % 3,22; 2016-2017 aldirian, % 3,95; eta 2017-2018 aldirian, % 5,42. Zenbateko kuantitatiboek dagokienez, ekarpen pribatuak era jarraituan egin zuen gora: 2012ko eta 2013ko 255 milioi euroko kopurutik 2017ko 290,34 milioi euroko kopurura. 2018an gehieneko kopurua osatu zen, eta ekarpen pribatua 306,09 milioikoa izan zen.

Adinekoentzako, desgaitasunak edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzako sektorean, foru-aldundien ekarpen erlatiborik urriena etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileen babesaren arloan osatu da. Kasu horretan, % 21,6koa izan da 2018an foru-erakundeek finantzaketa globalean egin duten ekarpena.

2012an % 37,1era iritsi eta gero, goranzko lineak jarraitu egin zuen, baina 2015ean, ordea, % 31 izan zen. Urte horretatik aurrera igotzen hasi zen berrito, eta 2017an % 37,4 izan zen, proportzio hori 2012koa baino handixeagoa zen, hain zuzen ere. Foru-erakundeek ekarpena esku-hartze sozialean handitzeko dinamika hori, ordea, 2018an aldatu zen, eta –% 43,74ko beherakada izan zuen. Hori aldaketa handia izan zen 2015-2017 aldiko gorakada handiekin erkatuta (2015-2016 aldirian, % 14,96 izan zen; eta 2016-2017an, % 13,33). 2017ko 36,32 milioi euroko kopuruak 2012ko 35,75 milioi euroko kopurua gaiditu zuen, baina, hori eta gero, 2018an 20,43 milioi euroko kopurua osatu zen, 2015eko 27,88 milioi euroko kopurua osatu ondoko zifrarik txikiena.

Udal-erakundeek jarduera horiek finantzatzeko izan behar duten eginkizunaren gorabeherak izan daitezke dinamika horren oinarriak. 2012-2013 aldirian % 40,5etik % 37,5era jaitsi zen, baina, hori eta gero, udalek etxeko laguntza-programetan, telelaguntzan eta zaintzaileei laguntzeko programetan egin zuten ekarpena 2015ean igo zen, zehazki, % 46,4ra. Harrezkero, programa horietan egindako finantzaketak behera egin zuen, eta, horren ondorioz, 2017an % 36,6 izan zen; hortaz, foru-aldundien ekarpena baino txikiagoa izan zen lehen aldiz. 2018an, ordea, udalen ekarpen finantzarioa berrito nagusitu zen, eta % 55,6 osatu zuen.

2018an, beraz, aldaketa handia izan zen udalek eta mankomunitateek programa horietan egiten zuten ekarpen absolutua murrizteko prozesuan. 2015etik 2016ra beherakadarik handiena osatu zen, -% 11,21, baina murrizteko joerak 2016an eta 2017an ere jarraitu zuen, zehazki, -% 4,17. Azken jardueren ondorioz, ordea, 2017-2018 aldian gora egin du udal-gastuak, zehazki, 47,81 %.

Aldaketa hori lotzen zaio sektorearen ordena berriari, eta udal-gastua etxeko laguntzan, telelaguntzan eta zaintzaileei laguntzeko programetan egin da: 2018an 52,59 milioi bideratu dira. Proportziorik handiena da 2015. urteaz geroztik (41,82 milioi).

Jarduera mota horren finantzaketa autonomikoari dagokionez, % 5,2koa izan zen 2012an eta 2013an; 2014an, % 5,7koa; 2015ean, % 6,8koa; eta 2016an, % 7,3koa. Ekarpena nabarmen jaitsi zen 2017an (-% 12,89), eta, batez ere, zerbitzuetan kostuak murrizteko joeraren ondorioa izan zen; dena den, horren eraginez, behera egin zuen programa horietako finantzaketaren partaidetzak. Adierazlea % 5,9ra erori zen; 2014ko % 5,7ko mailetatik hurbil. 2017-2018 aldian, ekarpen autonomikoak % 1,54 egin zuen gora. Horri esker, % 6,2koa izan zen finantzaketa autonomikoak etxeko laguntzetan, telelaguntzan eta zaintzaileei laguntzeko programetan egindako ekarpena; zehazki, 5,84 milioi eurokoa.

2018an, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketak autonomiaz gaindiko erakundeena gainditu zuen. 2013an, programa horien finantzaketaren % 10,5 hartu zuen; horren ostean, autonomiaz gaindiko ekarpena % 3 eta % 4 bitarteko mailetara erori zen 2014-2016 aldian, eta, 2017an, berriro egin zuen gora; zehazki, % 7,5era. Ekarpenaren pisu erlatiboa, ordea, % 3,3 izan zen 2018an, beraz, kopuru hori 2013ko eta 2014ko kopuruetatik hurbil zegoen. Kopuru horren oinarria 2017-2018 aldiko - % 57,86ko beherakada da (7,30 milioi eurotik 3,08 milioi eurora).

Ekarpen pribatua aztertutako programetan % 13,3koa izan zen 2018an: 2012tik aurrerako baliorik handiena, 2015-2017 urte arteko balioetatik gora (2015ean % 12,6 izan zen; eta 2017an, % 12,9). Hortaz, goranzko joera erakutsi zuen ekarpenak: finantzaketa pribatua 2015-2016 aldian % 3,97 izan zen; eta 2016-2017 aldian, % 4,26. Goranzko joerari eutsi arren, gehieneko ekarpena 12,58 milioi eurokoa izan zen 2018an; nolahi ere, finantzaketa pribatuaren goranzko abiadura zertxobait moteldu zen (% 2,50) 2017tik 2018ra.

Esan behar da, hala ere, aintzat hartutako jarduketetan finantzaketa asko aldatzen dela programa mota batetik bestera. Telelaguntzaren arloan Eusko Jaurlaritzak finantzaketaren zati nagusia hartu zuen 2018an: % 72,4. Proportzio horrek bere horretan jarraitu zuen, baina beheranzko joerarekin, 2012ko % 88,5ekin erkatuta. Aldi berean, ekarpen pribatuaren pisuak gora egin zuen: 2012ko % 11,5etik 2018ko % 25,9ra aldatu zen.

Etxeko laguntzaren arloan, 2017an aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen: udal-partaidetza, 2012az geroztik, lehenengo aldiz, ez zen nagusi izan zerbitzu horren kostuaren finantzaketan (% 39,7koa izan zen, eta foru-partaidetza, berriz, % 40,4koa izan zen). Udalen partaidetza horrek beheranzko joera erakusten zuen 2014ko eta 2015eko % 48,1eko eta % 50,7ko balioekin erkatuta, baita 2016ko % 45,1eko balioarekin ere. Gizarte-zerbitzuen gastua birbideratuta, doikuntza bat egin behar izan zen 2018an, eta, horren arabera, udalerriek berriro hartu zuten zerbitzu hori finantzatzeko erantzukizun nagusia. Urte horretako 52,19 milioiko gastuak ekarpenaren % 60,7 osatzen zuen, foru-erakundeen % 23,5etik gora, autonomiaz gaindiko erakundeen % 3,6tik gora eta ekarpen partikularren % 12,2tik gora ere bai.

Illo horretatik, 2018an udal-finantzaketa zaintzaileei laguntzeko programetan ere nagusitu zen (programa horien finantzaketa kuantitatiboki txikiagoa izan arren), eta udal-finantzaketak % 52,3 hartu zuen; beraz, foru-erakundeen % 43,5 eta ekarpen pribatuaren % 4,2 gainditu zituen.



Azter dezagun orain, 16. taulan, haur, gazte, familia, emakume eta baztertutako pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen finantzaketak izandako bilakaera.

Foru-erakundeen finantzaketaren pisua funtsezkoa da taulan, haur, gazte, familia, emakume eta baztertutako pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programetan; izan ere, gastuaren % 81,4 hartu du 2018an. Ehuneko horrek argi erakusten du foru-erakundeen ekarpenaren gehikuntza: 2014an % 77,8koa izan zen, eta urte hartan beheranzko joera izan zuen, 2012ko % 79,5ekin erkatuta. 2018an proportzio hori 2012koa baino ia ehuneko bi puntu handiagoa izan da.

Arlo horretan, gainera, ia ez dago ekarpen pribaturik; beraz, beste finantzaketa-iturri nagusia udalena da: udalek gastuaren % 15 hartzen dute, 2017an ikusi bezala. 2015etik 2016ra partaidetza % 16,9tik % 17,4ra igo zen. Ondoren, 2017tik 2018ra berriro hartu du 2014-2015 aldiko beheranzko joera. Beherakada handia izan da gainera, eta 2014-2016 aldiko % 16,9 eta % 17,4 baino txikiagoa izan da.

Bestalde, finantzaketa autonomikoa % 3,6 baino ez da izan 2018an.

16. taula.

Haur, gazte, familia, emakume eta baztertutako pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen gastu arrunta, finantza bidearen arabera. 2015-2018

(Datu absolutuak -euroak milioitan-, % bertikalak eta bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017- 2018 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Gastu-sektorea eta finantza bidea									%-tan
HAUR, GAZTE ETA FAMILIAK GUZTIRA (tratu txarrak barne)	115,95	121,98	131,53	143,54	100	100	100	100	9,13
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,02	0,02	0,02	0,02	0,0	0,0	0,0	0,0	-5,09
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	5,07	4,86	5,52	5,14	4,4	4,0	4,2	3,6	-6,92
Foru-finantzaketa	91,23	95,82	106,39	116,87	78,7	78,6	80,9	81,4	9,86
Udal-finantzaketa	19,62	21,27	19,75	21,52	16,9	17,4	15,0	15,0	8,96
Finantzaketa pribatua	0,00	0,00	-0,15	-0,01	0,0	0,0	-0,1	0,0	-94,70
Adingabeen egoitza-zentroak	64,57	66,79	74,02	83,03	100	100	100	100	12,18
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,02	0,00	0,00	0,00	0,0	0,0	0,0	0,0	-100,00
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	0,11	0,09	0,68	0,08	0,2	0,1	0,9	0,1	-88,90
Foru-finantzaketa	62,75	65,02	73,59	83,04	97,2	97,3	99,4	100,0	12,85
Udal-finantzaketa	1,75	1,76	0,04	0,03	2,7	2,6	0,1	0,0	-31,70
Finantzaketa pribatua	-0,06	-0,07	-0,29	-0,11	-0,1	-0,1	-0,4	-0,1	-60,96
Tratu txarren arretako programak (tratu txarren biktimen prestazioak, harrera, adopzioa eta familiako beste esku-hartzeak barne). Beste ostatu-programa batzuk	51,37	55,19	57,51	60,51	100	100	100	100	5,21
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,01	0,02	0,02	0,02	0,0	0,0	0,0	0,0	0,19
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,96	4,77	4,84	5,06	9,7	8,6	8,4	8,4	4,55
Foru-finantzaketa	28,47	30,81	32,80	33,83	55,4	55,8	57,0	55,9	3,14
Udal-finantzaketa	17,87	19,51	19,71	21,49	34,8	35,4	34,3	35,5	9,04
Finantzaketa pribatua	0,06	0,08	0,14	0,10	0,1	0,1	0,2	0,2	-26,35
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	43,61	45,96	47,65	52,01	100	100	100	100	9,15
Erkidegoz gaindiko finantzaketa	0,26	1,62	4,16	5,68	0,6	3,5	8,7	10,9	36,49
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	4,37	4,51	4,52	4,58	10,0	9,8	9,5	8,8	1,31
Foru-finantzaketa	21,47	21,58	22,07	24,19	49,2	47,0	46,3	46,5	9,62
Udal-finantzaketa	11,82	11,49	11,17	11,06	27,1	25,0	23,4	21,3	-0,98
Finantzaketa pribatua	5,69	6,76	5,74	6,51	13,1	14,7	12,0	12,5	13,38

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Ekarpen absolutuaren terminoetan haur, gazte eta familien sektorean 2017-2018 aldian nabarmentzekoa da foru-aldundien partaidetzaren gehikuntza, baita udalena ere, batez ere, 2016. eta 2017. urteetan behatutakoarekin erkatuta. Foru-ekarpenari dagokionez, 2018ko 116,87 milioiek % 9,86ko gehikuntza osatzen dute, 2017ko 106,39 milioiekin erkatuta. Beheranzko joera badu ere, horri esker, 2016-2017 aldian gora egiteko joera nagusiak (% 11.02) jarraitu egiten du, eta 2015-2016 aldiko goranzko mailak (% 5,04) baino askoz ere handiagoa da.

2015-2016 bitartean harrigarri handitu ondoren (% 8,42 egin zuen gora), udal-gastuak behera egin zuen (-% 7,16) 2016-2017 aldian, eta 2016ko 21,27 milioi eurotik 2017ko 19,75 eurora egin zuen behera. 2018an udalek haur, gazte eta familien sektoreari egin zioten ekarpena berriro handitu zen, zehazki, % 8,96 handitu zen. Horrela, gastuak berriro egin zuen gora, 21,52 milioi eurora iritsi arte, 2016ko 21,27 milioitik gora.

Bestalde, 2015-2016 aldiko beherakadaren ostean (-% 4,16), ekarpen autonomikoak gora egin zuen 2016-2017 aldian (% 13,51), nahiz eta ekarpenen zenbatekoak txikiagoak izan (2017an 5,52 milioi eman ziren). 2017-2018 aldiko ezaugarri nagusia erakunde erkideen finantzaketaren murrizketa da; murrizketa, zehazki, -% 6,92koa izan zen (eta termino absolutuetan 5,14 milioi eurokoa).

Haur, gazte eta familien arloan egin diren esku-hartze motak aztertzen baditugu, adingabeentzako egoitza-zentroetan foru-finantzaketaren pisua nagusitzen da, eta 2018an gastuaren pisua % 100ekoa da. Beraz, arlo horretan agerikoa da foru-gastuaren esfortzua: 2017-2018 aldian % 12,85 egin du gora, eta horrek jarraipena ematen dio 2016-2017 aldiko % 13,18ri. Kasu bietan 2015-2016 aldiko % 3,60 baino handiagoa da.

2015-2016 aldian egonkortu eta gero (aldi horretan % 0,84 eskasa izaten zen), 2016-2017 aldian adingabeentzako egoitza-zentroetako udal-gastuak -% 97,82 egin zuen behera, eta, azkenean, ia ezabatu egin da. Udal ekarpena gehienez ere 0,03 milioi eurokoa izan da 2018an, eta, aldi berean, foru-aurrekontua 83,04 milioi eurokoa izan da. Horixe da, hain zuzen ere, Euskadiko gizarte-zerbitzuen sistemaren egitura berriaren ondorio deigarriena: foru-erakundeek euren gain hartu dutela zerbitzu mota horren finantzaketa.

Haur, gazte eta familien arloko gainerako programetan foru-erakundeek 2018an egin duten ekarpena % 55,9koa izan da; udalena, % 35,5koa; eta ekarpen autonomikoa, % 8,4koa.

Arreta-arlo horretako joerarik deigarriena foru-gastuaren 2015etik aurrerako suspertzea da: 2015etik 2016ra % 8,20 egin zuen gora, eta joera horrek neurri handi batean jarraitu egin zuen geroago ere, nahiz eta erritmoaren moteltzea agerikoa izan (2016-2017 aldian, % 6,46; 2017-2018 aldian % 3,14). Moteltze horrekin batera, foru-ekarpenak zertxobait behera egin zuen gastu mota horretan, eta 2017tik 2018ra % 57,0tik % 55,9ra egin zuen behera.

Izan ere, udal-ekarpenak gora egin zuen egoitzakoak ez diren haur, gazte, emakume eta familientzako programa horietan, eta horrek azaltzen du foru-gastuaren murrizketa. Ekarpenak % 9,04 egin zuen gora 2017-2018 aldian. Horrela, udal-ekarpena murrizteko 2016-2017 aldiko joera desegin zen, eta aldi horretako gastuak % 1,03 egin zuen gora. Horrela, 2015-2016 aldiko maila handiagoetara itzuli da, eta % 9,16ko gehikuntza eta 2017-2018 aldikoa oso antzekoak izan dira.

Edonola ere, 2018an berriro foru- eta udal-gastuaren mailarik handienak osatu dira, 2012tik aztertuta.

Bestalde, finantzaketa autonomikoak -% 3,79 egin zuen behera 2015-2016 aldian, eta 2016-2017 aldian berriro gora (% 1,39). Berriro gora egiteko joera 2017-2018 aldian sendotu zen, eta ekarpenak % 4,55 egin zuen gora. Erakunde autonomikoek 2018an finantzatu dute egoitzakoak ez diren programa horien % 8,4; zenbateko hori 2015eko % 9,7 baino txikiagoa da.



Bazterketa-egoeran dauden pertsonen arreta emateko sektorearen arloan, finantzaketaren zatirik handiena foru-aldundiena da: zehazki, % 46,5. Hortaz, honako haueetatik gora dago: udalak eta mankomunitateak, % 21,3; autonomiaz gaindiko erakundeak, % 10,9; ekarpen autonomikoa, % 8,8. Ekarpene pribatuak gainerako % 12,5 hartu dute.

Foru-aldundien ekarpenari dagokionez, gastua (% 46,5) zertxobait handitu da, 2017koa % 46,3 izan baitzen. Dena den, 2016-2018 urte bitarteko kopuruak (% 46,3tik % 47ra) 2012tik aurrerako kopuru txikiak dira, eta mailarik handienak lehenagokoak dira: 2013an, % 48,3; 2015ean, % 49,2.

Foru-aldundiek bazterketa-sektorean egin duten ekarpen txikiago hori azaltzeko, kontuan hartu behar da foru-ekarpene 2015-2017 aldirian nolabait egonkortzen joan zela, eta 2015etik 2016ra % 0,52 baino ez zuela gora egin, eta 2016-2017 aldikoa % 2,25ekoa izan zela. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da 2017-2018 aldiko foru-finantzaketaren gorakada txikiarekin batera ekarpene ere handitu zela. Zehatz-mehatz, honela: 2017an, 22,07 milioikoa izan zen; eta 2018an, 24,19 milioikoa. Gorakada % 9,62koa izan zen. Foru-ekarpenaren oinarritzko egonkortze-prozesu hori lotzen zaio beste erakunde publikoek eta sektore pribatuak egin duten ekarpen handiagori.

Lehen kasuan nabarmentzekoa da autonomiaz gaindiko ekarpen gero eta handiagoa. Ekarpene hori ia nulua izan zen 2014-2015 aldirian, baina 2016an, ordea, 1,62 milioi eurokoa izan zen; 2017an, 4,16 milioi eurokoa; eta 2018an, 5,68 milioi eurokoa. Sektoreko finantzaketan egin duen ekarpene honela bilakatu da: 2014-2015 aldirian % 0,5 izan zen; 2016an, % 3,5 izan zen; 2017an, % 8,7; eta 2018an, % 10,9. Aurten, lehenengo aldiz, finantzaketa autonomikoa baino handiagoa izan da, 2018an % 8,8koa izan baita.

Bazterketa-arloko ekarpen autonomikoak 2015-2016 aldirian % 3,19 egin zuen gora, baina geroago baretu egin zen, eta 2016-2017 aldirian % 0,26 baino ez zuen gora egin; eta 2017-2018 aldirian, % 1,31. Horrela, erakunde erkideen epe luzeko partaidetzaren murrizketa finkatu egin da: 2012ko % 11,7tik 2018ko % 8,8ra.

Sektore horretako udal-partaidetza % 22,6tik abiatu zen 2012an; gero, 2013tik 2015era, % 26,1era eta % 27,1era iritsi zen. Urte horretatik aurrera, beherakada erlatiboko prozesua hasi zen; horren ondorioz, udalen eta mankomunitateen ekarpene % 23,4koa izan zen 2017an; eta 2018an, % 21,3. Hortaz, bazterketa-sektorean gero eta txikiagoa izan da udal-ekarpene: 2015-2016 aldirian –% 2,76 egin zuen behera; 2016-2017 aldirian, –% 2,83; eta 2017-2018 aldirian, –% 0,98.

Bazterketa-egoerako biztanleen aldeko ekintzen finantzatzeko ekarpen pribatua 2015-2016 aldirian nabarmen handitu zen gastu mota horretan: % 18,71. 2016-2017 aldirian, ordea, kontrako prozesua osatu zen, eta gastu horrek –% 15,10 egin zuen behera. Ekarpene pribatua 2017-2018 aldirian berriro abiarazi da, eta % 13,38 egin du gora. Finantzaketa pribatuaren pisu erlatiboak gora egin du: 2017an % 12,0 egin du gora; eta 2018an, % 12,5. Hala ere, 2012ko % 16,7tik urrun dago.

Erabiltzaileen ekarpenaren pisu espezifikoak

17. taulak erakusten duen bezala, erabiltzaileek arretaren finantzaketan duten partaidetzaren datuek alde nabarmenak dituzte oraindik orain, zentro edo zerbitzu motaren arabera. Gaur egun ere erabiltzaileek adinekoentzako egoitza-zentroetan duten partaidetzaren garrantzia da elementu bereizle nagusia. 2012an eta 2013an zenbatekoek behera egin zuten: % 45,8 eta % 45,9. 2016-2017 aldirian, ordea, % 47ra iritsi zen; eta 2018an, % 48,4ra.

Adinekoentzako eguneko egoitza-zentroetan ia % 25ekoa da partaidetza. Hala, 2012-2013 aldirian % 21,2tik % 23,4ra igo ondoren, tasa % 22ra jaitsi zen 2014an. Harrezkero, 2016an % 23ra igo zen berriro; 2017an, % 24,1era; eta 2018an gehieneko kopurua osatu da, hots, % 24,8.

17. taula.
Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroetako finantzaketan duten parte-hartzea zentro/zerbitzu motaren arabera. 2015tik 2018ra (finantzaketa osoaren %-a)

	2015	2016	2017	2018
Zerbitzu mota	%	%	%	%
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	46,8	47,0	47,0	48,4
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	13,8	12,5	11,7	11,9
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	0,3	0,3	0,1	0,1
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	3,0	3,7	3,5	3,2
EGOITZA-ZENTROAK	35,7	35,7	35,3	36,0
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak.	22,6	23,0	24,1	24,8
Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	10,3	7,4	10,8	10,6
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	5,5	6,2	3,4	3,9
Adingabe/familientzako eguneko arreta	0,1	0,0	0,0	0,0
Gizareratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	3,4	6,3	2,6	1,9
EGUNEKO ZENTROAK	13,6	13,3	13,3	13,8
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	14,3	13,7	14,4	14,5

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizareratze-ko gastuaren estatistika
 Oharra: Ez dira sartu Tutoretza-fundazioak Beste zentro eta zerbitzuen multzoan.

Erabiltzaileek finantzaketan egiten duten ekarpena askoz ere txikiagoa da; gainera, beheranzko joera dago desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan. 2015ean % 13,8 izan ondoren, hots, 2013ko % 13,5 baino handiagoa izan ondoren, 2016an berriro murriztu zen % 12,5era; 2017-2018 aldian % 11,7ra eta % 11,9ra iritsi da. Zenbateko horiek 2012ko eta 2014ko % 12,1 eta % 12,2 baino txikiagoak dira.

Beheranzko dinamika horrek 2016ra jarraitu zuen biztanle horientzako egoitza-zentroetan, eta urte horretako gutxieneko zenbatekoa % 7,4koa izan zen. 2017an, ordea, gora egin zuen erabiltzaileek finantzaketan duten partaidetzak, % 10,8raino; eta maila horrek (nahiz eta gero eta txikiagoa izan) bere horretan jarraitu du 2018an, zehazki, % 10,6koa izan da. Hori dela eta, 2018ko proportzioa oraindik ere 2014ko eta 2015eko % 10,2 eta % 10,3 mailetatik gora dago.

Aipatu berri dugun kasuan ez bezala, desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako gainerako eguneko zentroetan erabiltzaileen partaidetza aurreko urteetako gutxieneko kopuruetatik behera dago. Hala, 2014ko % 2,4tik 2016ko % 6,2ra egin zuen gora, baina, horren ondoren, 2017an berriro % 3,4ra jaitsi da, eta 2018an ere antzekoa izan da, zertxobait igo arren: % 3,9.

Bilakaera hori eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroen erabiltzaileena antzekoak dira, baina beherazko joera agerikoagoa da. Zehatzago esanda, erabiltzaile horien partaidetza 2013ko % 2,7tik 2016ko % 6,3ra handitu zen, baina 2017an berriro izan zen % 2,6, hau da, 2013ko parametrokoa; eta 2018an, % 1,9ra jaitsi da. Erabiltzaileen ekarpen-maila hori 2012. urtetik aurrerako kopururik txikiena da.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako harrera- eta etxebizitza-zentroetan antzeko bilakaera behatu da, nahiz eta aldaketak hain drastikoak ez izan. Kasu horretan egoitza-zentroetan, 2015. eta 2016. urte artean izandako igoerak, % 3tik % 3,7ra, sendotu egin zuen nolabait finantzaketan 2014an % 2,4 osatu osteko ekarpenaren igoera, eta gehiago hurbildu zen 2012ko eta 2013ko balioetara (% 3,7 eta % 3,9). 2017ko % 3,5 eta 2018ko % 3,2 direla eta, pentsa daiteke partaidetza



behera egiten ari dela berriro, baina oraindik ere 2014ko eta 2015eko % 2,4 eta % 3 mailetatik gora dago.

Beste egoitza-zentro edo eguneko zentro batzuetan, eta, bereziki, adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloetan edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arloan ia ez dago erabiltzaileen parte-hartzerik.

Egoitza-zentroak eta eguneko zentroak ez diren beste zentro eta zerbitzu batzuetan, berriz, 2012an % 9,1 izatetik 2013an % 15 izatera igo da erabiltzaileen parte-hartzea. Urte horretatik aurrera, proportzioa apur bat murriztu zen pixkanaka, % 13,7ra iritsi arte 2016an. 2017ko % 14,4 eta 2018ko % 14,5, ordea, beherazko bilakaera hori aldatzen duten kopuruak dira, baina 2014-2015 aldiko parametroetatik hurbil daude, eta ehunekoak % 14,3 eta % 14,6 dira.

Erabiltzaileek zentro eta zerbitzuen finantzaketan duten parte-hartzea ezberdina da lurralde historikoaren eta zentro edo zerbitzu motaren arabera, 18. taulan ikus daitekeen bezala. Erabiltzaileen parte-hartze handiagoa duten arloak aintzat hartuta ere, alde nabarmenak antzeman dira.

Adinentzako egoitza-zentroetan, Bizkaian handiagoa da erabiltzaileen partaidetza-ehunekoa: % 54,6, eta Gipuzkoarena eta Arabarena, aldiz, % 43,7 eta % 38,7, hurrenez hurren. Egoera hori lehendik zetorren arren, partaidetzaren igoera oso nabarmena izan da Bizkaian 2017-2018 aldian, aurreko urteekin erkatuta (2017an, % 52,7; eta 2012an, % 63,2). Areago, igoera hori sendotu egin da 2018an, aurreko urteetan hautematen zen joerari jarraikiz; horrela, egoitzetako erabiltzaileek Bizkaian egiten dute finantzaketa-ekarpenik handiena. Ildo horretatik, Arabako 2012ko % 37 baino handiagoa izan da % 38,7; Gipuzkoan ere 2012ko % 39,3 baino handiagoa izan da 2018ko % 43,7.

Hiru lurralde historikoetan erabiltzaileek 2018an egin duten ekarpena 2012tik aurrerako ekarpenik handiena izan da; eta horrek erakusten du erabiltzaileen finantzaketa-partaidetza gora doala adineko pertsonentzako egoitzetan. 2017-2018 aldian partaidetza-ehunekoak Araban ehuneko 0,4 puntu egin zuen gora; Gipuzkoan, % 0,9; eta Bizkaian, % 1,9.

18. taula.
Erabiltzaileek gizarte-zerbitzu eta -zentroetako finantzaketan duten parte-hartzea zentro/zerbitzu motaren arabera eta lurralde historikoen arabera. 2017 eta 2018
(finantzaketa osoaren %)

	2017				2018			
	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Zentro/Zerbitzu mota	%	%	%	%	%	%	%	%
Adinekoentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	47,0	38,3	42,8	52,7	48,4	38,7	43,7	54,6
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako egoitza-zentroak (atsedena barne)	11,7	14,4	14,8	8,7	11,9	14,6	14,6	9,1
Adingabeentzako egoitza-zentroak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,0	0,1
Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	3,5	2,4	2,0	5,3	3,2	2,3	2,1	4,5
EGOITZA-ZENTROAK	35,3	29,8	31,8	39,5	36,0	30,0	32,0	40,7
Adineko pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak.	24,1	25,1	27,5	19,5	24,8	24,0	25,4	24,6
Desgaitasuna/gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko laguntza-zentroak	10,8	8,5	12,1	10,1	10,6	7,1	12,5	9,8
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	3,4	5,4	4,8	2,0	3,9	3,4	1,3	5,5
Adingabe/familientzako eguneko arreta	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	2,6	0,3	1,7	3,3	1,9	0,0	1,1	2,5
EGUNEKO ZENTROAK	13,3	14,7	17,1	9,6	13,8	13,4	15,6	12,5
BESTE ZENTRO ETA ZERBITZU BATZUK	14,4	38,4	2,2	6,3	14,5	41,4	2,6	7,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika
Oharra: Ez dira sartu Tutoretza-fundazioak Beste zentro eta zerbitzuen multzoan.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen arloan, ordea, Bizkaiko erabiltzaileek dute finantzaketa-partaidetzarik txikiena: Bizkaian % 9,1ekoa da, eta, Araban eta Gipuzkoan % 14,6koa. 2012ko zenbatekoekin erkatuta, Gipuzkoako partaidetza txikixeagoa izan da (% 14,6; eta 2012koa % 16,6 izan zen). Bestalde, Araban gora egin du (2012ko % 13,8tik % 14,6ra), baita Bizkaian ere (2012ko % 8,7tik % 9,1era).

2018an, aldiz, joera aldatu egin da. 2015-2017 aldian hiru lurraldeetan behatu zen partaidetzaren beheranzko joerak Gipuzkoan baino ez du jarraitu: lurralde horretan 2015eko % 18,6tik 2018ko % 14,6ra igaro baita. Araban 2015etik 2017ra % 15,1etik % 14,4ra jaitsi zen, eta gero partaidetza zertxobait igo da berriro, % 14,6ra. Bizkaian antzeko joera behatu da: 2016-2017 aldian % 10,4tik % 8,7ra jaitsi da; eta 2018an berriro handixeagoa izan da, eta % 9,1era iritsi da.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza-, harrera- eta egoitza-zentroetako erabiltzaileen partaidetzak Araban behera egin zuen 2016-2017 aldian: % 3,3tik % 2,4ra; eta proportzio horrek funtsean 2018an ere iraun du, % 2,3 izan baita. Gipuzkoan ere beheranzko joera 2015eko % 2,7ko beherakadaren ostean sendotu da: 2018an % 2,1 izan da, kasu horretan 2017koa baino ehuneko puntu bat handiagoa (2017an % 2 izan zen). Bizkaian, ordea, % 3,4tik % 5,3ra igo zen 2015etik 2017ra; ondoren, erabiltzaileen partaidetzak behera egin du, eta 2018an % 4,5 izan da.

Adineko pertsonentzako eguneko egoitza-zentroetan 2018ko ekarpen erlatiborik handiena Gipuzkoan osatu da berriro, eta % 25,4koa izan da. Bizkaian % 24,6koa izan da; eta Araban, % 24. Dena den, 2017-2018 aldian Gipuzkoako partaidetzaren goranzko joera aldatu da: erabiltzaileen partaidetza 2015eko % 23,4tik 2017ko % 27,5era igo zen; beraz, horren arabera, 2018an behera egin du, zehazki, % 25,4raino. Araban joera-aldaketa hori lehenago ere aldatu zen: 2012an % 20,8tik 2016ko % 27ra igo zen, baina 2017an % 25,1era jaitsi zen, eta 2018an berriro ere jaitsi da; zehazki, % 24ra.

Aitzitik, Bizkaian erabiltzaileek adineko pertsonentzako eguneko zentroetan 2017tik 2018ra egin duten ekarpenak gora egiten jarraitu du. 2015etik 2017ra % 18,4tik % 19,5era bitarteko mailetan jarraitu zuen, 2012ko tarte berean, baina partaidetza hori 2018an bat-batean handitu zen % 24,6raino.

Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroei dagokienez, Araba da erabiltzaileen partaidetza erlatibo txikienetako lurraldetako bat: 2018an % 7,1ekoa izan da, eta 2017. urtearekin erkatuta % 8,6koa izan da. Bizkaian partaidetza % 9,8 izan da, eta lurralde horretan ere beherakada osatu da 2017ko emaitzekin erkatuta (% 10,1 izan zen, zehatz-mehatz). Kasu batean eta bestean 2015eko mailak gainditu dira (Arabian, % 4,3; eta Bizkaian, % 8,4).

2016-2017 aldian behatutako goranzko linea argiak Gipuzkoan baino ez du aurrera egin; beraz, hiru lurraldeak erkatu ondoren, Gipuzkoan osatu da erabiltzaileen partaidetza-mailarik handiena. Gipuzkoan partaidetza hori 2016ko % 11,2tik 2017ko % 12,1era aldatu zen; eta 2018an, % 12,5ekoa izan zen. Proportzio hori berriro hurbildu da 2012ko % 12,6ra, baina oraindik urrun dago 2015eko % 15etik.

Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonentzako eguneko zentroetako erabiltzaileen partaidetzak 2017an eta 2018an behera egin du Araban eta Gipuzkoan (% 5,4tik % 3,4ra eta



% 4,8tik % 1,3ra, hurrenez hurren). Bizkaian, ordea, gora egin du: % 2,0tik % 5,5era. Horrela, lurralde horretan osatzen da zentro mota horretako erabiltzaileen partaidetzarik handiena.

Gizarteratzeko premiak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetan, partaidetza-kopuru guztiek behera egin dute 2016tik, eta 2018ko mailak oso txikiak izan dira: % 0, Araban; % 1,1 Gipuzkoan; eta % 2,5, Bizkaian. Beherakada bereziki deigarria izan da Bizkaian, 2016ko % 8,5etik behera egin baitu.

Gainerako zentro eta zerbitzuetan erabiltzaileen ekarpen erlatiboa oso handia izan da Araban, eta lurralde horretako joerak gora egiten jarraitu du 2018an. 2012ko % 5,5etik 2015eko % 30,7ra igo zen; 2016an, % 37,4ra; eta 2017an, % 38,4ra. Gehieneko maila 2017koa da, hots, % 41,4. 2015ean eta 2016an murriztu ondoren, gainerako lurraldeetan ere partaidetzak gora egin zuen berriro. Dena den, Arabakoak baino askoz ere txikiagoak dira 2018ko gainerako partaidetza-balioak: Gipuzkoan, % 2,6 (eta 2015eko % 9,3tik oso urrun dago); eta Bizkaian, % 7,1.

4.3. Gizarte-prestazioen finantzaketa

19. taulan daude jasota EAEko gizarte-prestazioen finantzaketari buruzko oinarrizko datuak. Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusiari eginiko ekarpen mugatuaren kasuan ez bezala, Eusko Jaurlaritza da prestazio horien finantzaketaren protagonista nagusia. 2013ko eta 2017ko balioekin erkatuta, egonkortasuna adierazten du 2018ko % 85,2ko balioak. 2012ko % 86,9ko balioak baino ez du ekarpen hori gainditu.

Foru-aldundiek gizarte-zerbitzuen gastuaren % 11,3 finantzatu dute 2018an. Aztertutako proportzioa 2013ko eta 2014ko % 11,8 baino txikiagoa izan arren, partaidetzak 2012ko % 10,8tik gora jarraitzen du.

Udal-ekarpena oso murriztua izan da: 2018an % 2,7; eta balio horrek 2012ko % 1,4 edo 2013ko % 2,4 baino ez ditu gainditu. 2015ean eta 2016an, % 6,02 igo zen udalek prestazioetan egin zuten gastua, eta foru-finantzaketaren % 1,88 eta finantzaketa autonomikoaren % 0,66 baino handiagoa izan zen. 2016-2017 aldian, ordea, udalen ekarpenak bat egin du gastu mota hori murrizteko linea orokorrekarekin. Aldi horretako foru-gastuaren finantzaketa-murrizketa baino txikiagoa izan arren (–% 6,19tik –% 3,17ra), finantzaketa autonomikoaren –% 2,21eko murrizketa baino handiagoa izan da udal-finantzaketarena. Joera hori 2017. eta 2018. urte bitartean areagotu da: ekarpenak –% 12,01 egin du behera; beraz, beherakada hori foru-finantzaketaren –% 5,51 eta finantzaketa autonomikoaren –% 5,54 baino handiagoa izan da.

Ekarpen pribatua oso txikia izan da: % 0,8 baino ez da izan 2018an, eta 2012ko % 0,9 beherakoa. 2015ean eta 2016an ez bezala, gastu mota horrek gora egin du 2016tik 2018ra, eta 2012tik aurrerako baliorik handiena osatu da termino nominaletan (2018an 5,22 milioi izan dira; eta 2012an, 5,10 milioi izan dira).

19. taula.

Gizarte-prestazioetako gastu arrunta (familiantzako transferentziak) finantzabidearen arabera. 2015-2018 (Datu absolutuak, % bertikalak eta bariazioa 2017-2018 %-tan)

	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017- 2018 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	
Gastu mota									%-tan
LISMI/KGP/GOF	60.228.847	61.898.222	63.130.513	66.057.215	100	100	100	100	4,64
Foru-finantzaketa	60.228.847	61.898.222	63.130.513	66.057.215	100	100	100	100	4,64
DBE/EPO	486.882.648	492.333.507	483.662.132	453.562.792	100	100	100	100	-6,22
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	486.882.648	492.333.507	483.662.132	453.562.792	100	100	100	100	-6,22
FAMILIA-PRESTAZIOAK	59.016.731	55.819.362	49.747.242	47.396.958	100	100	100	100	-4,72
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	58.956.122	55.722.125	49.683.788	47.332.057	100	99,8	99,9	99,9	-4,73
Udal-finantzaketa	60.609	97.237	63.454	64.901	0,1	0,2	0,1	0,1	2,28
BESTE BATZUK (GLL eta GKE barne)	62.070.435	62.091.179	60.003.760	52.577.149	100	100	100	100	-12,38
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	21.919.295	23.461.453	25.517.497	26.980.576	35,3	37,8	42,5	51,3	5,73
Foru-finantzaketa	17.013.460	16.798.131	10.692.673	3.700.014	27,4	27,1	17,8	7,0	-65,40
Udal-finantzaketa	18.468.582	19.547.571	18.958.434	16.671.719	29,8	31,5	31,6	31,7	-12,06
Finantzaketa pribatua	4.669.098	2.284.024	4.835.156	5.224.840	7,5	3,7	8,1	9,9	8,06
GIZARTE-PRESTAZIOAK.	668.198.661	672.142.270	656.543.647	619.594.114	100	100	100	100	-5,63
Autonomia erkidegoaren finantzaketa	567.758.065	571.517.085	558.863.417	527.875.425	85,0	85,0	85,1	85,2	-5,54
Foru-finantzaketa	77.242.307	78.696.353	73.823.186	69.757.229	11,6	11,7	11,2	11,3	-5,51
Udal-finantzaketa	18.529.191	19.644.808	19.021.888	16.736.620	2,8	2,9	2,9	2,7	-12,01
Finantzaketa pribatua	4.669.098	2.284.024	4.835.156	5.224.840	0,7	0,3	0,7	0,8	8,06

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Prestazioak xehetasun handiz aztertzen baditugu, LISMI/GOF eta KPG prestazioen 2018ko finantzaketa osoa ikus dezakegu, foru-aldundiei dagokienez. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, DSBE eta EGPO mantentzeko behar diren ekarpenari eusten dio. Finantzaketa autonomikoa % 99,9koa izan da familia-prestazioei dagokienez, eta udalena % 0,1ekoa baino ez da izan.

Gainerako prestazioak ere (GLL eta antzeko prestazioak, bai eta ekintza pribatua ere) aztertzea bereziki interesgarria da, gizarte-larrialdi edo -urgentziei lotutako alderdietan edo diru-sarrerak bermatzeko sistemako prestazio nagusiak osatzeko jardueretan oinarritzen baita hein handian.

Prestazio horiei dagokienez, lehenik eta behin ondoriozta daiteke nabarmen sinplifikatu dela partaidetza: 2018an bi finantzaketa-iturrik baino ez dute egin % 15etik gorako ekarpena.

Oraindik ere administrazio autonomikoa da finantzaketa-iturri nagusia, eta aztertutako prestazioetan egindako gastuaren % 51,3 hartu bere gain. Partaidetza-maila horrek, gainera, gora egiten jarraitu du: 2014an, % 34,4; 2015ean, % 35,3; eta 2017an % 42,5era. Horren ondoren, 2012ko % 43,9 ere gainditu da. Horrekin batera, gastuak ere handitzen jarraitu du 2012tik. Prestazio horietan egin den gehikuntza GLLn metatu da: 2015-2016 aldian % 7,04 izan zen; eta 2016-2017 aldian % 8,76 izan zen. Handitzen jarraitu arren, 2017-2018 aldian zertxobait baretu da, eta % 5,73 egin du gora.

Finantzaketa nagusiko iturrietako bigarrena udalek eta mankomunitateek osatzen dute: administrazio horiek prestazio osagarri horien finantzaketaren % 31,7 hartu dute 2018an. 2014tik 2015era behatu zen beherakadaren ostean (% 30,2tik % 29,8ra), 2012tik aurrerako erregistrorik handiena izan da, urte horretako % 21,2 baino askoz handiagoa izan baita, eta, mailak, gainera, egonkorrak izan dira: 2016an % 31,5 eta 2017an % 31,6.



Hala eta guztiz ere, egonkortasun horretan ezkututzen da udal-ekarpenak behera egin duela prestazio osagarri horietan. 2015-2016 aldian udal-finantzaketak % 5,84 egin zuen gora, eta 2016-2017 aldian lehenengo beherakada erregistratu zen: -% 3,01. 2017-2018 aldian sendotu zen berriro gora egiteko joera, eta -% 12,06 murriztu zen finantzaketa. Horrela, agerikoa da udalek prestazio horietan izaten duten partaidetzaren ehunekoaren egonkortasuna beste erakunde batzuetako gastuaren bilakaera negatiboagoari lotzen zaiola.

Gastuan osatutako bilakaera negatiboago hori funtsean foru-aldundiei dagokie. Aldundien ekarpenak 2015-2016 aldian jada behera egin zuen: -% 1,27; baina geroago handitu egin zen: 2016-2017 aldian, -% 36,35; eta 2017-2018 aldian -% 65,40. Ondorioz, behera egin du foru-erakundeen partaidetzak, gizarte-prestazio osagarri horien finantzaketan (prestazio horiek gizarte-larrialdietarako laguntzak edo antzekoak dira). Erreferentziatzat hartu den proportzioa honela bilakatu da: 2014ko % 28,4tik 2015-2016ko % 27 ingurura; 2017an % 17,8 izan zen, 2012ko % 21,5 baino askoz ere txikiagoa; eta 2018an % 7 baino ez da izan.

Kontuan hartzen badugu foru-aldundien, udalen eta mankomunitateen partaidetzak behera egin duela eta erakunde partikular batzuen erantzukizuneko prestazioen gastuak, aldiz, gora egin duela, agerikoa da finantzaketa-ekarpen pribatuak gora egin duela gainerako prestazioetan.

Dinamika horrek, ordea, aldaketa kualitatiboa eragin du, eta garrantzitsua da (oraindik bigarren mailakakoa den dimentsioarekin batera). Babesaren eremu pribatuan, aztertutako prestazioen finantzaketaren partaidetza nabarmen murriztu zen 2012tik (% 13,4) 2014ra (% 6,9). 2015ean zertxobait handitu zen (% 7,5), baina 2016an berriro egin zuen behera, % 3,7raino. 2017an, ordea, erakunde pribatuen partaidetzak gora egin zuen (% 8,1eraino); eta 2018an, % 9,9raino. Erregistro hori 2012an baino ez da gainditu, urte horretan % 13,4koa izan baitzen.

4.4. Foru-aldundien parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera

20. taulan egiazta daitekeen bezala, Araba 2018an berriro izan zen foru-gasturik (edo foru-aldundiek kudeatutako gasturik) handiena metatu zuen lurraldea, biztanleko eta gizarte-zerbitzuko¹⁰. Biztanleko 522,20 eurokoa izan zen, eta balio hori Gipuzkoako 490,20 eurokoa baino handiagoa da. Bizkaikoa 421,20 eurokoa izan da, beraz, argi dago txikiagoa izan dela.

2017tik 2018ra, egoera hori Arabako gastuaren bitartez sendotu da, eta 2017ko balioekin erkatuta, % 5,8ko igoera izan du. Hortaz, Arabako foru-gastua Bizkaikoa (% 4,8) baino handiagoa izan da biztanle bakoitzeko. Bestalde, Gipuzkoako gastuak -% 5,4 egin du behera. Defizita doitzeko eta kontrolatzeko prozesuarekin batera, diru-sarrerak bermatzeko laguntza ezabatzeko prozesua ere egin da.

¹⁰ Txostenaren atal honetako taula batzuetan ikus daitekeen bezala, foru-gastua autonomiaz gaindiko gastua baino handiagoa izan da. Helburua autonomiaz gaindiko transferentzietan gertatu diren atzerapenen kudeaketaren ondorioak kontrolatzea da. Aldaketak esanguratsuak izan dira lurralde historiko batzuetan, eta arrazoi horri lotzen zaie (ikus 7. oharra). Gastu bateratua aztertzen duten taulak 20 eta 22 zenbakikoak dira. Eragina ez da hain handia izan gainerakoetan, baina hurbilpenak zentzu hertsian heldu dio foru-gastuari.

20. taula.
Gizarte-zerbitzu eta -prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2017-2018
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
Gastu mota eta lurralde historikoa		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Gastu arrunta guztira	EAE	986.784.813	1.000.563.241	453,52	458,88	1,2
	Araba	159.711.312	169.984.145	493,56	522,20	5,8
	Gipuzkoa	369.245.895	350.136.082	518,02	490,20	-5,4
	Bizkaia	457.827.606	480.443.014	401,81	421,20	4,8
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	EAE	912.961.627	930.806.012	419,59	426,89	1,7
	Araba	150.994.939	160.494.979	466,62	493,04	5,7
	Gipuzkoa	341.073.233	328.165.076	478,50	459,44	-4,0
	Bizkaia	420.893.455	442.145.957	369,39	387,62	4,9
Gizarte-prestazioak	EAE	73.823.186	69.757.229	33,93	31,99	-5,7
	Araba	8.716.373	9.489.166	26,94	29,15	8,2
	Gipuzkoa	28.172.662	21.971.006	39,52	30,76	-22,2
	Bizkaia	36.934.151	38.297.057	32,41	33,57	3,6

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika
Erkidegoz gaindiko erakundeek ekarpena barne

Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, foru-gastua (edo foru-aldundiek nagusiki kudeatutako gastua) biztanle bakoitzeko 493,04 eurokoa izan da Araban, 2018an. Hortaz, Gipuzkoakoa (459,44) baino 33,60 euro handiagoa izan da Arabakoa. Bizkaikoa 387,62 eurokoa izan da, beraz, txikiagoa. Gizarte-ekintzaren arlo horretan gastuak gora egin du Araban: % 5,7, 2017-2018 aldian; Bizkaian baino % 4,9 handiagoa da. Gipuzkoan, baina, gastuak -% 4 egin du behera.

Prestazioen arloan, Gipuzkoa 2018an jada ez da foru-gasturik handiena egin duen lurraldea: Gipuzkoako gastua 30,76 euro izan da biztanleko, eta Bizkaiko gastua 33,57 eurokoa izan baita biztanle bakoitzeko. Kasu horretan, Arabak jarraitu du ekarpenik txikiena egiten (29,15 euro biztanleko).

Hala eta guztiz ere, 2015etik 2017ra gertatu bezala, Arabako gastuak gora egin du 2017tik 2018ra, eta gainerako bi lurraldeekiko aldea murriztu du. Zehazki, biztanleko prestazioen gastuak % 8,2 egin du gora aldi horretan; beraz, Bizkaiko % 3,6tik gorakoa da, eta kontrako egoeran Gipuzkoa dugu, bertan beherakada osatu baita. Lurralde horretan diru-sarrerak bermatzeko laguntza pixkanaka ezabatzen ari denez, nabarmen murriztu da prestazio sozialetan egin den gastua biztanle bakoitzeko (2017-2018 aldian, -% 22,2; eta 2016-2017 aldian, -% 17,6).

21. taulan bildu da gizarte-zerbitzuen egituraren egin den foru-gastu korrontearen bilakaera 2017-2018 aldian.



21. taula.
Gizarte-zerbitzuen egiturako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2017-2018
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
Gastu mota eta lurralde historikoa		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
EGITURA ETA EMAITZA OROKORRA	EAE	25.722.242	11.006.808	11,82	5,05	-57,3
	Araba	3.229.474	4.758.422	9,98	14,62	46,5
	Gipuzkoa	22.688.595	-8.529.556	31,83	-11,94	-137,5
	Bizkaia	-195.827	14.777.942	-0,17	12,96	
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	EAE	9.873.521	10.151.561	4,54	4,66	2,6
	Araba	3.216.933	3.697.703	9,94	11,36	14,3
	Gipuzkoa	410.843	1.135.201	0,58	1,59	175,7
	Bizkaia	6.245.745	5.318.657	5,48	4,66	-14,9
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	EAE	758.506	811.353	0,35	0,37	6,7
	Araba	247.443	247.443	0,76	0,76	-0,6
	Gipuzkoa	511.063	563.910	0,72	0,79	10,1
	Bizkaia	0	0	0,00	0,00	0,0
Zerbitzu tekniko espezializatuak	EAE	72.247.596	77.174.361	33,20	35,39	6,6
	Araba	9.742.868	9.837.006	30,11	30,22	0,4
	Gipuzkoa	20.654.243	23.179.613	28,98	32,45	12,0
	Bizkaia	41.850.485	44.157.742	36,73	38,71	5,4
EGITURA ESPEZIFIKOA	EAE	82.879.623	88.137.275	38,09	40,42	6,1
	Araba	13.207.244	13.782.152	40,81	42,34	3,7
	Gipuzkoa	21.576.149	24.878.724	30,27	34,83	15,1
	Bizkaia	48.096.230	49.476.399	42,21	43,38	2,8
EGITURA GUZTIRA	EAE	108.601.865	99.144.083	49,91	45,47	-8,9
	Araba	16.436.718	18.540.574	50,79	56,96	12,1
	Gipuzkoa	44.264.744	16.349.168	62,10	22,89	-63,1
	Bizkaia	47.900.403	64.254.341	42,04	56,33	34,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Taulan egiazta daitekeen bezala, biztanle bakoitzeko foru-gastuak, gizarte-zerbitzuen egituran, Araban eta Bizkaian jo zituen mailarik altuenak 2017an: 56,96 eta 56,33 euro, hurrenez hurren. Gipuzkoan txikiagoa izan da balio hori: 22,89 euro biztanleko.

Foru-aldundi bakoitzak gizarte-zerbitzuen sektorearen defizitean edo superabitean egin duen ekarpena zakarki aldatu da, eta horrek baldintzatu du gastu mota horren dinamika, bereziki, gastua nabarmen murriztu edo handitu denean, Euskadin azken urteotan gertatu den bezala. Horren harira, lurralde historikoa zein den, foru-erakundeen egoera oso ezberdina izan da 2017tik 2018ra.

Aldaketarik deigarriena Gipuzkoakoa izan da. Egoera horretako baldintzak izan dira, batetik, diru-sarrerak bermatzeko laguntza ezabatzeko mailakako prozesua eta, bestetik, mendekotasunaren estatu-finantzaketaren aldaketak, baina, horrekin batera, administrazio publikoen finantzaketa ere suspertu zen. Egoera horretan, Gipuzkoak 2016tik 2017ra bere gain hartu ditu egitura horri («Egitura eta emaitza orokorra») lotutako aldi baterako gehikuntza handiak: 6,25 eurotik 31,83 eurora, biztanle bakoitzeko. 2017-2018an diru-sarrerak bermatzeko laguntza funtsean ezabatu egin da, eta finantzaketan eremua normalizatuago dago. Egoera horretan gastu mota horretan Gipuzkoako ekarpen garbi positiboa emaitza negatiboa bilakatu da (eta horrek erakusten du kudeaketaren amaierako emaitzak onak izan direla). Horrela, 2017ko partida horretan 31,83 euro esleitu ziren biztanleko; baina 2018an, jada, -11,94 euro negatibo izan dira. Zenbateko absolutuetan horrek 31,22 milioi aurreztu ditu Gipuzkoako gastuan, 2017-2018 aldian.

Gastua igotzeko lineak Araban bere horretan jarraitu du. Arabako gastuak biztanleko eta emaitza orokorrak gora egin du: 2016an 4,14 euro; 2017an, 9,98 euro; eta 2018an, 14,62.

Bizkaian, bere aldetik, egiturari eta emaitza orokorrari lotutako gastua nabarmen murriztu zen 2016tik 2017ra. Horrela, azalpen horretako gastua 2016an 28,72 eurokoa izan zen; eta 2017an, ordea, -0,17. Kudeaketa-linea eta Gipuzkoan 2017tik 2018ra osatu zena oso antzekoak dira. 2017an oinarrizko finantzaketaren normalizazioa sendotuta, Bizkaian 2017-2018 aldian partida hori neurritz handitzeko apustua egin zen; hala, Arabako mailetara iritsi da: 12,96 euro biztanle bakoitzeko.

Egitura espezifikoak oinarrizko zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen sistema biltzen du; horri dagokionez, Bizkaiko foru-erakundeak 2018an lehenengo postuan egon dira gastu-mailetan (foru-gastua 43,38 eurokoa izan da biztanleko); Arabakoa 42,34 eurokoa izan da; eta Gipuzkoakoa, 34,83 eurokoa, biztanleko. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoa izan da partida horretako gastua 2017tik 2018ra gehien handitu duena: gehikuntza % 15,1ekoa izan da, eta 2016-2017 aldiko % 89,3ko gehikuntzaren jarraipena da. 2017-2018 aldiko gorakada % 2,8 izan da Bizkaian; horrek agerian uzten du gastua egonkortzeko borondatea egon dela, 2016-2017 aldiko % 80,1eko igoera handiaren ostean. Aldi horretan gastuak -% 1,2 egin zuen behera egitura espezifikoan; hori eta gero, 2017tik 2018ra gastua suspertu da, eta % 3,7 egin du gora.

2018an egitura espezifikoan egindako gastua, batik bat, foru-egituraren zerbitzu tekniko espezializatuari lotzen zaie neurri handi batean. Horixe da arlo horretako jardueraren elementu nagusia, eta Bizkaiko gastua 38,71 da biztanleko; beraz, Gipuzkoako 32,45 eurokoa baino handiagoa da; eta Arabako 30,22 eurokoa ere baino handiagoa.

2016-2017 aldian administrazioen hobekuntza finantzarioak Gipuzkoan eta Bizkaian aukera eman zuen baliabideak berriro antolatzeke eta zerbitzu espezializatuko partida horretara bideratzeko: kostaldeko lurralde horietako % 80tik gorako gehikuntza oso urrun zegoen Arabako -% 5,3ko beherakadatik. 2017tik 2018ra, era neurritsuagoan gauzatu bazen ere, gastuaren esfortzuak gora egin zuen: zehazki, Bizkaian % 5,4ko gorakada osatu zen urte artean, eta gorakada hori % 12ra iritsi zen Gipuzkoan. Arabako gastua ez zen guztiz egonkortu, % 0,4ko gorakada txikia egon zelako. Hauxe da ondorio nagusia: 2018an Gipuzkoan zerbitzu espezializatuetan biztanleko egin den gastua Arabakoa baino handiagoa izan da (Gipuzkoakoa 32,45 eurokoa da izan da; eta Arabakoa, 30,22 eurokoa), eta horrek 2017ko posizioak irauli ditu: Arabako gastua 30,11 eurokoa izan da biztanleko; eta Gipuzkoakoa urte horretan 28,98 eurokoa baino ez da izan.



Arabako foru-erakundeek, ordea, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan ekarpen handiaren aldeko apustua egiten jarraitu dute. Horrek azaltzen du Gipuzkoako foru-aldundiak gizarte-zerbitzuen egiturako gastuetan egiten duen foru-gastua baino gastu handiagoa egitea Araban, Arabak gizarte-zerbitzuetan foru-gastua egiteko duen posizioa alde batera utzita. Ildo horretatik, Arabako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan foru-erakundeek egin duten gastua 11,36 eurokoa izan da biztanleko, 2018an; Bizkaian, 4,66; eta Gipuzkoan, ordea, 1,59.

Gipuzkoan gastu horrek 2017tik 2018ra izan duen bultzada handia alde batera utzita —% 175,7 izan da, baina 2017ko gastua 0,58 eurokoa izan zen biztanleko—, 2017-2018 aldiko gehikuntzarik handiena Araban gertatu da: % 14,3 izan da, beraz, 2016-2017 aldikoa, % 4,5, baino askoz ere handiagoa. 2015etik 2016ra gastua % 14,6 igo zen biztanleko; eta 2012tik 2015era ere % 67,1eko gehikuntza osatu zen. Hori dela eta, berriro eutsi zaio oinarrizko gizarte-zerbitzuetan foru-gastu handiagoa egiteko joerari. Horrela, Arabaren lidergoa berretsi da oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin den foru-gastuari dagokionez. Izan ere, gastu hori lotuta egongo da lurraldeko biztanleen ezaugarriari.

Bizkaiak oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egiten duen foru-gastuaren bilakaeran, ordea, aldaketa handiagoak egon dira. Gastu mota hori 2012tik 2015era % 41 egin zuen gora Bizkaian; baina 2015-2016 aldian oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gastua —% 3,3 murriztu zen, biztanleko. 2016tik 2017ra, ordea, berriro ere nabarmendu zen Bizkaian oinarrizko gizarte-zerbitzuetako foru-finantzaketaren gorakada; zehazki, % 57,3 handitu zen biztanleko. 2017-2018 aldian, eta berriro ere biztanleko balioetan, gastu mota hori % 5,58tik % 4,66ra murriztu da; beraz, —% 14,9ko beherakada izan du berriro.

Adinekoen, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen arreta-arloan, 22. taulako datuei erreparatuta hauxe egiazta daiteke: Araba dela, era berean, biztanleko foru-gasturik (edo behintzat foru-aldundiek nagusiki kudeatutako gasturik) handiena duena 2018an, zehatz-mehatz, 359,63 euro. Oso hurbil dago Gipuzkoa (353,38 euro); eta urrunago, Bizkaia (266,67 euro).

2017tik 2018ra arlo horretako foru-gastuak biztanleko % 3,3 egin du gora Araban; eta % 2,7, Gipuzkoan. Kasu bietan 2016tik 2017ra behatutako gastua baino handiagoa izan da kopuru hori (Arabak —% 0,3ko beherakada osatu zen aldi horretan; eta Gipuzkoan % 2,3ko gehikuntza).

2017-2018 aldian, gastuak Bizkaian —% 3,1 egin du behera biztanleko, beraz, lurralde horretan azken urteotan egon den joera aldatu da. 2016-2017 aldian Bizkaia oraindik zen arreta-arlo horretan foru-gastua biztanleko gehien handitu zuen lurraldea, zehazki, % 9,6ko gehikuntza osatu zen. Gainera, 2012tik 2015era Bizkaia jada nabarmen handitu zen arreta-arlo horretako foru-gastua handiena izan baitzuen biztanleko. Bizkaian gastu mota hori nabarmen handitu zen 2015etik 2016ra: aldi horretan gastuaren gehikuntza Arabakoa baino handiagoa izan zen (Bizkaikoa, % 5,1; eta Arabakoa, % 3,2), eta Gipuzkoakoa (% 6,6) baino txikixeagoa.

2016-2017 aldian Arabarekiko eta Gipuzkoarekiko aldea murrizten jarraitu zuten Bizkaian, nahiz eta aldea oraindik oso handia izan. Agerikoa da 2017-2018 aldiko dinamika lotuta dagoela gizarte-zerbitzuen zorro-sistema berriaren garapenari; eta horrek aldaketa handia eragin duela Arabako eta Gipuzkoako foru-gastuarekiko aldea murrizten saiatzeko aurreko prozesu horretan, adineko pertsonentzako, desgaitasun edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta-arloari dagokionez.

2018an egoitza-zentroetan biztanle bakoitzeko egin den gastuari dagokionez, Araban egin den adineko pertsonentzako gastua oraindik ere nabarmentzen da: 183,38 euro; aldiz, Gipuzkoan, 141,35; eta Bizkaian, 112,91. Kasu horretan foru-gastu handiagoa egiteko linea bereizgarriak jarraitu du Araban, 2012tik 2017ra jada ikusi zen bezala: 2017tik 2018ra % 4,1eko gehikuntza egon da, eta horrek Bizkaiko % 2,0 eta Gipuzkoako % 0,6 gainditu ditu. Dena den, hiru lurraldeetan moteldu da gora egiteko erritmoa, 2016-2017 aldiko datuekin (Arabian, % 8,1; Bizkaian, % 4,1; eta Gipuzkoan % 2,0) erkatuta.

Desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan Araba nabarmendu da lurralde horretan biztanleko 53,75 euroko foru-gastua egin delako. Dena den, gainerako lurraldeekin erkatuta, diferentzia ez da hain handia izan, batez ere, Gipuzkoarekin erkatuta (bertako gastua 52,88 eurokoa izan baita). Gipuzkoan 2017-2018 aldirian % 8,6ko gastua egin da biztanleko; hortaz, Arabarekiko aldea murriztu da, aldi horretan % 2,1eko hazkundea erregistratu baita. Desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan foru-gastu handiagoa egitea egitura-egitatea da Gipuzkoan, Arabarekin erkatuta, 2012tik. Dinamika horren ondorioz, bi lurralde horietako gastuak ia berdinak izan dira biztanleko 2018an

Bizkaian ordea ez da finkatu 2016tik 2017a arte antzeman zen gastuaren gorakada biztanleko. 2017-2018 aldirian desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan egin den foru-gastua egonkortu da, eta zertxobait ere jaitsi da (-% 0,2). Hala ere, Bizkaian biztanleko egin den gastu hori (47,77 euro) gertuago dago Araban (53,75) eta Gipuzkoan (52,88) egin den gastutik, adineko pertsonentzako egoitza-zentroko gastuekin erkatuta.

Adineko pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroei erreparatuz gero, Gipuzkoa da 2018an ere biztanleko foru-ekarpen handiena egin duen lurraldea. 29,44 euro bideratzen ditu biztanle bakoitzeko; Arabak, 24,01 euro, eta Bizkaiak 14,86. 2016-2017 aldirian bezala, eta diferentzia horiek alde batera utzita, Bizkaia berriro da esku-hartze horretako gastu-igoera txikiena izan duen lurraldea: % 1,5 izan da; beraz, Arabakoa (% 3,8) eta Gipuzkoakoa (% 7,2) baino txikiagoa. Horiek horrela, Araban hazkunde handiagoa osatu zen 2016-2017 aldirian (Arabian % 8,6; Gipuzkoan, % 3,3; eta Bizkaian, % 2,8); baina Gipuzkoan 2017an eta 2018an gastu-mailaren aldea handitu da gainerako lurraldeekin erkatuta.

Adineko pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan 2018an egin den gasturik handiena Gipuzkoari dagokio: 16,72 euroko gastua egin da biztanleko, beraz, Bizkaikoa eta Arabakoa baino handiagoa izan da (13,01 eta 11,07, hurrenez hurren). Diferentzia horren zati bat 2016-2017 aldiko biztanleko gastuari lotzen zaio: aldi horretan Araban eta Bizkaian -% 12 inguruko beherakadak (-% 11,4 eta -% 12,6) gertatu ziren biztanleko egin zen gastuan, eta Gipuzkoan % 17,9 egin zuen gora aldi horretan. 2017tik 2018ra Gipuzkoako hazkundea neurri handi batean egonkortu zen: gastuak % 0,8 egin zuen gora biztanleko; eta Bizkaian, ordea, % 1,1; eta, apur bat urrunago, Araban, % 2,3.



22. taula.

Desgaitasuna/gaixotasunak edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuen foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017-2018 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa						
Adineko pertsonentzako egoitza-zentroak	EAE	283.358.945	289.451.680	130,23	132,75	1,9
	Araba	57.016.261	59.694.675	176,20	183,38	4,1
	Gipuzkoa	100.176.594	100.960.833	140,54	141,35	0,6
	Bizkaia	126.166.090	128.796.172	110,73	112,91	2,0
Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak	EAE	106.262.605	109.753.622	48,84	50,34	3,1
Gaixotasuna (atsedena barne)	Araba	17.029.854	17.495.516	52,63	53,75	2,1
	Gipuzkoa	34.717.916	37.771.105	48,71	52,88	8,6
	Bizkaia	54.514.835	54.487.001	47,84	47,77	-0,2
EGOITZA-ZENTROAK	EAE	389.621.550	399.205.302	179,07	183,08	2,2
	Araba	74.046.115	77.190.191	228,83	237,13	3,6
	Gipuzkoa	134.894.510	138.731.938	189,25	194,23	2,6
	Bizkaia	180.680.925	183.283.173	158,57	160,68	1,3
Adineko pertsonentzako eguneko zentroak	EAE	43.734.028	45.790.601	20,10	21,00	4,5
	Araba	7.484.186	7.814.147	23,13	24,01	3,8
	Gipuzkoa	19.571.072	21.030.146	27,46	29,44	7,2
	Bizkaia	16.678.770	16.946.308	14,64	14,86	1,5
Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	EAE	29.986.323	30.385.684	13,78	13,94	1,1
	Araba	3.499.413	3.602.712	10,81	11,07	2,3
	Gipuzkoa	11.829.440	11.944.818	16,60	16,72	0,8
	Bizkaia	14.657.470	14.838.154	12,86	13,01	1,1
Desgaitasuna/gaixotasuna dutenentzako beste eguneko zentroak	EAE	24.642.863	26.270.908	11,33	12,05	6,4
	Araba	6.671.388	7.463.934	20,62	22,93	11,2
	Gipuzkoa	7.067.361	7.576.589	9,91	10,61	7,0
	Bizkaia	10.904.114	11.230.385	9,57	9,85	2,9
EGUNEKO ZENTROAK	EAE	98.363.214	102.447.193	45,21	46,98	3,9
	Araba	17.654.987	18.880.793	54,56	58,00	6,3
	Gipuzkoa	38.467.873	40.551.553	53,97	56,77	5,2
	Bizkaia	42.240.354	43.014.847	37,07	37,71	1,7
ETXEKO LAGUNTZA	EAE	43.066.652	23.294.326	19,79	10,68	-46,0
	Araba	5.374.239	5.154.343	16,61	15,83	-4,7
	Gipuzkoa	10.688.674	9.620.533	15,00	13,47	-10,2
	Bizkaia	27.003.739	8.519.450	23,70	7,47	-68,5
ZAINZAILLEENTZAKO BABESA	EAE	556.768	216.881	0,26	0,10	-61,1
	Araba	35.980	26.842	0,11	0,08	-25,8
	Gipuzkoa	132.215	174.989	0,19	0,24	32,1
	Bizkaia	388.573	15.050	0,34	0,01	-96,1
MENDEKOTASUNEN ARLOKO PRESTAZIOAK	EAE	130.887.710	137.483.988	60,16	63,05	4,8
	Araba	14.085.571	14.138.787	43,53	43,43	-0,2
	Gipuzkoa	59.420.448	61.368.271	83,36	85,92	3,1
	Bizkaia	57.381.691	61.976.930	50,36	54,33	7,9
BESTE ZENTRO/ZERBITZUAK	EAE	9.050.276	11.004.058	4,16	5,05	21,3
	Araba	1.495.756	1.674.754	4,62	5,14	11,3
	Gipuzkoa	1.614.670	1.959.194	2,27	2,74	21,1
	Bizkaia	5.939.850	7.370.110	5,21	6,46	23,9
ADINEKOAK/DESGAITASUNA/MENDEKOTASUNA GUZTIRA	EAE	671.546.170	673.651.748	308,64	308,95	0,1
	Araba	112.692.648	117.065.710	348,26	359,63	3,3
	Gipuzkoa	245.218.390	252.406.478	344,02	353,38	2,7
	Bizkaia	313.635.132	304.179.560	275,26	266,67	-3,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika
Erkidegoz gairako erakundearen ekarpena barne

23. taula.

Adingabe, gazte, familia, emakumeentzako eta baztertutako pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako foru-gastu arrunta, zentro/zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017-2018
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/ biz.	Gastua/ biz.	Gastua/ biz.
Zentro/zerbitzu mota eta lurralde historikoa						
Adingabeen egoitza-zentroak	EAE	73.586.938	83.043.940	33,82	38,09	12,6
	Araba	13.163.563	14.681.395	40,68	45,10	10,9
	Gipuzkoa	27.689.054	29.032.091	38,85	40,65	4,6
	Bizkaia	32.734.321	39.330.454	28,73	34,48	20,0
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak	EAE	4.945.301	5.018.804	2,27	2,30	1,3
	Araba	809.272	841.912	2,50	2,59	3,4
	Gipuzkoa	1.182.702	1.406.872	1,66	1,97	18,7
	Bizkaia	2.953.327	2.770.020	2,59	2,43	-6,3
Ostatu, harrera eta egoitza-zentroak	EAE	17.203.017	18.171.097	7,91	8,33	5,4
bazterketa-egoeran dauden pertsonentzat	Araba	1.350.775	1.383.548	4,17	4,25	1,8
	Gipuzkoa	8.694.187	9.407.862	12,20	13,17	8,0
	Bizkaia	7.158.055	7.379.687	6,28	6,47	3,0
EGOITZA-ZENTROAK	EAE	95.735.256	106.233.841	44,00	48,72	10,7
	Araba	15.323.610	16.906.855	47,35	51,94	9,7
	Gipuzkoa	37.565.943	39.846.825	52,70	55,79	5,9
	Bizkaia	42.845.703	49.480.161	37,60	43,38	15,4
Adingabe/familientzako eguneko arreta	EAE	2.318.384	2.841.009	1,07	1,30	22,3
	Araba	1.506.149	1.260.371	4,65	3,87	-16,8
	Gipuzkoa	0	343.022	0,00	0,48	0,00
	Bizkaia	812.235	1.237.616	0,71	1,08	52,2
Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroak	EAE	4.841.792	5.741.326	2,23	2,63	18,3
	Araba	270.389	276.953	0,84	0,85	1,8
	Gipuzkoa	915.844	879.888	1,28	1,23	-4,1
	Bizkaia	3.655.559	4.584.485	3,21	4,02	25,3
EGUNEKO ZENTROAK	EAE	7.160.176	8.582.335	3,29	3,94	19,6
	Araba	1.776.538	1.537.324	5,49	4,72	-14,0
	Gipuzkoa	915.844	1.222.910	1,28	1,71	33,3
	Bizkaia	4.467.794	5.822.101	3,92	5,10	30,2
FAMILIAKO ESKU-HARTZE ETA EKINTZAREN ARLOA	EAE	25.534.726	25.967.574	11,74	11,91	1,5
	Araba	4.307.573	4.519.709	13,31	13,88	4,3
	Gipuzkoa	11.716.431	11.499.207	16,44	16,10	-2,1
	Bizkaia	9.510.722	9.948.658	8,35	8,72	4,5
ADINGABE, GAZTE, FAMILIA, EMAKUME, ETA BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	EAE	128.455.328	141.063.750	59,04	64,69	9,6
	Araba	21.407.721	22.963.888	66,16	70,55	6,6
	Gipuzkoa	50.198.218	52.568.942	70,42	73,60	4,5
	Bizkaia	56.849.389	65.530.920	49,89	57,45	15,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Osoko gastuaren barnean dago Beste Zentro eta Zerbitzuetako gastua, hondar-atala, grafikoan ageri ez dena.



Desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako gainerako eguneko zetroetan (zentro okupazionalak barne), biztanleko foru-ekarpena 22,93 eurokoa izan zen Araban 2018an, Gipuzkoako 10,61 euroen eta Bizkaiko 9,85 euroen gainera, nabarmen. 2012tik 2015era gertatu zen beherakadaren ostean, Araba izan da biztanleko foru-gastuaren gehikuntzarik handiena izan duen lurraldea. Gastua mailaka handitzen joan da: % 5,8 2015etik 2016ra; % 7,6 2016tik 2017ra; eta % 11,2 2017tik 2019ra. Bizkaian gastu horrek % 5,1 egin zuen gora; hortaz, Gipuzkoan 2016an eta 2017an osatu diren balioetara hurbildu zen, nahiz eta Gipuzkoan partida horrek –% 2,6ko beherakada izan 2016tik 2017ra. 2017an eta 2018an, ordea, Bizkaiko balioekin erkatuta, Gipuzkoan biztanle bakoitzeko egin den gastua handiagoa izan da (% 7,0; eta Bizkaian, % 2,9).

Etxeko laguntzaren arloan, biztanle bakoitzeko egin den foru-ekarpenak aldaketa handiak izan ditu 2018an, gizarte-zerbitzuen antolaketa-sistema berriaren ondorioz. Ildo horretatik, Bizkaiko foru-erakundeek etxeko laguntzan egin duten ekarpenak 2017ko 23,70 eurotik 2018ko 7,47 eurora jaitsi da, eta azken postura igaro da, Gipuzkoako 13,47 eta Arabako 15,83 baino txikiagoa izan baita. Biztanle bakoitzeko foru gastuaren beherakada handiena Bizkaikoa izan zen 2017tik 2018ra (–% 68,5), baina foru-ekarpenaren murrizketa orokorra izan da: Araban, –% 4,7; eta Gipuzkoan, –% 10,2.

2016tik 2018ra foru-gastuak Bizkaian baino ez zuen gora egin, % 71,4, 2015etik 2016ra; eta % 134, 2016tik 2017ra; beraz, horrek azal dezake etxeko laguntzaren arloan Bizkaiko foru-gastuaren beherakadaren indarra. Bizkaian ez bezala, gainerako bi lurraldeetako beherakadak ez ziren oso handiak izan 2015etik 2016ra (–% 1,9, Gipuzkoan; eta –% 2,1, Araban), baina 2016-2017 aldian oso handiak izan ziren, bereziki, Araban (–% 51,9; eta Gipuzkoan, –% 11,4).

Mendekotasunen arloko prestazioetan, biztanleko foru-ekarpen (eta autonomiaz gaindiko ekarpen) handiena Gipuzkoan egin zen (85,92 euro), Bizkaikoa (54,33 euro) eta Arabakoa (43,43 euro) baino handiagoa izan baitzen. Gastuaren dimentsio horretan, ordea, azken urteotan biztanleko gastua gehien handitu duen lurraldea Bizkaia izan da: % 9,2, 2016-2017 aldian; % 7,9, 2017-2018 aldian (eta Gipuzkoan % 1,5 eta % 3,1 handitu zen, hurrenez hurren). Bestalde, Araban beherakada txikiak izan ditu biztanleko gastuak (–% 1,1, 2016-2017 aldian; eta –% 0,2, 2017-2018 aldian).

Bizkaian biztanleko foru-ekarpena 0,01 eurokoa baino handiagoa ez zen izan; Araban, 0,08 eurokoa; eta Gipuzkoan, 0,24 eurokoa. Foru-erakundeen esku-hartzeari dagokionez, 2016-2018 aldian gastuaren lineak nabarmen egin du behera hiru lurraldeetan.

2017-2018 aldian, foru-ekarpena lurralde guztietan areagotu da adinekoentzako edo desgaitasunak edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako beste zerbitzu batzuei dagokienez (Arabian, % 11,3, Bizkaian % 21,1 eta Gipuzkoan % 23,9). Biztanle bakoitzeko foru-gasturik txikiena, 2018an, Gipuzkoan egin da (2,74 euro biztanleko) eta handiena Bizkaian (6,46 euro biztanleko); Araba bien bitartean dago, hortaz (5,14 euro biztanleko).

23. taulan ikus daitezke adingabe, gazte, familia eta emakumeen arloko eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen arloko foru-gastu korronteari buruzko datuak. Esku-hartzearen esparru horretan, foru-ekarpen handiena Gipuzkoan egin zuen 2018an, 73,60 euroekin, Arabako 70,55 eta Bizkaiko 57,45 euroen gainera. Gipuzkoarekin erkatuta, 2016an eta 2017an gertatu bezala, Arabako eta Bizkaiko gastua handiagoa izan da biztanleko: % 6,6 eta % 15,1, hurrenez hurren, beraz, Gipuzkoako % 4,5 gainditu dute. 2016-2017 aldiko gastua Araban izan zen bereziki handia (% 25,3; eta Bizkaian, % 7,6; eta Gipuzkoan, % 5,2). Gastua bereziki handia izan zen Araban 2012tik

2015era, baina, gero, 2015etik 2016ra, eten egin zen. Gipuzkoarekin erkatuta, Arabako foru-gastu konparatua 2017tik 2018ra handitu denez, bi lurraldeko balioak antzekoak izan dira 2018an.

2016tik 2017ra, Arabako gastu-mailak handitu dira, batez ere, adingabeen egoitza-zentroei dagokienez; zehazki, % 24,9 egin zuten gora. Balio hori Bizkaiko % 14,7 eta Gipuzkoako % 6,2 baino handiagoa izan da; hori dela eta, Araba izan da 2017an biztanle bakoitzeko foru-gasturik handiena egin duen lurraldea. Arabako lurraldearen posizio hori 2018an sendotu da, gehikuntza handiari eutsi baitzaio. Gorakada Gipuzkoakoa baino handiagoa izan da (Arabakoa, % 10,9; eta Gipuzkoakoa, % 4,6), baina Bizkaiko 2017-2018 aldiko % 20ko igoeratik beherakoa. Horiek horrela, adingabeentzako egoitza-zentroetan biztanle bakoitzeko egin den gastua 45,10 eurokoa izan da biztanleko, beraz, Gipuzkoako 40,65 eta Bizkaiko 34,48 baino handiagoa izan da. Bizkaian zentro mota horretan egin den foru-gastua 2015etik aurrera handitu da, baina lurralde horretan oraindik ere txikiagoa da foru-gastua, 2012-2015 aldiaren gastua nabarmen murriztu zelako.

Gipuzkoak nabarmentzen jarraitzen du baztertutako pertsonentzako etxebizitza, harrera- eta egoitza-zentroetarako biztanleko foru-ekarpenean. Lurralde historiko horretako 13,17 euroek Bizkaiko 6,47 eta Arabako 4,25 euroak gainditu dituzte biztanleko 2018an. 2017tik 2018ra, Gipuzkoan are gehiago handitu da gastu hori: % 8,0, zehatz-mehatz; eta Bizkaian, % 3,0 eta Araban, % 1,8.

Edonola ere, 2017-2018 aldiaren foru-gastua zerbitzu mota horietan era bateratuan igo da berriro. 2015-2016 aldiaren Araban eta Gipuzkoan gastu horrek behera egin zuen (-% 3,3 eta -% 4,6; eta Bizkaian, ordea, % 10,9 egin zuen gora), eta Bizkaian ere 2016an eta 2017an (-% 6,9; eta Araban +% 24,5 eta Gipuzkoan +% 4,9) egin zuen behera.

Egoitzaren arloan, 2018an, Gipuzkoan 1,97 eurokoa izan da emakumeentzako zentroetarako biztanleko foru-gastua, Araban 2,59koa, eta, tartean dago Bizkaia, 2,43 euroko gastuarekin, Arabako emaitzatik hurbil. Bizkaian, ordea, egoitza-zerbitzu horietan biztanleko egindako gastuak -% 6,3 egin du behera 2017tik 2018ra, Araban (+% 3,4) eta Gipuzkoan (+% 18,7) ez bezala. 2016tik 2017ra, ordea, alderantziz gertatu zen: Araban eta Gipuzkoan emakumeentzako egoitza-zentroetako gastuak behera egin zuen biztanleko (-% 15,9 eta -% 4,1), eta Bizkaian % 4,6 egin zuen gora. Hori dela eta, 2017an Arabako biztanleko foru-gastua baino handiagoa izan zen Bizkaikoa.

Gizarteratzeko premiei erantzuteko eguneko zentroetan, biztanleko gastua Arabako 0,85 euroren eta Bizkaiko 4,02 euroren artekoa da Gipuzkoako gastua, zehazki, 1,23 eurokoa. Biztanleko gastua kasu guztietan % 10 igo da, 2012tik 2015era. 2015-2016 aldiaren, ordea, foru-gastu horrek Gipuzkoan baino ez zuen gora jarraitzen (% 2,6), Araban -% 2,5 egin zuen behera; eta Bizkaian, -% 6. 2016tik 2017ra, ordea, Bizkaian eta Araban gora egin zuen gastuak (% 10,3 eta % 7,4), eta Gipuzkoan behera (-% 7,7) egin zuen.

Bazterketa-arazoak dituzten pertsonen laguntzeko eguneko zentroetako gastuaren goranzko joera Bizkaian sendotu egin da 2017tik 2018ra: gastuak % 25,3 egin du gora, eta Arabako igoera, aldiz, txiki samarra izan da (% 1,8 baino ez). Gipuzkoakoa -% 4,1ekoa izan da, beraz, 2016tik aurrerako beherazko linea areagotu egin da.



Adingabe, gazte edota familientzako eguneko arretako gasturik handiena Araban egin da 2018an: 3,87 euroko gastua egin da biztanleko, baina, 2017ko 4,65 euroekin erkatuta, behera egin du (–% 16,8). Maila oso txikitatik abiatuta, gastuak gainerako bi lurraldeetan gora egin du: Bizkaian % 1,08 eurokoa izan da; eta Gipuzkoan, % 0,48.

Azkenik, familian esku hartzeko programetan eta ekintza-programetan, Gipuzkoa dago, berriz ere, lehenengo postuetan, 16,10 euroko foru-ekarpena baitu biztanleko, eta ondoren datoz Araba (13,88) eta Bizkaia (8,72). 2012. eta 2015. urteen artean ikusitako gastuaren gorakada indartsuen ostean —gehiago Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino—, arlo horretako esku-hartzean Gipuzkoak izan du gorakadarik handiena 2015etik 2016ra. 2016tik 2017ra goranzko joerak Gipuzkoan jarraitu egin du. Gipuzkoan % 5,6 egin du gora, baina Arabakoa (% 6,5) handiagoa izan da, eta Bizkaian behera (–% 2,3) egin du. 2017tik 2018ra, Bizkaia lehenengo postuetan egon da familian esku hartzeko eta ekintza-programetako foru-gastuari dagokionez: % 4,5 izan da, eta Arabako % 4,3tik hurbil; eta Gipuzkoan, ordea, behera egin du (–% 2,1).

Gizarte-prestazioen arloan, GLL, gizarte-larrialdia eta EAeko diru-sarrerak bermatzeko sistema orokorra osatzeko antzeko zeregina duten beste batzuen antzeko babes-prestazioekin lotutakoa da lurralde-politika desberdinekin gehien lotutako ekarpena. Oinarrizko datuak 24. taulan bildu dira.

24. taula.

GLL, gizarte-urgentziarako eta antzeko beste prestazioetako foru-gastu arrunta, lurralde historikoen arabera. 2017-2018

(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

Prestazio mota eta lurralde historikoa	2017		2018		Bariazioa 2017/2018 aldian
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
Beste gizarte-prestazio batzuk	10.692.673	3.700.014	4,91	1,70	-65,5
EAE					
Araba	493.913	684.054	1,53	2,10	37,7
Gipuzkoa	9.445.677	2.158.753	13,25	3,02	-77,2
Bizkaia	753.083	857.207	0,66	0,75	13,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Kasu horretan daturik esanguratsuena Gipuzkoako foru-gastua gainerako lurraldeetan behatu denarekin guztiz parekatzea izan da. Funtsean gauzatutzat jo da diru-sarrerak bermatzeko laguntza kentzeko prozesua, eta horrek berekin ekarri du prestazioetako foru-gastuak behera egitea: 2017ko 13,25 eurotik 2018ko 3,02 eurora. Ekarpene horrek Arabako biztanleko 2,10 eurokoa eta Bizkaiko 0,75 eurokoa gainditu ditu, nahiz eta igoera 2017-2018 aldikoa baino gutxienez % 10 handiagoa izan.

4.5. Udal-erakundearen parte-hartze konparatua, lurralde historikoen arabera

25. taulan egiazta daitekeen bezala, udal-erakundeek, udalen edo mankomunitateen bidez, zerbitzuetan eta gizarte-prestazioetan 87,54 euro gastatu zituzten herritar bakoitzeko 2018an. Zifra hori bultzada handia izan da, 2017ko 78,63 euroekin erkatuta, gehikuntza % 11,3koa izan da.

Udal-gastuaren goranzko joera aldaketa handia izan da, aurreko urteetan behatutako joerarekin erkatuta. Ildo horretatik, 2016-2017 aldia –% 4,1eko beherakadak ezaugarritu zuen biztanleko udal-gastua, eta horrek jarraipena eman zion 2015-2016 aldiko –% 4,0ko beherakadari. 2015-2017 aldiko beherakaden ostean, 2018an gastua 87,54 euro nominalakoa izan zen biztanle bakoitzeko; hortaz, 2015eko 85,39 euroak gainditu zituen, eta balio hori jada 2012ko 74,28 euroak baino % 15 handiagoa izan zen.

25. taula.
Gizarte-zerbitzuetako eta -prestazioetako udal-gastu arrunta, udalerrri motaren arabera. 2017-2018 (Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
Gastu eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Gastu arrunta guztira	EAE	171.092.452	190.875.614	78,63	87,54	11,3
	Gasteiz	41.834.126	43.299.086	172,69	177,59	2,8
	Arabako beste udalerrri nagusiak	1.086.310	1.093.442	37,82	37,95	0,3
	Arabako gainerakoak	774.207	939.273	14,71	17,76	20,7
	Donostia	19.804.080	18.854.581	109,68	104,18	-5,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	9.345.614	10.000.096	73,69	78,94	7,1
	Gipuzkoako gainerakoak	23.755.028	23.276.311	58,59	57,25	-2,3
	Bilbo	32.017.073	34.865.672	93,51	101,71	8,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	28.917.357	36.229.646	67,96	85,19	25,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	13.558.657	22.317.507	36,49	59,90	64,1
Gizarte-zerbitzuak: erdigunea	EAE	152.070.564	174.138.994	69,89	79,86	14,3
	Gasteiz	36.900.842	37.564.839	152,32	154,07	1,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	710.501	696.550	24,74	24,17	-2,3
	Arabako gainerakoak	746.702	905.145	14,19	17,11	20,6
	Donostia	15.930.028	17.100.049	88,23	94,48	7,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	8.330.446	9.063.025	65,68	71,54	8,9
	Gipuzkoako gainerakoak	21.106.327	21.194.572	52,06	52,13	0,1
	Bilbo	31.208.933	34.086.380	91,15	99,43	9,1
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	25.543.555	33.019.434	60,03	77,64	29,3
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	11.593.230	20.509.000	31,20	55,04	76,4
Gizarte-prestazioak	EAE	19.021.888	16.736.620	8,74	7,68	-12,2
	Gasteiz	4.933.284	5.734.247	20,36	23,52	15,5
	Arabako beste udalerrri nagusiak	375.809	396.892	13,09	13,77	5,3
	Arabako gainerakoak	27.505	34.128	0,52	0,65	23,4
	Donostia	3.874.052	1.754.532	21,46	9,69	-54,8
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.015.168	937.071	8,00	7,40	-7,6
	Gipuzkoako gainerakoak	2.648.701	2.081.739	6,53	5,12	-21,6
	Bilbo	808.140	779.292	2,36	2,27	-3,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	3.373.802	3.210.212	7,93	7,55	-4,8
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.965.427	1.808.507	5,29	4,85	-8,2

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



25. taulan erakusten diren udal-gastuen arteko diferentziak oso deigarriak dira, eta lurraldeko dinamika bereziak erakutsi dituzte 2017-2018 aldian. Udal-ekarpen handienak Gasteizen egin dira berriro ere 2018an: 177,59 euro biztanleko. Gastuak EAEko udalerrien batez besteko mailak gainditu ditu EAEko gainerako hiriburuetan, baina askoz ere txikiagoa da: Donostian, 104,18 eurokoa izan da biztanleko; eta Bilbon, 101,71 eurokoa.

Gasteizen eta Bilbon biztanleko gastuak goranzko joera izan du 2017tik 2018ra, batez ere, Bilbon. Bilboko gehikuntza % 8,8 izan da; eta Gasteizkoa, % 2,8. Bilboko bilakaera bereziki handia izan da, 2012-2015 aldiko igoera-erritmo handiak berreskuratu baitira (% 4,8 aldi horretan); 2015-2016 aldian (-% 5,0) eta 2016-2017 aldian (-% 2,8) behera egin ondoren. 2018an 101,71 euro nominaleko gastua egin zen biztanle bakoitzeko; hortaz, horrek 2015eko 101,28 euroak gainditu zituen, 2017an 93,51 euroraino jaitsi eta gero.

Gasteizko gastuak 2016tik 2017ra baino ez zuen behera egin (-% 2,7 aldi horretan), eta 2015-2016 aldian % 3,7 egin zuen gora. Neurritsua izan arren, Gasteizko 2017-2018 aldiko igoera horrek biztanleko 2017ko gastu nominala 2015etik gora jarri du (177,59 euro, 171,14 euroren aldean).

Gastuak, ordea, behera egin du Donostian, zehazki, gastuak -% 5,0 egin du behera biztanleko: 2017ko 109,68 eurotik 2018ko 104,18 eurora aldatu da biztanleko. 2016-2017 aldiko % 2,9ko gorakadaren ostean, horrek 2015-2016 aldiko beheranzko dinamikari (-% 6,6) eutsi dio berriro. Edonola ere, Donostian biztanle bakoitzeko 2018an osatu den gastua oso urrun dago 2015eko balioetatik (2018an 104,18 euro; eta 2015ean 114,09 euro).

Gipuzkoako gainerako udalerrietan bilakaera hobea izan du; udalerrri horietan hobeto egin zioten aurre 2015-2016 aldiko biztanleko gastuaren beherakadari (-% 1,7; eta hiriburuan, ordea, -% 6,6). Udalerrri horietan, biztanleko gastuak % 6,2 egin zuen gora 2016tik 2017ra (% 2,9 Donostian), eta igoera-erritmoak % 7,1 egin zuen gora 2017tik 2018ra. Udalerrri horietako gastua 78,94 eurokoa izan da 2018an, beraz, Euskadiko batezbestekotik (87,54 eurotik) hurbilago egon da.

Gipuzkoako udalerrri nagusien 2018ko gastu-maila hori, ordea, Bizkaiko udalerrri parekideena baino txikiagoa izan da; izan ere, Bizkaiko udalerrri horiek funtsezko aldaketa izan dute 2017tik 2018ra. Udalerrri multzo horretan 2015etik 2016ra antzeman zen gastuaren -% 9,6ko beheranzko joera gogorak bere horretan jarraitu zuen 2017a arte, eta 2016-2017 aldian ere -% 9,5ekoa. 2017tik 2018ra, ordea, egoera guztiz aldatu da, eta udalerrri horietan biztanle bakoitzeko gastuak % 25,4 egin zuen gora. Zenbateko nominaletan gastu hori 85,19 eurokoa izan da 2018an; beraz, argi dago 2017ko 67,96 eurotik gorakoa eta 2015eko 83,04 eurotik gorakoa izan dela. Biztanleko gastua, beraz, EAEko batezbestekotik (87,54 eurotik) hurbil dago.

Ekarpen-maila txikienei dagokienez, biztanleko udal-gastua 59,90 eurokoa izan da Bizkaiko gainerako udalerrietan, eta 2017tik 2018ra eremu horretan osatu den aldaketa oso deigarria izan da. Zehazki, % 64,1eko gorakada egon da, eta horrek aldatzen ditu 2015-2017 aldiko beherakadak (2015-2016 aldian -% 12,1; 2016-2017 aldian -% 24,2). Bizkaiko udalerrri horietan biztanle bakoitzeko 59,90 euroko gastua egin da 2018an; beraz, lehenengo aldiz 2015eko 54,77 euroak gainditu dira.

Gastuaren gorakada handi hori dela eta, Bizkaiko gainerako udalerrietan 2018an egindako gastuak Gipuzkoako udalerrietan biztanleko egindako gastua gainditu du, zehazki, gastua 57,25 eurokoa izan da eremu horretan. Zifra horrek -% 2,3 euroko beherakada osatu du, 2017an biztanleko egin zen 58,59 euroko gastuaren aldean, eta 2016-2017 aldian ere % 4,7 egin zuen gora.

2018ko gasturik txikiena dagokie buruak ez diren Arabako udalerriei. Udalerrri nagusietan (Gasteizen izan ezik) biztanleko egin den udal-gastua 37,95 eurokoa izan da; 2017koa baino % 0,3 eurotik gorakoa. Balio horrek 2015eko 33,80 euroak gainditzen ditu, baina agerian utzi du egonkortasun handia dagoela, 2012-2016 aldian ez bezala: 2012-2015 aldian % 37,8 egin zuen gora; eta 2015-2016 aldian, % 11,4. Dinamika hori 2016tik 2017ra hautsi zen; eta gorakada mugatua % 0,5ekoa izan zen.

Arabako gainerako udalerrietan biztanleko egin den gastua 17,76 eurokoa izan da; beraz, argi dago balio hori 2017ko 14,71 eurotik gorakoa dela (+% 20,7). 2015eko 13,57 euroak gainditu arren, adierazle hori oraindik ere urrun dago 2012ko 24,13 euroetatik.

25. taulan udal-gastuaren barneko egitura aztertu ondoren, egiaztatu egin da 2018an gizarte-zerbitzuetan 79,86 euroak baliatu direla biztanleko. Horrek % 14,3ko gehikuntza dakar 2017ko 69,89 euroekin alderatuta. Behatu den gorakada handi horrek nabarmen aldatzen ditu 2015-2016 eta 2016-2017 aldietako beherakadak (-% 5,1 eta -% 4,2, hurrenez hurren). Hori dela eta, 2015eko 76,87 euroak gainditu dira.

Udalen gastuak batez ere jarduketa-esparru horretara bideratzen direnez, lurraldeen arteko aldeak gorago aipatu diren horien oso antzekoak dira. Udal-ekarpenen mailarik handiena Gasteizkoa izan da, zehazki, 154,07 eurokoa. Balio horrek gora jarraitu du 2017tik 2018ra (% 1,1 egin du gora, baina igoera hori 2016-2017 aldiko % 1,9 eta 2015-2016 aldiko % 2,1 baino txikiagoa da).

Gizarte-zerbitzuetako nukleo nagusian Bilbon biztanleko egin den gastua 99,43 eurokoa izan da. Hori dela eta, Bilbo bigarren postuan dago sailkapenean, eta % 9,1 egin du gora, 2017ko 91,15 euroekin erkatuta. Hazkunde horrek argi hausten du aurreko beheranzko joera (2015-2016 aldian -% 5,8; eta 2017-2018 aldian -% 1,9).

2015-2016 aldian Donostian biztanleko eginiko gastuak -% 7,2 behera egin ondoren, 2016-2017 aldiko % 3,8ko gorakada sendotu da, 2017-2018 aldian % 7,1 egin baitu gora. Gastu-maila 2018an 94,48 eurokoa da biztanleko; beraz, Bilboko erregistrotik urrunago dago, Bizkaiko hiriburuan gorakada handiagoa behatu baita 2017tik 2018ra.

2015-2016 aldiko beheranzko joeraren aldaketa, ordea, nagusi izan da Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan. Aldi horretako -% 5,5eko murrizketaren ostean, biztanleko gastuak % 7,5 egin zuen gora 2016tik 2017ra; eta 2017-2018 aldian % 8,9raino iritsi da. 2018an biztanleko gastua 71,54 eurokoa izan da, beraz, 2015eko 64,67 eurokoa baino handiagoa izan da.

Bizkaiko gainerako udalerrietan, ordea, bizkorrago egin du gora 2017tik 2018ra. Gastuak % 29,3 egin du gora, beraz, Gipuzkoako udalerrri nagusietako emaitzak gainditu ditu. 2018an bizkaitar udalerrri horietan gizarte-zerbitzuetako nukleo nagusian biztanleko egin den gastua 77,64 eurokoa izan da, beraz, 2015eko 76,83 eurotik gorakoa izan da. Printzipioz, badirudi bi balio horiek antzekoak direla, baina hala da 2015etik 2017ra udalerrri horietan biztanleko gastua nabarmen murriztu baitzen (2015-2016 aldian -% 10,2; eta 2015-2016 aldian, -% 13).

Gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian egin den gasturik handiena Bizkaiko gainerako udalerrietan osatu da: igoera % 76,4koa izan da, 2017ko 31,20 euroren eta 2018ko 55,04 euroren artean. Udalerrri horietan ere 2015-2017 aldiko beheranzko linea hautsi da (-% 13, 2015-2016 aldian; -% 28,1, 2016-2017 aldian). Aldaketa hori dela eta, udalerrri horiek argi gainditu dute 2015eko 49,91 euroko balioa.



Gipuzkoako gainerako udalerrietan, ordea, ez da behatu goranzko linea nabari hori. Gipuzkoako udalerrri horietako biztanleko gastua egonkortu egin da 2017tik 2018ra (% 0,1). Dinamika egonkor hori jada aurreko urteetan erregistratu zen, zehazki, 2015etik 2016ra $-%$ 0,3 egin zuen gora, eta hori partzialki konpentsatu zuen 2016-2017 aldiko % 2,3ko igoerak. Udalerrri horietako 52,13 euroko gastua lehenengo aldiz Bizkaiko gainerako udalerrietako biztanleko 55,04 euroko gastua baino txikiagoa izan da, 2015etik aurrera.

2018an biztanleko udal-gastu txikiena Arabako udalerriei dagokie: lurraldeko udalerrri nagusietan (Gasteizen izan ezik) 24,17 eurokoa izan da; eta gainerakoetan 17,11 eurokoa. 2017tik 2018ra % 20,6ko gehikuntza egon da gainerako udalerrietan, baina udalerrri nagusietan (hiriburuan izan ezik) gastuaren bilakaera negatiboa ($-%$ 2,3) izan da aldi horretan. Udalerrri horietan biztanle bakoitzeko 2018an egin den 24,17 euroko gastua 2015eko 24,51 eurokoa baino txikiagoa izan da.

25. taulan erakusten den moduan, udal-erakundeek udalen eta mankomunitateen bitartez prestazioetan egin duten gastua 2018an 7,68 eurokoa baino handiagoa ez da izan biztanleko. Balio horrek $-%$ 12,2ko murrizketa erakusten du, 2017ko 8,74 euroren aldean; eta horrek jada $-%$ 3,3ko beherakada zen 2016ko 9,05 euroekin erkatuta. Aldiko murrizketa horiek 2012-2016 aldiko goranzko joeratik bereizten dira.

2016tik 2017ra Gasteizen antzeman zen gastu-mailen beherakadarik handiena; zehazki, $-%$ 27,4ko murrizketa osatu zen. 2017-2018 aldian prestazioetako gastuak % 15,5 egin du gora, eta 23,52 euroraino iritsi da biztanleko. Balio hori 2016ko 28,04 eurotik urrun dago, bai eta 2015eko 24,75 eurotik behera ere; baina, hala eta guztiz ere, Euskadiko prestazioetan egin den udal-gasturik handiena da.

Donostiako 2018ko gastu-maila hori Arabakoa baino txikiagoa da: 9,69 euro biztanleko; hau da, 2017ko 21,46 euroko eta 2015eko 22,45 euroko balioak baino % 54,8 txikiagoa.

Arabako gainerako udalerrri nagusietan biztanleko egin den 13,77 euroko gastua baino txikiagoa izan da Donostian 2018an prestazioetan egin den biztanleko gastua. Arabako gainerako udalerrietan 2015-2016 aldian gastuak % 46,8 egin zuen gora, eta, horren ondoren, 2016-2017 aldiko gastuaren beherakada konparatiboki neurritsua ($-%$ 4,0) izan zen, eta 2017-2018 aldiko igoerak ($+$ % 5,3) konpentsatu zuen. Horrek azaltzen du 2018ko 13,77 euroko kopurua 2015eko 9,29 eurokoa baino askoz ere handiagoa izatea.

Arabako prestazioetako gastuaren goranzko joera gainerako udalerrietara ere hedatu da, nahiz eta biztanleko udal-gastua 2018an oraindik ere oso txikia izan, zehazki, 0,65 eurokoa biztanleko, Euskadiko udal-testuinguruko zifrarik txikiena, hain zuzen ere.

Donostian bezala, prestazioetan biztanleko egin den gastuaren beheranzko joera Gipuzkoa osora hedatu da, eta Bizkaian ere gauza bera gertatu da. 2017-2018 aldiko beherakadak, oro har, $-%$ 3,7 eta $-%$ 8,2 bitartekoak izan dira, nahiz eta Gipuzkoako udalerrri txikiagoetan $-%$ 21,6koak izan.

Talde handi horretan gastu-mailarik handienak gainerako udalerrri nagusietan osatu dira, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, eta biztanleko gastua 7,55 eurokoa eta 7,40 eurokoa izan da 2018an. Antzekoak izan arren, gainerako balioak txikiagoak dira lurralde horietako gainerako udalerriei dagokienez (Gipuzkoan 5,12 euro biztanleko; eta Bizkaian, 4,85).

Bilboko egoera bitxia da: gizarte-prestazioetan biztanleko eginiko udal-gastuak 2016-2018 aldian behera egin ostean, biztanleko 2,27 eurokoa baino ez da izan 2018an. Balio hori Gasteizen edo Donostian behatutako balioetatik urrun dago, baita Euskadiko gainerako udalerrien balioetatik urrun. Salbuespen bakarra biztanle gutxiago dituzten udalerriena izan da.

26. taularen bitartez azter daiteke gizarte-zerbitzuen nukleo nagusia osatzen duen osagai bakoitzean egindako udal-gastua. Taula horretan gizarte-zerbitzuen egitura aztertzen badugu, egitura hori mantentzeko egin den udal-ekarpena 2018an 25,22 eurokoa izan da biztanleko. Horrek % 1,9 osatzen du, 2017ko 24,75 euroekin erkatuta; eta 2016-2017 aldiko % 0,6ko igoera ere osatzen du. Txikia izan arren, goranzko joera horrek zeharo aldatzen zuen 2015-2016 aldiko murrizketa-linea, egindako gastuak % 5,5 egin baitzuen behera. Hala eta guztiz ere, 2018an biztanleko egin den 25,22 euroko gastua 2015eko 26,02 eurokoa baino txikiagoa izan da.

Dena den, aztertu ditugun udal-eremuen posizioa eta dinamika oso ezberdina izan da 2018an. Gastuarekiko konpromiso handiagoko posizioetan Gasteizko udalerrria dugu, dimentsio horietan posizio esanguratsuenak hartu baititu, zehazki, 63,99 euroko gastua egin baitu biztanleko.

Maila txikiagoan badago ere, Donostiako gastua garrantzitsua izan da 2018an: 34,57 eurokoa, biztanleko. EAEko batezbestekotik gora, Bilboko mailak ere esanguratsuak izan dira 2018an: 26,95 euro biztanleko. Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietako gastua 26,14 eurokoa izan da biztanleko, beraz, EAEko batezbestekotik gora geratu da.

EAEko batezbestekotik behera egon arren, biztanle gutxiago dituzten Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerrien udal-gastua 20 eurokoa izan da biztanleko (24,27 eta 22,77 euro biztanleko, hurrenez hurren). Atari horretatik behera Arabako gainerako udalerrriak (18,08 euro) eta Bizkaikoak (16,51 euro) ditugu. Maila txikiena Arabako gainerako udalerriena da: 10,01 euro, nahiz eta 2017-2018 aldian gastuak % 20,7 gora egin.

Duela gutxiko bilakaeran gastuaren igoera esanguratsuak gertatu dira gizarte-zerbitzuen egituren udalerrri edo udalerrri-talde batzuetan. Igoera nagusia 2017tik 2018ra bitartean gertatu da, Gasteizen. Kasu horretan, 2015etik 2017ra % 2ko inguruko igoera neurritsuak egon arren, 2018an bultzada argia eman zaio jarduketara-arlo horri: % 33,5 egin du gora, 2017ko balioekin erkatuta. Udalerrri horretan 2018ko 63,99 euroko balioak 2015eko 46,00 euroko balioak alde handiz gainditzen dituzte.



26. taula.
Gizarte-zerbitzuen egiturako udal gastu arrunta, udal motaren arabera. 2017-2018
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldirian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
Gastu eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Oinarritzko gizarte-zerbitzuak (gizarte-urgentziak barne)	EAE	39.409.085	42.649.231	18,11	19,56	8,0
	Gasteiz	6.055.659	6.651.176	25,00	27,28	9,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	462.423	362.681	16,10	12,59	-21,8
	Arabako gainerakoak	370.900	302.486	7,05	5,72	-18,9
	Donostia	4.905.972	4.622.802	27,17	25,54	-6,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	2.874.926	3.231.647	22,67	25,51	12,5
	Gipuzkoako gainerakoak	10.005.692	10.534.711	24,68	25,91	5,0
	Bilbo	6.385.320	6.954.731	18,65	20,29	8,8
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	5.743.223	5.991.286	13,50	14,09	4,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.604.970	3.997.711	7,01	10,73	53,0
Zerbitzu tekniko espezializatuak	EAE	7.777.182	9.170.136	3,57	4,21	17,7
	Gasteiz	3.987.997	4.477.773	16,46	18,37	11,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Donostia	107.995	770.471	0,60	4,26	611,7
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	168.384	210.105	1,33	1,66	24,9
	Gipuzkoako gainerakoak	176.283	287.172	0,43	0,71	62,4
	Bilbo	2.025.983	2.209.319	5,92	6,44	8,9
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	1.168.267	1.124.987	2,75	2,65	-3,7
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	142.273	90.309	0,38	0,24	-36,7
Egitura eta emaitza orokorra	EAE	6.667.156	3.165.216	3,06	1,45	-52,6
	Gasteiz	1.565.460	4.471.943	6,46	18,34	183,8
	Arabako beste udalerrri nagusiak	153.829	158.266	5,36	5,49	2,6
	Arabako gainerakoak	65.297	226.849	1,24	4,29	245,6
	Donostia	908.358	864.237	5,03	4,78	-5,1
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	590.860	-130.408	4,66	-1,03	-122,1
	Gipuzkoako gainerakoak	101.525	-955.137	0,25	-2,35	-1038,0
	Bilbo	-16.569	74.462	-0,05	0,22	-548,9
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	236.935	-95.785	0,56	-0,23	-140,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	3.061.461	4.397.331	8,24	11,80	43,2
EGITURA GUZTIRA	EAE	53.853.423	54.984.583	24,75	25,22	1,9
	Gasteiz	11.609.116	15.600.892	47,92	63,99	33,5
	Arabako beste udalerrri nagusiak	616.252	520.947	21,46	18,08	-15,7
	Arabako gainerakoak	436.197	529.335	8,29	10,01	20,7
	Donostia	5.922.325	6.257.510	32,80	34,57	5,4
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	3.634.170	3.311.344	28,65	26,14	-8,8
	Gipuzkoako gainerakoak	10.283.500	9.866.746	25,37	24,27	-4,3
	Bilbo	8.394.734	9.238.512	24,52	26,95	9,9
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	7.148.425	7.020.488	16,80	16,51	-1,7
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	5.808.704	8.485.351	15,63	22,77	45,7

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

EAEko hiriburuei dagokienez, 2017tik 2018ra, Bilbon eta Donostian gastuak gora egin du (% 9,9 eta % 5,4, hurrenez hurren). Bilbon 2015eko gastu-balioak (26,47) gainditu dira 2018an (26,95), baina Donostian gauza bera gertatu da. Kasu horretan 2015-2017 aldiko gastu-beherakadak (-% 7,0 eta -% 8,3) erabakigarriak izan dira 2018ko gastua 2015ekoa baino txikiagoa izan dadin (34,57 euro, 38,44 euroren aldean).

Hiriburuak alde batera utzita, biztanle gutxiago dituzten bizkaitar udalerrietan osatu da 2017-2018 aldiko gastu-igoerarik handiena (% 45,7); hortaz, 2016-2017 aldiko beherakada handia (-% 13,4) nabarmen gainditu da. Kasu honetan gastua 2015ekoa baino askoz ere handiagoa izan da (22,77 euro 2018an; eta 17,94 euro 2015ean).

Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan, ordea, 2017-2018 aldian % 1,7ko beherakada osatu da gizarte-zerbitzuen egituran biztanleko egin den gastua. 2015-2016 aldian -% 11ko murrizketa gehitzen badiogu, 2016-2017 aldiko % 3,5eko igoera konpentsatu da. 2018an biztanleko egin den 16,51 euroko gastua 2015eko 18,25 eurokoa baino txikiagoa izan da.

Gipuzkoan, hiriburua alde batera utzita, beheranzko joera are nabariagoa izan 2017-2018 aldian: -% 8,8 beste udalerrri nagusi batzuetan; eta -% 4,3 gainerako udalerrietan. Bilakaera horrek bat egin du 2015-2016 aldiko beherakadekin, eta, horrela, 2016-2017 aldiko gorakada konpentsatu da. Gipuzkoako udalerrri horietan, biztanleko gastua 2015ekoa baino txikiagoa izan da 2018koa: 26,14 euro, 29,17 euroekin erkatuta; eta 24,27 euro, 25,98 euroekin erkatuta, Gipuzkoako gainerako udalerrietan.

Edonola ere, 2017-2018 aldiko beherakada handiena (-% 15,7) Arabako gainerako udalerrri nagusiei dagokie, eta horri 2015-2016 aldiko -% 6,4ko beherakada gehitu ondoren, 2017-2018 aldiko % 20,9 konpentsatzen da. Hori dela eta, 2018ko biztanleko gastua 2015ekoa baino txikiagoa izan da: 18,08, 18,96 euroren aldean.

Azpimarratzekoa da gizarte-zerbitzuen egituran gertatutako gastuaren beherakada, kuantitatiboki eta neurri batean, kasu batzuetan egitura eta emaitza orokorrari lotuta dagoela; eta hori lotzen zaio kudeaketa-prozesuen defizita kontrolatzeko dinamika positiboari. Oro har, egiturari eta emaitza orokorrari lotutako udal-gastua (defizita barne) -% 52,6 murriztu da 2017tik 2018ra; eta biztanleko 1,45 murriztu da, 2015eko 4,24 euroren eta 2017ko 3,06 euroren aldean. 2017an eta 2018an Arabako udalerrietan (eta batzuetan esanguratsua da, adibidez, Gasteizen) eta biztanle gutxiago dituzten bizkaitar udalerritan baino ez da igo egitura orokorrari lotutako gastua; izan ere, gainerako lurraldean beherakada handiak izan ditu, oro har.

2015etik 2017ra erori ondoren (-% 8,8, 2015etik 2016ra; -% 3,6, 2016tik 2017ra), 2017tik 2018ra gora egin du berriro zerbitzu tekniko espezializatuetakoko gastua biztanleko gastuak, zehazki, % 17,7 egin du gora 2017-2018 aldian. Gastua 4,21 eurokoa izan da, beraz, 2015eko 4,06 eurokoa baino handiagoa izan da. 2017. eta 2018. urte artean Bizkaiko udalerrriak baino ez zeuden goranzko dinamika horretatik kanpo, Bilbo izan ezik.

Gasteizko udalerrian osatu zen biztanleko gasturik handiena zerbitzu espezializatuetan: 18,37 euro biztanleko; hori Bilboko 6,44 eurotik gorakoa da; Donostiako 4,26 eurotik gorakoa; eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietako 2,65 eurotik gorakoa ere bai. EAEko gainerako udalerrietan gastua 1,66 eurokoa edo txikiagoa da.

Bestalde, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gastua sendotu egin da. Biztanleko udal-gastuak gora egin du: 2017-2018 aldian, 18,11 eurotik 19,56 eurora aldatu; beraz, gehikuntza erlatibo % 8,0koa izan da. Horrek nabarmen gainditu du 2015-2016 aldiko % 0,8ko gehikuntza, baita 2016-2017 aldiko % 1,5ekoa ere. 2018ko 19,56 euro horiek jada argi gainditu dituzte 2015eko 17,72 euroak.



Bilakaera, ordea, ez da berdina izan lurralde guztietan. 2017-2018 aldian, gehikuntzarik handienak, % 8 ingurukoak edo handiagoak, Gasteizen (% 9,1), Bilbon (% 8,8) eta Gipuzkoako udalerrri nagusietan osatu ziren, Donostian (% 12,5) eta biztanle gutxiago dituzten bizkaitar udalerrietan (% 53). Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan % 4,4ko gehikuntza osatu da; eta Gipuzkoako herri txikiagoetan, % 5ekoa. Kasu horietan guztietan biztanleko 2018ko gastua 2015ekoa baino handiagoa izan da.

Aurrekoa ez bezala, 2017-2018 aldian biztanleko gastuak Donostian behera egin du (-% 6), eta Arabako udalerrietan ere bai (nagusietan, -% 21,8; eta gainerakoetan, -% 18,9), Gasteizen izan ezik. 2018an oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin den gastua 2015ekoa baino txikiagoa izan da esparru horietan.

Termino absolutuetan, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gasturik handiena Gasteizen eta Gipuzkoako udalerrri mota guztietan egin da 2018an. Zifrarik handiena Gasteizen osatu da: 27,28 euro biztanleko; baina Gipuzkoako udalerrietan ere 25 eta 26 eurotik gora egon da: Donostian, 25,54 euro; Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan, 25,51; eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan, 25,91. Bilbo pixkanaka hurbildu da maila horietara, eta biztanleko gastua 20,29 euro ingurukoa izan da.

Zenbateko horietatik behera, % 10 eta % 15 artean, honako hauek ditugu: Arabako eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusiak (12,59 eta 14,09 euro, hurrenez hurren): baita biztanle gutxiago dituzten bizkaitar udalerrriak ere (10,73 euro). Arabako udalerrri txikienetan gastuaren batezbestekoa 5,72 eurokoa izan da biztanleko.

27. taulan daude jasota mendekotasunaren arretarekin, adinekoen arretarekin eta desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonentzako arretarekin lotutako jarduketetara bideratzen den udal-gastuaren inguruko datu nagusiak.

Adineko pertsonen arretarekin hasita, egiaztatu da 2018an kolektibo horretara bideratutako udal-gastua 15,01 eurokoa izan dela biztanleko; zifra hori 2016ko 14,27 euroak baino % 5,2 handiagoa da. Gehikuntza horrek 2015-2017 aldiko beherakada eten du: 2015-2016 aldian -% 6,5ekoa izan zen; eta 2016-2017 aldikoa, -% 9,5ekoa. 2018ko 15,01 euroko gastua, ordea, 2015eko 16,87 eurokoa baino txikiagoa izan da.

Adineko pertsonengan inbertitu den udal-gastua honelakoa izan da: biztanleko 12,69 euro dagozkie egoitza-zentroei; eta 2,32 euro, eguneko zentroei eta adineko pertsonentzako beste zentro eta zerbitzuei.

2017ko datuekin erkatuta, gehikuntza txiki samarra izan da: egoitza-zentroetan (% 2,5), baina aurreko beherakadekin erkatuta, aldaketa da. Izan ere, 2015-2016 aldian -% 7,5 egin zuen behera; eta 2016-2017 aldian, -% 10,1. Hori dela eta, 2018ko 12,69 euroak urrun daude 2015eko 14,89 euroetatik. Gorakada handiagoa izan da eguneko zentroetan eta adineko pertsonen laguntzeko beste zentro edo zerbitzu batzuetan: % 23,3koa, 2017-2018 aldian. 2015-2016 aldiko egoera orokorrean gastuak % 0,8 egin zuen gora, beraz, gehikuntza horrek konpentsatu du 2016-2017 aldiko -% 5,6ko beherakada. 2018an biztanleko egin den 2,32 euroko gastua 2015eko 1,98 eurokoa baino handiagoa izan da.

27. taula.

Desgaitasuna/gaixotasuna edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2017-2018
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Egoitza-zentroak	EAE	26.956.540	27.677.983	12,39	12,69	2,5
	Gasteiz	8.104.041	8.560.574	33,45	35,11	5,0
	Arabako beste udalerrri nagusiak	21.170	1.982	0,74	0,07	-90,7
	Arabako gainerakoak	15.869	134.466	0,30	2,54	743,0
	Donostia	2.500.536	2.472.206	13,85	13,66	-1,4
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.496.537	1.526.793	11,80	12,05	2,1
	Gipuzkoako gainerakoak	2.901.795	1.692.282	7,16	4,16	-41,9
	Bilbo	3.138.296	3.181.391	9,17	9,28	1,3
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	7.189.737	8.137.329	16,90	19,13	13,2
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.588.559	1.970.960	4,28	5,29	23,7
Eguneko zentroak eta beste zentro/zerbitzu batzuk	EAE	4.095.548	5.061.281	1,88	2,32	23,3
	Gasteiz	2.388.842	2.549.835	9,86	10,46	6,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	21.688	19.327	0,76	0,67	-11,2
	Arabako gainerakoak	250.616	184.241	4,76	3,48	-26,9
	Donostia	-77.967	-27.676	-0,43	-0,15	-64,6
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
	Gipuzkoako gainerakoak	74.273	133.697	0,18	0,33	79,5
	Bilbo	168.380	152.827	0,49	0,45	-9,3
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	1.101.692	1.658.802	2,59	3,90	50,7
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	168.024	390.228	0,45	1,05	131,6
ADINEKO PERTSONAK	EAE	31.052.088	32.739.264	14,27	15,01	5,2
	Gasteiz	10.492.883	11.110.409	43,31	45,57	5,2
	Arabako beste udalerrri nagusiak	42.858	21.309	1,49	0,74	-50,4
	Arabako gainerakoak	266.485	318.707	5,06	6,03	19,0
	Donostia	2.422.569	2.444.530	13,42	13,51	0,7
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.496.537	1.526.793	11,80	12,05	2,1
	Gipuzkoako gainerakoak	2.976.068	1.825.979	7,34	4,49	-38,8
	Bilbo	3.306.676	3.334.218	9,66	9,73	0,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	8.291.429	9.796.131	19,49	23,04	18,2
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.756.583	2.361.188	4,73	6,34	34,0



27. taula.

Desgaitasuna/gaixotasuna edo mendekotasun-arazoak dituzten nahiz adinekoak diren pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2016-2017
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2016-2017 aldian %-tan)

Jarraipena

Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota	2017		2018		Bariazioa 2017/2018 aldian
	Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	652.065	1.235.074	0,30	0,57	89,0
EAE					
Gasteiz	0	479.540	0,00	1,97	
Arabako beste udalerrri nagusiak	920	920	0,03	0,03	-0,3
Arabako gainerakoak	0	0	0,00	0,00	0,0
Donostia	42.181	75.043	0,23	0,41	77,5
Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,00	0,00	0,0
Gipuzkoako gainerakoak	62.902	60.200	0,16	0,15	-4,6
Bilbo	72.547	70.375	0,21	0,21	-3,1
Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	383.183	530.163	0,90	1,25	38,4
Bizkaiko gainerako udalerrriak	90.332	18.833	0,24	0,05	-79,2
ETXEKO LAGUNTZA (zaintzaileen babesa barne)	35.596.536	52.602.999	16,36	24,12	47,5
EAE					
Gasteiz	8.434.231	9.205.105	34,82	37,75	8,4
Arabako beste udalerrri nagusiak	10.000	0	0,35	0,00	-100,0
Arabako gainerakoak	23.394	30.727	0,44	0,58	30,7
Donostia	4.038.416	4.887.600	22,37	27,00	20,7
Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.678.074	2.563.865	13,23	20,24	53,0
Gipuzkoako gainerakoak	4.329.280	5.387.959	10,68	13,25	24,1
Bilbo	10.214.337	12.803.070	29,83	37,35	25,2
Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	5.351.233	10.824.162	12,58	25,45	102,4
Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.517.571	6.900.511	4,08	18,52	353,4
ADINEKOAK/DESGAITASUNAK/MENDEKOTASUNA GUZTIRA	67.300.689	86.577.337	30,93	39,71	28,4
EAE					
Gasteiz	18.927.114	20.795.054	78,13	85,29	9,2
Arabako beste udalerrri nagusiak	53.778	22.229	1,87	0,77	-58,8
Arabako gainerakoak	289.879	349.434	5,51	6,61	19,9
Donostia	6.503.166	7.407.173	36,02	40,93	13,6
Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	3.174.611	4.090.658	25,03	32,29	29,0
Gipuzkoako gainerakoak	7.368.250	7.274.138	18,17	17,89	-1,6
Bilbo	13.593.560	16.207.663	39,70	47,28	19,1
Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	14.025.845	21.150.456	32,96	49,74	50,9
Bizkaiko gainerako udalerrriak	3.364.486	9.280.532	9,06	24,91	175,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Udal-eremuan, 2018an berriro ere, Gasteiz nabarmentzen da gastuaren arlo horretan: adineko pertsoneri zuzendutako gastua 45,57 eurokoa izan da biztanleko; beraz, EAeko batezbestekoa baino ia hiru aldiz handiagoa; eta 2017ko 43,31 euroak baino % 5,2 handiagoa. Hala eta guztiz ere, 2016-2017ko beherakada -% 20,8koa izan zen; beraz, gastu hori oraindik ere 2015eko 54,93 eurokoa baino txikiagoa izan da, duda barik.

Bizkaiko herri nagusietan ere, Bilbo alde batera utzita, gastua 23,04 eurokoa izan da biztanleko; beraz, EAeko batezbestekotik gora. 2015-2016 aldiko eta 2016-2017 aldiko beherakada handien ostean (-% 8,4 eta -% 6,4, hurrenez hurren), 2018ko zenbatekoak % 18,2ko gehikuntza ekarri du, eta 2015eko 22,72 euroak gainditu ditu.

Tarteko posizioetan eta EAeko batezbestekotik behera Donostia eta Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusiak ditugu: 2018an adineko pertsonengana bideratu den gastua 13,51, eta 12,05 eurokoa izan da, hurrenez hurren.

Udalerrri horietan guztietan gastua nabarmen igo zen 2016-2017 aldiko partidetan (% 37,9 eta % 9,3). Gorakadak 2017-2018 aldian ere jarraitu egin du, eta 2012-2016 aldiko gastuaren beheranzko joera aldatu du, baina agerikoa da moteltzen hasi dela: Donostian % 0,7 baino ez da igo; eta Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan, % 2,1. Gainera, 2016-2018 aldiko gastua berriro igo da, baina 2015-2016 aldiko beherakada handien ostean (gutxienez % 30ekoak izan ziren). Hori dela eta, 2018ko gastua oraindik ere 2015ekoa baino txikiagoa da biztanleko: Donostian, 13,51 euro, 17,40 euroekin erkatuta; eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan, 12,05 euro, 15,21 euroekin erkatuta.

Bilbon 9,73 eurokoa izan da adineko pertsonengan egin den inbertsioa; eta 2017ko 9,66 euroekin erkatuta, igoera % 0,7koa baino handiagoa ez da izan. EAeko batezbestekotik urrun egon arren, kasu horretan bakarrik 2015etik 2018ra igotzen jarraitu du gastuak biztanleko; zehazki, 2015-2016 aldian, % 5,8 egin zuen gora; eta 2016-2017 aldian, % 17,6. Hori dela eta, Bilbon adineko pertsonengan 2018an egin den gastua biztanleko 2015eko 7,76 euroak baino handiagoa izan da.

EAeko udalerrri txikienetan ordea, 4,49 eta 6,34 euro bitartekoa izan da gastu hori. Arabako eta Bizkaiko gastuak antzekoak izan dira (6,03 eta 6,34); eta Gipuzkoan, txikiagoa (4,49). Dinamika deigarriena Gipuzkoakoa izan da, biztanleko gastua nabarmen jaitsi baita: -% 26,3, 2016-2017 aldian; eta -% 38,8, 2017-2018 aldian. Horrek 2012-2015 aldiko beheranzko joera sendotu du, 2015-2016 aldiko gorakada handiaren ostean (+% 19,8). 2018ko 4,49 euroko gastua, ordea, 2015eko 8,31 eurokoa baino askoz ere txikiagoa izan da Gipuzkoako udalerrri horietan.

Biztanle gutxiago dituzten arabar eta bizkaitar udalerrietan, ordea, 2017-2018 aldian, adineko pertsonengan egindako gastuak gora egin du (% 19,0 eta % 34,0). Joera hori Araban jada behatu zen 2016-2017 aldian (biztanleko egin zen gastuak % 15,7 egin baitzuen gora; eta bizkaitar udalerrietan, ordea, -% 10,6 izan zen). Dinamika horrek konpentsatzen ditu aipatutako beherakada eta 2015-2016 aldikoa (-% 15etik gorakoa). Izan ere, 2018an berreskuratu dira 2015eko mailak, edo antzekoak (6,03 euroko gastua biztanleko, eta Arabako gainerako udalerrietakoa, ordea, 5,44; bestalde, 6,34, eta bizkaitar udalerrietakoa, 6,29).

Adineko pertsonengan biztanleko egin den gastu kopururik txikienen artean Arabako gainerako udalerrri nagusiak ditugu: 2017tik 2018ra 1,49 eurotik 0,74 eurora igaro da. Udalerrri horietan, Gasteizen izan ezik, are txikiagoa izan da adineko pertsonentzako arretaren arloko gastu konparatua.

Adineko pertsonentzako arreta-zentroak aztertzen hasita, gastua, 2017tik 2018ra, igo egin da Gasteizko egoitza-zentroetan, zehazki, +% 5,0. Hori dela eta, zentro horietan gasturik handiena egin



den udalerrria izan da 2018an: 35,11 euro biztanle bakoitzeko. Hala eta guztiz ere, gastuak 2015etik 2017ra behera egin zuen, eta gorakada horrek ez du guztiz konpentsatu; beraz, 2018ko zenbatekoa baino askoz handiagoa izan zen 2015ekoa (45,87 euro biztanleko).

Halaber, Bizkaiko udalerrri nagusietan egoitza-zentroetan egin den udal-gastua ere handia izan da: 19,13 euro biztanleko, 2018an. 2017-2018 aldian berriro % 13,2 igo arren, 2015-2017 aldiko beherakaden eragina oraindik ere nabaria da udalerrri talde horretan, eta gastua 2015eko 19,78 eurokoa baino txikiagoa izan da.

2018an adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan egin den gastua EAeko batezbestekotik hurbil egon da Gipuzkoako udalerrri nagusietan: Donostian, 13,66 euro; eta gainerako udalerrri nagusietan, 12,05. Udalerrri horietan 2015-2016 aldian nabarmen jaitsi zen gastua, baina 2016-2017 aldian gastua berriro igotzen hasi zen. 2017-2018 aldian, ordea, gorakada egonkortzeko joera hauteman da. Hiriburuak ez diren udalerrietan handixeagoa izan da (% 2,1), baina Donostian, behera egin du (-% 1,4). Edonola ere, biztanleko egin den gastua 2015ekoa baino txikiagoa izan da kasu guztietan: Donostian, 13,66 euro, 17,83 euroekin erkatuta; eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan, 12,05 euro, 15,21 euroekin erkatuta.

Bilbo EAeko batezbestekotik urrun dago oraindik; eta biztanleko gastua 9,28 eurokoa izan da. Dena den, 2017tik 2018ra han ere moteldu da gastua (% 1,3), baina gastuak udalerrri horretan goranzko joera izan zuen 2015etik 2017ra (% 4,4, 2015-2016 aldian; % 18,6, 2016tik 2017ra). 2015ean biztanleko egin zen 7,41 euroko gastua baino handiagoa izan da 2018ko 9,28 euro kopurua.

EAeko gainerako udalerrietan askoz ere txikiagoa da biztanleko egin den gastua adineko pertsonentzako egoitza-zentroen arloan: Bizkaian, 5,29 euro; 4,16, Gipuzkoan; eta 2,54, Araban. Gutxieneko kopurua Arabako udalerrri nagusietan osatu da: 0,07 eurokoa izan da, baina Gasteiz alde batera utzita.

Eguneko zentroetan eta adineko pertsonen zuzendutako beste zerbitzu batzuetan nabarmena da 2018an Gasteizen egin den udal-ekarpena: gastua 10,46 eurokoa izan da biztanleko; beraz, 2017ko 9,86 eurokoa baino % 6,1 handiagoa. 2015-2016 aldian gastua igotzeko joera egon da. Igoera horrek nolabait konpentsatu du 2016-2017 aldiko -% 7,1eko beherakada. Gasteizen, zehazki, biztanleko egin den gastua 2015eko 9,06 eurokoa baino handiagoa izan da.

Arabako gainerako udalerrietan ere zerbitzu mota horretan biztanle bakoitzeko egin den gastuak (3,48 euro) EAeko batezbestekoa gainditu du; eta Bizkaiko gainerako udalerrietan ere bai (3,90 euro), Bilbon izan ezik. Azken kasu horretan 2017-2018 aldian nabarmen igo da gastua: % 50,7; hortaz, 2015eko maila gainditu da (2,95 euroko gastua). Aldaketa garrantzitsua izan da, udalerrri horietan 2012tik 2017ra beheranzko joera jarraitua osatu baitzen gastu mota horretan.

Bestalde, 2018an Bilboko eta Donostiako parte-hartzea txikia izan da.

Etxeko laguntzari eta zaintzaileentzako arretari dagokienez, Euskadiko batez besteko udal-ekarpena oso esanguratsua izan da 2018an ere bai, adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuetara bideratzen diren biztanleko 15,01 euroak gainditu baititu. Programa horretan biztanleko egin den gastua 24,12 eurora iritsi da 2018an, zehazki, 2017ko 16,36 euroak baino % 47,5 handiagoa. Dinamika horrek argi eten du 2015etik aurrerako gastuaren beheranzko joera. 2015-2016 aldian biztanleko egin zen gastuak -% 11,1 egin zuen behera; eta 2016tik 2017ra, -% 4,4. 2015etik, lehenengo aldiz, 2018an gainditu da 2015ean biztanleko egin zen 19,24 euroko gastua.

Arabako udalerrri nagusiak izan dira salbuespen bakarra (Gasteiz alde batera utzita). Udalerrri horietan gastu hori ezabatu da 2018an, baina gainerako udal-eremuetan, ordea, etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan egindako gastuak gora egin du 2017tik 2018ra.

2018an etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan egindako gasturik handiena Gasteizen egin da. 2012tik 2015era behera egin zuen, eta biztanleko egin zen gastua 7,13 eurokoa baino handiagoa ez zen izan 2015ean. 2015-2018 aldian, ordea, gastu horrek gora egin zuen, bereziki, 2016tik 2017ra, urte horretan 34,82 eurora igo baitzen. Hori dela eta, Gasteizek lehenengo postua hartu du gastu-arlo horretan. 2017tik 2018ra gora jarraitu du joera horrek, eta gehikuntza % 8,4koa izan da, eta etxeko laguntzan biztanleko egin den gastua 37,75 eurokoa izan da.

2017-2018 aldiko gehikuntzarik handiena, ordea, Bilbokoa izan da. 2015etik 2017ra Bilbon nabarmen jaitsi zen gastu-partida hori: 2015eko 38,71 eurotik 2017ko 29,83 eurora. 2017tik 2018ra izan duen igoera ere handia izan da: % 25,2. Hori dela eta, etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan biztanleko egin den gastua 37,35 eurokoa izan da, beraz, jada, Gasteizko kopuruetatik hurbil, baina, oraindik ere 2015eko kopuruetatik behera dago.

2017-2018 aldiko gastua Donostian ere nabarmen igo da: % 20,7. Hortaz, 2015etik aurrerako gastuaren goranzko joerak jarraitu egin du, eta 2016tik 2017ra are gehiago igo da, zehazki, % 22,8. Donostian etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan biztanleko egin den gastua 2015etik 2018ra 16,90 eurotik 27,00 eurora aldatu da, eta zenbateko hori Bilbon eta Gasteizen baino ez da gainditu.

Gastua berriro igotzeko joera Gipuzkoako gainerako udalerrietan ere behatu da; izan ere, udalerrri horietan 2016tik 2017ra % 25,7ko igoera osatu zen. Gorakada hori 2017tik 2018ra bizkortu egin da, eta % 53koa izan da aldi horretan. Udalerrri horietan biztanleko egin den gastua honela aldatu da: 2015eko 10,17 eurotik 2018ko 20,24 eurora.

2017. eta 2018. urte artean, etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan biztanleko egin den gasturik handiena Bizkaiko gainerako udalerrietan osatu da: udalerrri nagusietan % 102,4 egin du gora (Bilbon izan ezik); eta udalerrri txikiagoetan % 353,4 egin du gora. Hori dela eta, Bizkaia osoan 2015etik 2017ra nagusi izan zen gastuaren beheranzko joera indartsua guztiz aldatu da. Aurreko beherakada, eta, zehatz-mehatz, 2016tik 2017ra, oso handia izan zen: Bilbon, -% 15; gainerako udalerrri nagusietan, -% 44,1; eta Bizkaiko gainerako udalerrietan, -% 70,4.

Bilakaera hori dela eta, 2018an biztanleko egin den gastua 25,45 eurokoa izan da Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan; eta Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan 20,24 eurokoa izan da, Donostiako 27,00 euroetatik hurbil. Bizkaiko gainerako udalerrietako 2018ko gastua 18,52 eurokoa izan da biztanleko.

Hala eta guztiz ere, Bilbon bezala, Bizkaiko udalerrietan 2015ekoak baino txikiagoak dira 2018ko zenbatekoak (gainerako udalerrri nagusietan 25,45 euro, 26,63 euroekin erkatuta; eta gainerako udalerrietan, 18,52 euro, 19,54 euroekin erkatuta).

Etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan egindako gastua handitu egin da biztanle gutxiago dituzten bizkaitar herrietan; hortaz, udalerrri horiek gainerako lurraldeetako herrietan egin den gastua gainditu dute: Bizkaian, 18,52 euro; 13,25, Gipuzkoan; eta 0,58, Araban. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako herri txikiagoetan 2015etik igotzen jarraitu du partida horretako gastuak, eta 2017tik 2018ra % 24,1 igo da gastua. Biztanleko gastua kasu horretan 2015eko 9,56 eurotik 2018ko 13,25 eurora aldatu da.



Arabán, Gasteizen izan ezik, ez da egin gastu mota hori udalerrri nagusietan; zehazki, 2018an nulua izan da etxeko laguntzan eta zaintzaileentzako arretan egindako gastua.

27. taulako datuek berresten dute desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonen zuzendutako udal-gastua oso txikia izan dela biztanleko. 2017tik 2018ra % 89 igo da udal-gastua, baina, hala ere, txikia izaten jarraitzen du, eta 2017an ez da iritsi 0,57 eurora ere.

Gastu mota hori udalerrri batzuetan baino ez da egiten. Horrela gertatu da Bizkaiko gainerako udalerrietan, Bilbon izan ezik. Bilbon, ordea, 2015-2018 aldian gastu horrek gora egiten jarraitu du. 2018an udalerrri horietan gastu hori 1,25 eurora iritsi da biztanleko, hau da, 2015eko 0,57 euroak gainditu ditu. Gasteizen, 2017-2018 aldian, gastua berriro igo da, biztanle horiei dagokienez; zehazki, 1,97 eurokoa izan da biztanleko, 2018an.

Guztira, udalek adineko pertsonen, desgaitasun edota gaixotasunen bat dutenei eta mendeko pertsonen bideratzen dieten biztanleko urteko zenbatekoa 39,71 eurokoa izan da 2018an, hau da, 2017ko 30,93 euroak baino % 28,4 handiagoa. Horrela, amaitu egin da 2015. urtearen ondoko gastuaren beheranzko joera. Beherakada horiek -% 8,6 (2015-2016 aldian) eta -% 7,0 (2015-2016 aldian) izan dira.

2018ko gastuak 2015eko 36,38 euroak gainditzen ditu biztanleko. Horrek nabarmen aldatzen du 2017ko egoera: urte horretako gastua 2015ekoa baino txikiagoa izan zen, baita 2012ko 34,96 eurokoa baino txikiagoa ere. Horrek agerian utzi zuen adineko pertsonen, desgaitasuna edota gaixotasuna dituzten pertsonen eta mendekotasuna dutenei zuzendutako udal-gastuaren beherakada orokorra 2015etik 2017ra, multzo osoaren ikuspegitik.

Multzo osoaren ikuspegi horretatik, biztanleko egin den gasturik handiena 2018an berriro ere Gasteizkoa izan da: 85,29 euro, eta 2017ko 78,13 eurokoa baino % 9,2 handiagoa. Urteko bilakaera horrek 2016-2017 aldiko % 25,6ko igoera sendotu du; eta 2018an biztanleko egin den gastuak nabarmen gainditu ditu 2015eko 62,08 euroak.

Bilbon eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan egin den gastua Gasteizen egin dena baino txikiagoa izan da gizarte-zerbitzu horietan. Bilbon 2018an egin den gastua 47,28 eurokoa izan da, eta 2017-2018 aldiko gasturik igoera handiena bizkaitar udalerrri nagusietan osatu da (49,74 eurokoa biztanleko; zehazki, % 50,9 igo da, eta, Bilbon, ordea, % 19,1 igo da). Kasu bietan gastu horren igoera aldaketa nabaria da 2015-2017 aldian beherakada handiak osatu zirelako. Dena den, igoera horrek 2015eko gastuetara hurbiltzea baino ez du ekarri berekin: Bilbon, 2018an, 47,28 euro, eta 2015ean, 46,92 euro; eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan 49,74 euro, 49,93 euroekin erkatuta.

Donostiako gastua 40,93 eurokoa izan da biztanleko; hau da, 2017ko 36,02 eurokoa baino % 13,6 handiagoa. Beherantz egin duen arren, adineko pertsonen, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako gastuak gora egiten jarraitu du 2016-2017 alditik (+% 19,8). Bilakaera horrek 2015-2016 aldiko beherakada konpentsatzen du (-% 13,9), eta 2018ko gastua 2015ekoa baino askoz ere handiagoa da (40,93 euro, 34,92 euroekin erkatuta).

Bilakaeraren dinamika ere oso antzekoa da, baina Gipuzkoako gainerako udalerrri nagusietan gorakada handiagoak osatu dira. Biztanleko gastuak -% 16 egin zuen behera 2015etik 2016ra, baina aldiaren hasieran gastu hori nabarmen igo da berriro: % 17,4, 2016tik 2017ra; eta 2017tik 2018ra, % 29. Gastu hori 2018an 32,29 eurora iritsi da biztanleko, hau da, 2015eko 25,38 euroak gainditu ditu.

2017tik 2018ra Bizkaiko gainerako udalerrietan osatu da gastu horren igoerarik handiena: % 175,1ekoa, 2017ko 9,06 eurotik 2018ko 24,91 eurora. Igoera horrek nolabait konpentsatzen ditu 2015-2017 aldiko beherakada handiak, baina 2018ko gastua ez da izan 2015eko 25,99 eurokoa baino handiagoa.

Edonola ere, biztanle gutxiago dituzten bizkaitar udalerrietan biztanleko 2018an egin den gastuak EAeko gainerako gastua gainditu du: Gipuzkoako gainerako udalerrietan 17,89 eurokoa izan da, eta Arabako gainerako udalerrietan, 6,61 eurokoa. Arabako udalerririk horietan gastuak % 19,9 egin du gora 2017tik 2018ra (eta 2018ko gastua 2015eko 5,44 eurokoa baino handiagoa izan da); Gipuzkoako gainerako udalerrietan, ordea, biztanleko egin den gastuak -% 1,6 egin du behera. Beherakada horrek 2016-2017 aldiko -% 8,9koari jarraitu dio; eta 2015-2016 aldiko igoera, % 11,6koa, konpentsatu du. Horren ondorioz, 2018ko emaitza eta 2015ekoa oso antzekoak dira (17,89 euro, 17,88 euroekin erkatuta).

Arabako gainerako udalerrietan adineko pertsonen, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako gastua gutxienekoa izan da, 0,77 eurokoa baino ez, eta 2017ko 1,87 euroak baino txikiagoa.

2017ko emaitzekin erkatuta, Gipuzkoako gastua apur bat txikiagotu arren eta Arabako gainerako udalerririk nagusien egoera bitxia izan arren (Gasteiz alde batera utzita), nabarmentzekoa da adineko pertsonen, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako gastuak gora egin duela EAEn 2017tik 2018ra.

Gastuaren igoeraren arrazoiak aztertzen baditugu, Bizkaiko udalerrietan, baita Gipuzkoako udalerririk nagusietan ere (Donostia ere barne), igoeraren % 75 baino gehiago bideratu da etxeko laguntzari eta zaintzaileentzako arretari lotutako ekintzetara. Proporzio hori, berez, % 90 baino handiagoa da kontuan hartu ditugun udal-eremuetan, Bizkaiko udalerririk nagusietan izan ezik (eta Bilbo alde batera utzita). Kasu horretan gastuaren igoeraren % 20tik gora bideratu da etxeko laguntzaz bestelako laguntza-zentroetara eta -zerbitzuetara. Gastuaren igoera Gasteizen soilik gehiago banatu da gastu esku-hartze guztien artean, desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonen zuzendutako ekintzak ere barne hartuta.

Adineko pertsonen, desgaitasuna edota gaixotasuna dituzten pertsonen edo mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen osatzen dituzten kolektiboen arretaren arloarekin alderatuta, haurrak, gazteak, familiak, emakumeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestera bideratutako udal-gastua are urriagoa izan da 2018an, 28. taulan egiazta daitekeen bezala.



28. taula.

Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2017-2018

(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Adingabeen egoitza-zentroak	EAE	38.483	26.283	0,0	0,0	-31,8
	Gasteiz	38.483	26.283	0,2	0,1	-32,1
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Arabako gainerakoak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Donostia	0	0	0,0	0,0	0,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Gipuzkoako gainerakoak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Bilbo	0	0	0,0	0,0	0,0
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	0	0	0,0	0,0	0,0
Tratu txarren arreta (emakumeak)	EAE	1.911.569	1.551.945	0,9	0,7	-19,0
	Gasteiz	243.677	303.754	1,0	1,2	23,9
	Arabako beste udalerrri nagusiak	207	5.094	0,0	0,2	2352,9
	Arabako gainerakoak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Donostia	0	0	0,0	0,0	0,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Gipuzkoako gainerakoak	22.966	19.781	0,1	0,0	-14,1
	Bilbo	265.181	339.166	0,8	1,0	27,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	1.141.408	629.340	2,7	1,5	-44,8
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	238.130	254.810	0,6	0,7	6,7
Familietako esku-hartzea (harrera/adopzioa barne)	EAE	17.800.421	19.942.515	8,2	9,1	11,8
	Gasteiz	2.230.464	2.590.790	9,2	10,6	15,4
	Arabako beste udalerrri nagusiak	37.767	141.080	1,3	4,9	272,3
	Arabako gainerakoak	15.406	23.703	0,3	0,4	53,1
	Donostia	1.414.401	1.293.983	7,8	7,1	-8,7
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	758.740	789.102	6,0	6,2	4,1
	Gipuzkoako gainerakoak	3.129.060	3.809.440	7,7	9,4	21,4
	Bilbo	5.267.307	5.382.864	15,4	15,7	2,1
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	2.805.966	3.483.699	6,6	8,2	24,2
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.141.310	2.427.854	5,8	6,5	13,1
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK	EAE	19.750.473	21.520.743	9,1	9,9	8,7
	Gasteiz	2.512.624	2.920.827	10,4	12,0	15,5
	Arabako beste udalerrri nagusiak	37.974	146.174	1,3	5,1	283,7
	Arabako gainerakoak	15.406	23.703	0,3	0,4	53,1
	Donostia	1.414.401	1.293.983	7,8	7,1	-8,7
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	758.740	789.102	6,0	6,2	4,1
	Gipuzkoako gainerakoak	3.152.026	3.829.221	7,8	9,4	21,1
	Bilbo	5.532.488	5.722.030	16,2	16,7	3,3
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	3.947.374	4.113.039	9,3	9,7	4,3
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.379.440	2.682.664	6,4	7,2	12,4

28. taula.

Adingabe, gazte, familia, emakume eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro, zerbitzu eta programen udal-gastu arrunta, zentro/zerbitzu eta udalerrri motaren arabera. 2017-2018
(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

Jarraipena

		2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/b iz.	Gastua/b iz.	Gastua/biz.
Zentro/zerbitzu mota eta udalerrri mota						
Egoitza- eta harrera-zentroak	EAE	8.706.388	8.263.333	4,0	3,8	-5,3
	Gasteiz	3.188.050	3.328.337	13,2	13,7	3,7
	Arabako beste udalerrri nagusiak	2.497	7.200	0,1	0,2	187,4
	Arabako gainerakoak	5.220	2.673	0,1	0,1	-49,1
	Donostia	1.688.523	1.692.584	9,4	9,4	0,0
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	481.109	476.749	3,8	3,8	-0,8
	Gipuzkoako gainerakoak	301.386	224.236	0,7	0,6	-25,8
	Bilbo	2.699.222	2.151.332	7,9	6,3	-20,4
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	327.795	337.621	0,8	0,8	3,1
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	12.586	42.601	0,0	0,1	237,5
Beste egoitza-zentro eta -zerbitzuak						
	EAE	2.459.591	2.792.998	1,1	1,3	13,3
	Gasteiz	663.938	766.271	2,7	3,1	14,7
	Arabako beste udalerrri nagusiak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Arabako gainerakoak	0	0	0,0	0,0	0,0
	Donostia	401.613	448.799	2,2	2,5	11,5
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	281.816	395.172	2,2	3,1	40,4
	Gipuzkoako gainerakoak	1.165	231	0,0	0,0	-80,2
	Bilbo	988.929	766.843	2,9	2,2	-22,6
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	94.116	397.830	0,2	0,9	322,9
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	28.014	17.852	0,1	0,0	-36,5
BAZTERKETA						
	EAE	11.165.979	11.056.331	5,1	5,1	-1,2
	Gasteiz	3.851.988	4.094.608	15,9	16,8	5,6
	Arabako beste udalerrri nagusiak	2.497	7.200	0,1	0,2	187,4
	Arabako gainerakoak	5.220	2.673	0,1	0,1	-49,1
	Donostia	2.090.136	2.141.383	11,6	11,8	2,2
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	762.925	871.921	6,0	6,9	14,4
	Gipuzkoako gainerakoak	302.551	224.467	0,7	0,6	-26,0
	Bilbo	3.688.151	2.918.175	10,8	8,5	-21,0
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	421.911	735.451	1,0	1,7	74,4
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	40.600	60.453	0,1	0,2	48,5
ADINGABE, GAZTE, FAMILIA, EMAKUME, ETA BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA						
	EAE	30.916.452	32.577.074	14,2	14,9	5,1
	Gasteiz	6.364.612	7.015.435	26,3	28,8	9,5
	Arabako beste udalerrri nagusiak	40.471	153.374	1,4	5,3	277,7
	Arabako gainerakoak	20.626	26.376	0,4	0,5	27,2
	Donostia	3.504.537	3.435.366	19,4	19,0	-2,2
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.521.665	1.661.023	12,0	13,1	9,3
	Gipuzkoako gainerakoak	3.454.577	4.053.688	8,5	10,0	17,0
	Bilbo	9.220.639	8.640.205	26,9	25,2	-6,4
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	4.369.285	4.848.490	10,3	11,4	11,0
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	2.420.040	2.743.117	6,5	7,4	13,0

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Taula horren arabera, haurrak, gazteak, familiak, emakumeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestera 2018an bideratutako gastua 14,94 eurokoa izan da biztanleko. Bilakaera-terminoetan, 2017ko 14,21 euroekin erkatuta, % 5,1eko igoera egon da; eta gastu horrek berreskuratzen du 2012-2016 aldiko goranzko joera. Goranzko joera hori 2016-2017ko -% 5,8ko beherakadak eten zuen. 2018ko gastuak 2012ko 12,44 euroak gainditu ditu, baina 2015eko 14,47 euroak ere, baina 2016ko 15,09 eurotik behera dago.

Lurraldeen arabera, gastuaren goranzko joera ia udal-eremu guztietan behatu da, baina badaude bi salbuespen garrantzitsu: Donostia eta Bilbo.

2018an Gasteizen egin zen gasturik handiena gizarteko esku-hartze horretan: 28,77 euro biztanleko; eta zenbateko hori 2017ko 26,27 eurokoa baino % 9,5 handiagoa zen. Arabako hiriburuan 2016-2017 aldian, ordea, beherakada handienak osatu ziren gastu horretan: udal-gastuak -% 34,7ko beherakada izan zuen biztanleko; eta horrek 2012-2016 aldiko gastuaren goranzko joera aldatu zuen. Horren ondorioz, 2018ko 28,77 euroko gastu hori 2016ko 40,21 eurokoa eta 2012ko 29,97 eurokoa baino txikiagoa da.

Gasteizen 2016tik 2017ra gastu hori jaitsi eta gero, Gasteiz 2017an jada ez zen arlo horretan biztanleko gasturik handiena osatu zuena, Bilbokoa handiagoa izan baitzen. Hala eta guztiz ere, haurrak, gazteak, familiak, emakumeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestera 2018an bideratutako 25,20 euroko gastua 2017koa (26,93) baino -% 6,4 txikiagoa da, eta, hori dela eta, Gasteizko erregistrotik behera dago. 2012-2016 aldiko gastuaren igoeren ostean, arlo horretan Bilbon osatu zen gastuaren dinamika 2016tik 2017ra biziki aldatu zen. Igoera egonkortu zen (% 0,9), eta horrek iragarri zuen 2017-2018 aldiko beherakada. 2018ko 25,20 euroak jada 2015eko mailarekin bat datoz.

Beharakada hori Donostian ere gertatu zen. 2012tik 2017ra neurrizko igoerak osatu ziren: 2015-2016 aldian % 5,1; baina 2017-2018 aldian, -% 2,2 egin du behera, zehazki, 19,41 eurotik 18,98 eurora. 2018ko erregistroa 2016ko 19,20 eurotik beherakoa da, baina oraindik ere 2015eko 18,28 eurotik gorakoa da.

EAEko hiriburuetan biztanleko egin den gastua baino askoz ere txikiagoa izan arren, EAEko udalerrri nagusietan haurrak, gazteak, familiak, emakumeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babestera bideratutako gastuak nabarmen egin du gora 2017-2018 aldian. Udalerrri mota horretan, adibidez, Gipuzkoan, % 9,3ko igoera osatu da: 2017ko 12,00 eurotik 2018ko 13,11 eurora. Bizkaian % 11,0ko igoera osatu da: 2017ko 10,27 eurotik 2018ko 11,40 eurora. Arabako 2017ko abiapuntu-zenbatekoak oso txikiak dira (1,41 euro), 2016-2017 aldian gastu hori nabarmen jaitsi baitzen; baina gastuak 2,77k kopuruaz biderkatu da, eta 5,32 eurora iritsi da biztanleko.

Aipatutako gehikuntzak gorabehera, hiriburuetakoko gastu-maila baino askoz ere txikiagoa izan da gainerako udalerrri nagusietako gastu-maila. Hala eta guztiz ere, 2012tik aurrerako gasturik handiena izan da kasu guztietan. Maila hori epe luzeko goranzko joeraren emaitza da, batez ere, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Gainerako udalerrietan, biztanle gutxiago dituzten EAEko udalerrietan, gastuak ere goranzko joera izan du 2017tik 2018ra. Igoerarik handiena Gipuzkoako gainerako udalerriena izan da: aldi horretan % 17 egin du gora, eta biztanleko gastua 9,97 eurora iritsi zen 2018an. Bizkaian 2018ko gastua udalerrri mota horretan 7,36 eurokoa izan da biztanleko; beraz, % 13,0 egin du gora, 2017ko zenbatekoekin erkatuta. Kasu bietan epe luzeko joera 2012tik aurrera goranzkoa izan da orokorrean. Gasteiz alde batera utzita, Udalerrri horietako gastua Arabako udalerrri ez-nagusietakoa baino handiagoa izan da (Gasteiz alde batera utzita).

Arabako gainerako udalerrietan ere gastuak gora egin duen arren, 2018an txikia izaten jarraitu du (0,50 euro biztanleko).

Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko gastuari soilik erreparatuz gero, udal-gastua familiako esku-hartzera bideratu da 2018an, nagusiki: 9,15 euro biztanleko; genero-indarkeriaren eta tratu txarren biktima izan diren biktimei, berriz, 0,71 euro bideratzen zaizkio; eta adingabeentzako egoitza-zentroei, 0,01 euro.

Partida horietako gehienetan argi ikusten da gastuaren beheranzko joera. Kasu batzuetan, adibidez, adingabeen egoitza-arretaren arloan, gastua ezabatzeko joera dago. Gasteizen baino ez zaio eutsi gastu horri, eta 0,11 eurokoa izan da biztanleko; beraz, urrun dago 2015eko 7,26 euroetatik. Foru-erakundeek beren gain hartu dute zentro horren finantzaketa; horrek azaltzen du, beraz, dinamika hori.

2015-2016 aldiko % 58,6 igoerarekin erkatuta, genero-indarkeria jaso duten emakumeei arreta emateko arloan ere murriztu da gastua 2016tik aurrera: 2016-2017 aldian, -% 24,9; eta 2017-2018 aldian, -% 19,0. Udalerri horietan biztanle bakoitzeko 2018an egin den 0,71 euroko gastua eta 2015eko 0,74 eurokoa oso antzekoak dira.

Bestalde, sendotu egin da familiako esku-hartzeen arloko udal-gastuaren goranzko joera. Hala, 2017an eta 2018an, indartu egin dira 2015-2016 eta 2016-2017 aldietako igoerak (% 4,7 eta % 4,4); izan ere, aldi horretan, % 11,8koa izan da gastuaren hazkuntza, eta 9,15 euroko emaitza izan da: 2012tik egondako zenbatekorik altuena.

Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko egin diren ekintza guztiak kontuan hartuta, biztanleko egin den udal-gastua 2017an 9,08 eurokoa izan zen, eta 2018an, ordea, 9,87 eurokoa, eta horixe izan da 2012tik aurrerako mailarik handiena. 2015-2016 aldiko % 8,5eko igoera eta 2017-2018 aldiko % 8,7ko igoera antzekoak izan dira, eta nolabait konpentsatu dute 2016-2017 aldiko -% 7,3ko beherakada.

Udal-eremuei erreparatzen badiegu, biztanleko 2018an egin den gasturik handiena Bilbon osatu da: 16,69 eurokoa izan da biztanleko; 2017ko 16,16 eurokoa baino % 3,3 handiagoa. Familiako esku-hartzeen arloan ere Bilbon egin da gasturik handiena: 15,70 eurokoa, eta tratu txarrak jaso dituztenei arreta emateko gastua 0,99 eurokoa izan da biztanleko. Kasu bietan goranzko joera erregistratu da 2017tik 2018ra, eta, gainera, 2015eko mailak ere gainditu dira.

Gasteiz bigarren posizioan dago, eta 2018an 11,98 euroko gastua izan du biztanleko: 10,63 euro familiako esku-hartzeetara bideratu du; 1,25, tratu txarrak jasan dituztenei laguntzeko; eta 0,11, adingabeen egoitza-arretara. 2016-2017ko beherakada handia (-% 52,6) eta gero, 2017-2018 aldian gastuak % 15,5 egin du gora, 2017ko 10,37 euroekin erkatuta. Dena den, 2018ko 11,98 euroak oso urrun daude 2016an biztanleko gastatu ziren 21,86 euroetatik.

Norabide horretan erabakigarria izan da adingabeen egoitza-arretaren arloko gastuaren beherakada: 2016an 7,30 eurokoa izan zen, eta 2018an 0,11 eurokoa izan da. Berrito ere horren azalpena da foru-erakundeek euren gain hartu dutela kolektibo horretara bideratutako ekintza. Halaber, garrantzitsua da tratu txarrak jaso dituzten pertsonen arreta emateko gastuaren beherakada: 2016an 5,46 eurokoa izan zen, eta 2017an 1,01 eurokoa izan da, nahiz eta 2018an zertxobait igo den, 1,25 euroraino. Zenbateko hori 2015eko 2,17 eurokoa baino txikiagoa izan da.

Gasteizen osatu da familiako esku-hartzeen arloko gasturik handiena, 2017-2018 aldiko % 15,4ko igoera egon baita: 10,63 euro; eta 2015ean, 8,89.



EAEko batezbestekotik behera, Donostian haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko biztanleko egin den gastua 2018an 7,15 eurokoa izan da; eta Bizkaiko eta Gipuzkoako gainerako udalerrietan 6,23 eta 9,67 euroren artekoa izan da. Udalerri multzo horretan, gastuaren zati nagusia familiako esku-hartzeena da: Gipuzkoako hiriburuan 7,15 eurokoa da biztanle bakoitzeko; eta 6,23 eta 9,37 artekoa, gainerako udalerrietan.

Aztertu dugun sektore osoan, udalerri multzo hori ere barne, 2018ko gasturik handiena Bizkaiko udalerri nagusietan (Bilbon izan ezik) osatu da, zehazki, 9,67 eurokoa. Gastuaren zatirik handiena familiako esku-hartzeetara bideratu da (8,19 euro). Tratu txarren biktimei arreta emateko gastua ere garrantzitsua da: 1,48 eurokoa izan da, eta hori izan da udal-eremuetan 2018an osatu den zenbatekorik altuena. Horrez gain, aipatzekoak dira Bizkaiko gainerako udalerrietan horretarako bidali diren euroak: 0,68.

Era berean, Gipuzkoan biztanle gutxiago dituzten gainerako udalerrietan familiako esku-hartzeen programetarako bidali den gastuak ere gora egin du modu deigarrian. Kasu horretan biztanle bakoitzeko gastua 6,38 eurokoa izan zen 2016an, baina 2018an, ordea, 9,37 eurokoa izan da; beraz, Donostiakoa eta lurraldeko udalerri nagusietakoa baino handiagoa izan da. Udalerri talde horretan gizarteko esku-hartzeetan biztanleko egin den gastua baino handiagoak izan dira Gasteizkoa (10,63 eurokoa) eta Bilbokoa (15,79 eurokoa); baina bi horiek soilik izan dira handiagoak. Gipuzkoako herri txikiagoetan, 2015-2016 aldirian, ahalegin handia egin zen, eta horri zor zaio, hein batean, aurrerapen bizi hori. Dena den, udalerri talde horretan 2015ean jada agerikoa zen esku-hartze mota hori nahiago zutela. Izan ere, garai hartako gastua eta hiriburukoa oso antzekoak ziren, baita lurraldeko gainerako udalerriena baino handiagoa ere.

Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuak ez diren udalerrietan haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babesteko 2015eko gastua baino handiagoa izan da 2018ko gastua biztanleko. Eta kasu guztietan 2017-2018 aldiko % 4 baino handiagoa izan da. Donostian ez da gauza bera gertatu. Udalerri horretako gastua -% 8,7 izan zen 2017-2018 aldirian; eta 2018ko 7,15 euroko gastua hurbil dago 2015eko 6,99 euroko kopurutik. Dinamika hori lotuta dago era eskusiboan 2017-2018 aldirian familiako esku-hartzeen gastua murrizteko joerarekin.

2017tik 2018ra 1,32 eurotik 5,07 eurora igo zen, eta hori izan da 2012tik aurrerako zenbatekorik handiena, familiako esku-hartzeei lotuta, batik bat. Hala ere, Arabako gainerako udalerrietako gastua oraindik ere txikia da biztanleko (Gasteizen izan ezik). Joera hori nabariagoa da lurraldeko gainerako udalerrietan, 2018ko gastua 0,45 eurokoa izan baita gastua biztanle bakoitzeko.

28. taulan erakusten den bezala, 2018an, bazterkeriaren aurkako udal-gastua 5,07 eurokoa izan da biztanleko. 2012tik 2015era igo ondoren, gastuak behera egin zuen: 2015-2016 aldirian, -% 2,7; eta 2016-2017 aldirian, -% 3,0. Beherakadak 2017-2018 aldirian ere jarraitu egin du, baina txikiagoa izan da: -% 1,2. 2018ko 5,07 euroko kopurua 2015eko 5,44 eurokoa baino txikiagoa da.

Barneko banaketari dagokionez, egoitza-zentroetan eta harrera-zentroetan egin den udal-gastua 3,79 eurokoa izan da biztanle bakoitzeko; beraz, behera doa, 2015eko 4,18 euroko kopuruarekin erkatuta. Bazterketa-sektorearen gainerako zerbitzuetan eta zentroetan 1,28 euroko gastua osatu da; beraz, 2015eko 1,26 euroko kopurutik hurbil dago.

Bazterkeriaren aurkako programetan, Gasteizen egindako gastua askoz ere altuagoa da gainerakoekin alderatuta, herritar bakoitzeko 16,79 euro bideratu baititu programa horietara. 2012-2015 aldiko igoeraren ondoren, eta 2017-2018 aldirian % 5,6 handitu arren, 2018ko gastua 2015eko 20,00 eurokoa baino askoz ere txikiagoa da. Izan ere, 2015-2016 aldirian eta 2016-2017 aldirian behera egin zuen: -% 8,3 eta -% 13,3, hurrenez hurren. Oro har, 2015-2018 aldirian 3,21 euro

murriztu dira gastutik biztanle bakoitzeko; eta murrizketaren zatirik handiena egoitzakoa ez den gizarteko esku-hartzeen arloko ekintzarekin lotuta dago.

2018an, Donostiako eta Bilboko biztanle bakoitzeko gastuak ere EAEko batezbestekotik gorakoak izan dira; 11,83 eta 8,51 eurokoak, hurrenez hurren. 2017-2018 aldian gastuak % 2,2 egin zuen gora; eta Gipuzkoako hiriburuko erregistroa 2015eko eta 2016ko zenbatekoetatik gorakoa da (11,69 eta 11,29, hurrenez hurren). Bilbon ez da gauza bera gertatu. Udalerri horretan gastuak –% 21,0 egin du behera 2017tik 2018ra; eta egoitza-zentroei, harrera-zentroei eta gainerako zentro eta zerbitzuei ere eragiten die. Bizkaiko hiriburuan osatu den 2018ko 8,51 euroko kopurua oso urrun dago 2015eko 11,06 euroetatik.

Gainerako eskualdeetan ia ez da ezer gastatu bazterkeriaren aurka bideratutako programetan (biztanleko 2,00 euro, gehien jota). Salbuespen bakarra Gipuzkoako udalerri nagusiak dira (Donostia izan ezik), biztanleko 6,88 euroko ekarpena egin baitute 2018an. Gipuzkoako udalerri horietan gastuak gora egiten jarraitzen du: 2017-2018 aldian % 14,4 egin du gora, baina 2016-2017 aldian ere % 2,3 egin zuen gora. 2018ko 6,88 euroek zenbatekorik altuena osatu dute 2012tik.

Azkenik, 29. taulan ikusgai daude GLLn, gizarte-urgentzien eta antzeko prestazioen gastuari buruzko adierazleak. Prestazio horietan, 2018ko biztanleko gastua 7,65 eurokoa izan da. 2012tik 2015era % 130,3 igo zen gastua biztanle bakoitzeko; 2015etik 2016ra igotzen jarraitu zuen, eta % 5,9ko gorakada osatu zen. 2017an prestazio horietan biztanleko egin zen gastuak behera egin zuen, eta lehen beherakada izan zen; zehazki, –% 3,2koa. Joera hori handiagoa izan da 2017-2018 aldian, eta atzerapena –% 12,2koa izan da.

2017-2018 aldian, gastuaren dinamika ez da homogenea izan lurralde osoan, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerriei baino ez die eragin. Gastua, bestalde, nabarmen igo da Arabako udalerri mota guztietan. Gasteizen % 15,5 egin du gora; gainerako udalerri nagusietan, % 5,4; eta lurralde historikoko gainerako udalerrietan, % 67,5. 2017tik 2018ra aldatu egin da, eta gastua berriro igo da, 2016-2017 aldiko beherakada handien ondoren (lurralde historiko horretan biztanle gutxiago dituzten herrietan 2015-2017 aldian osatu ziren beherakadak).

EAEko gainerako udalerrietan, prestazioetako udal-gastuaren 2017-2018 aldiko beherakada Donostian izan da bereziki handia (–% 54,8), baita lurralde horretan biztanle gutxiago dituzten udalerrietan ere (–% 21,4). Gipuzkoako gainerako udalerri nagusietan ez da hain handia izan, baina oraindik ere garrantzitsua da (–% 7,6), eta Bizkaian biztanle gutxiago dituzten udalerrietan ere bai (–% 8,8). Beherakada –% 3,7koa izan da Bilbon; eta Bizkaiko gainerako udalerri nagusietan –% 4,9koa izan da.

Gipuzkoan biztanle gutxiago dituzten udalerrietan izan ezik, gizarte-prestazioetako gastuaren beheranzko joera 2015-2017 aldian jada behatu zen Bizkaiko eta Gipuzkoako udal-eremuetan.



29. taula.

GLLko, gizarte-urgentziako eta antzeko beste prestazioetako udal-gastu arrunta, udal motaren arabera. 2017-2018

(Datu absolutuak eurotan, gastua biztanleko eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

Gastu eta udalerrri mota	EAE	2017	2018	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
		Abs.	Abs.	Gastua/biz.	Gastua/biz.	Gastua/biz.
Beste gizarte-prestazio batzuk		18.958.434	16.671.719	8,71	7,65	-12,2
	Gasteiz	4.933.284	5.734.247	20,36	23,52	15,5
	Arabako beste udalerrri nagusiak	365.809	386.892	12,74	13,43	5,4
	Arabako gainerakoak	15.303	25.766	0,29	0,49	67,5
	Donostia	3.874.052	1.754.532	21,46	9,69	-54,8
	Gipuzkoako beste udalerrri nagusiak	1.015.168	937.071	8,00	7,40	-7,6
	Gipuzkoako gainerakoak	2.641.901	2.081.739	6,52	5,12	-21,4
	Bilbo	808.140	779.292	2,36	2,27	-3,7
	Bizkaiko beste udalerrri nagusiak	3.363.802	3.197.317	7,91	7,52	-4,9
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	1.940.975	1.774.863	5,22	4,76	-8,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika

Ikusitako askotariko bilakaera horiek gorabehera, prestazio horietan biztanleko egin den gasturik handiena Gasteizen osatu da. 2017-2018 aldiko igoeraren ostean, prestazioetan 2018an egin den udal-gastua 23,52 eurokoa izan da biztanleko. Dena den, zenbateko hori oso urrun dago 2016ko 28,02 euroetatik; eta 2015eko 24,75 eurokoa ere baino txikiagoa da.

Arabako gainerako udalerrri nagusiak bigarren posizioan daude, eta gastua 13,43 eurokoa izan da biztanleko. Gastua 2012tik 2016ra nabarmen igo zen. 2017-2018 aldiko igoerak 2016-2017 aldiko – % 4,1 beherakada konpentsatu zuen. Hortaz, 2018ko gastua mailarik handienetakoa izan da udalerrri horietan. 2018ko 13,43 euroek termino nominaletan gainditzen dituzte 2016ko 13,29 euroak.

Donostian kontrako bilakaera osatu da. Donostian 2017an osatu zen gasturik handiena biztanleko: 21,46 eurokoa; baina 2018koa 9,69 eurokoa izan da, beraz, 2012koa ere (13,87 eurokoa) baino txikiagoa izan da.

Maila txikiagoetan, biztanleko gastua 7,40 eta 7,52 eurokoa izan zen Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrri nagusietan, hurrenez hurren. 2017ko zenbatekoekin erkatuta, txikiagoa da (8,00 eta 7,91 izan baitziren, hurrenez hurren). Hala ere, bizkaitar udalerrietako zenbatekoak 2016. urtera artekoak baino handiagoak dira. Gipuzkoako udalerrietan, ordea, ez da hori gertatu, eta 2016ko gastua 8,33 eurokoa izan da biztanleko.

Gipuzkoako eta Bizkaiko gainerako udalerrietan, gastua 5,12 eta 4,76 eurokoa izan da biztanleko, hurrenez hurren. 2017ko 6,52 eta 5,22 euroko kopuruekin erkatuta, 2018ko erregistroak eta 2015-2016 aldikoak (Gipuzkoako udalerrri horietan, 5,02 eta 5,04; eta Bizkaikoetan, 4,80 eta 4,53, hurrenez hurren) antzekoak dira.

Prestazioetan egin den gasturik txikiak 2018an oraindik ere Bilbokoa (2,27 eurokoa; 2016ko gastua 3,29 eurokoa izan zen, beraz, joerak beherantz jarraitzen du) eta Arabako gainerako udalerrietan (0,49 euro) izan da.



5. Gizarte-zerbitzuetako langileak

Atal honetan xehetasunez aztertu dugu gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian diharduten langileen egitura; horretarako, langile multzo horren sektoreko alderdiak ez ezik, alderdi hertsiki profesionalak ere aintzat hartu ditugu.

5.1. Alderdi orokorrak

30. taulan ikus daitekeen bezala, 2018ko abenduaren 15ean, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian 20.022 langilek jarduten zuten. Aurreko urteetan okupazioa handitzen hasi zen (2012-2015 aldian, % 8,3; 2015-2016 aldian, % 4,0; eta 2016-2017 aldian, % 4,2). 2017-2018 aldian gora jarraitu du, zehazki, % 3,8ko igoera osatu da, 2017ko 19.295 pertsonarekin erkatuta.

Batez besteko urteko langileak zenbatzen badira, gizarte-zerbitzuetako berezko langile kopurua oso antzekoa da: 2018an, 20.066 langile daude. Igoera txikiagoa izan da 2017tik 2018ra; eta 2017tik aurrera, % 3,5 igo da. Kasu horretan gora doa handitzeko erritmoa: 2015-2016 aldikoa, % 3,0; eta 2016-2017 aldikoa, % 3,1.

Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera¹¹, 2018ko abenduaren 15ean, berezko langileak 16.422 ziren, 2017koa baino % 3,2 gehiago. Hori 2015-2016 aldiko % 3,1eko igoera baino handiagoa da, eta 2016-2017 aldiko % 3,6ko igoera baino txikixeagoa da.

Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera, batez besteko urteko langile kopurua abenduaren 15ekoa baino txikiagoa da, 16.196 enplegatu daudelako. Hala eta guztiz ere, 2017-2018 aldiko igoeran ere adierazle horrek igoera nabaria erakusten du. Batez besteko langile kopurua % 3,5 handitu da, 2017ko 15.652 langile kopuruarekin erkatuta; zehazki, ehuneko puntu bat handiagoa da, 2016-2017 aldiko % 2,5eko emaitzarekin erkatuta, eta 2015-2016 aldiko % 3,4ko mailara.

30. taula.
Gizarte-zerbitzuen erdiguneak zituen langileen adierazleak
(Datu absolutuak eta horren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

Adierazleak	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017/2018 aldian
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
Langileak abenduaren 15ean: Propioak	17.815	18.521	19.295	20.022	3,8
Urteko langileak batez beste: Propioak	18.254	18.794	19.385	20.066	3,5
Langileak guztira: Azpikontratatuak	6.682	7.041	7.863	7.752	-1,4
Langileak guztira: Boluntarioak	2.739	2.911	3.167	3.224	1,8
Langileak abenduaren 15ean LOB: Propioak	14.889	15.352	15.912	16.422	3,2
LOBeko urteko langileak batez beste: Propioak	14.771	15.270	15.652	16.196	3,5
LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak	5.512	5.644	5.861	5.802	-1,0
LOBeko Langileak guztira: Boluntarioak	274	275	358	355	-0,9
LOB GUZTIRA	20.558	21.188	21.872	22.353	2,2
Propioak %	71,9	72,1	71,6	72,5	
Azpikontratatuak %	26,8	26,6	26,8	26,0	
Boluntarioak %	1,3	1,3	1,6	1,6	

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzatza (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

2016-2017 aldian ez bezala, langile azpikontratatuaren bilakaerak gora egiteko joera erakutsi du 2017tik 2018ra. Horiek horrela, datuen arabera, 2018an 7.752 pertsonak osatu dute langile kopuru

¹¹ EDP: Dedikazio osoaren baliokidetasuna (astean, 35 ordu; eta urtean, 1600 ordu).

hori: –% 1,4ko beherakada osatu da, beraz, aldaketa handia izan da, 2016-2017 aldiko % 11,7ko igoerarekin erkatuta, zeina 2015-2016 aldiko % 5,4ko igoera baino bi aldiz handiagoa baita. Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera, 2018ko langile azpikontratatuak 5.802 dira. Kasu horretan 2017ko 5.861 langile kopurua baino –% 1,0 txikiagoa da. 2015-2017 aldiko goranzko joerarekin erkatuta ere, aldaketa bat behatu da, baina kasu horretan langile azpikontratatuaren igoera ez zen hain handia izan: 2015-2016 aldian, % 2,4koa; eta 2016-2017 aldian, % 3,9.

Termino orokorretan, borondatezko langileek ere kopuru handia osatzen dute (3.224 pertsona, 2018an; beraz, 2017an baino % 1,8 gehiago). Dena den, txikixeagoa da, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera zenbatzen bada. Hala, lanaldi osoko 355 langile kopuruaren baliokidea da. Langile azpikontratatuarekin gertatu bezala, beheranzko joera dago, eta beherakada –% 0,9koa da, 2017ko 358 pertsonarekin erkatuta. 2016-2017ko % 30,4ko gorakada ere eten da, eta 2015-2016 aldiko (+% 0,2) egonkortasunera hurbildu da gehiago. Edonola ere, dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enplegua egiten duten borondatezko langile kopurua 2012koa (322) baino handiagoa izan da 2018an.

Orotara, gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera, 2018an 22.353 langile zenbatu dira. Langile kopuru horrek gora jarraitu du 2012-2015 aldian. Igoera % 8,2koa izan da, 2012ko langile kopuruarekin erkatuta. 2015-2017 aldian jarraitu egin du goranzko joera horrek. 2015-2016 aldian % 3,1ekoa izan da; eta 2016-2017 aldian, % 3,2koa izan da. 2017-2018 aldian, goranzko joerak jarraitu egin du, baina gora egiteko erritmoa nolabait moteldu da. Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera, 2018an 22.353 langile daude, eta hori 2017ko kopurua (21.872) baino % 2,2 handiagoa da.

Langileen guztizkoan dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enplegua egiten duten langileen pisu erlatiboak 2012ko % 73,2tik 2013ko % 71,6ra egin zuen behera, baina, gero, berriro igo zen, eta 2016an % 72,1era iritsi zen. 2016-2017 aldian, ordea, berriro egin zuen behera: % 71,6, beraz, 2013tik aurrerako maila txikienak osatu ziren berriro. 2017-2018 aldiko dinamika gehiago hurbildu da 2013-2016 aldiko dinamikara, berezko langileen ehunekoak berriro gora egiteko joera hartu duelako. Izan ere, 2018an, berezko langileen ehunekorik handiena osatu da, zehazki, % 72,5.

Paraleloan, 2017tik 2018ra, langile azpikontratatuaren pisu erlatiboak behera egin du (% 26,8tik % 26,0ra). Azpikontratatuak langileak areagotu ziren gehien 2013ra arte: 2012an guztizkotik % 25,2 izatetik 2013an guztizkotik % 26,9 izatera igaro baitziren. Hala eta guztiz ere, harrezkero, apur bat behera egin zuen ehunekoak: 2016an, % 26,6 (eta 2014an, % 26,7; eta 2015ean, % 26,8). 2017an berriro igo zen % 26,8raino; baina 2017-2018 aldian berriro eutsi zaio 2015-2016 aldian ere erregistratu zen beheranzko joerari.

Borondatezko langileen pisuak, bere aldetik, % 1,6 izaten jarraitu du, 2017an bezala, eta 2015eko eta 2016ko % 1,3 kopuruak baino handixeagoa izan da.

5.2. Enpleguaren sektorekako banaketa

31. eta 32. taulek enpleguaren sektorekako banaketari buruzko informazioa ematen dute, arreta-sektorearen arabera, bai zifra orokorretan (31. taula) eta bai dedikazio osoaren baliokidetasuna (32. taula) kontuan hartuta.



31. taula.
Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. Datu orokorrak. 2015-2018
(Datu absolutuak, guztizkoarekiko ehunekoa adierazle bakoitzeko, eta zifra absolutuen 2017-2018 aldiko bariazioa ehunekotan)

Arreta-sektorea		2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	2017/2018 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	guztizkoaren %a	%
EGITURA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	2.338	2.350	2.324	2.436	13,1	12,7	12,0	12,2	4,8
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	2.383	2.370	2.326	2.437	13,1	12,6	12,0	12,1	4,8
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	349	276	281	278	5,2	3,9	3,6	3,6	-1,1
	Langileak, guztira: boluntarioak	26	1	4	4	0,9	0,0	0,1	0,1	0,0
ADINEKOAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	10.315	10.702	11.116	11.461	57,9	57,8	57,6	57,2	3,1
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	10.625	10.866	11.184	11.493	58,2	57,8	57,7	57,3	2,8
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	4.471	4.758	5.221	4.920	66,9	67,6	66,4	63,5	-5,8
	Langileak, guztira: boluntarioak	563	555	629	675	20,6	19,1	19,9	20,9	7,3
DESGAITASUNA GAIXOTASUNA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	3.753	3.968	4.214	4.384	21,1	21,4	21,8	21,9	4,0
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	3.835	4.031	4.223	4.372	21,0	21,4	21,8	21,8	3,5
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	482	546	612	676	7,2	7,8	7,8	8,7	10,5
	Langileak, guztira: boluntarioak	493	647	1.027	1.072	18,0	22,2	32,4	33,3	4,4
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK ETA EMAKUMEAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	387	413	455	511	2,2	2,2	2,4	2,6	12,3
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	385	416	456	505	2,1	2,2	2,4	2,5	10,7
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	1.179	1.245	1.474	1.647	17,6	17,7	18,7	21,2	11,7
	Langileak, guztira: boluntarioak	104	95	71	67	3,8	3,3	2,2	2,1	-5,6
BAZTERTUAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	1.022	1.088	1.186	1.230	5,7	5,9	6,1	6,1	3,7
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	1.026	1.111	1.196	1.259	5,6	5,9	6,2	6,3	5,3
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	201	216	275	231	3,0	3,1	3,5	3,0	-16,0
	Langileak, guztira: boluntarioak	1.553	1.613	1.436	1.406	56,7	55,4	45,3	43,6	-2,1
GUZTIRA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	17.815	18.521	19.295	20.022	100	100	100	100	3,8
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	18.254	18.794	19.385	20.066	100	100	100	100	3,5
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	6.682	7.041	7.863	7.752	100	100	100	100	-1,4
	Langileak, guztira: boluntarioak	2.739	2.911	3.167	3.224	100	100	100	100	1,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

32. taula.
Gizarte-zerbitzuetako langileei buruzko adierazleak, arreta-sektorearen arabera. LOB datuak. 2015-2018
(Datu absolutuak, guztizkoarekiko ehunekoa adierazle bakoitzeko, eta zifra absolutuen 2017-2018 aldiko bariazioa ehunekotan)

Arreta-sektorea		2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	2017/2018 aldiko bariazioa
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Guztizko- aren %a	Guztizko- aren %a	Guztizko- aren %a	Guztizko- aren %a	%
EGITURA	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	2.029	2.029	2.031	2.139	13,6	13,2	12,8	13,0	5,3
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	2.026	2.018	2.006	2.100	13,7	13,2	12,8	13,0	4,7
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	267	187	195	188	4,8	3,3	3,3	3,2	-3,2
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	13	0	0	0	4,8	0,0	0,1	0,1	0,0
	LOB, GUZTIRA	2.306	2.204	2.201	2.289	11,2	10,4	10,1	10,2	4,0
	Berezko LOB langileen %	87,8	91,5	91,1	91,8					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	11,6	8,5	8,8	8,2					
LOB boluntarioen %	0,6	0,0	0,0	0,0						
ADINEKOAK	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	8.983	9.282	9.651	9.832	60,3	60,5	60,7	59,9	1,9
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	8.963	9.251	9.525	9.757	60,7	60,6	60,9	60,2	2,4
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	3.707	3.787	3.886	3.699	67,3	67,1	66,3	63,8	-4,8
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	62	58	164	163	22,8	21,2	45,7	45,9	-0,5
	LOB, GUZTIRA	12.733	13.096	13.575	13.618	61,9	61,8	62,1	60,9	0,3
	Berezko LOB langileen %	70,4	70,6	70,2	71,6					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	29,1	28,9	28,6	27,2					
LOB boluntarioen %	0,5	0,4	1,2	1,2						
DESGAITASUNA GAIXOTASUNA	Abenduaren 15eko langileak, LOB: berezkoak	2.888	3.032	3.151	3.260	19,4	19,8	19,8	19,9	3,5
	Urteko batez besteko langileak, LOB: berezkoak	2.820	2.993	3.070	3.191	19,1	19,6	19,6	19,7	3,9
	Langileak, guztira, LOB: azpikontratatuak	349	369	376	368	6,3	6,5	6,4	6,3	-2,2
	Langileak, guztira, LOB: boluntarioak	37	52	59	61	13,3	18,9	16,5	17,2	3,7
	LOB, GUZTIRA	3.206	3.414	3.505	3.620	15,6	16,1	16,0	16,2	3,3
	Berezko LOB langileen %	88,0	87,7	87,6	88,2					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	10,9	10,8	10,7	10,2					
LOB boluntarioen %	1,1	1,5	1,7	1,7						
HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ETA EMAKUMEAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	324	353	401	456	2,2	2,3	2,5	2,8	13,6
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	320	353	401	447	2,2	2,3	2,6	2,8	11,4
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	1.054	1.167	1.260	1.399	19,1	20,7	21,5	24,1	11,0
	Langileak, guztira: boluntarioak	12	26	16	13	4,5	9,6	4,4	3,7	-14,9
	LOB, GUZTIRA	1.387	1.546	1.677	1.859	6,7	7,3	7,7	8,3	10,9
	Berezko LOB langileen %	23,1	22,8	23,9	24,0					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	76,0	75,5	75,1	75,2					
LOB boluntarioen %	0,9	1,7	0,9	0,7						
BAZTERTUAK	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	666	656	678	735	4,5	4,3	4,3	4,5	8,5
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	641	655	650	701	4,3	4,3	4,2	4,3	7,9
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	135	134	145	148	2,4	2,4	2,5	2,5	2,2
	Langileak, guztira: boluntarioak	150	138	120	117	54,6	50,3	33,4	33,1	-1,9
	LOB, GUZTIRA	926	927	914	966	4,5	4,4	4,2	4,3	5,7
	Berezko LOB langileen %	69,3	70,6	71,1	72,6					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	14,6	14,5	15,8	15,3					
LOB boluntarioen %	16,2	14,9	13,1	12,1						
GUZTIRA	Abenduaren 15eko langileak: berezkoak	14.889	15.352	15.912	16.422	100	100	100	100	3,2
	Urteko batez besteko langileak: berezkoak	14.771	15.270	15.652	16.196	100	100	100	100	3,5
	Langileak, guztira: azpikontratatuak	5.512	5.644	5.861	5.802	100	100	100	100	-1,0
	Langileak, guztira: boluntarioak	274	275	358	355	100	100	100	100	-0,9
	LOB, GUZTIRA	20.558	21.188	21.872	22.353	100	100	100	100	2,2
	Berezko LOB langileen %	71,9	72,1	71,6	72,5					
	Azpikontratatuak LOB langileen %	26,8	26,6	26,8	26,0					
LOB boluntarioen %	1,3	1,3	1,6	1,6						

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratzeko Gastuaren Estatistika.

LOB: lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



Gizarte-zerbitzuetako langileen barne-banaketa dedikazio osoaren baliokidetasuna kontuan hartuta aztertzean (gehiago doitzen baitzaio enpleguaren epe luzeko jarraipenari), ikus daiteke enplegu gehienak adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuen inguruan biltzen direla. Jarduera-eremu horretan 2018an guztira 13.618 langile bildu dira dedikazio osoaren baliokidetasuna kontuan hartuta; guztizkoaren % 60,9 hartzen dute, baina, 2017ko % 62,1 baino kopuru txikiagoa da. Sektore horretan dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako lanaren igoeraren moteltzearen emaitza da hori: 2017an % 0,3 baino ez da izan; beraz, 2016-2017 aldian sektore horretan behatutakoa baino % 3,7 txikiagoa izan da; eta gizarte-zerbitzuen nukleo nagusian 2017-2018 aldian dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enplegua duten langile kopuruak ere % 2,2 egin zuen gora.

Duela gutxiko dinamika hori garrantzitsua da: dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako lana adineko pertsonentzako zentroetan eta zerbitzuetan 2017tik 2018ra egonkortu baita, eta egonkortasun hori ez dator bat enpleguaren goranzko joerarekin (zehazki, % 3ko ingurukoa izan zen, 2013tik 2017ra).

Langileen banaketan eragin askoz ere txikiagoa izan badute ere, lanpostu ugari biltzen dituzte desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonen artean emateko zerbitzuek ere. Kasu horretan, dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enplegua duten langileak 3.620 izan dira 2018an. 2015-2016 aldiko % 6,5eko igoera handiaren ostean, 2016-2017 aldian igoera moteldu eta % 2,7 baino handiagoa ez zen izan. 2017-2018 aldiko igoera antzekoa izan da, baina handixeagoa: +% 3,3, 2017ko 3.505 lanpostuekin erkatuta (dedikazio osoaren baliokidetasuna kontuan hartuta).

2015ean guztizkoaren % 15,6tik 2016ko % 16,1era igo ondoren, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen artean emateko sektoreak egonkor samar jarraitu du: 2017an, % 16; eta 2018an, % 16,2. 2018an hautemandako proportzioa % 16tik % 16,2ra bitartean kokatu da berriro; hori, ohikoa izan da 2012tik —2015eko % 15,6a izan da salbuespen bakarra—.

Sektorekako artean, dedikazio osoaren baliokidetasuna kontuan hartuta, langileen % 8,3 haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean aritzen da (dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako 1.859 lanpostu, 2018an). Lan-sektore hori, beraz, gogor handitzen ari da: dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enpleguak % 11,5 egin zuen gora 2015-2016 aldian; 2016-2017 aldian, % 8,5; eta 2017-2018an, % 10,9. 2012an eta 2013an % 6,6 eta % 6,9 izan zen; gero, 2014-2015 aldiko % 6,7tik 2016ko % 7,3ra aldatu zen; 2017an, % 7,7 izan zen; eta 2018an, % 8,3 berriro.

Bazterketa-sektorean, dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako 966 lanpostu daude: guztizkoaren % 4,3. Esku-hartzeen arlo horretan 2014-2015 aldian jada enpleguak beharakada handia izan zuen (–% 5,1), eta aldi horretan dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enplegua duten langile kopurua 975 izatetik 926 izatera aldatu zen. 2015. eta 2016. urte artean egonkortu ondoren, % 0,1 baino ez zen igo 2016-2017 aldian. Gero, lanpostu kopuruak behera egin zuen berriro, zehazki, –% 1,4, eta 2017an 914 lanpostu izan ziren. 2017-2018 aldian, ordea, nabarmen igo da berriro: % 5,7. 2018ko 966 lanpostuak, ordea, 2014ko 975 lanpostuak baino gutxiago dira. Izan ere, bazterketa-sektoreko enpleguaren pisua epe luzean behera doa, eta 2014ko % 4,9tik 2018ko % 4,3ra aldatu da; beraz, 2017ko % 4,2 baino hamarren bat handiagoa izan da.

Azkenik, gizarte-zerbitzuen egituran dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako 2.289 lanpostu egon dira 2018an; 2017ko 2.201 lanpostuak baino % 4,0 gehiago. Igoera horrek aldaketa handia ekarri du, 2015etik 2017ra hautemandakoarekin erkatuta. Ildo horretatik, 2016-2017 aldian egonkortasuna izan zen nagusi, eta beharakada –% 0,2koa baino ez zen izan, 2016ko 2.204

lanpostuekin erkatuta (dedikazio osoaren baliokidetasuna kontuan hartuta). Baina, horren aurrean, 2015-2016 aldian, lanpostu horiek -% 4,4ko beherakada izan zuten. Gizarte-zerbitzuen egitura dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren pisuak 2015eko % 11,2tik 2017ko % 10,1era egin zuen behera; azken hori 2012tik aurrerako ehunekorik txikiena izan zen. 2017-2018 aldiko igoera gorabehera, beste sektore batzuk ere gogor handitu ziren bitartean, proportzio hori % 10,2ra baino ez zen igo 2018an.

Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren bilakaerari dagokionez, 2017-2018 aldiak askotariko ildoak erakusten ditu. Batetik, haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean enpleguak igoera handia izan du (% 10,9koa). Igoera hori txikiagoa da bazterketa-sektorean, baina, oraindik ere handia da (% 5,7). Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua batezbesteko orokorretik gorakoa da (batezbestekoa % 2,2 da), baina, batez ere, gizarte-zerbitzuen egitura igo da (% 4,0), eta, neurri txikiagoan, desgaitasuna edota gaixotasunak dituztenei arreta emateko arloan (% 3,3). Aurrekoan ez bezala, lanpostu kopurua egonkortu egin da adineko pertsonen arreta emateko zentroetan eta zerbitzuetan (% 0,3), behintzat, funtsezko alderdian.

Berezko langileak, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera neurtuta, nagusi dira oraindik jardura-esparru guztietan, 32. taulan egiazta daitekeen bezala. Zenbatekorik handiena 2018an osatu da, eta zenbatekoak % 90etik gorakoak dira gizarte-zerbitzuen egitura (% 91,8) eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen emandako arretan (% 88,2). Mailak askoz txikiagoak izan arren, bazterketa-egoeran dauden herritarrei emandako arretan (% 72,6) eta adineko pertsonen emandako arretan (% 71,6) ere kopuru handiak osatu dira. Aitzitik, berezko langileen ehunekoa txikia da, zehazki, % 24,0 baino ez da izan, haurren, gazteen, emakumeen eta familien sektorean. Adierazi bezala, guztira, berezko langileek dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 72,5 hartzen dute gizarte-zerbitzuetan.

33. taulan azpikontrataturako langileen pisu erlatiboa xehetasunez aztertuta, ikus daiteke 2018an langile horiek nagusi zirela haurrak, gazteak, emakumeak eta familiak artatzeko zerbitzuetan, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 75,2 baitzen azpikontrataturak. Gutxiengoa badira ere, azpikontrataturako enplegu mota horrek pisu aipagarria dute adineko pertsonen arretan: % 27,2; hala ere, 2018ko % 28,6 baino txikiagoa izan zen. Zenbateko hori % 15 edo maila txikiagoetan dago esparru hauetan: gizarte-zerbitzuen egitura (% 8,2), gaixotasun edota desgaitasunak dituzten pertsonen arreta (% 10,2) eta bazterkeriaren aurkako borroka (% 15,3).

Esan bezala, gizarte-zerbitzuetan oro har dagoen dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 26,0 azpikontrataturak dago, 2017ko % 26,8tik behera. 2012ko % 25,2 gainditu arren, proportzio hori nagusi izan da 2013tik 2018ra, eta aldaketak % 26,0 eta % 26,9 balioen artekoak izan dira.

Azpikontrazioen joera egonkor samarra izan arren, 2017tik 2018ra beheranzko joera txikia egon da, eta sektoreen arteko diferentzia batzuk behatu dira. 2017a arte, egonkortasun handiena desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonen emandako arretan osatu zen. Azpikontrazioaren eragina 2014-2017 aldian % 10,6 eta % 10,9 balioen artekoak izan zen. 2015eko % 10,9ra iritsi ondoren, pixkanaka hasi da txikiagotzen, 2018ko % 10,2ra iritsi arte. Proportzio horrek 2012ko % 9,9 baino ez du gainditu.

Parametroak egonkor samarrak izan arren, eta kontuan hartuta 2014-2017 aldian % 28,6 eta % 29,1 bitarteko aldaerak egon direla, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta emateko beheranzko joera ere beste sektore batean behatu da, zehazki, adineko pertsonen ematen zaien



arretan, sektore horrek enplegu handiena sortzen duenetakoa bada ere. Kasu horretan, proportzioa argiago murriztu da: 2014ko eta 2015eko % 29,1etik 2017ko % 28,6ra; ondoren, 2018ko % 27,2ra iritsi da, eta hori da 2012ko % 27,7tik aurrerako ehunekorik txikiena.

33. taula.

Gizarte-zerbitzuetan azpikontratatuta dauden langileak zentro/zerbitzu motaren arabera (LOB enplegu zenbatetsi guztien %-a eta 2017-2018 aldiko enplegu azpikontratatuaren bariazio absolutua eta %tan)

	LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak				Bariazioa 2017/2018 aldian	
	2015	2016	2017	2018	Abs.	%
Zentro/Zerbitzu mota	%	%	%	%		
Zerbitzu orokorrak (publikoak)	26,9	17,7	21,6	20,5	-6	-3,9
Zerbitzu tekniko espezializatuak	3,0	3,0	0,2	0,2	0	-5,3
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	73,3	97,3	97,3	94,8	0	-0,8
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	1,6	1,6	1,5	1,4	0	-0,9
EGITURA	11,6	8,5	8,8	8,2	-6	-3,2
Egoitza-zentroak	26,4	25,9	25,8	24,4	-154	-4,8
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	83,9	83,7	80,3	80,2	0	-0,4
Eguneko laguntza-zentroak	60,6	63,1	60,8	59,9	-39	-6,1
Beste zentro/zerbitzuak	3,3	4,4	7,9	40,2	6	684,6
ADINEKO PERTSONAK	29,1	28,9	28,6	27,2	-187	-4,8
Egoitza-zentroak	13,9	13,9	13,9	12,5	-23	-8,0
Atsedeen- eta babes-zerbitzua	8,0	7,5	11,1	12,0	0	0,0
Eguneko laguntza-zentroak	10,7	9,5	9,3	8,5	-6	-7,8
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	0,3	0,3	0,7	0,2	-2	-64,6
Laneratze-zentroak	4,8	4,1	1,5	1,2	0	-30,6
Tutoretza/Tutoretza-fundazioak	0,1	0,1	0,1	15,6	20	21913,7
Laguntza goiztiarra	33,5	54,1	58,4	60,1	3	21,5
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	10,9	10,8	10,7	10,2	-8	-2,2
Adingabeen egoitza-zentroak	77,8	77,6	78,0	77,5	135	11,8
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima ez direnzentzat)	23,5	26,7	19,7	17,9	-2	-19,9
Emakumeentzako ostatu eta egoitza-zentroak (indarkeriaren biktima direnzentzat)	85,3	84,0	84,4	79,1	1	1,8
Adingabeentzako/familiantzako eguneko arreta	54,2	40,7	40,5	47,4	6	21,7
Tratu txarrak jasan dituzten pertsonen arreta	100,0	100,0	100,0	100,0	0	0,0
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK	76,0	75,5	75,1	75,2	139	11,0
Ostatu eta egoitza-zentroak.	14,6	13,7	15,2	14,0	-4	-4,8
Gaueko harrera-zentroak	25,5	26,6	27,5	30,8	5	13,9
Eguneko zentroak	9,7	10,0	11,3	11,4	3	15,3
Jantoki sozialak	5,8	8,9	7,9	6,4	0	-12,6
BAZTERKETA	14,6	14,5	15,8	15,3	3	2,2
GUZTIRA	26,8	26,6	26,8	26,0	-60	-1,0

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean

Beheranzko joera ere neurritsua izan da haurrei, gazteei, emakumeei eta familiei zuzendutako zerbitzuetan: 2013an % 77,6ra ere iritsi zen, eta 2017-2018 aldian % 75,1 eta % 75,2 balioetara ere

iritsi zen. 2017an eta 2018an ehuneko -2,5 puntu egin du behera, 2013ko emaitzekin erkatuta. Kontuan hartu behar da sektore horretan azpikontratazioak eragin oso handia izaten duela.

Aztertu ditugun gizarte-zerbitzuetako bi sektoretan, azpikontratazioak gora egin zuen 2016tik 2017ra, eta 2017-2018 aldian joera hori aldatu da. Alde batetik, egitura orokorrari lotuta dago. 2014tik 2015era % 11etatik % 11,6ra igo ondoren, azpikontratazioaren eragina % 8,5era murriztu zen 2016an. Gero, 2017an berriro igo da, % 8,8ra. 2017tik 2018ra berriro behatu da beheranzko joera, zehazki, % 8,2ra iritsi da 2018an. Ehuneko horrek 2012ko % 7,5 baino ez du gainditu.

Gorakada nagusia bazterketa-sektorean osatu da 2017an; 2016tik 2017ra % 14,5etik % 15,8ra igo da. 2014-2016 aldian behera egin ondoren, langile azpikontratatuak % 15,8 osatu zuten berriro, 2014an bezala. Kasu horretan ere, 2017-2018 aldian, langile azpikontratatuak ehunekoa jaitsi da: 2018an % 15,3 izan da, eta ehuneko horrek 2015eko eta 2016ko 14,5 eta 14,6 zenbatekoak baino ez ditu gainditu.

2017-2018 aldiko beheranzko joera orokorra egon arren, 2018ko enplegu azpikontratatuak zenbatekoak 2012koak baino handiagoak dira, edo antzekoak. Epe luzeko azpikontratazio-prozesuetan goranzko joera oso argirik ez egon arren, sektore horietan ez dira behatu beheranzko murrizketarik ere.

Azpikontratatuak enpleguak dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguan duen eraginaren azterketa zehatzagoa eginez gero, zentro edo zerbitzuaren arabera, dibertsitate are handiago bat agertzen da. Alde batetik, ondorioztatzen da 2018an enplegu mota horretako pisua % 15etik beherakoa edo antzekoa dela enpleguaren arlo esanguratsu hauetan: gizarte-zerbitzuen egitura, zerbitzu tekniko espezializatuak eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetan; eta gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonak artatzearekin lotutako zentro eta zerbitzu ia guztietan (laguntza goiztiarra salbuespen bakarria izanik) edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen babesean (gaueko harrera-zentroak izan ezik).

Gizarte-zerbitzuen egitura publikoaren zerbitzu orokorren 2018ko zenbatekoak % 18 eta % 20 ingurukoak dira, eta indarkeriaren biktimak izan ez diren emakumeen etxebizitza- eta egoitza-zentroak antzeko kopuruak osatu dituzte. Bilakaera, ordea, ezberdina izan da. Zerbitzu orokor publikoen 2018ko % 20,5ek 2012ko % 13,8 gainditzen du; eta duda barik, 2016ko % 17,7tik gorakoa da. Indarkeriaren biktimak ez diren emakumeen egoitza-zentroetan, ordea, % 17,9 osatu da 2018an. Horrek 2017ko beheranzko joera areagotu du, urte horretan adierazlea —2012tik lehenengo aldiz— % 20tik beherakoa izan zen.

Azpikontratazioa nagusi ez izan arren, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 24 eta % 31 azpikontratatuak dago adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 24,4), bai eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko gaueko harrera-zentroetan ere (% 30,8). Adineko pertsonentzako egoitzetan adierazle horrek behera egiteko joera dauka: 2015eko % 26,4tik 2018ko % 24,4ra; baina gaueko harrera-zentroetan kontrakoa gertatzen da. Kasu horretan, goranzko joera dago: 2015eko % 25,5etik 2018ko % 30,8ra.

Beste zentro eta zerbitzu batzuetan, berriz, azpikontratazioa nagusitu da 2018an, eta dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua duten langile gehienak azpikontratatuak dira. Aipatzekoak dira enpleguaren arloko zentro eta zerbitzu nagusietako hauek: gizarte-larrialdien zerbitzuak (dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 94,8); atsedendia hartzen laguntzeko zerbitzuak eta adineko pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroak (% 80,2 eta % 59,9); desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta goiztiarra ematea (% 60,1); adingabeentzako egoitza-zentroak (% 77,5); genero-indarkeria eta tratatu txarrak jaso dituztenei



arreta emateko zerbitzuak (% 79,1 egoitza-arretan; eta % 100, tratu txarrak jaso dituztenei arreta emateko beste programa batzuetan).

Desgaitasuna edo gaixotasuna dituzten pertsonen laguntza goiztiarrean, berriz, 2015ean azpikontratazioak % 33,5 osatu zuen, beraz, 2018ko % 60,1era arteko igoera jarraituak esan nahi du eten egin dela 2012-2015 aldian ohikoa izan zen azpikontratazioaren beherazko joera (2012ko % 61,2tik 2015eko % 33,5era jaitsi zen). Dena den, adineko pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetako azpikontratazioa oraindik ere nagusitu arren, beherakada txikia osatu da: 2016ko % 63,1etik 2018ko % 59,9ra. Genero-indarkeria jaso duten emakumeak babesteko etxebizitza- eta egoitza-zentroetan ere beherakada hori behatu da: 2015-2017 aldiko gutxieneko % 84tik 2018ko % 79,1era arte.

Nagusi izan ez arren, gaur egun oraindik ere oso handia da azpikontratazioaren pisua (% 47,4) adingabeei eta familiei eguneko arreta emateko zerbitzuetan. Kasu horretan, 2014-2015 aldiko % 50etik gorako mailak 2017ko % 40,5era jaitsi ziren. Baina 2018an, ordea, berriro hasi da igotzen.

32. taulari berriro erreparatzen badiogu, han ikusten dugu, azpikontratazioan ez bezala, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 1,6 baino ez dutela osatu borondatezko langileek 2017an, nahiz eta 2014tik 2016ra, gora egin zuen (% 1,3tik % 1,4ra). Aztertu dugun ehunekoa, oro har, enpleguaren % 0,7 eta % 1,7 artekoa da sektore gehienetan. Gizarte-zerbitzuen egiturari, aldiz, enplegu mota horrek ez du inolako presentziarik; baina bada salbuespen bat: bazterkeriaren aurkako ekintza. Esku-hartzearen sektore horretan dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 12,1 betetzen dute borondatezko langileek. Proporzio hori 2012-2015 aldiko % 16,2 baino txikiagoa da, hala ere. 2015etik, gainera, beherazko joera behatu da: 2015etik 2018ra ehuneko 4,1 puntu galdu ditu.

5.3. Enpleguaren banaketa profesionala

GZEZEren datuek enpleguaren barne-egitura ikusten laguntzen digute, lanbide-talde handietan sailkatuta, baina soilik zentro eta zerbitzuetako berezko langileei dagokienez. 34. taulak ematen du horri buruz eskuragarri dagoen informazioaren laburpen bat, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguari buruzko datuak kontuan hartuta.

Aipatzeko den alderdirik deigarriena da hauxe da: gizarte-zerbitzuetako dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 16.422 berezko lanpostuen artean arretako langile espezializatuak nagusi dira 2018ko abenduaren 15ean. 12.230 lanpostu espezializatu daude, eta horrek enplegu osoaren % 74,5 hartzen du. 2014-2015 aldirian egonkortu ondoren, enplegu horiek gizarte-zerbitzuetako enpleguan ekarpena egiten jarraitzen dute, eta goranzko joera dago, 2012ko % 72ko emaitzarekin erkatuta. 2017-2018 aldirian dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguak % 3,2 egin du gora. Enplegu mota horrek % 3,4 egin du gora aldi horretan (2015-2016 aldirian % 4,0 eta % 3,1, hurrenez hurren; eta 2016-2017 aldirian, % 4,2 eta % 3,6, hurrenez hurren).

Langile espezializatuen barneko osagai nagusia zaintzen arloko langile laguntzaileak dira, era horretako 7.548 lanpostu baitzeuden, hau da, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 2018ko enplegu osoaren % 46,0. Oraindik ere 2015eko % 45,4tik gorakoa izan arren, proporzio horrek behera egin du: 2016ko % 46,7tik eta 2017ko % 46,8tik. Beherakada hori lotuta dago azken urteotako langileen kopurua txikiagotzeko joera handiarekin: 2015-2016 aldirian % 6,1; 2016-2017 aldirian, % 3,8; 2017-2018 aldirian, % 1,4.

Kualifikaziorik altuenak dituzten langileek, batez ere, hezkuntzaren esparruan eta esparru soziosanitarioan, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 2.675 lanpostu hartu dituzte

2018an. 2015-2016 aldian kopuru horrek % 0,3 baino ez zuen gora egin, baina 2016-2017 aldian, ordea, behera egin du: -% 4. Dena den, 2017-2018 aldian, nabarmen egin du gora, zehazki, % 11,4. Hori dela eta, langile mota horrek kopururik handiena osatu du, 2016an 2.501 lanpostu osatu zirenetik. Zenbateko erlatiboetan, langile horiek enplegu osoaren % 16,3 hartu zuten 2017an, beraz, 2017ko % 15,1 baino ehuneko handiagoa osatu zen, baina, hala ere, oraindik ere, urrun dago 2014ko % 17,7tik.

Gizartearen arloko langileek dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 974 lanpostu dituzte, hau da, guztizkoaren % 5,9; zehazki, 2012tik aurrerako ehunekorik handiena. Kolektibo horretako enpleguak 2016-2017 aldian % 5,8 egin zuen gora, baina geroago, 2016-2017 aldian, moteldu zen, eta % 2,8 handitu zen; 2017-2018 aldian, ordea, berriro igo da. Aldi horretan, enpleguaren igoera % 6,6ra igo zen, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguari dagokion batez besteko % 3,2 baino bi aldiz gehiago.

Azkenik, aztertu ditugun langile espezializatu horien artean, monitoreek dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 1.033 lanpostu hartzen dituzte, guztizkoaren % 6,3; beraz, beheranzko joera dago, 2017ko % 6,7 emaitzarekin erkatuta, baina 2015eko % 5,5ekin erkatuta, gora egin du. 2015-2016 aldian -% 3,3 egin du behera, baina 2016-2017 aldian % 35,7 handitu da lanpostu kopuru hori. 2017-2018 aldian berriro egin du behera: -% 3,1.

Pertsonei zuzeneko arreta emateko langile ez-espezializatuen arloan, zuzendaritzako eta administrazioko langileek dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 1.975 lanpostu hartu dituzte. Zenbateko horrek igoera handia osatu du 2017-2018 aldian: % 6,2koa. Horrela, 2015-2017 aldiko egonkortasun-joera apurto egin zen; -% 0,1 egon zuen behera 2015-2016 aldian, eta 2016-2017 aldian igoera txikia izan zuen (% 0,4koa). Enpleguaren igoera osatu eta gero, zuzendaritzako eta administrazioko lanpostu kopurua mailarik handiena osatu du 2018an. Hala eta guztiz ere, enpleguak epe luzean goranzko joera dauka beste lanpostu mota batzuetan; horrek esan nahi du zuzendaritzako eta administrazioko lanpostuek behera egingo dutela. Proporzio hori 2017ko % 11,7tik 2018ko % 12,0ra igo da; baina 2017a arte jaisten jarraitu du, 2012an % 13,4 osatu ostean.

Administrariak ez diren langile orokorrek dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 2.203 lanpostu hartu dituzte 2018an. Langile kopuru hori, 2012tik lehenengo aldiz, murriztu da, zehazki, -% 0,6ko beherakada osatu da, 2017ko 2.216 lanpostuekin erkatuta. Kasu horretan, enplegu osoan duen pisu erlatiboak beheranzko joera dauka, 2012ko % 14,5etik edo 2015eko % 14,2tik. 2018ko % 13,4k sakondu egin du beheranzko joera hori, 2017an % 13,9 osatu baitzen.

Sektoreen arabera, langile espezializatu kopururik handiena desgaitasuna edota gaixotasunak dituztenei arreta emateko arloan osatu da: 2018an dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 85,6 hartu baitu. Proporzioa % 80,6koa izan da haurren, gazteen, emakumeen eta familien arloan; bazterketa-arloan % 78,0 osatu da; eta adineko pertsonei arreta emateko arloan % 75,8 osatu da. Proporziorik txikiena, % 49,1ekoa, gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean osatu da.

Langile espezializatu mota batzuk aztertu eta gero, ondorioztatu egin da 2018an adinezko pertsonei arreta emateko zaintzetako laguntzaile kopurua oso altua izan dela: arlo horretako langileek dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 62,9 hartu dute. Desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonei zuzendutako arretan ere kopuru handia osatu da, % 36,9, baina ehunekoa askoz ere txikiagoa da. Arreta-arloaren gainerako eremuetan, kolektibo horren pisua oso txikia da, gehieneko kopurua % 6,5 da, eta gizarte-zerbitzuen egituran osatu da.

Hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo espezializazio handiko langileek sektorerik txikienetan osatzen dute mailarik handiena, besteak beste, haur, gazte, emakume eta familiei arreta emateko



sektorean edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonak babestekoan. Bi kasu horietan profesional horien pisua handienetakoa da: % 71,7 eta % 55,2 da, hurrenez hurren.

34. taula.

Gizarte-zerbitzuetako langile propioen banaketa xehatua, arreta-sektorearen arabera. LOB
(Datu absolutuak, guztiekiko %-a arreta-sektore bakoitzean eta langile-kopuruaren bariazioa 2017-2018 aldian %-tan)

Arreta-sektorea		2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018	Bariazioa 2017/2018
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	
Arreta-sektorea	EGITURA									
	Langile propioak (abenduaren 15ean), LOB	2.029	2.029	2.031	2.139	100	100	100	100	5,3
	Administrazioa eta orokorrak, LOB	1.074	1.066	1.040	1.089	52,9	52,5	51,2	50,9	4,8
	Zuzendaritza eta administrazioa	1.029	1.024	1.008	1.057	50,7	50,5	49,6	49,4	4,8
	Beste lanpostu orokor batzuk	45	42	32	33	2,2	2,1	1,6	1,5	3,4
	Langile espezializatuak, LOB	955	963	992	1.050	47,1	47,5	48,8	49,1	5,9
	Gizarte-laneko langileak	657	677	694	718	32,4	33,4	34,2	33,5	3,4
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	185	172	177	189	9,1	8,5	8,7	8,8	6,4
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	110	111	116	140	5,4	5,4	5,7	6,5	20,3
	Langile monitore/arduradun/tailler-buru.	3	4	4	4	0,2	0,2	0,2	0,2	0,0
ADINEKO PERTSONAK	Langile propioak (abenduaren 15ean) LOB	8.983	9.282	9.651	9.832	100	100	100	100	1,9
	Administrazioa eta orokorrak LOB	2.245	2.253	2.340	2.382	25,0	24,3	24,2	24,2	1,8
	Zuzendaritza eta administrazioa	545	549	560	578	6,1	5,9	5,8	5,9	3,1
	Beste lanpostu orokor batzuk	1.700	1.704	1.780	1.804	18,9	18,4	18,4	18,3	1,4
	Langile espezializatuak LOB	6.737	7.029	7.311	7.450	75,0	75,7	75,8	75,8	1,9
	Gizarte-laneko langileak	84	87	86	97	0,9	0,9	0,9	1,0	13,2
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	1.029	1.037	1.040	1.103	11,5	11,2	10,8	11,2	6,1
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	5.577	5.866	6.125	6.183	62,1	63,2	63,5	62,9	0,9
	Langile monitore/arduradun/tailler-buru.	46	39	60	66	0,5	0,4	0,6	0,7	9,8
	DESGAITASUNA/GA IXOTASUNA	Langile propioak (abenduaren 15ean) LOB	2.888	3.032	3.151	3.260	100	100	100	100
Administrazioa eta orokorrak LOB		451	478	486	457	15,6	15,8	15,4	14,0	-6,0
Zuzendaritza eta administrazioa		209	204	209	230	7,2	6,7	6,6	7,1	9,9
Beste lanpostu orokor batzuk		242	274	277	227	8,4	9,0	8,8	7,0	-18,0
Langile espezializatuak LOB		2.427	2.544	2.655	2.789	84,0	83,9	84,3	85,6	5,1
Gizarte-laneko langileak		53	57	61	68	1,8	1,9	1,9	2,1	11,7
Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.		655	625	476	650	22,7	20,6	15,1	19,9	36,7
Zaintzaren arloko langile laguntzaileak		1.030	1.159	1.180	1.203	35,7	38,2	37,5	36,9	1,9
Langile monitore/arduradun/tailler-buru.		689	703	939	869	23,9	23,2	29,8	26,7	-7,4
EZB erabiltzaileak LOB		10	10	10	14	0,3	0,3	0,3	0,4	37,1
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK	Langile propioak (abenduaren 15ean) LOB	324	353	401	456	100	100	100	100	13,6
	Administrazioa eta orokorrak LOB	66	65	70	88	20,3	18,4	17,4	19,4	26,9
	Zuzendaritza eta administrazioa	16	16	18	29	4,8	4,6	4,4	6,3	64,0
	Beste lanpostu orokor batzuk	50	49	52	60	15,5	13,9	13,0	13,1	14,5
	Langile espezializatuak LOB	258	288	331	367	79,7	81,6	82,6	80,6	10,9
	Gizarte-laneko langileak	5	7	12	10	1,6	1,9	2,9	2,1	-17,7
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	222	266	297	326	68,6	75,5	74,0	71,7	10,1
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	13	2	1	3	3,9	0,5	0,2	0,6	291,7
	Langile monitore/arduradun/tailler-buru.	18	13	22	28	5,7	3,7	5,5	6,2	27,4
	BAZTERKETA	Langile propioak (abenduaren 15ean), LOB	666	656	678	735	100	100	100	100
	Administrazioa eta orokorrak LOB	135	132	140	162	20,3	20,1	20,6	22,0	16,0
	Zuzendaritza eta administrazioa	56	59	64	82	8,4	9,0	9,4	11,1	27,9
	Beste lanpostu orokor batzuk	80	73	76	80	12,0	11,1	11,2	10,9	5,9
	Langile espezializatuak LOB	530	524	538	573	79,7	79,9	79,4	78,0	6,6
	Gizarte-laneko langileak	42	62	62	82	6,2	9,4	9,1	11,1	32,9
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	403	401	411	406	60,5	61,0	60,6	55,2	-1,2
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	30	35	25	20	4,5	5,3	3,7	2,7	-18,6
	Langile monitore/arduradun/tailler-buru.	56	27	41	65	8,3	4,1	6,0	8,9	59,5
GUZTIRA	Langile propioak (abenduaren 15ean), LOB	14.88	15.35	15.91	16.42	100	100	100	100	3,2
	Administrazioa eta orokorrak LOB	3.972	3.994	4.075	4.178	26,7	26,0	25,6	25,4	2,5
	Zuzendaritza eta administrazioa	1.855	1.852	1.859	1.975	12,5	12,1	11,7	12,0	6,2
	Beste lanpostu orokor batzuk	2.117	2.142	2.216	2.203	14,2	14,0	13,9	13,4	-0,6
	Langile espezializatuak LOB	10.90	11.34	11.82	12.23	73,3	73,9	74,3	74,5	3,4
	Gizarte-laneko langileak	840	889	914	974	5,6	5,8	5,7	5,9	6,6
	Hezkuntzako, osasuneko eta beste langile esp.	2.494	2.501	2.400	2.675	16,8	16,3	15,1	16,3	11,4
	Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	6.760	7.173	7.447	7.548	45,4	46,7	46,8	46,0	1,4
	Langile monitore/arduradun/tailler-buru.	813	786	1.066	1.033	5,5	5,1	6,7	6,3	-3,1
	EZB erabiltzaileak LOB	10	10	10	14	0,1	0,1	0,1	0,1	37,1

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidea (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

35. taula.
Langile propioen banaketa xehatua, zenbait zentro eta zerbitzu motatan, lanbide motaren arabera. LOB. 2018
(Datu absolutuak eta guztizkoarekiko ehunekoa, adierazle eta zentro/zerbitzu mota bakoitzeko)

Zentro edo zerbitzu mota	Administrazioa eta orokorra	Zuzendaritza eta administrazioa	Egitura orokorreko beste batzuk	Langile espezializatuak	Langileak Gizarte-lana	Langileak Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk	Langileak Zaintzaren arloko langile laguntzaileak	Langileak Monitoreak/arduradunak/taillerreko buruak	EZB erabiltzaileak
	59,1	57,1	2,0	40,9	16,2	13,4	11,1	0,2	0,0
Zerbitzu orokor eta tekniko espezializatuak	39,5	38,6	0,9	60,5	58,1	2,4	0,0	0,1	0,0
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	24,5	5,8	18,6	75,5	0,9	11,1	62,9	0,6	0,0
Adinekoentzako egoitza-zentroak	19,1	6,8	12,3	80,9	2,5	13,6	63,8	1,0	0,0
Adinekoentzako eguneko laguntza-zentroak	15,4	5,3	10,1	84,6	1,2	12,4	53,8	17,3	0,0
Desgaitasuna dutenentzako egoitza-zentroak	10,1	6,2	3,9	89,9	1,7	37,4	26,0	24,8	0,0
Desgaitasuna dutenentzako eguneko laguntza-zentroak	10,7	8,4	2,3	86,7	0,3	16,1	1,6	68,7	2,6
Desgaitasuna dutenentzako eguneko zentroak eta okupazio-zentroak	19,7	5,2	14,5	80,3	0,5	72,6	0,0	7,2	0,0
Adingabeen egoitza-zentroak	16,0	11,5	4,5	84,0	12,6	58,3	3,6	9,5	0,0
Bazterketa-egoeran daudenentzako ostatu eta egoitza-zentroak	63,2	8,5	54,7	36,8	3,0	28,1	0,0	5,7	0,0
Bazterketa-egoeran daudenentzako gaueko harrera-zentroak	14,1	10,5	3,6	85,9	11,5	63,8	2,0	8,6	0,0

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika



Pisu erlatiboa askoz ere txikiagoa izan arren, hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo espezializazio handiko langileek kopuru handia osatzen dute desgaitasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonen laguntzeko arloan ere, zehazki, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 19,9 hartzen dute, eta proportzio hori % 11,2koa da adineko pertsonentzako arretan. Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen sektorean langile mota horren presentzia gero eta txikiagoa dela, 2014ko % 26,4 osatu zenetik.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen sektorean handiagoa da monitoreen presentzia. Zehazki, monitoreek, langileburuek edota lantegiko buruek dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 26,7 hartzen dute. 2012ko % 27,2tik 2014ko % 21,1era osatu zen beherakadaren ostean, proportzio horrek erakusten du enplegu mota horrek gora egin duela, 2014an gutxieneko kopurua osatu zenetik. Hala eta guztiz ere, proportzio hori 2017ko % 29,8 baino txikiagoa da, eta berriro ere, 2012ko mailatik beherakoa da.

Gizarte-langileei dagokienez, euren presentzia txikia izan ohi da dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguan. Salbuespen bakarra gizarte-zerbitzuen egituran osatzen da, arlo horretan dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 33,5 hartu baitute 2018an. 2014tik 2017ra % 32,3tik % 34,2ra igo ostean, ehunekoak behera egin du 2018an, baina, 2012az geroztik, kopuru handienetako bigarrena izan da hori.

Aipatutako bi eremu horietatik kanpo, langile mota horren pisua (monitoreena edo gizarte-langileena) % 15etik beherakoa izan da beti. Hala eta guztiz ere, gizarte-langileen % 11,1 ere aipatu behar da, bai eta bazterketa-eremuko monitoreen, langileburuen edota lantegiko buruen % 8,9 ere. Ehuneko horiek goranzko joera izan dute azken urteotan, eta ehuneko handiena 2018an osatu da, bazterketa-eremuko gizarte-langileei dagokienez.

Zuzendaritzako eta administrazioko langileei dagokienez, ikus daiteke azken multzo horrek paper erabakigarria duela gizarte-zerbitzuen egituran; hala, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren zatirik handiena, % 49,4, hartzen du (nahiz eta 2012an % 53 osatu ostean beheranzko joera izan duen). Gainerako jardun-eremuetan, haien presentzia enpleguaren % 5,9 eta % 11,1 balioen artekoa da, azken kasu horretako erregistroa bazterketa-eremuko da.

Langile orokorrak, hau da, espezializatuak edo administrariak ez direnak, adineko pertsonentzako arretan nagusitu da, eta % 18,3 osatu du; haurren, gazteen, emakumeen eta familien babesan % 13,1 osatu du; eta bazterketa-eremuan, % 10,9. Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako arretan % 7 osatu dute, eta kasu horretan argia da beheranzko joera, 2016ko % 9tik edo 2012ko % 9,3tik. Bestalde, gizarte-zerbitzuen egituran % 1,5 baino ez du hartu.

34. taula horretan bertan enplegua arreta-sektorearen eta lanbide motaren arabera gehiago aztertuz gero, enplegu-dinamika interesgarriak hauteman daitezke. Datu kuantitatiboak eta 2017-2018 aldian behatutako aldaketak konbinatzen baditugu, langile espezializatuak dagokienez, deigarria da hezitzaileen, sanitarioen edota beste langile espezializatuen enpleguaren sorrera. Langile horiei dagokienez, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonak babesteko arloan sortu da enplegu kopururik handiena: dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 174 lanpostu berri; adineko pertsonen arreta emateko 64 lanpostu berri; eta haurren, gazteen, emakumeen eta familien babesaren arloko eta bazterketa-arloko 30 lanpostu gehiago. Horrez gain, gizarte-zerbitzuen egituran 11 lanpostu gehiago sortu dira. Guztira, 280 lanpostu garbi sortu dira lanbide-arlo horretan, eta aipatutako lau lanbide-eremu horietan sortu dira. 2017-2018 aldian sortu diren dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 641 lanpostu berrien % 43,6 arlo horietan metatzen dira, baita lanbide horien inguruan ere.

Aipatzekoa da enplegu horien sorrerak nobedade batzuk ere ekarri dituela 2017-2018 aldian. 2015etik 2017ra igoera hori haurren, gazteen, emakumeen eta familiaren arloan baino ez zen behatu. Kasu horretan, ordea, hezitzaileen, sanitarioen eta beste langile batzuen enplegu erlatiboak 2015-2016 aldian % 19,9 egin zuen gora; eta 2016-2017 aldian, % 11,4. Okupazioa oraindik ere % 10ekoa izan da 2017-2018 aldian.

Lanpostu berrien sorrera zaintza-langile laguntzaileen arloan ere garrantzitsua izan da: dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 58 lanpostu garbi sortu dira, adineko pertsonentzako zaintzaren arloan; 23, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten langileen arloan; 24, gizarte-zerbitzuen egiturari; eta haurren, gazteen, emakumeen eta familiaren arloan, 2. Guztira, 106 enplegu garbi gehiago sortu dira, guztizkoaren % 16,5.

Kasu horretan langile laguntzaile mota horiei lotuta ohi zeuden bi eremuetan moteldu egin da enplegu berriaren sorrera. Horiek horrela, honela bilakatu da adineko pertsonen arreta emateko sektorean igoera-erritmoa: 2015-2016 aldian % 5,2 izan zen; eta 2016-2017 aldian % 4,4; eta 2017-2018 aldian, % 0,9. Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen babesaren arloan, laguntzaile kopuruak % 12,5 egin zuen gora 2015-2016 aldian; baina 2016-2018 aldian, % 1,8 eta % 1,9.

Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegu garbiak gora egin du berriro gizarte-langileen arloan. Kasu horretan, hedatzen ari diren sektoreetan enplegu garbiko 62 lanpostu sortu dira; zehazki, 2017-2018 aldian sektore hedakorrei zegozkien % 9,7. Gizarte-langile aritzeko 24 lanpostu sortu dira egitura orokorrean; bazterketa-sektorean, 20; adineko pertsonentzako arloan, 11; eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen babesaren arloan, 7.

Gizarte-langileei dagokienez, nabarmentzekoa da gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean enplegua sortzeko erritmo egonkorra: 2015-2016 aldian, % 3,0; 2016-2017 aldian, % 2,6; eta 2017-2018 aldian, % 3,4. Bazterketa-eremuan, dinamika alderraiagoa da, baina urte batzuetan bultzada indartsuak jaso ditu. Hala, 2015-2016 aldian, gizarte-langileen arloko enpleguak % 48,6 egin zuen gora, baina, gero, 2016-2017 aldian, egonkortu egin zen (-% 0,2). Sektore horretan, enplegu berriaren sorrera berriro bultzatu da 2017-2018 aldian; zehazki, gizarte langile aritzeko lanpostu kopuruak % 32,9 egin du gora.

Langile espezializatuen arloan, nabarmentzekoak dira sortu diren dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 24 lanpostu garbiak, zehazki, bazterketa-arloko monitoreak, langileburuak eta lantegiko buruak. Adineko pertsonen arloan eta haurren, gazteen, emakumeen eta familiaren arloan sortu diren 12 lanpostuekin batera, hedatzen ari diren sektoreetan sortzen ari diren lanpostu berrien % 5,7 hartu dute.

Enplegu mota horretan, nabarmentzekoa da 2016tik aurrera bazterketa-sektorean nabarmen areagotu dela enplegua sortzeko erritmoa, zehazki, % 50 edo gehiago igo da. Hala eta guztiz ere, 2014-2016 aldiko beherakada handien ostean, monitore, langileburu edo lantegiko buru aritzeko 2014ko lanpostu kopurua oraindik ere ez da berreskuratu.

Langile espezializatuak alde batera utzita, 2017-2018 aldian, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 153 lanpostu sortu dira administrazio-arloan eta orokorrean (116 eta 37, hurrenez hurren). Aldi horretan lanpostu horiek hartu dute hedatzen ari diren sektoreetako enpleguaren sorreraren % 23,9.

2015-2017 aldian gertatu bezala, lanbide batzuetan eta sektore espezifiko batzuetan bilakaera negatiboa egon da 2017-2018 aldian.



Monitore, langileburu edo lantegiko buru aritzeko 120 lanpostuen galera (dedikazio osoaren baliokidetasuna kontuan hartuta) eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen sektoreko langile orokorren galera (administrariak do langile espezializatuak ez ziren langileena) izan dira beherakada handienak. Atzera egiteko joera duten sektoreetan eta lanbideetan behatu diren enplegu-galeren % 91,3 osatzen dute¹².

35. taulak aurkezten du nola dauden banatuta berezko langileak (dedikazio osoaren baliokidetasuna kontuan hartuta) zentro eta zerbitzu mota nagusietan; horrela ikus daiteke zer lanbide izan diren nagusi 2018an.

Lehenik zerbitzu orokor teknikoak eta espezializatuak aztertzen baditugu, zuzendaritzako eta administrazioko langileek % 57,1 osatzen dute. Bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko gaueko harrera-zentroetan ere deigarria da zuzeneko arretako langile gehienak ez direla langile espezializatuak. Kasu horretan % 54,7 osatzen dute, baina nagusi dira zuzendariak edo administrariak ez diren langileak. Kasu bietan behatu da arreta-eremuko langile espezializatu osagarri ugari dagoela gizarte-langileen, hezitzaileen, langile soziosanitarioen, edo antzeko langile espezializatuen artean (zerbitzu orokor eta tekniko espezializatuetan, % 29,6); eta gaueko harrera-zentroetan, % 31,1).

Gizarte-langile kopurua ere garrantzitsua da bazterketa-sektorean, bai eguneko zentroetan (% 11,5), bai etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan (% 12,6).

Zuzendari eta administrari kopurua ere handia da oinarrizko gizarte-zerbitzuetan (% 38,6). Kasu horretan, baina, gailentzen den profila gizarte-langileena da, dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enpleguen % 58,1 hartzen baitute.

Gainerako langile orokorrek adineko pertsonentzako egoitzetan kopuru esanguratsua osatzen dute (% 18,6), adingabeak babesteko egoitzetan (% 14,5). Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonak babesteko sektorean kopuru txikiagoa osatzen dute (% 10,1). Adinekoentzako eguneko egoitza-zentroetan ere % 10 gaitzen dute (% 12,3).

Hezitzaileek, langile soziosanitarioek edo antzeko langile espezializatuak kopuru nagusia osatzen dute adingabeentzako egoitza-zentroetan (% 72,6), bazterketa-egoeran daudenentzako egoitzetan (% 58,3) eta bazterketa-egoeran daudenentzako eguneko zentroetan (% 63,8). Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan ere nabaria da lanbide-kategoria horren presentzia, baina kopurua txikiagoa da (% 37,4). Zentro mota horretan zaintza-langile osagarriek ere kopuru handia osatzen dute (% 26).

Zaintzen arloko langile laguntzaileak gailentzen dira, era berean, adineko pertsonentzako edo desgaitasun nahiz gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 62,9 eta % 53,8). Halaber, adinentzako asistentzia-zentroetan ere kopuru handia osatzen dute (% 63,8).

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetako okupazio-jardueretan garrantzitsua da monitoreen eginkizuna: egoitza-zentroetan (% 17,3) eta, batez ere, eguneko egoitza-zentroetan (% 24,8). Zehazki, langileburuak eta lantegiko buruak nagusi dira eguneko okupazio-zentroetan edo desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako beste eguneko zentro mota batzuetan. Dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enpleguaren % 68,7 hartzen dute langile horiek.

¹² Desgaitasun edota gaixotasunak dituzten pertsonen arloan kategorien eta lanpostuen definizioak aldatu dira, arlo espezializatuak areagotu dira eta zuzendaritzako eta administrazioko langile kopuruak ere gora egin du; beraz, agian faktore horiek azal dezakete galera horien zati bat.

5.4. Enpleguaren banaketa, lurralde historikoaren arabera

36. taulan adierazi bezala, 2018an, dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako gizarte-zerbitzuen enpleguaren % 45,8 Bizkaikoa zen: guztira, 11.421 lanpostu. Lurralde horretako dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enpleguak 2016tik 2017ra % 3,5 egin zuen gora; beraz, 2015-2016 aldiko % 2 gainditu zuen. Beheranzko joera txikia egon arren, 2017-2018 aldian Bizkaiko enpleguak gora egiten jarraitu du: % 3,1, zehatz-mehatz, eta hori igoera handia izan da.

2016-2017 aldian Gipuzkoak baino ez zuen gainditu Bizkaiko enpleguaren igoera. 2012tik 2016ra gertatu zen bezala, Gipuzkoa izan zen gizarte-zerbitzuetako enplegua gehien handitu zuen lurraldea. Horiek horrela, 2016-2017 aldian enpleguak % 4,4 egin zuen gora; ia 2015-2016 aldian bezala, hots, % 4,5. Hala eta guztiz ere, 2017tik 2018ra, Gipuzkoan enpleguaren igoera egonkortu da, eta ia % 0,4 baino ez da igo. 2018an, lurralde horretan 7.281 enplegu bete dira, EAEko guztizkoaren % 33,2.

2015etik 2016ra % 3,7 igo ondoren, dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enplegua Araban gelditu egin zen (% 0,0) 2016-2017 aldian, eta 2017-2018 aldian berriro egin du gora (% 3,1). Lurralde horretako 3.651 lanpostuek EAEko guztizkoaren % 21 hartu dute 2018an.

Bizkaiko enplegua handiagoa da sektore batzuetan. Horiek horrela, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta emateko sektoreak enpleguaren % 49,7 hartu du; haurrak, gazteak, emakumeak eta familiak babesteko sektoreak, % 52,2; bazterketa-sektoreak, % 47,1; eta azken kasu horretan joerak gorakada handia izan du, 2017ko % 45,4ko emaitzarekin erkatuta.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta emateko sektoreak epe luzean gora egiten jarraitu du: 2015etik 2016ra, % 2,7; 2016tik 2017ra, % 4,3; eta 2017tik 2018ra, % 3,2. Enplegua handitzeko joera are argiagoa da haurrak, gazteak, emakumeak eta familiak babesteko sektorean: 2015etik 2016ra, % 7,8; 2016tik 2017ra, % 16,5; eta 2017tik 2018ra, % 12,1. Bazterketa-arloan, gora egiteko bultzada berriagoa da, eta 2015-2017 aldiko beherakadak handiagoak izan ziren (2015etik 2016ra, -% 0,8; eta 2016tik 2017ra, -% 1,8). 2017-2018 aldian, ordea, sektore horretako enpleguak % 7,5 egin zuen gora Bizkaian.

Bizkaian enplegura egin den ekarpena, ordea, txikiagoa izan da gizarte-zerbitzuen egituran: dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enpleguaren % 41,3 baino ez. Lurralde horretan dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enpleguaren -% 4,5 ezabatu zen 2015-2016 aldian; eta 2016-2017 aldian % 0,1 baino ez da igo. Gora egiten ari den arren, enpleguak igoera txikia izan du gizarte-zerbitzuen egituran: 2017-2018 aldian, % 0,9 baino ez.

Adineko pertsonentzako arreta-sektorean Bizkaian 2018an izan duen pisua % 45,8koa izan da. Hala eta guztiz ere, Bizkaiko igoerak sektore horretan erritmo neurritsua baina egonkorra izaten du: 2015etik 2016ra, % 2,6; 2016tik 2017ra, % 3,1; eta 2017tik 2018ra, % 2,2.

Gipuzkoan, bereziki, bazterketaren aurkako borrokan 2018an igo da dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberako enplegua (% 42,9). Sektore horrek Gipuzkoan igoera handia izan zuen 2015etik 2016ra (% 9,7), baina 2016-2017 aldian murriztu eta % 4,4koa izan zen. 2017-2018 aldian igoerak moteltzen jarraitu du, eta enplegua % 1,6 baino ez da igo.

2015-2017 aldian behera egin arren (2015-2016 aldian -% 0,2; eta 2016-2017 aldian, -% 2,8), Gipuzkoak oraindik ere pisu handiagoa (% 35,7) dauka oinarritzko gizarte-zerbitzuen egituraren enpleguan. Arlo horretan, gainera, 2017-2018 aldian enplegua % 3,7 igo da.

Gainerako gizarte-zerbitzuen sektoreetan, ordea, Gipuzkoako partaidetza % 30etik behera dago: haurrei, gazteei, emakumei eta familiei arreta emateko sektorean, % 28,6; desgaitasuna edota



gaixotasunak dituztenei arreta emateko sektorean, % 29,5; eta adineko pertsonen arreta emateko sektorean, % 29,7. Sektore horietako batzuetan enplegua nabarmen igo da 2015etik 2018ra. Igoerak desgaitasuna edota gaixotasunak dituztenei arreta emateko sektorean (% 5,9) eta haurrei, gazteei, emakumeei eta familiei arreta emateko sektorean (% 8,6) handiagoak izan dira 2017-2018 aldian. Adineko pertsonentzako arretan, ordea, 2017-2018 aldian enpleguak behera egin du (-% 2,9), nahiz eta 2015-2016 aldian % 2,5 eta 2016-2017 aldian % 5,0 gora egin zuen.

36. taula.

Gizarte-zerbitzuetako LOB langile guztien adierazleak arreta-sektorearen eta lurralde historikoen arabera (Datu absolutuak, guztizkoarekiko %-a arreta-sektore bakoitzean eta langileen bariazioa 2017-2018 aldian %tan)

Arreta-sektorea	LOBeko urteko langileak batez beste									
	2015				2016				Bariazioa 2017/2018 aldian	
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%	
EGITURA	Araba	442	395	409	462	22,4	22,3	22,7	23,1	13,1
	Gipuzkoa	673	672	653	677	35,1	35,3	35,8	35,7	3,7
	Bizkaia	1.191	1.137	1.139	1.150	42,4	42,3	41,5	41,3	0,9
	EAE	2.306	2.204	2.201	2.289	100,0	100,0	100,0	100,0	4,0
ADINEKO PERTSONAK	Araba	1.989	2.072	2.133	2.154	23,4	23,6	23,9	24,5	1,0
	Gipuzkoa	4.125	4.230	4.440	4.310	30,0	29,6	29,8	29,7	-2,9
	Bizkaia	6.619	6.794	7.002	7.155	46,6	46,8	46,3	45,8	2,2
	EAE	12.733	13.096	13.575	13.618	100,0	100,0	100,0	100,0	0,3
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	Araba	546	629	597	586	21,6	21,0	20,1	20,8	-1,8
	Gipuzkoa	1.067	1.149	1.201	1.271	26,5	28,0	28,8	29,5	5,9
	Bizkaia	1.593	1.636	1.708	1.763	51,9	51,0	51,2	49,7	3,2
	EAE	3.206	3.414	3.505	3.620	100,0	100,0	100,0	100,0	3,3
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAK ETA FAMILIAK	Araba	283	311	285	322	20,8	21,0	20,2	19,2	12,9
	Gipuzkoa	517	603	655	711	27,0	26,5	25,6	28,6	8,6
	Bizkaia	587	633	737	826	52,2	52,5	54,2	52,2	12,1
	EAE	1.387	1.546	1.677	1.859	100,0	100,0	100,0	100,0	10,9
BAZTERKETA	Araba	155	134	117	127	12,5	12,0	10,8	10,0	8,8
	Gipuzkoa	268	294	307	311	39,2	41,2	43,8	42,9	1,6
	Bizkaia	504	500	491	528	48,3	46,8	45,4	47,1	7,5
	EAE	926	927	914	966	100,0	100,0	100,0	100,0	5,7
GUZTIRA	Araba	3.414	3.540	3.540	3.651	21,2	21,0	20,9	21,0	3,1
	Gipuzkoa	6.650	6.947	7.255	7.281	32,0	32,4	33,0	33,2	0,4
	Bizkaia	10.494	10.701	11.076	11.421	46,7	46,5	46,1	45,8	3,1
	EAE	20.558	21.188	21.872	22.353	100,0	100,0	100,0	100,0	2,2

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzatza (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Arabako sektore bakoitzak enplegu osoan duen partaidetza orekatu samarra da, eta, oro har, % 19,2 eta % 24,5 balioen artekoa izan da 2018an. Salbuespen bakarra bazterketa-arloari buruzkoa izan da: Arabako dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 10,0 baino ez baitu hartzen. Esku-hartze horretan 2013-2014 aldian igoera handia osatu zen, baina, gero, 2015-2016 aldian, -% 13,5 jaitsi zen; eta 2016-2017 aldian, -% 12,7. Dena den, 2017-2018 aldian gorakada izan du: % 8,8.

2015-2016 aldiko enplegu-igoera handien ondoren, Araban 2016-2017 aldian haurrei, gazteei, emakumeei eta familiei arreta emateko sektoreari (-% 8,2) eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituztenei arreta emateko sektoreari (-% 5) hedatu dira galerak, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguari dagokionez. Enplegua oraindik ere nabarmen igo da 2017-2018 aldian sektore horietako lehenengoan: % 12,9 egin du gora, eta horri gehitu behar zaio 2015-2016 aldiko % 9,6ko igoera. Desgaitasuna edota gaixotasunak dituztenei arreta emateko sektorean, ordea, beherakadak jarraitu egin du azken urtean, zehazki, -% 1,8. Arabako enplegu osoan egin

duen ekarpena % 20,8koa izan da sektore horretan, beraz, haurrei, gazteei, emakumeei eta familiei arreta emateko sektoreari dagokion % 19,2tik gora.

Adineko pertsonentzako arreta-sektorean, ordea, enpleguak behera egin ez zuen arren, igoera-eritmoa moteldu eta % 2,9koa izan zen Araban 2016-2017 aldian (2015-2016 aldian, ordea, % 4,2koa). Igoera moteltzeko joera 2017-2018 aldian ere behatu da, eta enpleguak % 1 baino ez du gora egin. Hala eta guztiz ere, Arabak oraindik ere enpleguaren % 24,5eko ekarpena egin dio adineko pertsonentzako arreta-emateko EAEko sektoreari; eta batez besteko maila % 21,0 izan da.

Bestalde, 2015-2016 aldian osatu zen beherakada handiaren ostean (-% 10,5), 2016-2017 aldian gizarte-zerbitzuen egiturako dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua berriro igo zen, % 3,4. Joera hori biziki sendotu da 2017-2018 aldian, eta % 13,1 igo da. Arabako gizarte-zerbitzuen egiturako enpleguak EAEko lanpostu guztien % 23,1 hartzen du.

Ziurtatu daitekeen moduan, gizarte-zerbitzuen enpleguari buruzko datuetan erakusten da lanpostuetan zenbaterainokoa den azpikontratazioa. Hortaz, 37. taularen bitartez, komeni da aztertzea azpikontratazioak lurralde historiko bakoitzean zer pisu duen dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguan.

37. taula.

Gizarte-zerbitzuetan azpikontratatuta dauden langileak arreta-sektorearen eta lurralde historikoaren arabera (LOB enplegu zenbatetsi guztien %-a eta 2017-2018ko enplegu azpikontratatuaren bariazio absolutua eta %-etan)

Arreta-sektorea		LOBeko Langileak guztira: Azpikontratatuak				Bariazioa 2017/2018 aldian	
		2015	2016	2017	2018	Abs.	%
		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.		
EGITURA	Araba	4,7	5,7	5,4	4,7	0	-1,2
	Gipuzkoa	14,2	11,8	10,1	9,4	-2	-3,4
	Bizkaia	12,6	7,4	9,4	9,0	-4	-3,4
	EAE	11,6	8,5	8,8	8,2	-6	-3,2
ADINEKO PERTSONAK	Araba	11,9	12,7	11,9	10,2	-34	-13,3
	Gipuzkoa	38,4	38,1	37,6	34,7	-176	-10,6
	Bizkaia	28,5	28,2	28,0	27,7	23	1,2
	EAE	29,1	28,9	28,6	27,2	-187	-4,8
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA	Araba	32,4	31,0	33,6	31,8	-14	-7,1
	Gipuzkoa	11,5	10,6	9,9	9,1	-2	-2,1
	Bizkaia	3,1	3,2	3,3	3,7	8	14,8
	EAE	10,9	10,8	10,7	10,2	-8	-2,2
HAURRAK, GAZTEAK, EMAKUMEAk ETA FAMILIAK	Araba	80,8	79,0	73,7	77,3	39	18,4
	Gipuzkoa	78,6	76,0	75,9	70,4	4	0,8
	Bizkaia	71,4	73,3	75,0	78,6	96	17,4
	EAE	76,0	75,5	75,1	75,2	139	11,0
BAZTERKETA	Araba	48,0	54,9	59,2	59,2	6	8,8
	Gipuzkoa	16,8	14,9	19,0	16,9	-6	-10,0
	Bizkaia	3,1	3,4	3,5	3,8	3	17,5
	EAE	14,6	14,5	15,8	15,3	3	2,2
GUZTIRA	Araba	21,6	22,6	21,4	20,6	-4	-0,5
	Gipuzkoa	33,8	33,3	33,2	30,6	-183	-7,6
	Bizkaia	24,0	23,6	24,3	24,7	127	4,7
	EAE	26,8	26,6	26,8	26,0	-60	-1,0

Iturria: EOE, EGPS: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)



Datuen arabera, azpikontratazioa 2018an gehiago ere zabaldu da Gipuzkoan: guztira dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 30,6 hartu du. Proporzio horrek oraindik ere 2012ko % 29,7 gainditu du, baina azpikontratazioaren pisua, ordea, beherantz joan da 2018an, 2013an eta 2017an nagusitu ziren % 33,2 eta % 33,9 zenbatekoekin erkatuta. Zenbateko absolutuetan, enplegu azpikontratatuaren tamaina Gipuzkoan nabarmen jaitsi da 2017-2018 aldian (-% 7,6).

Tarteko posizio batean, enplegu azpikontratatuaren proportzioa % 24,7 izan da Bizkaian. Ehuneko hori era jarraituan handitu da 2012tik 2015era (% 22,6tik % 24ra); eta 2016an % 23,6ra jaitsi da. Beraz, badirudi lurralde horretan azpikontratazioaren goranzko joera aldatzen hasi dela. 2017an % 24,3 osatu ondoren, goranzko joera berreskuratu zuen epe luzeko adierazlean, eta 2018an % 24,7 izan zen, beraz, hori izan da azpikontratazioa 2012tik aurrera izan duen baliorik handiena. Bizkaian ere, lan azpikontratatuaren % 4,7 igo da 2017tik 2018ra.

Azpikontratazioaren ehunekorik txikiena Araban osatu da 2018an: dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 20,6 azpikontratatu da. 2012tik 2015era behera egin zuen: % 24,4tik % 21,6ra; baina 2016an gora egin zuen berriro, % 22,6raino. Urte horretatik aurrera, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegu azpikontratatuaren jaisten hasi zen epe luzera: 2017an % 21,4; eta 2018an, % 20,6. Izan ere, 2018ko erregistroa 2012koa baino txikiagoa izan da Araban baino ez: 2018an, % 20,6; eta 2012an, % 24,4; beraz, zenbatekoa ehuneko -3,8 puntu txikiagoa da.

Azpikontratazioaren pisua lurralde historikoaren eta arreta-sektorearen arabera aztertzen badugu, behatu egiten dugu Gipuzkoako joera ezberdina lotuta dagoela adineko pertsonentzako arreta-sektorean azpikontratazioak duen pisuarekin, zehazki, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegu horren % 34,7 hartzen du. Arreta-eremu horretan Bizkaian % 27,7ko eragina dauka azpikontratazioak; eta Araban, % 10,2 baino ez.

Azken urteotan azpikontratazioaren eraginak, ordea, behera egin du hiru lurralde historikoetan. Araban 2016ko % 12,7tik 2018ko % 10,2ra jaitsi da, beraz, ehuneko -2,4 puntu jaitsi da. Beste bi lurralde historikoetan 2015ean hasi zen jaisten azpikontratazioa. Gipuzkoan 2015eko % 38,4tik 2018ko % 34,7ra igaro da (ehuneko -3,7 puntu). Bizkaian jaitsi da gutxien: 2016ko % 28,5etik 2018ko % 27,7ra (ehuneko -0,8 puntu).

Halaber, honako datu hau ere interesgarria da: Araban eta Gipuzkoan adineko pertsonentzako arreta-sektoreko langile azpikontratatuaren pisuaren beherakada 2017an eta 2018an bizkortu zen. Prozesu horretan -% 10etik gorako beherakadak osatu ziren langile azpikontratatuaren artean (Arabian, -% 13,3; eta Gipuzkoan, -% 10,6). Bizkaian, ordea, txikiagoa izan da azpikontratazioaren beherakada, eta, kasu gehienetan gertatu da enplegu mota horren sorreraren goranzko lineak 2017-2018 aldian bere horretan jarraitu duelako (-% 1,2).

Gizarte-zerbitzuen egituraren eraginak ere Gipuzkoan metatzen da gainerako lurraldeetan baino azpikontratazio gehiago: dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 9,4 (Bizkaian, % 9,0; eta Araban, % 4,7, gutxieneko kopurua).

Jarduera-sektore horretan, ordea, 2012ko igoeraren ostean, 2015-2016 alditik aurrera pixkanaka ezarri da azpikontratazioaren ehunekoaren beheranzko joera. Gipuzkoan osatu da beheranzko joerarik handiena, azpikontratazioak etengabe egin baitu behera: 2015eko % 14,2tik 2018ko % 9,4ra (ehuneko -4,8 puntu gutxiago). 2016-2017 aldian gora egin arren, Bizkaian 2015eko % 12,6tik % 9,0ra aldatu da (ehuneko -3,7 puntu egin du behera). Araban, proportzioa 2016ko % 5,7tik 2018ko % 4,7ra jaitsi da. Hiru lurraldeetan, beraz, 2017-2018 aldian behera egin du gizarte-zerbitzuen

egituran azpikontratatuta dauden langile kopuruak: -% 1,2 Araban, eta -% 3,4 Bizkaian eta Gipuzkoan.

Arabian, ordea, azpikontratazio kopururik handiena desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako arreta-eremuan eta bazterketaren aurkako borroka-eremuan osatzen da.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako arreta-eremuan dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren % 31,8 azpikontratatu da Araban 2018an (Gipuzkoan % 9,1 eta Bizkaian % 3,7). 2017-2018 aldian, ordea, Araban behera egin dute azpikontratazio ehunekoak (2017an % 33,6 izan zen) eta lan azpikontratatuaren tamainak (-% 7,1), eta hori Gipuzkoan 2016-2017 aldian jada iragarri zen. Gipuzkoan azpikontratazioa 2015etik 2018ra murriztu zen (% 11,5etik % 9,1era), eta langile azpikontratatuaren zenbatekoetan beherakada absolutuak osatu ziren 2016tik 2018ra.

Bazterketaren aurkako programetan enpleguan azpikontratazioak 2018an izan duen pisua % 59,2ra iritsi da Araban. Gipuzkoan, % 16,9 izan da, eta Bizkaian % 3,5. Araban, 2017ko zenbatekoekin batera, 2012tik aurrerako ehunekorik handiena metatu da lan azpikontratatuaren, eta 2017tik 2018ra lan enplegu mota horrek berriro izan du gorakada handia (+% 8,8). 2015eko eta 2016ko erregistroetatik (% 16,8 eta % 14,9) gorakoa izan bada ere, Gipuzkoako % 16,9ko zenbatekoak behera egin du, 2017ko % 19rekin erkatuta. Hortaz, langile azpikontratatuaren tamainak -% 10,0 egin du behera 2017tik 2018ra.

Azkenik, haur, gazte, familia eta emakumeen sektorean bilakaera berezia behatu da. Kasu horretan, azpikontratazioak nagusi izaten jarraitu du lurralde guztietan, baina aldeak ez dira oso handiak izan haien artean. 2018an dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren azpikontratazio ehunekorik handiena Bizkaian osatu da: % 78,6; Araban, % 77,3; eta Gipuzkoan, % 70,4). Hala eta guztiz ere, langile azpikontratatuaren ehunekoak gora egin du Bizkaian eta Araban, 2017ko datuekin erkatuta (% 75etik % 78,6ra; eta % 73,7tik % 77,3ra, hurrenez hurren). Gipuzkoan % 75,9tik % 70,4ra jaitsi da, beraz, lurralde hori besteetatik urrundu da adierazle horretan. Bilakaera hori lotuta dago Gipuzkoan 2017-2018 aldian gertatu den langile azpikontratatuaren zenbateko absolutuaren egonkortasunarekin. Igoera % 0,8koa baino ez da izan, eta horrek kontraste handia sortzen du gainerako lurraldeetako emaitzekin (Arabian % 18,4 osatu da, eta Bizkaian % 17,4).

2017tik 2018ra azpikontratazioaren dinamika bereziki garrantzitsua izan da haur, gazte, emakume eta familientzako arreta-sektorean. Aldi horretan sektore hedakorretan sortu diren 179 lanpostu garbien % 77,6 gizarte-zerbitzuetako sektore horretan sortu dira. Dinamika hedakor hori Bizkaian eta Araban gertatu da, ia kasu guztietan.

Aitzitik, lan azpikontratatuaren murrizte aldera, zenbateko garbien arabera, ezabatu diren -238 lanpostu azpikontratatuaren % 88,1 adineko pertsonentzako arreta-sektorean metatu da. Azpikontratazioaren beheranzko linea Gipuzkoan bereziki handia izan da (238 lanpostu azpikontratatuaren 176, hots, guztizkoaren % 83,9 ezabatu da).



6. Kudeaketa-adierazle nagusiak zentro eta zerbitzuen arabera

Txosteneko azken atal honetan, kudeaketaren errealitatea aztertzeko zenbait adierazle jaso dira, egoitza-zentro eta egoitzakoak ez diren zentro moten arabera.

6.1. Egoitza-zentroak

38. taulan ikus daitekeen bezala, EAeko gizarte-zerbitzuen sisteman dauden egoitzako plaza guztien % 91,4 bete dira 2018an. Ehuneko hori 2016ko % 90,6 baino handiagoa da. Horrela, egonkortu egin da adierazle horren epe luzeko goranzko joera, 2012ko % 86,5ekin erkatuta, nahiz eta 2017ko adierazlearekin erkatuta, egonkortu den.

Okupazio-maila % 90etik gorakoa izan da sektore nagusietan (adineko pertsonak, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonak, haurrak edota familiak). Adineko pertsonen dagokienez, plazak betetzeko ehunekoak gora egin du: 2012ko % 85,5etik 2017ko % 92ra. Zenbateko orokorretan jada ikusi bezala, 2018ko % 91,8ko balioak egonkortasuna ekarri du, eta apur bat beheranzkoa izan da beheranzko joera horretan.

Adingabeen egoitzetan, ordea, handitu egin goranzko joera 2017tik 2018ra. Adierazlearen bilakaera sektore horretan alderraiagoa izan da. Dena den, balioak aldatu arren, 2012-2015 aldian % 94tik beherakoak izan ziren beti; 2016an, % 95,2; eta 2017an, % 94,6. 2018ko % 99,2ko aurrerapenak esan nahi du ia plaza guztiak bete direla egoitza horietan.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsona babesteko sektorean, plazak betetzeko tasa handiek egonkortasuna adierazten dute: 2014tik 2017ra, % 97,4 eta % 97,8 balioen artekoak izan dira. Ehuneko handixeagoa izan da, % 98,3, 2018an.

38. taula.
Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak.
2015-2018 okupazioaren %-a (erabiltzaileak/plazak)

Zentro/Zerbitzu mota	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	2018ko okupazioa (%)	2018ko okupazioa (%)	2018ko okupazioa (%)
Egoitza-zentroak	90,4	91,1	92,0	91,6	91,2	94,9	90,0
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	90,5	91,1	92,0	91,8	91,2	94,9	90,2
Egoitza-zentroak	97,6	97,7	97,4	98,3	97,4	98,3	98,6
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	97,5	97,7	97,4	98,3	97,4	98,3	98,6
Egoitza-zentroak	92,1	95,2	94,6	99,2	88,5	108,7	98,4
ADINGABEAK/FAMILIAK	92,1	95,2	94,6	99,2	88,5	108,7	98,4
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	76,7	67,4	78,2	83,1	100,0	58,3	83,8
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	63,7	50,9	57,7	60,3	71,9	76,7	50,8
EMAKUMEAK	68,5	58,2	67,4	69,5	77,1	71,4	66,9
Ostatu/egoitza-zentroak	78,1	81,3	81,8	79,7	98,6	80,5	74,6
Gaueko harrera-zentroak	93,0	86,9	94,8	93,8	90,6	92,0	96,2
BAZTERKETA	81,2	82,5	84,1	82,2	96,3	81,9	78,7
GUZTIRA	90,1	90,6	91,4	91,4	92,1	93,7	89,9

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak.

Sektore horietatik kanpo, bazterketa-arazoak dituzten pertsonak babesteko gaueko harrera-zentroetan ere plazen betetze-maila % 90eko ataritik gorakoa izan da. 2016an behera egin zuen: % 86,9 izan zen 2012tik aurrerako erregistrorik txikiena, eta, gainera, nabarmen murriztu zen,

2015eko % 93ko balioarekin erkatuta. 2017ko % 94,8ko balioa 2012ko, 2013ko eta 2015eko tasetara hurbildu zen berriro (garai hartako tasak % 93 eta % 95 balioen artekoak izan ziren). 2017ko balioarekin erkatuta, 2018ko % 93,8ko adierazlea txikixeagoa izan arren, oraindik ere tarte horren barruan dago.

Okupazio-ehunekoek goranzko joera dute genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan. 2015ean % 76,7ra igo ziren, baina 2016an berriro osatu ziren 2012-2014 aldiko zenbateko nagusiak, hots, % 65,7 eta % 67,6 balioen artekoak. 2017an, ordea, plazen % 78,2 bete da; eta 2018an, % 83,1, zehazki, 2012tik aurrerako baliorik handiena.

2018an, ordea, bazterketa-egoeran daudenentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan zertxobait murriztu da plazen betetze-adierazlea. Zehatzago esanda, 2015ean % 78,1era igo ziren; 2017an, % 81,8ra; baina 2018an, % 79,7ra jaitsi da. Zenbateko hori 2016-2017 aldiko mailetatik behera dago (% 81,3 eta % 81,8), eta 2012-2014 aldiko mailetatik baino askoz ere beherago (% 82,7 eta % 84,7).

Genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeei laguntzeko egoitza-zentroetan osatu da plazen betetze-mailarik txikiena 2018an: % 60,3. 2016ko % 50,9ko balioarekin erkatuta, aldiz, gora doa. Era berean, 2013-2014 aldiko % 44,8 ere gainditu da, baina 2015eko % 63,7 eta 2012ko % 64,8 baino txikiagoa da.

Lurraldearen arabera, hainbat alde hauteman ditzakegu 2018ko datuetan. Arabako betetze-mailak % 90etik gorakoak dira aztertu ditugun egoitza-zentro mota gehienetan. Honako etxebizitza eta egoitza-zentro hauetan osatu dira betetze-balio handienak, zehazki, % 95etik gorakoak: desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 97,4); genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan (% 100) eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako egoitzetan (% 98,6). Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan % 91,2 da betetze-tasa; gaueko harrera-zentroetan, % 90,6; eta adingabeentzako eta familientzako egoitza-zentroetan, % 88,5. Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako etxebizitzetan edota egoitza-zentroetan betetze-mailarik txikiena osatu da: % 71,9.

Gipuzkoan honako zentro hauetan 2018ko betetze-ehunekoak % 95 edo handiagoak izan dira: adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan (% 94,9) edo desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroetan (% 98,3). Gaueko harrera-zentroetan txikixeagoa (% 92,0) da adierazlea. Adingabeei eta familiei arreta emateko eremuan ehuneko ehuneko okupazioa gainditu da: % 108,7.

Gainerako egoitza-zentroetan askoz ere txikiagoak izan dira betetze-mailak, baina balioak ez dira beti izan EAEko batezbestekotik beherakoak. Genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta emateko etxebizitzetan edo egoitza-zentroetan betetze-maila % 76,7 izan da, eta hori izan da hiru lurraldeetako baliorik handiena 2018an. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan ere EAEko batez besteko balioa (% 79,7) gainditu da, eta % 80,5ekoa izan da. Gipuzkoako egoitzetako plazen betetze-maila gainerako lurraldeetako baino txikiagoa izan da genero-indarkeria edo tratu txarrak jaso ez dituzten emakumeentzako etxebizitzetan edo egoitza-zentroetan baino ez: Gipuzkoakoa % 58,3 da; baina Bizkaikoa, % 83,8; eta Arabakoa, % 100.

Bizkaian, bestalde, % 95etik gorako betetze-mailak daude desgaitasun edota gaixotasunak dituztenentzako egoitzetan (% 98,6) eta adingabeen zentroetan (% 98,4) eta gaueko harrera-zentroetan (% 96,2). Bestalde, % 90etik gorako mailak osatu dira adineko pertsonentzako egoitzetan (% 90,2), baina beste lurralde historikoetan baino txikiagoak izan dira (Arabian, % 91,2; eta Gipuzkoan, % 94,9).



Genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan betetze-maila txikiagoa da, baina EAEko batezbestekoa baino handiagoa da: EAEko batezbestekoa % 83,1 da, eta Bizkaikoa % 83,8. Bizkaiko betetze-balioak, ordea, EAEkoak baino txikiagoak dira honako etxebizitza eta egoitza-zentro hauetan: bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan (% 74,6), eta, batez ere, genero-indarkeria edo tratatu txarrak jasan dituzten emakumeentzako zentroetan (% 50,8).

39. taulan jaso dira erabiltzaile bakoitzeko gastu korronteari buruzko oinarrizko datuak. 2018an, batez besteko maila 33.056 eurokoa izan da gizarte-zerbitzuen sistemako egoitza-zentro guztietan. Balio hori 2017ko baino % 2,2 handiagoa da, erabiltzaile bakoitzeko urte horretan zenbatu zen 32.330 euroko gastuarekin erkatuta. Gastu-igoera 2015-2016 aldiko % 1 baino handiagoa izan da, eta 2016-2017 aldiko egonkortasuna hautsi da (% 0,0).

39. taula.
Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2015-2018
Gastu arrunta/erabiltzaileko

Zentro/Zerbitzu mota	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2017/2018
	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/erabiltzaile	gastua/era biltzaile 2018	gastua/era biltzaile 2018	gastua/era biltzaile 2018	
Egoitza-zentroak	30.401	30.759	31.246	32.283	37.339	32.783	30.528	3,3
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	30.370	30.745	31.246	32.227	37.339	32.783	30.432	3,1
Egoitza-zentroak	43.817	43.884	44.841	45.852	41.428	44.837	48.525	2,3
DESGAITASUNA/ GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	43.884	43.934	44.858	45.914	41.556	44.596	48.748	2,4
Egoitza-zentroak	65.491	66.995	66.086	55.083	70.725	76.198	42.949	-16,6
ADINGABEAK/FAMILIAK	65.491	66.995	66.086	55.083	70.725	76.198	42.949	-16,6
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	23.998	21.889	15.183	20.433	43.619	17.035	17.600	34,6
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	23.890	34.619	35.635	31.487	18.967	54.189	31.344	-11,6
EMAKUMEAK	23.934	28.088	24.375	26.141	24.902	45.520	22.926	7,2
Ostatu/egoitza-zentroak	16.297	15.816	13.544	14.005	11.581	13.981	14.772	3,4
Gauko harrera-zentroak	16.271	16.008	15.669	16.600	19.899	22.545	12.119	5,9
BAZTERKETA	16.291	15.860	13.963	14.512	13.819	15.132	14.168	3,9
GUZTIRA	31.996	32.314	32.330	33.056	37.144	33.774	31.396	2,2

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak.

Egoitza-zentroetan gasturik altuena 2018an berriro ere adingabeentzako zerbitzuetan osatu da: 55.083 euroko gastua egin da erabiltzaile bakoitzeko. 2015-2016 aldiko % 2,3ko igoeraren ondoren, zentro mota horietako gastuak -% 1,4 egin zuen behera 2016-2017 aldiran. Erabiltzaileei emandako arreta biziki handitu den arren, erabiltzaile bakoitzeko egin den gastua askoz ere gehiago murriztu da 2017tik 2018ra: 2017ko 66.086 euroekin erkatuta, -% 16,6 murriztu baita.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroetako gastuak (45.914 eurokoak) ere EAEko batezbestekoa gaiztatu du: 2017tik 2018ra % 2,4 egin du gora. Horrek erakusten du erabiltzaile bakoitzeko egiten den gastua pixkanaka baina etengabe ari dela igotzen, 2016-2017 aldiko % 2,1eko balioarekin eta 2015-2016 aldiko % 0,1eko balioarekin erkatuta.

EAEko batezbestekotik behera, antzeko balioak izan arren, adineko pertsonentzako egoitzetan osatu den gastua dago: 2018an 32.227 eurokoa izan da erabiltzaile bakoitzeko. Kasu horretan ere goranzko joera behatu da adierazlean: 2015-2016 aldian % 1,2ko igoera; 2016-2017 aldian % 1,6koa; eta 2017-2018 aldian, % 3,1.

Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan 31.487 euroko gastua osatu da erabiltzaile bakoitzeko. 2015ean 23.890 euroko gastua osatu zen erabiltzaile bakoitzeko, eta hori beherakada handia izan zen. Gero, 2016an 34.619 eurokoa izan zen, eta 2012tik aurrerako gasturik handienetakoa izan zen; izan ere, 2015eko balioarekin erkatuta, % 44,9 handiagoa zen. 2017ko gastuak ildo horretatik jarraitu du, eta berriro igo da, baina oraingoan askoz ere txikiagoa izan da igoera: % 2,9koa. Zentro horietan 2017-2018 aldian gastuak -% 11,6 egin du behera erabiltzaile bakoitzeko.

Erabiltzaile bakoitzeko gastua askoz ere urriagoa da gainerako egoitza-zentroetan. Genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan 2018an 20.433 euroko gastua osatu da; bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko gaueko harrera-zentroetan, 16.600 eurokoa; eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan, 14.005 eurokoa. Hiru zentro mota horietan behatu da adierazleak gora egin duela 2017tik 2018ra (+% 34,6; +% 5,9; +% 3,4). Igoera horrek kontraste handia sortzen du 2015-2017 aldiko beherakada handiekin.

2018an erabiltzaile bakoitzeko egin den gastuak oraindik ere ez du ematen lurraldeko joera unibokorik. Adibidez, Arabako gastua adineko pertsonen kasuan gailentzen da, erabiltzaileko 37.339 euroekin (32.783 Gipuzkoan eta 30.528 Bizkaian). Indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitzetan eta etxebizitzetan Araban egin den gastua beste lurraldeetan egin dena baino handiagoa izan da: Araban 43.619 euro gastatu dira erabiltzaile bakoitzeko; Bizkaian, 17.600 euro; eta Gipuzkoan, 17.035 euro.

Ostera, Bizkaia nabarmentzen da desgaitasun edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzetan erabiltzaileko gastu handiena bertan osatu delako: 48.748 euro, 44.596 Gipuzkoan eta 41.556 Araban. Halaber, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan ere gainerako lurraldeetako gastua baino handiagoa izan da Bizkaikoa 2018an: 14.772 euro, 13.981 Gipuzkoan eta 11.581 Araban.

Gainerako egoitza-zentroetan, ordea, Gipuzkoan egin da 2018an gasturik handiena. Adingabeen eta familien sektorean alde handiak daude (Gipuzkoan 76.198 euro; Araban, 70.725 euro; eta Bizkaian, 42.949 euro); eta indarkeria jasan duten emakumeentzako etxebizitza edota egoitza-zentroetan ere bai (Gipuzkoan, 54.189 euro; Bizkaian, 31.344 euro; eta Araban, 18.967 euro). Aldeak hain handiak ez izan arren, bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko gaueko harrera-zentroetan ere agerikoak izan dira: Gipuzkoan 22.545 euro; Araban, berriz, 19.899 euro; eta Bizkaian 12.119 euro.

40. taulan ikus daitezke erabiltzaileen urteko ekarpenari buruzko datuak. Ikus daitekeen bezala, erabiltzaileek egoitza-zentroak eta horiekin lotutako zerbitzuak mantentzeko egiten dituzten ekarpenetan, aipagarria da adineko pertsonen ordaintzen dituzten kuota altuak.



Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan kuotak 2013tik aurrera etengabe egin du gora erabiltzaile bakoitzeko: 2013an 13.569 euro, 2017an 14.592 euro eta 2018an 15.459 euro¹³. 2015-2017 aldian, ekarpenak % 1,6 egin zuen gora urtean; baina igoera % 5,9raino heldu zen 2017-2018 aldian.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza-zentroetan batez besteko kuota 5.071 eurokoa izan da 2018an. Kasu horretan ekarpenak beheranzko joera izan du: 2015eko 6.012 eurokoa izan zen, beraz, -% 8,7ko beherakada izan zuen 2015-2016 aldian. Beherakada horrek era neurritsuagoan aurrera egin du: 2016-2017 aldian, -% 5; eta 2017-2018 aldian, -% 1,9.

2018an bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko etxebizitzetan edota egoitza-zentroetan txikiagoa izan da batez besteko kuota. Zehazki, 479 euroko batez besteko kuota osatu da erabiltzaile bakoitzeko; eta hori 2017ko 543 euroko kuota edo 2015-2016 aldiko 493 eurokoa baino txikiagoa da.

2018ko lurraldekako datuek erakusten dutenez, erabiltzaileko ekarpenik altuena Bizkaian dago adinekoentzako eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan. Lehen kasuan ekarpena 16.621 eurokoa izan da erabiltzaile bakoitzeko; eta, Araban, ordea, 14.356 eta Gipuzkoan, 14.077. Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan, Bizkaiko ekarpena 755 eurokoa da; Arabakoa, 395 eurokoa; eta Gipuzkoakoa, 237 eurokoa.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzetan, ordea, batez besteko kuotarik handiena Arabakoa izan da 2018an: 6.077 Araban, 5.468 Gipuzkoan eta 4.327 Bizkaian.

40. taula.
Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2015-2018
Urteko batez besteko kuota/erabiltzaileko

	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2017-2018
	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	2018ko batez besteko kuota	2018ko batez besteko kuota	2018ko batez besteko kuota	
Zentro/Zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	14.122	14.373	14.592	15.490	14.356	14.077	16.621	6,2
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	14.103	14.367	14.592	15.459	14.356	14.077	16.559	5,9
Egoitza-zentroak	6.041	5.480	4.945	5.068	6.077	5.468	4.327	2,5
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	6.012	5.446	5.171	5.071	6.042	5.462	4.365	-1,9
Ostatu/egoitza-zentroak	493	493	543	479	395	237	755	-11,8
Gaueko harrera-zentroak	59	0	0	0	0	0	0	0,0
BAZTERKETA	391	378	436	386	288	205	583	-11,6
GUZTIRA	11.344	11.448	11.333	11.772	11.059	10.508	12.743	3,9

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatzeko adierazleak. Kuota -0- duten zentroak barne dira.

¹³ Erreferentzia-zentro guztiak zenbatu dira, baita erabiltzaile bakoitzeko kuotarik kobratzen ez dutenak ere.

41. taulan daude ikusgai abenduaren 15ean egoitza-zentro eta -zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileei buruzko datuak. Horien arabera, 2018an dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enplegua kontuan hartuta, EAEko egoitzetan 46,8 langile zeuden 100 erabiltzaileko. Betetze-maila horrek erakusten du epe luzeko gorako joera egon dela 2017tik 2018ra. Hala, 2012. eta 2013. urte artean egonkortu ondoren (44,1 eta 43,9), 2013tik aurrera langileen kopuruak etengabe egin du gora: 2015ean, 100 erabiltzaileko 45,9 langile zeuden; 2016an, 46,4; 2017an eta 46,7 eta 2017an 46,8. Hala eta guztiz ere, adierazlea handitzeko prozesua moteldu da, eta 2015-2016 aldian % 1,2 egin du gora; 2016-2017 aldian, % 0,6; eta 2017-2018 aldian, % 0,1.

41. taula.
Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2015-2018
LOB langile propio okupatuak/100 erabiltzaileko

	2015	2016	2017	2018				Bariazioa % -tan EAE 2017- 2018
	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	Langile okupatuak/era biltzaile	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	
Zentro/Zerbitzu mota	2018ko langile okupatuak/era biltzaile	2018ko langile okupatuak/era biltzaile	2018ko langile okupatuak/era biltzaile	2018ko langile okupatuak/era biltzaile	2018ko langile okupatuak/era biltzaile	2018ko langile okupatuak/era biltzaile	2018ko langile okupatuak/era biltzaile	
Egoitza-zentroak	47,2	47,9	49,1	49,8	63,5	44,1	49,1	1,6
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	47,2	47,9	49,1	49,7	63,5	44,1	48,9	1,4
Egoitza-zentroak	64,4	65,3	67,9	67,8	41,9	72,5	75,1	-0,2
DESGAITASUNA/GAI XOTASUNA (atsedena/babesa)	64,4	65,5	67,9	67,7	41,7	72,1	75,3	-0,2
Egoitza-zentroak	27,3	28,0	28,5	24,3	28,8	54,2	11,1	-14,8
ADINGABEAK/FAMILIAK	27,3	28,0	28,5	24,3	28,8	54,2	11,1	-14,8
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	32,5	26,5	25,5	29,4	0,0	0,0	35,4	15,4
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	4,2	6,9	6,1	6,3	0,0	8,7	9,6	4,2
EMAKUMEAK	15,7	17,0	16,7	17,5	0,0	6,7	25,4	4,3
Ostatu/egoitza-zentroak	26,2	24,6	20,5	21,7	4,5	19,2	29,6	5,7
Gaueko harrera-zentroak	15,8	15,2	15,0	15,5	18,9	24,8	9,2	3,4
BAZTERKETA	23,8	22,4	19,4	20,5	8,4	19,9	24,9	5,4
GUZTIRA	45,9	46,4	46,7	46,8	52,9	44,4	46,4	0,1

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

2018an betetze-maila Araban da handiagoa: 100 erabiltzaileko 52,9 pertsonak dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enplegua dute; hori 2015eko 49,8 baino gehiago da, baita 2016ko 49,4 baino gehiago ere, baina 2017ko 52,5 baino gutxiago. Bizkaian 46,4 pertsonak lan egiten dute; beraz, behearanzko joera dago 2016ko 47,5eko eta 2017ko 46,7ko balioekin erkatuta. Gipuzkoan osatu da mailarik txikiena: 100 erabiltzaileko 44,4 pertsonak lana dute; baina lurralde horretan goranzko joera dago 2015eko 42,0ko balioarekin erkatuta.

Jarduketa-esparru edo sektore bakoitza aztertzen badugu, ikus daiteke 2018an 100 erabiltzaileko langile-kopururik handiena desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroetan dagoela, 67,7 langile, hain zuzen ere, eta dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enplegua



kontuan hartuta. Balio hori 2012ko 61,1 pertsonarekin eta 2017ko 67,9 pertsonarekin erkatzen badugu, ikusten da goranzko joera eten dela. Adierazlearen beherakada 0,2 puntukoa ez bada ere, adierazlearen goranzko joera aldatu da: 2015-2016 aldian % 1,7 egin zuen gora; eta 2016-2017 aldian, ordea, % 3,6. 2017-2018 aldian –% 0,2ko beherakada behatu da, oso txikia izan da, baina esanguratsua ere bai, adierazlearen goranzko joera aldatu duelako.

Lurraldearen arabera aldea esanguratsuak izan dira kasu horretan: Bizkaian gehienez ere 75,3 pertsonak lan egiten dute Bizkaiko 100 erabiltzaileko; Gipuzkoan, 72,1; eta Araban, 41,7.

Langile kopuruak batezbestekotik gorakoak dira adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuetan: 100 erabiltzaileko 49,7 langile zeuden 2018an. Kasu horretan adierazleak % 1,4ko gorakada izan du, 2017ko 49,1eko balioarekin erkatuta. 2016-2016 aldiko % 2,5 baino txikiagoa da, baina 2015-2016 aldiko % 1,5etik gertu dago. 2012ko datuekin alderatuta (46,3 langile), hazkundea ez da desgaitasun edota gaixotasunen sektorean izandakoa bezain indartsua.

Lurraldeen arabera, adineko pertsonentzako egoitzetan, langile kopuru handiena Araban osatu da, 100 erabiltzaileko 63,5 langile baitzeuden, beraz, alde handiz gainditu dira Bizkaiko 48,9 langileak eta Gipuzkoako 44,1 langileak.

Gainerako sektoretan, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zuten langileen kopurua nabarmen jaitsi da 100 erabiltzaileko, nahiz eta oraindik ere 24,3koa den adingabe edo familientzako egoitza-zentroetan. Kasu horretan 2015-2016 aldian adierazleak % 2,6 egin du gora; 2016-2017 aldian, % 1,8; 2017-2018 aldian, ordea, beherakada argia osatu da, eta adierazleak –% 14,8 beherakada izan du. 2017an gehieneko balioa osatu zen: 28,5 langile zenbatu ziren erabiltzaile bakoitzeko. 2018ko balioa, ordea, 2012koa baino txikiagoa da, eta 2013ko baliora hurbildu da, urte hartan 100 erabiltzailetik 24,5 pertsonak dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zuten.

Kasu horretan, Gipuzkoan osatu da dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua duten langileen kopuru handiena 100 erabiltzaileko: 54,2; beraz, Araban (28,8) eta Bizkaian (11,1) osatutakoa baino handiagoa da.

2017-2018 aldian adingabeentzako zentroetan jaitsi da langileen eta erabiltzaileen arteko proportzioa; hori dela eta, langile kopurua 100 erabiltzaileko handiagoa izan da genero-indarkeria jasan ez duten emakumeentzako egoitza-zentroetan. 2018an 29,4 langile zeuden 100 erabiltzaileko (Bizkaian, 35,4). Horrek igoera erakusten du 2017ko 25,5 langile kopuruarekin erkatuta, eta 2015etik aurrera behera egin ondoren (urte horretan 32,5 langile zenbatu ziren). Nolanahi ere, zifra hori 2012ko 22,2 eta 2013ko 22,9 baino handiagoa da.

Kontuan hartu dugun ratio hori 21,7 da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzetan edota egoitzetan. Eremu horretan 2017a arte beheranzko joera behatu da, 2015eko 26,2 langile kopuruarekin erkatuta. 2017ko 20,5 langile kopuruarekin erkatuta, gora egin duen arren, 2012tik aurrera hori izan da erregistro txikienetako hirugarrena, urte hartan 21,5eko ratioa osatu zen. Gehieneko kopurua Bizkaian osatu da (29,6 lanpostu 100 erabiltzaileko; Gipuzkoako 19,2tik gora).

Indarkeria edo tratatu-txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitzak alde batera utzita (dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua dute 6,3 langilek 100 erabiltzaileko), ratorik txikiena baztertutako pertsonentzako gaueko harrera-zentroi dagokie: 2018an dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua dute 15,5 langilek 100 erabiltzaileko; eta balio hori 2016koa (15,2) eta 2017koa (15,0) baino handiagoa da. Langile kopururik handiena erabiltzaile bakoitzeko Gipuzkoan osatu da kasu horretan: 24,8; Araban, 18,9; eta Bizkaian, 9,2.

Edonola ere, emakumeei eta bazterketa-egoeran dauden pertsonei arreta emateko eremuan hauxe nabarmendu behar da: dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enplegua duten langile kopuruak 100 erabiltzaileko 2015etik 2017ra (edo urte horietako une batean) beherakada handiak izan ondoren, zentro mota horretan 2017-2018 aldian gora egin du langile kopuruak erabiltzaileko.

42. taulan, egoitza-zentroetako berezko langileek jasotzen duten batez besteko soldatari buruzko datuak agertzen dira (dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enpleguari jarraikiz neurtuta). 2018an batez besteko soldata 37.284 eurokoa izan da. Balio horrek % 3,3ko gehikuntza dakar 2017ko 36.079 plazekin alderatuta. Horrela, aldatu egin da 2016-2017 aldiko -% 0,6ko beheranzko joera; eta 2012tik aurrerako goranzko joerari eutsi zaio (urte horretan 34.607 euroko zifra osatu baitzen). 2017-2018 aldiko % 3,3ko igoera oso handia da, 2015-2016 aldiko % 0,8ko gorakadarekin erkatzen badugu.

42. taula.
Gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroak. 2015-2018
Batez besteko ordainsaria/LOB langile

	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2017/2018
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	2018ko batez besteko ordainsaria	2018ko batez besteko ordainsaria	2018ko batez besteko ordainsaria	
Zentro/Zerbitzu mota								
Egoitza-zentroak	33.765	34.076	33.904	35.319	37.851	36.429	33.802	4,2
ADINEKO PERTSONAK (atsedena/babesa)	33.765	34.076	33.904	35.319	37.851	36.429	33.802	4,2
Egoitza-zentroak	44.476	44.527	44.178	46.059	51.819	41.938	47.788	4,3
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA (atsedena/babesa)	44.474	44.415	44.200	46.118	51.819	41.984	47.833	4,3
Egoitza-zentroak	56.369	55.363	50.982	46.604	49.597	25.217	87.257	-8,6
ADINGABEAK/FAMILIAK	56.369	55.363	50.982	46.604	49.597	25.217	87.257	-8,6
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak ez)	24.285	25.031	24.536	29.206			29.206	19,0
Ostatu/egoitza-zentroak (indarkeriaren biktimak)	33.276	31.072	33.844	30.973		40.439	27.803	-8,5
EMAKUMEAK	25.705	26.226	26.052	29.536		40.439	29.000	13,4
Ostatu/egoitza-zentroak	32.897	34.713	35.451	32.946	24.833	36.463	30.978	-7,1
Gaueko harrera-zentroak	50.835	50.434	51.495	52.397	66.064	48.670	47.103	1,8
BAZTERKETA	35.682	37.192	37.895	35.824	49.800	38.504	32.331	-5,5
GUZTIRA	35.988	36.289	36.079	37.284	39.735	36.978	36.618	3,3

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Arreta-sektore handietan 2017a arte adingabeei eta familiei arreta emateko egoitza-zentroetan metatu da batez besteko ordainsaririk handiena. Adineko pertsontzako zentroekin eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsontzako zentroekin erkatuta, egoerak egonkor jarraitu du, baina batez besteko ordainsaria zertxobait jaitsi da 2018an, 46.604 eurokoa izan baita. 2012tik 2013ra gastua nabarmen igo zen: 51.485 eurotik 56.881 eurora. Harrezkero, dedikazio osoaren baliokidetasunaren araberrako enplegu bakoitzeko batez besteko ordainsaria pixkanaka murrizten joan da, gaur egungo egoerara iritsi arte. Beheranzko joera, zehazki, 2016tik aurrera bizkortu zen, 55.363 euro osatu ondoren. Horiek horrela, adingabeei eta familiei arreta emateko egoitza-zentroetako langileen batez besteko ordainsariak 2016-2017 aldian -% 7,9 murriztu dira; eta 2017-2018 aldian -% 8,6.



Bestalde, gaueko harrera-zentroetako batez besteko ordainsaria handiagoa da, gainerakoekin erkatuta, eta sendotu egin da, 52.397 euroko balioa osatuta. Adingabeei arreta emateko zentroetan ez bezala, 2015. eta 2016. urte arteko beherakadaren ostean, kasu horretan batez besteko ordainsariak goranzko joerari eutsi dio berriro, 2012ko 44.087 euroko balioa osatu zenetik. Horrela, 2016-2017 aldian ordainsariak % 2,1 egin du gora; eta 2017-2018 aldian, % 1,8.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta-emateko eremuan, EAEko egoitza-zentroetako batezbestekoa baino handiagoa da batez besteko ordainsaria dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua duen langile bakoitzeko. 2018an 46.118 eurokoa izan zen; beraz, balio hori eta adingabeen edo familien babeserako zentroetako oso antzekoak dira. Kasu horretan 2017-2018 aldian batez besteko ordainsaria % 4,3 igo da, beraz, 2015-2017 aldiko beheranzko joera hautsi da: 2015-2016 aldian -% 0,1; eta 2016-2017 aldian, -% 0,5. 2012ko 44.017 euroko balioa osatu zenetik, eta 2017an oraindik ere batezbestekoa 44.200 eurokoa izanik, 2017-2018 aldian, 2012tik aurrera, lehen igoera esanguratsua osatu da desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta emateko egoitza-zentroetako langileen batez besteko ordainsarietan.

Adineko pertsonentzako egoitza-zentroetako langileen batez besteko ordainsaria gizarte-zerbitzuen batezbesteko orokorretik beherakoa da: 2018an 35.319 eurokoa izan da. Kasu horretan 2016-2017 aldian hautsi egin da aurreko gorakada txikia: zehazki, 2012an 32.254 eurokoa izan zen, eta 2016an 34.076 eurokoa. 2016ko balioarekin erkatuta, 2017koak -% 0,5 egin zuen behera (33.094 eurokoa izan zen), eta hori izan zen goranzko joeraren lehenengo aldaketa. 2017-2018 aldian, ordea, batez besteko ordainsariak % 4,2 egin du gora. Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta emateko zentroetako batez besteko ordainsaririk handiena 2018an osatu da, 2012tik.

Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguen batez besteko ordainsaria txikiagoa da bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko etxebizitzetan eta egoitza-zentroetan: 2018an 32.946 eurokoa izan da. 2012tik 2015era -% 1,2 egin zuen behera. Gero, 2015-2017 aldian gora egin zuen ordainsariak: 2015-2016 aldian % 5,5 egin zuen gora; eta 2016-2017 aldian % 2,1. 2017tik 2018ra, ordea, behera egin du: -% 7,1, 2017ko 35.451 euroekin erkatuta.

Indarkeria jasan duten emakumeentzako etxebizitzetan edota egoitza-zentroetan baino ez du batez besteko ordainsariak 30.000 euroko kopurua gainditu. Zehazki, batez besteko ordainsaria 30.973 eurokoa izan da 2018an dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua izan duen langile bakoitzeko. 2016-2017 aldiko % 8,9ko igoeraren ondoren, 2017tik 2018ra batez besteko ordainsariak -% 8,5 egin du behera, eta 2016ko balioetara itzuli da (31.072 eurora), zeinak 2015ekoak baino -% 6,6 txikiagoak izan baitziren.

Indarkeria jasan ez duten emakumeentzako etxebizitzetan eremuan 2017-2018 aldiak aldaketa ekarri du, zehazki, % 19ko igoera. Igoera horrek konpentsatu du 2016-2017 aldiko -% 2ko beherakada batez besteko ordainsarietan. Kasu horretan ordainsaria 29.206 eurokoa izan da. Hala eta guztiz ere, EAEko egoitza-zerbitzuetako mailarik txikiena da.

Gizarte-zerbitzuen egoitza-eremuan Araban osatu da batez besteko ordainsaririk handiena dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua duen langile bakoitzeko: 2018an 39.735 eurokoa izan da. Bestalde, Bizkaiko eta Gipuzkoako mailak gainditu ditu, antzekoak izan arren (36.618 euro eta 36.978, hurrenez hurren).

Arabako batez besteko ordainsaririk handiena adineko pertsonentzako egoitza-eremuan osatu da (Araban 37.851 euro; Bizkaian, 33.802 euro; eta Gipuzkoan, 36.429 euro), baita desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako arreta-eremuan ere (Araban, 51.819 euro; Bizkaian, 47.833 euro; eta Gipuzkoan, 41.984 euro). Bazterketa-egoeran dauden pertsonak babesteko gaueko

harrera-zentroetan ere aldeak daude: Araban, 66.064 euro; Bizkaian, 48.670 euro; eta Gipuzkoan, 47.103 euro).

2018an, ordea, batez besteko ordainsaria askoz ere handiagoa izan da Bizkaian, adingabeentzako egoitza-zentroetan. Adingabeentzako egoitzetan, Bizkaiko langileek dute batez besteko ordainsaririk altuena, 87.257 euro (dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua kontuan hartuta); Arabako 49.597 eta Gipuzkoako 25.217 euroen gainetik.

Emakumeentzako egoitzetan, Gipuzkoako lurraldean ordainsaririk handiena osatu da: 40.439 euro dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegu duen langile bakoitzeko, beraz, Bizkaiko 29.000 euroen gainetik dago.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza eta egoitza-zentroetan ere Gipuzkoan dituzte ordainsaririk onenak (dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zenbatuta), 36.463 euro jasotzen baitute batez beste, Bizkaian eta Araban baino gehiago (30.978 eta 24.833 euro, hurrenez hurren). Aurrez esan bezala, gaueko harrera-zentroetan, azkenik, Araban daude ordainsari altuenak.

6.2. Egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuak

43. taulan ikus daitekeen bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sistematan zeuden egoitzakoak ez diren plaza guztiak (% 100) beteta daude 2018an. Horrek sendotu du 2017an behatu zen aldaketa handia, aurreko joerarekin erkatuta. Zehazki, 2013ko % 98,4tik 2016ko % 95,8ra aldatu da. 2017ko betetze-tasa % 98,8ra igo da, horixe izan baita 2012-2017 aldiko tasarik handiena, eta 2018an batez beste % 100ekoa izan da.

43. taula.
Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak
2015-2018 okupazioaren %-a (erabiltzaileak/plazak)

	2015	2016	2017	2018	2018ko		
	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Okupazioa (%)	Araba okupazioa (%)	Gipuzkoa okupazioa (%)	Bizkaia okupazioa (%)
Zentro/Zerbitzu mota							
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	97,5	86,1	100,0	101,1	80,0		117,3
Eguneko laguntza-zentroak	86,1	85,7	84,3	84,6	83,3	85,8	83,9
Jantokiak	71,0	74,6	68,4	82,7	80,8		90,3
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	96,5	90,6	98,7	98,9	100,0	94,1	100,0
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	85,1	84,8	82,9	85,1	82,9	86,0	85,8
Eguneko zentroak	98,0	97,9	98,6	97,2	97,6	95,6	98,5
Suspertze- eta arreta-zentroak	91,0	99,9	98,6	101,0	169,7	99,4	97,6
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	98,3	98,9	99,0	98,3	99,2	100,0	96,9
Laneratze-zentroak	100,0	100,0	100,0	100,0		100,0	100,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	97,3	98,8	98,9	98,5	102,2	98,6	97,8
Adingabeentzako/familiarentzako eguneko arreta	93,7	110,2	96,5	149,4	100,0	182,8	181,0
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	93,7	110,2	96,5	149,4	100,0	182,8	181,0
Eguneko zentroak	91,8	101,9	138,8	138,5	100,0	138,5	145,0
Jantoki sozialak	224,0	150,3	161,9	145,8	176,7		138,6
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	132,0	116,0	147,4	141,2	138,0	138,5	142,3
GUZTIRA	96,4	95,8	98,8	100,0	94,1	97,0	104,4

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardura erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



Zentro eta zerbitzu adierazgarriei erreparatuz gero, alde esanguratsuak ikusi dira okupazio-mailetan. Batetik, zaintzaileei atsedeen emateko eta laguntzeko zerbitzuen betetze-kopuruak

% 95 eta % 100 ingurukoak dira (eta egoitzakoak ez diren beste zerbitzu batzuetan ere bai), adineko pertsonen arreta emateko zentroetan, eguneko zentroetan edo desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen eguneko arreta emateko zerbitzuetan.

Zerbitzu horietako batzuetan, eta, bereziki, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen eguneko arreta emateko zerbitzuetan, oso egonkorak dira % 100eko betetze-mailak. Beste batzuk, ordea, gora egin dute 2016tik aurrera. Halaxe gertatu da zaintzaileei atsedeen emateko eta laguntzeko zerbitzuetan, baita egoitzakoak ez diren adineko pertsonen zuzendutako beste zerbitzu batzuetan ere. Lehenengo kasuan, betetze-maila 2014ko % 107,1etik 2016ko % 86,1era jaitsi da, baina 2017an % 100era igo da, eta 2018an % 101,1era. Egoitzakoak ez diren beste zentro batzuetan, 2014-2015 aldiko % 95,7tik eta % 96,5etik 2016ko % 90,6ra jaitsi ondoren, betetze-tasa % 98,7ra igo zen 2017an, eta proportzioa % 98,9ra igo da 2018an. Horrela, 2013-2015 aldian ohikoak ziren % 95etik gorako mailak berreskuratu dira.

Aipatutako zentro horietan ez bezala, zerbitzu batzuetan betetze-mailak nabarmen jaitsi dira, eta oso urrun daude betetze-maila orokorretik. Kasu batzuetan betetze-ehunekoa batezbesteko orokorretik oso beherakoa izan da, eta % 90etik beherako mailak osatu dira. Adineko pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan, adibidez, betetze-maila % 84,6koa izan da 2018an. Adineko pertsonentzako jantokietan ere % 82,7 izan da betetze-maila, baina kasu horretan goranzko joera dago, 2015-2017 aldiko kopuruekin erkatuta (% 68,4tik % 74,6ra igo zen).

Beste zentro eta zerbitzu mota batzuetan kontrako egoera dago. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentroetan betetze-maila handienak ere gainditu dira. Gehiegizko betetzea, esaterako, beste behin ere, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan behatu da: 2018an % 145,8ko betetze-tasa izan dute. 2013ko % 260 eta 2015eko % 224 osatu ondoren, 2016an % 150,3ra jaitsi zen, baina 2017an berriro igo zen % 161,9raino. 2018ko zenbatekoa, beraz, bat dator gehiegizko betetze-maila pixkanaka murrizteko joerarekin.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan ere gehieneko betetze-maila gainditu da, eta % 138,5 izan da 2018an. Kasu horretan dinamika hori hamarkadaren hasieran jada behatu zen: 2012ko % 93,3tik 2014ko % 105era igo baitzen. 2015ean % 91,8ra jaitsi zen, baina horren ondoren, 2016an gehiegizko betetzea berriro osatu eta % 101,9ra igo zen. 2017ko ehunekoak, ordea, aldaketa kualitatiboa ekarri zuen, eta gehieneko betetze-maila ezagun guztiak gainditu zituen (% 138,8ra igo baitzen). 2017-2018 aldian adierazlea egonkor samar jarraitu du.

Adingabeei edo familiei eguneko arreta emateko zerbitzuetan, 2014ko eta 2015eko % 93,4tik eta % 93,7tik 2016ko % 110,2ra igo zen, beraz, bazirudien 2017ko % 96,5eko kopuruak 2017ko gehiegizko okupazioa murrizteko joera iragar zezakeela. 2018an, ordea, gehiegizko betetze-maila are gehiago igo da, eta % 149,4ra ere iritsi da; hori izan da egoitzakoak ez diren zerbitzuetan 2018an osatu den tasarik handiena.

Lurraldearen arabera, egoitzakoak ez diren zerbitzuen batez besteko betetze-tasa % 104,4ra iritsi dira Bizkaian, eta % 97ra Gipuzkoan. Tasa hori txikixeagoa da Araban, % 94,1ekoa, beraz, han ere ia plaza guztiak bete dira.

Zentroak eta zerbitzuak lurraldearen arabera aztertzen baditugu, ez dago alde handirik, baina alderdi garrantzitsu batzuk aipa daitezke, esku-hartze nabarmenei buruz. Betetze-maila txikiagoak dituzten zentroein eta zerbitzuein dagokienez, egoitzakoak ez diren adineko pertsonen zuzendutako zerbitzuetan % 90etik beherakoak izan dira betetze-mailak (egoitzakoak ez diren gainerako zentroak

alde batera utzita). Egoera hori Gipuzkoan eta Bizkaian ere gertatu da. Kasu eta lurralde horietan betetze-maila % 80 eta % 85,8 balioen artekoa izan da.

Egoitzakoak ez diren zerbitzuetako betetze-maila gaintzeari dagokionez, adineko pertsoneri arreta emateko eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsoneri arreta emateko zerbitzuen arloan, egoera hori soilik osatu da Araban, zehazki, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonak birgaitzeko edota zaintzeko zentroetan (zehazki, % 169,7 osatu da).

Adingabeen edota familien eguneko arreta-zentroetan, betetze-mailak Gipuzkoan eta Bizkaian gaintu dira (% 182,8 eta % 181,0, hurrenez hurren).

Bazterketa-egoeran dauden pertsoneri arreta emateko zentroetan, Araban eta Bizkaian gaintu dira, bereziki, gizarte-jantokietan (% 176,7ko eta % 138,6ko betetze-mailak osatu baitira). Eguneko zentroetan, arazo horiek, batez ere, Gipuzkoan eta Bizkaian gertatu dira, eta betetze-maila handiegia % 138,5koa eta % 145koa izan dira, hurrenez hurren.

Erabiltzaile bakoitzeko gastu korronteari buruzko datuak 44. taulan jaso dira. 2018an batezbestekoa 10.729 eurokoa izan da gizarte-zerbitzuen sistemako egoitzakoak ez diren zentro guztietarako. Zenbateko horrek -% 2,5 egin du behera, 2017ko balioarekin erkatuta. Horrela, 2014ko beherakadak aurrera egin du, urte horretan 12.025 euroko gastua osatu baitzen. 2017ko zenbatekoa 2012tik lehenengo aldiz izan da 11.424 eurokoa baino txikiagoa, baina beheranzko joera 2017ra eta 2018ra hedatu da.

44. taula.
Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak.
2015-2018 Gastu arrunta/erabiltzaileko

Zentro/Zerbitzu mota	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE2017/2018
	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile	Gastua/erabiltzaile 2018	gastua/erabiltzaile 2018	gastua/erabiltzaile 2018	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	7.439	7.965	6.455	6.774	8.517		5.860	4,9
Eguneko laguntza-zentroak	15.739	15.947	16.489	17.485	20.330	17.655	16.006	6,0
Jantokiak	1.965	1.905	1.846	2.346	1.822		4.181	27,0
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	3.404	3.764	3.753	3.633	2.589	2.468	4.948	-3,2
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	13.937	14.228	14.446	14.681	12.054	17.344	14.245	1,6
Eguneko zentroak	16.975	16.794	16.549	16.446	24.092	15.377	16.211	-0,6
Suspertze- eta arreta-zentroak	9.281	8.879	10.748	9.869	12.202	8.659	9.996	-8,2
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	10.085	10.780	11.738	11.215	14.283	10.229	10.823	-4,5
Laneratze-zentroak	2.020	1.124	786	575		165	1.943	-26,9
DESGAITASUNA/GAIXO TASUNA GUZTIRA	12.123	11.533	11.531	10.798	16.355	8.544	11.609	-6,4
Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta	8.806	6.367	10.009	6.621	16.478	5.179	2.457	-33,9
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	8.806	6.367	10.009	6.621	16.478	5.179	2.457	-33,9
Eguneko zentroak	7.742	7.418	5.512	5.546	6.642	6.610	5.071	0,6
Jantoki sozialak	1.926	2.462	1.471	1.749	2.099		1.645	18,9
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	4.743	5.552	3.859	4.113	3.759	6.610	3.691	6,6
GUZTIRA	11.496	11.431	11.005	10.729	12.446	11.098	9.894	-2,5

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardueraren erregularrak duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. OHARRA: Ikus atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapenak Kontzeptu eta Definizioen eranskinean



2018an Araba izan da egoitzakoak ez diren zerbitzuetan erabiltzaile bakoitzeko egin duen batez besteko gasturik handiena. 12.446 eurokoa; Araban, berriz, 11.098 euro; eta Bizkaian 9.894 euro.

Adineko pertsonentzako asistentzia-zentroetan eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentroetan gasturik handiena egin da erabiltzaile bakoitzeko: 17.485 eurokoa eta 16.446 eurokoa, hurrenez hurren, 2018an. Gastuaren dinamika, ordea, ezberdina da. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetan, gastuak % 6 egin du gora 2017tik 2018ra, beraz, aurreko urteetako dinamika areagotu da (2015-2016 aldiko % 1,3tik 2016-2017 aldiko % 3,4ra).

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen laguntza emateko zentroetan 2015etik aurrerako gastu-beherakadak sendotu dira, 2012-2015 aldian ez bezala (aldi horretan 16.055 eurotik 16.975 eurora igo zen). 2015etik 2016ra gastuak $-1,1\%$ egin du behera erabiltzaile bakoitzeko, eta 2016-2017 aldian, $-1,5\%$. Beherakada 2017tik 2018ra zertxobait moteldu bada ere, $-0,6\%$ izan da, eta 2018an 16.446 euroko gastua egin da erabiltzaile bakoitzeko.

Eguneko asistentzia-zentro mota horietan gastuaren mailarik altuenak Araban osatu dira 2018an. Adineko pertsonentzako zentroetan Arabako 20.330 euroek Gipuzkoako 17.655 euroak gaindituko dituzte, baita Bizkaiko 16.006 euroak ere. Aldea are handiagoa da desgaitasun edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan: 24.092 Araban, 16.211 Bizkaian eta 15.377 Gipuzkoan.

Desgaitasunak eta gaixotasunak artatzeko esparruan, erabiltzaileko gastua 11.215 eurokoa zen eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, 9.869 eurokoa, berriz, suspertze- eta arreta-zentroetan. Kasu bietan 2017tik 2018ra gastuak behera egin du erabiltzaile bakoitzeko ($-4,5\%$ eta $-8,2\%$), eta hori aldaketa handia izan da 2016-2017 aldiko igoerarekin erkatuta (eta 2015-2017 aldiko zenbatekoekin ere, eguneko zentroi eta zentro okupazionalen dagokienez).

Zerbitzu horietan 2018ko gasturik handiena Araban egin da erabiltzaile bakoitzeko eta kasu guztietan: 12.202 euro; Bizkaian, ordea, 9.996 euro eta Gipuzkoan 8.659 euro, birgaitzeko eta arreta emateko zentroetan; 14.283 euro; Bizkaian, ordea, 10.823 euro eta Gipuzkoan 10.229 euro, eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan.

2018an adingabeei eta familiei eguneko arreta emateko gastua berriro 10.000 eurotik beherakoa izan da erabiltzaile bakoitzeko (6.621 euro, beraz, 2016ko 6.367 eurotik gertu). Jarduketa-eremu horretan, alde handiago Arabako gastuaren (16.478 euro) eta Gipuzkoako eta Bizkaiko gastuaren artean (5.179 euro eta 2.457 euro, hurrenez hurren).

2018an antzeko gastua egin da erabiltzaile bakoitzeko, egoitzakoak ez diren atsedeen emateko eta laguntzeko zerbitzuetan, adineko pertsonen zaintzaren arloan: zehazki, 6.774 eurokoa izan da; eta hein txikiagoan, bazterketa-egoeran dauden eguneko zentroetan ere bai (5.546 euro). Kasu bietan gastua 2016tik 2017ra nabarmen murriztu da erabiltzaile bakoitzeko. Murrizketak -20% koak edo handiagoak izan dira. Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan beheranzko joera hori jada 2015-2016 aldian hasi zen, baina neurri txikiagoetan ($-4,2\%$; 2016-2017 aldian, ordea, $-25,7\%$ izan zen). 2017-2018 aldean erabiltzaile bakoitzeko egin den gastua % 4,9 igo da adineko pertsonen zaintzaileei atsedeen emateko eta laguntzeko. Halaber, goranzko joera egonkortu da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan ($+0,6\%$).

2018an Araban eta Gipuzkoan gastuan antzeko zenbatekoak osatu dira erabiltzaile bakoitzeko: 6.642 eta 6.610 euro, hurrenez hurren; eta 5.071, Bizkaian. Pertsonen zaintzaileei atsedean emateko eta laguntzeko zerbitzuan Araba da gasturik handiena egin duena: 8.517 euro; eta Bizkaian, 5.860 euro.

Erabiltzaileko gastua askoz ere txikiagoa izan da egoitzakoak ez diren beste zentro batzuetan, esate baterako, gaixotasun edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako laneratze-zentroetan, egoitzakoak ez diren adineko pertsonentzako beste zentro batzuetan eta jantokietan. Kasu horietan erabiltzaileko batez besteko gastua 2.346 eurokoa izan da adineko pertsonen kasuan; eta 1.749 eurokoa bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan. Adineko pertsonen dagokienez, Bizkaian osatu da gasturik handiena (4.181 euro erabiltzaileko; eta, Araban, ordea, 1.822). Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako jantokietan Araban osatu da zenbateko handiagoa: 2.099 eurokoa izan da, eta Bizkaian, ordea, 1.645 eurokoa.

45. taulan azaltzen da urtean zer ekarpen egiten duten erabiltzaileek gizarte-zerbitzuetako sektorean, egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu nagusiak mantentzeko.

45. taula.
Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2015-2018
Urteko batez besteko kuota/erabiltzaileko

	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2017/2018
	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	Batez besteko kuota	2018ko batez besteko kuota	2018ko batez besteko kuota	2018ko batez besteko kuota	
Zentro/Zerbitzu mota								
Atsedean- eta babes-zerbitzuak	1.362	2.449	951	1.100	1.451		915	15,6
Eguneko laguntza-zentroak	3.550	3.628	3.920	4.315	4.832	4.479	3.913	10,1
Jantokiak	1.378	1.474	1.407	1.562	1.681		1.145	11,1
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	1.362	1.404	1.449	1.655	718	117	3.032	14,2
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	3.234	3.355	3.548	3.775	3.333	4.389	3.556	6,4
Eguneko zentroak	1.610	1.237	1.727	1.718	1.715	1.869	1.585	-0,5
Suspertze- eta arreta-zentroak	405	389	277	377	532	125	436	36,2
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	40	22	58	64	4	0	124	10,2
Laneratze-zentroak	0	0	0	0		0	0	0,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	646	473	602	588	436	589	618	-2,4
Adingabeentzako/familiantzako eguneko arreta	0	0	0	0	0	0	0	0,0
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	0	0	0	0	0	0	0	0,0
Eguneko zentroak	210	417	104	90	0	67	108	-13,6
Jantoki sozialak	76	125	83	76	332		0	-8,7
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	141	307	96	85	211	67	64	-11,4
GUZTIRA	1.461	1.409	1.427	1.481	1.875	1.732	1.176	3,8

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratze gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardura erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. Kuota -0- duten zentroak barne dira.



Datuen arabera, 2018an urteko batez besteko kuota 1.481 eurokoa izan da erabiltzaile bakoitzeko¹⁴, eta urteko igoera % 3,8 izan da, 2016ko 1.409 euroekin erkatuta. Lurraldearen arabera egindako ekarpena oso bestelakoa izan da: 1.875 eurokoa izan da Araban, 1.732 eurokoa Gipuzkoan eta 1.176 eurokoa Bizkaian.

Erabiltzaileek 2018an egin duten ekarpenik handiena adineko pertsonen eguneko asistentzia-zentroetan egin da, zehazki, 4.315 eurokoa. Zerbitzu horretan agerikoa da erabiltzaileen batez besteko ekarpena gora doala: 2015-2016 aldian % 3,4; 2016-2017 aldian % 8,1 eta 2017-2018 aldian % 10,1. Zenbaki absolutuetan argi ikusten da ekarpena gora egiten ari dela: 2014ko 3.439 euroetatik 2018ko 4.315 euroetara. Ekarpenik handiena Arabari dagokio (4.832 euro) 2018an, Gipuzkoako 4.479 euroen eta Bizkaiko 3.913 euroen gainerik.

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako eguneko asistentzia-zentroetan, berriz, erabiltzaileek 1.718 euroko ekarpena egin dute, batez beste. Zenbateko horrek erakusten du ekarpen horiek epe luzean goranzko joera dutela, nahiz eta 2015-2016 aldi zehatz horretan behera egin eta nahiz eta 2017-2018 aldian beheranzko norabidean egonkortu (-% 0,5). 2018ko 1.718 euroek nabarmen gainditzen dituzte 2014ko 1.665 euroak.

Lurraldearen araberrako ekarpenetan ere aldeak daude eguneko zentro horietan: Gipuzkoan kopururik handiena osatu da (1.869 eurokoa); Araban, 1.715 eurokoa; eta Bizkaian 1.585 eurokoa.

Adineko pertsonen arreta emateko eremuan, erabiltzaile bakoitzak 2018an ordaindu dituen urteko kuotak 1.100 eurokoak izan dira atsedene- eta laguntza-zerbitzuetan; 1.562 euro, jantokietan; eta 1.655 euro, egoitzakoak ez diren beste zentro batzuetan. 2016-2017 aldian ekarpenak behera egin zuen (egoitzak ez diren beste zentro batzuetan izan ezik), baina, 2017-2018 aldian, ordea, erabiltzaileen ekarpenak igoera handia izan du: % 11,1eko eta % 15,6ko gehikuntzak osatu dira.

2018an erabiltzaileen ekarpena gainerako zerbitzuetan baino askoz ere txikiagoa izan da. Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonen arreta emateko eremuan, eta eguneko asistentzia-zentroetan izan ezik, birgaitzeko eta arreta emateko zentroetan gehienez ere 377 eurokoa izan da; eta eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, 64 eurokoa; bestalde, laneratze-zentroetan nulua izan da.

Ilde beretik, bazterketa-sektorean batez besteko ekarpena gehienez ere 90 eurokoa izan da eguneko zentroetan; eta 76 eurokoa, gizarte-jantokietan. Zentro eta zerbitzu mota horretan, 2017tik 2018ra jaisten jarraitu dute erabiltzaileen ekarpenek, 2016an 2017an jada gertatu zen bezala.

46. taulan jaso dira EAEko gizarte-zerbitzuen sisteman egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuetako berezko langileei buruzko abenduaren 15eko datu nagusiak.

¹⁴ Erreferentzia-zentro guztiak zenbatu dira, baita erabiltzaile bakoitzeko kuotarik kobratzen ez dutenak ere.

46. taula.
Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2015-2018
LOB langile propio okupatuak/100 erabiltzaileko

Zentro/Zerbitzu mota	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2017/2018
	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Langileak/ erabiltzaileko	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2018	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2018	Pertsona okupatuak/ erabiltzaile 2018	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	3,1	3,5	9,3	4,0	11,6			-57,0
Eguneko laguntza-zentroak	10,7	10,3	11,0	10,8	14,7	16,0	3,7	-1,7
Jantokiak	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0		0,0	
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	11,5	9,1	7,0	6,1	8,3	0,0	6,8	-13,1
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	9,6	9,2	9,7	9,0	8,6	15,7	3,4	-7,1
Eguneko zentroak	25,9	26,5	25,2	26,5	23,9	23,9	29,2	5,2
Suspertze- eta arreta-zentroak	22,5	22,8	24,2	23,5	15,5	21,6	24,8	-3,1
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	15,0	15,1	17,1	18,3	19,0	16,2	19,4	6,9
Laneratze-zentroak	2,9	1,7	1,4	1,1		0,5	3,3	-16,5
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	19,3	18,5	18,2	18,4	19,9	13,9	22,0	1,1
Adingabeentzako/familiantzako eguneko arreta	5,8	5,4	5,6	5,0	2,8	0,0	7,6	-10,0
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	5,8	5,4	5,6	5,0	2,8	0,0	7,6	-10,0
Eguneko zentroak	14,8	12,7	9,5	9,7	6,9	6,8	10,9	1,9
Jantoki sozialak	2,0	2,6	1,6	1,9	2,8		1,6	15,6
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	8,2	8,9	6,3	6,7	4,3	6,8	7,1	7,2
GUZTIRA	13,8	13,6	13,0	12,9	10,9	13,7	13,1	-0,5

Iturria: EOE, EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jarduera erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (asteen 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera, egoitzakoak ez diren zentroetan eta zerbitzuetan 2018an 12,9 langile egon dira 100 erabiltzaileko; zenbateko horrek berekin ekartzen du $-0,5\%$ beherakada, 2017ko $13,0\%$ baliorekin erkatuta. Beherakada oso txikia izan arren, 2015-2017 aldian jada behatu zen adierazlearen beheranzko joera sendotu egin da: 2015-2016 aldian -1% egin du behera; eta 2016-2017 aldian areagotu eta $-4,8\%$ jaitsi da. Beheranzko joera horren ondorioz, 2015ean 13,8 langile zeuden 100 erabiltzaileko, eta 2018an, 12,9. Aitzitik, 2013tik 2015era tasa hori igo zen: 13,2tik 13,8ra.

Lurraldeka begiratuta, lanpostuen betetze-mailarik handiena Gipuzkoan dago, 13,7 langilerekin; eta atzetik datoz Bizkaia (13,1) eta Araba (10,9).

Langile-mailarik handienak honako hauetan osatu dira: desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako arretan, eguneko asistentzia-zentroetan eta suspertze- eta arreta-zentroetan (26,5 eta 23,5 langile, 100 erabiltzaileko, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zenbatuta). Birgaitzeko eta arreta emateko zentroetan 2015-2017 aldiko goranzko joera eten egin da 2017-2018 aldian; hala, $-3,1\%$ egin du behera. Eguneko asistentzia-zentroetan, ordea, adierazlearen 2016-2017 aldiko beheranzko joera konpentsatu du nolabait 2017-2018 aldiko igoerak; zehazki, $5,2\%$ egin du gora adierazleak.



Aztertu ditugun zentro eta zerbitzu mota bi horietan, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegu-mailarik handiena Bizkaian osatu da 2018an. Eguneko asistentzia-zentroetan alde handiagoak daude: 29,2 enplegu, 100 erabiltzaileko; eta Gipuzkoan eta Araban, ordea, 23,9. Zenbatekoak antzekoagoak dira, baina aldeak ere garrantzitsuak dira birgaitzeko eta arreta emateko zentroetan: 24,8 enplegu Bizkaian; baina 21,6 Gipuzkoan eta 15,5 Araban.

Desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguari buruzko adierazleak goranzko joera egonkorra erakutsi du 2017tik 2018ra: % 6,9 egin du gora, eta 2016-2017 aldiko % 13,1eko igoerari jarraitu dio. 2018an 18,3 enplegu zenbatu dira 100 erabiltzaileko, 2012tik aurrerako zenbatekorik handiena, hain zuzen ere. Kasu horretan Bizkaian eta Araban dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegu-mailak oso antzekoak dira 100 erabiltzaileko: 19,4 eta 19,0, hurrenez hurren; eta 16,2, Gipuzkoan.

Aztertu dugun adierazlea askoz ere txikiagoa da adineko pertsonentzako eguneko zentroetan: dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 10,8 enplegu, 100 erabiltzaileko. 2016-2017 aldirian osatu zen igoera gogorraren ondorioz (+% 6,4), 2012-2017 aldirian tasa oso handia osatu zen: dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 11 enplegu sortu ziren, beraz, 2018ko erregistroak -% 1,7 egin zuen behera. Lurraldearen arabera aldeak garrantzitsuak dira eguneko zentro mota horretan: dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 16,0 enplegu Gipuzkoan; 14,7, Araban; eta 3,7, Bizkaian.

Adineko pertsonen zaintzaileei atsedeen emateko eta laguntzeko zerbitzuetan dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera 4,0 enplegu sortu dira 2018an, 100 erabiltzaileko. Hortaz, 2018an berreskuratu dira 2013-2016 aldiko mailak (% 2,8 eta % 3,5 balioen artekoak). Bilakaera hori oso lotuta dago zerbitzu horiek Araban izan duten bilakaerari.

2015-2017 aldiko beherakada handien ostean, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan 2017-2018 aldirian zertxobait igo da dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegu kopurua, 100 erabiltzaileko. 2017ko 9,5 enpleguekin erkatuta handiagoa izan arren, 2012tik aurrera osatu den tasarik txikienetako bat 2018ko 9,7 enplegu-tasa da. Kasu horretan Bizkaiko 10,9 enpleguek argi gainditzen dituzte Arabako 6,9 enpleguak eta Gipuzkoako 6,8 enpleguak.

Halaber, beherezko lerro esanguratsua osatu da, 2015eko 11,5 enplegu-tasatik 2018ko 6,1 enplegu-tasara, egoitzakoak ez diren adineko pertsonentzako beste zentro batzuei dagokienez (dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zenbatuta).

Adingabe eta familien eguneko arreta-zerbitzuan ere murriztu da adierazlea 2017-2018 biurtekoan (dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zenbatuta), 100 erabiltzaileko 5,0 langile baitzeuden 2018an; 2013-2017 aldirian, berriz, 5,4 eta 5,8 bitarteko balioak osatu ziren. Bizkaian 7,6 enplegu osatu ziren 100 erabiltzaileko zerbitzu mota horretan.

Dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zenbatuta, gainerako zerbitzuetan (jantokietan eta desgaitasun edota gaixotasunak dituztenentzako laneratze-zentroetan), langilearen pisua oso txikia da eta, oro har, 100 erabiltzaileko 1,1 eta 1,9 langile baino ez daude (adineko pertsonentzako jantokietan izan ezik; bertan, langile kopurua ia nulua da 100 erabiltzaileko).

47. taulan, egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzuetako berezko langileek jasotzen duten batez besteko soldatari buruzko datuak jaso dira (dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera

enpleguaren arabera neurtuta). Taulan kontsultatu daitekeen moduan, batez besteko ordainsari hori 38.890 eurokoa izan da 2018an; beraz, 2017koa (39.130 eurokoa) baino $-0,6\%$ txikiagoa. Hala ere, 2015eko 38.129 eurotik gorakoa da.

47. taula.
Gizarte-zerbitzuetan egoitzakoak ez diren zentroak. 2015-2018
Batez besteko ordainsaria/LOB langile

Zentro/Zerbitzu mota	2015	2016	2017	2018	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Bariazioa %-tan EAE 2017/2018
	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	Batez besteko ordainsaria	2018ko batez besteko ordainsaria	2018ko batez besteko ordainsaria	2018ko batez besteko ordainsaria	
Atsedeen- eta babes-zerbitzuak	53.943	51.932	53.190	58.748	58.748			10,4
Eguneko laguntza-zentroak	36.559	38.779	37.776	41.127	58.309	35.650	33.816	8,9
Jantokiak	27.326							
Egoitzakoak ez diren bestelako zentroak	20.517	27.421	28.869	28.809	30.304		27.322	-0,2
ADINEKO PERTSONAK GUZTIRA	36.097	38.579	37.684	40.964	56.961	35.650	33.241	8,7
Eguneko zentroak	38.004	36.595	36.570	35.383	55.496	37.879	32.815	-3,2
Suspertze- eta arreta-zentroak	30.224	29.724	32.423	30.702	56.153	33.007	28.528	-5,3
Eguneko zentroak eta enplegu-zentroak	45.462	48.697	48.225	47.081	56.381	50.136	42.474	-2,4
Laneratzeko zentroak	32.862	37.723	32.765	29.156		15.018	36.011	-11,0
DESGAITASUNA/GAIXOTASUNA GUZTIRA	39.674	39.833	40.556	39.523	56.116	41.679	35.794	-2,5
Adingabeentzako/familiarentzako eguneko arreta	31.687	30.574	29.828	21.428	22.273		21.284	-28,2
ADINGABEAK/FAMILIAK GUZTIRA	31.687	30.574	29.828	21.428	22.273		21.284	-28,2
Eguneko zentroak	33.699	36.514	33.784	31.618	33.799	39.452	29.850	-6,4
Jantoki sozialak	33.252	37.358	30.621	35.435	40.425		32.769	15,7
BAZTERKETA-EGOERA GUZTIRA	33.644	36.605	33.453	32.015	36.560	39.452	30.108	-4,3
GUZTIRA	38.129	39.135	39.130	38.890	54.874	39.430	34.479	-0,6

Iturria: EOE EGPS. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika eta Gizarte-ekintzako eta gizarteratzeko gastuaren estatistika Erabiltzaileak eta jardura erregularra duten zentroentzat kalkulatu dira adierazleak. LOB: Lanaldi osoaren baliokidetzat (astean 35 ordu/urtean 1.600 ordu)

2018an, batez besteko ordainsaririk altuenak izan dituzte, batetik, egoitzakoak ez diren adineko pertsonentzako atsedeen- eta babes-zerbitzuetako langileek (58.748 euro); eta, bestetik, desgaitasun edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentro eta zentro okupazionalak (47.081 euro). Eguneko asistentzia-zentroetako ordainsaria ere garrantzitsua da (41.127 eurokoa, adineko pertsonen kasuan; eta desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako arreta emateko langileen ordainsaria 35.383 eurokoa izan da, sektore orokorreko batezbestekotik behera).

Zerbitzu horiek guztiek partekatzen duten ezaugarrietako bat da ordainsaria askoz ere handiagoa dela Araban, 55.000 eurotik gorakoa beti; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 40.000 eurotik beherakoak dira, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten eguneko zentroen eta zentro okupazionalen salbuespen bakarrarekin (42.474 euro Bizkaian, 50.136 Gipuzkoan eta 56.381 Araban).

Desgaitasun edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako laneratzeko zentroetan batez besteko ordainsaria 29.156 eurokoa izan da, eta birgaitze- eta arreta-zentroetan, 30.702 eurokoa. Azken kasu horretan, beste behin ere, Arabako zenbatekoa handiagoa da (56.153 euro; Gipuzkoan 33.007 eta Bizkaian 28.528). Zenbatekoak 28.809 eurokoak izan dira adineko pertsonentzako gainerako egoitza-zentroetan.



Adingabeei eta familiei edo desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsoneri arreta emateko egoitzak ez diren zentroetan langile bakoitzeko ordainsaria 31.618 eurokoa izan da 2018an, gizarte-jantokietako 35.435 eurotik beherakoa (betiere, dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren arabera neurtuta). Ordainsaria 21.428 eurokoa izan da adingabeen eta familien eguneko arreta-zerbitzuetan.

Lurraldeen arabera, aztertu ditugun zentro eta zerbitzuetan, zenbatekorik handiena Gipuzkoako 39.452 eurokoa izan da, eta bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroetan osatu da. Zenbateko horrek Arabako 33.799 euroak eta Bizkaiko 29.850 euroak gainditu ditu. Araban bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gizarte-jantokietan osatu da ordainsaririk altuena: 40.425 eurokoa, beraz, Bizkaiko 32.769 eurotik gorakoa. Adingabe eta familientzako eguneko zentroetan batez besteko ordainsaria 22.273 eurokoa izan da Araban, eta 21.284 eurokoa izan da Bizkaiaren enplegu bakoitzeko eta dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua neurtuta.

2016-2017 aldian dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enpleguaren ordainsariak, zehazki, gizarte-zerbitzuen berezko langileen ordainsariak, behera egin zuen, eta ezaugarri bereizgarria izan zen aldi horretan. Beherakadak $-7,5\%$ edo handiagoak izan ziren, desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsonentzako laneratze-zentroetan edo bazterketa-egoeran dauden pertsoneri arreta emateko egoitzak ez diren zentroetan gertatu zen bezala.

2017-2018 aldian desgaitasuna edota gaixotasunak dituzten pertsoneri arreta emateko egoitzak ez diren zentro guztietan berezko langileen soldatak behera egiten jarraitu du. Birgaitzeko eta arreta emateko zentroak ere egoera berean daude, nahiz eta zentro horiek 2016-2017 aldian igoera nabarmena izan ($9,1\%$). Adingabeei eta familiei eguneko arreta emateko zerbitzuetan eta bazterketa-egoeran dauden pertsoneri eguneko arreta emateko zerbitzuetan ere beheranzko joera osatu da 2017-2018 aldian. Adineko pertsonentzako gainerako egoitza-zentroetan ordainsaria gelditu egin da, baina beherakada txikia izan du ($-0,2\%$).

Dinamika horretatik kanpoko salbuespenak adineko pertsoneri arreta emateko zerbitzuetan osatu dira, zehazki, atsedena- eta laguntza-zerbitzuetan: $10,4\%$ eta $8,9\%$ igo baitira, hurrenez hurren, langile bakoitzaren batez besteko ordainsaria eta dedikazio osoaren baliokidetasunaren arabera enplegua zenbatuta. Azken kasu horretan, aldaketa handia izan da, 2016tik 2017ra $-2,6\%$ jaitsi baitzen. 2016-2017 aldiko beherakadaren ostean, gizarte-jantokietako langileen ordainsaria nabarmen igo da bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako gizarte-jantokietan; zehazki, $15,7\%$ igo da 2017tik 2018ra.



KONTZEPTUEN ETA DEFINIZIOEN ERANSKINA

ALDERDI OROKORRAK

Gizarte-zerbitzuak eta prestazio sozialak

Gizarte-zerbitzuak (erdigunea)

Gizarte-zerbitzuen erdiguneak hauek hartzen ditu:

- a) Gizarte-zerbitzuen egitura orokorreko zerbitzuak, edo gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituzten erakunde publikoetako zerbitzu nagusiak.
- b) Gizarte-zerbitzuen egitura espezifiko zerbitzuak: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-urgentzietako zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako zerbitzu tekniko espezializatuak.
- c) Egoitzako edo egoitzakoak ez diren zentro eta zerbitzu guztiak, honako kolektibo hauei gizarte-arreta ematera bideratuta daudenak: adineko pertsonak, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonak, adingabeak, gazteak eta familiak, arrisku-egoeran dauden emakumeak (genero-indarkeria, tratu txarrak edo beste gizarte-arazo batzuk direla eta), eta bazterkeria-egoeran dauden beste pertsona batzuk.
- d) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- e) Familiei eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta emateko programa espezializatuak: genero-indarkeria edo tratu txarren arazoak dituzten pertsonen arreta emateko zerbitzuak (SATEVI Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua barne), familientzako harrera, adopzioa eta familian esku hartzeko programa guztiak (familian esku hartzeko programak, haur eta nerabeentzako gizarte-informazioaren telefonoa, familia-bitartekaritza eta Familia Topaguneak).
- f) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.
- g) Gizarte-zerbitzuen erdiguneko beste prestazio espezializatu batzuk, genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonentzako prestazio ekonomikoak barne.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kontzeptu hori bat etorri ohi da praktikan gizarte-zerbitzuen zorroaren egitura osoarekin, nahiz eta modu absolutuan hala izan beharrik ez dagoen. Ildo horretatik, ez da ahaztu behar txosten honetan erabilitako kontzeptua estatistikoa dela, eta, ondorioz, denboran irauteko xedea duela. Funtsean zorroaren egituratik eratortzen den kontzeptu politiko-administratiboarekin bat badator ere, egitura honen definizioa izaera estatistikoa ez duten eta denboran gehiago alda daitezkeen erabakien mende dago.

Txosten honetan eta honi lotutako agiri estatistikoetan erabiltzen den gizarte-zerbitzuen kontzeptu estatistikoa gizarte-zerbitzuen erdigunearen baliokidea da.

Gizarte-prestazioak

Gizarte-prestazioek gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzten prestazio ekonomiko guztiak hartzen dituzte barne, baita beste zerbitzu batzuek kudeatzen dituzten arren Gizarte Laguntzaren eratze-eta estatutu-kontzeptuaren barruan sar daitezkeen jarduketan berezko elementuren bat duten prestazioak ere. Kanpo gelditzen dira gizarte-zerbitzuen erdigunearen barruan kokatzen diren prestazioak (mendekotasun-prestazioak eta tratu txarren edo genero-indarkeriaren biktimetzako prestazio ekonomikoak), GLLak salbu.

Honako prestazio hauek hartu dira aintzat::

- a) Estatuko lege orokorretan zehazten diren baina Euskadin kudeatzen diren prestazio ekonomikoak: LISMI (Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legea) prestazioak eta kotizatu gabeko prestazioak (KGP). Oso antzekoak direnez, kotizatu gabeko prestazioetan Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak ere sartu dira.
- b) Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioak: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL).
- c) Familiei laguntzeko familia-prestazioak: familia eta seme-alabentzako prestazio ekonomikoak, eta laneko eta familiako bizitza uztartzeko prestazioak.
- d) Beste prestazio ekonomiko batzuk, orain arte adierazi ez diren gizarte-urgentzia eta -larrialdien arloko gainerako laguntzak barne.

Aztertutako prestazioek, funtsean, adierazitako prestazio publikoak barne hartzen badituzte ere, erakunde pribatuek kudeatzen dituzten era horretako prestazioak ere sartu dira.

Zentroa edo zerbitzua

Kokapen independente eta identifikagarria duen unitatea, azpiegitura materiala duena; bertan gizarte-ekintzaren esparruan artatzen den biztanleriaren sektore edo azpisektore bati edo gehiagori arreta emateko jarduketak gauzatzen dira.

Artatutako biztanleria mota. Hurbilketa orokorra

Oro har, zentroak eta zerbitzuak artatzen duten kolektibo nagusiaren arabera sailkatzen dira, honako irizpide hau oinarri hartuta:

Adinekoak

Erretiroa hartzeko adina gainditu duten pertsonentzako zentroak. Adin hori izan ez arren antzeko profilak dituzten pertsonak ere artatzen dituzte, argi eta garbi lan-merkatutik kanpo gelditu direlako edo zahartzearen ondorioz euren gaitasun psikiko eta fisikoak murriztu egin direlako.

Desgaituak/gaixoak

Zahartzearekin zerikusirik ez duen gutxitasun edo desgaitasun fisiko, psikiko edo sensorial baten edo antzeko ondorioak izan ditzakeen gaixotasun kroniko baten ondorioz gizarteratzeko aukera murriztuak dituzten pertsonen zuzendutako zentroak, batez ere buruko gaixotasunen esparruan.

Gaixotasun/desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, esparru honetan sartzen dira pertsona heldu ezinduen tutoretza-zerbitzua eta Tutoretza Fundazioak, baita arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzua ere.



Adingabeak/gazteak/familiak

18 urtetik behera dituzten eta beharrian-egoeran dauden, familia-bizitza egoki edo arduratsurik ez duten, helduengandik jokabide gatazkatsuak jasan dituzten eta familia-giro desegokietan agertzen diren beste arazo batzuk pairatzen dituzten gazteentzako zentroak. Hemen sartzen dira familia osoari arreta eskaintzen dieten zentroak.

Haur, gazte eta familientzako egoitza-zentroez eta egoitzakoak ez diren zentroez gain, arreta honetan sartu dira Familia Topaguneak, familientzako bitartekaritza-zerbitzuak eta haur eta gazteentzako gizarte-informaziorako telefonoa.

Emakumeak

Beharrian-egoeran dauden emakumeei zuzenduriko zentroak, batez ere egoera are gehiago larriagotzen duten baldintzak dituzten emakumeei zuzendurikoak, besteak beste familia-kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeak eta genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten emakumeak.

Baztertuak

Bazterkeria-egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen zuzenduriko zentroak. Pertsona horiek pixkanaka sustraiak eta loturak apurtu dituzte, eta, ondorioz, norbanakoaren dimentsio sozial eta pertsonala eratzen duten elementuak galdu dituzte. Honako hauek artatzen dituzte era honetako zerbitzuek: iragaitzako bidaiariak, kartzelan dauden edo egon diren pertsonak, alkoholak edo drogek eragindako gizarte-arazoak dituzten pertsonak, gutxiengo etnikoetako kideak direla-eta gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonak eta bazterkeria-egoeran egoteko arriskua duten beste talde batzuk.

Adierazitako sailkapena zentro eta zerbitzu espezializatuei aplikatzen zaie. Biztanleria osoari zuzenduriko jarduketak, besteak beste gizarte-zerbitzuen egitura orokorrari edo espezifikoiari dagozkionak, ez dira irizpide horien arabera ordenatzen.

Artatutako biztanleria mota. Mendekotasuna babestea

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, mendekotasunari, adineko pertsonen arretari eta gaixotasun nahiz desgaitasun bat duten pertsonen arretari dagozkien arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Adinekoentzako zentroak eta zerbitzuak.
- b) Desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak.
- c) Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen zuzenduriko arreta-programa espezializatuak: etxeko laguntza, telelaguntza eta zaintzaileentzako laguntza.
- d) Mendekotasun-kasuetarako prestazio ekonomikoak.

Artatutako biztanleria mota. Haurrak, gazteak, familia eta emakumeak babestea

Zenbait kasutan, batez ere gastuari eta finantzaketari loturiko alderdiei dagokienez, haurrak, nerabe eta gazteak, familiak eta emakumeak babestetik eratorritako arazoak elkarrekin lantzen dira. Kasu horretan, honako zentro, zerbitzu edo programa hauek sartzen dira:

- a) Haur, gazte, familia eta emakumeei zuzenduriko zentroak eta zerbitzuak.
- b) Genero-indarkeria edo tratu txarrak jasan dituzten pertsonak artatzeko programak, harrera- eta adopzio-programak eta familian esku hartzeko beste jarduketa batzuk.
- c) Genero-indarkeria edo tratu txarren biktimentzako prestazio ekonomikoa.

Egoitza-zentro eta -zerbitzuak

Zentro hauetan etengabeko arreta eta laguntza integrala eskaintzen da, egoitza- eta mantenu-zerbitzuen bidez, baita beste zerbitzu batzuen bidez ere.

Talde honetan sartzen dira egoitza-zerbitzua eskaintzen duten zentro hauek guztiak: harrera- eta urgentzia-zentroak, egoitzak, etxebizitza komunitarioak, apartamentuak, ostatuak, gaueko zentroak, neguko zentroak, suspertze-zentroak barnetegi-erregimenean, etxe funtzionalak, eta atsedena- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:

Adinekoak

- Egoitza-zentroak

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, adineko pertsona guztientzat:

- Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunenean. Egoitza-zerbitzuak
 - Tutoretzapeko apartamentuak
 - Etxebizitza komunitarioak
 - Bestelako egoitza-zentro eta -zerbitzuak
- Atsedena- eta babes-zerbitzuak

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, adineko pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.



Desgaituak/gaixoak:

- Egoitza-zentroak

Honako egoitza-zentro mota hauek hartzen ditu barne, hala egonaldi labur nola luzeetarako, desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsona guztientzat:

- Egoitza-zentroak, zentzurik zurrunenean. Egoitza-zerbitzuak
- Tutoretzapeko apartamentuak
- Egonaldi laburretarako pisuak eta zentroak

- Atsedena- eta babes-zerbitzuak

Batez ere egoitza-izaera duten aldi baterako zerbitzuak eskaintzen dituzten plazak hartzen dituzte barne, desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituztenei atsedena eta babesa eskaintzeko.

Adingabeak/familiak

- Egoitza-zentroak

Adingabeentzako eta babesgabetasun-egoeran dauden gazteentzako egoitza-zentro hauek hartzen ditu barne, baita legea haustearen ondorioz kontrolpean dauden adingabeentzako egoitza-zentro hauek ere:

- Adingabe edo gazteentzako zentroak:
 - Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe edo gazteentzako egoitza-zentroak.
 - Jokabide-arazoak dituzten edo legea hautsi duten adingabe eta gazteentzako zentroak.
 - Gazteentzako bestelako egoitza-zentroak.

Urgentzietako egoitza-zerbitzuak eta familiei zuzendurikoak ere hemen sartzen dira.

Emakumeak

Egonaldi labur eta luzeetarako egoitza- eta etxebizitza-zerbitzuak hartzen ditu barne, baita beharizan-egoeran dauden emakumeentzako, familia-kargak dituzten emakumeentzako eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako urgentziako harrera-zentroak ere.

- Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima ez direnentzat).

Gizarte-beharizan egoeran dauden, familia-kargak eduki eta bakarrik dauden, prostituzioari loturiko arazoak dituzten edo antzeko gizarte-arazoak dituzten emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

- Emakumeentzako etxebizitzak eta egoitza-zentroak (genero-indarkeriaren biktima direnentzat).

Genero-indarkeriaren edo tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako etxebizitza-zerbitzuak eta egoitza-zentroak (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta epe laburrerako etxebizitzak) hartzen ditu barne.

Baztertuak

Epe labur nahiz luzerako egoitza-zerbitzuak eta etxebizitzak hartzen ditu barne.

- Etxebizitzak eta egoitza-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako honako egoitza-zentro hauek (egoitzak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

- Preso dauden edo egon diren pertsonentzako etxebizitzak.
- GIB duten pertsonentzako etxebizitzak.
- Mendekotasun-arazoak dituzten eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitzak, tutoretzapeko pisuak eta komunitate terapeutikoak.
- Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako egoitzak eta tutoretzapeko pisuak.
- Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako harrera-zentroak, harrera-pisuak eta urgentzia-zentroak.
- Etorkinentzako etxebizitzak.

- Gaueko harrera-zentroak.

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako gaueko harrera eskaintzen duten honako egoitza-zentro hauek (ostatuak, pisuak, harrera-zentroak eta egonaldi laburretarako zentroak) hartzen ditu barne:

- Bestelako bazterkeria-egoeretan dauden pertsonentzako ostatuak.
- Adikzioak dituzten pertsonentzako gaueko zentroak.
- Bestelako bazterkeria-egoeraren batean dauden pertsonentzako gaueko zentroak, etorkinentzat barne.
- Neguko zentroak.

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei buruzko zehaztapen garrantzitsua

Atsedeen- eta babes-zerbitzuei dagokienez, beharrezkoa da adieraztea atsedeen-zerbitzu gehienak egoitza-arretaren sare orokorraren bidez eskaintzen direla, bai adineko pertsonen kasuan, bai desgaitasunen/gaixotasunen bat duten pertsonen kasuan. Hori dela eta, datuek ez dute atsedeen- eta babes-zerbitzuen eskaintza osoa islatzen, baizik eta soilik zerbitzu horretan berezitzen diren zentroyen datuak.

Eguneko arretarako zentro eta zerbitzuak (egoitzakoak ez direnak)

Zentro hauek eguneko arreta espezializatua eskaintzen diete gizarte-beharrizanak dituzten pertsoneri. Talde honetan sartzen dira eguneko arreta eskaintzen duten zentro hauek guztiak: eguneko laguntza-zentroak, jantokiak, suspertze- eta arreta-zentroak, zentro okupazionalak, gizarteratze- eta laneratze-zentroak eta atsedeen- eta babes-zerbitzuak.

Artatzen diren pertsonen arabera, egoitza-zentroak honako talde edo azpitalde hauetan bana daitezke:



Adinekoak

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atsedeen- eta babes-zentroek eta jantokiak eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Egoitza-zentroak

Adinekoentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Atsedeen- eta babes-zerbitzuak

Adineko pertsonak zaintzen dituzten pertsonen atsedeen hartzeko eta haiei babesa emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko laguntza-zentroak

Egunean zehar adineko pertsonak artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne.

- Jantokiak

Adinekoentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

- Egoitzakoak ez diren zentroak

Adinekoentzako gainerako laguntza-zentro guztiak hartzen dituzte barne.

Desgaituak/gaixoak:

Egoitza-zentroek, eguneko laguntza-zentroek, atsedeen- eta babes-zentroek, zentro okupazionalak, eta suspertze- eta arreta-zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Egoitza-zentroak

Desgaitasun edo gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Atsedeen- eta babes-zerbitzua

Desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonen atsedeen hartzeko eta haiei babesa emateko egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko laguntza-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (laguntza-helburuekin).

- Suspertze- eta arreta-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egunean zehar artatzea xede duten zentroak hartzen dituzte barne (suspertzeko eta arreta berezia emateko helburuekin).

- Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak

Aurreko kategorietan sartzen ez diren eguneko zentroak hartzen ditu barne, egoitza-egiturekin loturarik ez duten eguneko atsedeen-zentroak eta desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako zentro okupazionalak barne. Zentro mistoen kasuan (okupazionalak eta enpleguan berezitzen diren zentroak), gizarte-zerbitzuen testuingurua aztertzerakoan, izaera okupazionala duten eta egoitzakoak ez diren plazak bakarrik hartu dira kontuan.

- Laneratze-zentroak

Desgaitasunen edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako gizarteratze- eta laneratze- zentroak hartzen dituzte barne, zentro okupazionalak izan ezik.

Adingabeak/familiak

Egoitza-zentroek eta eguneko zentroek eskaintzen dituzten eguneko arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Adingabe/familien egoitza-zentroak

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Adingabeentzako/familientzako eguneko arreta

Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe, gazte eta familientzako eguneko zentroak hartzen dituzte barne.

Baztertuak

Etxebizitzek, egoitza-zentroek, eguneko zentroek, zentro okupazionalak, gizarteratze- eta laneratze- zentroek eta jantoki sozialek eskaintzen dituzten arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Etxebizitzak eta egoitza-zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroek eskaintzen dituzten egoitzakoak ez diren arreta-plazak hartzen dituzte barne.

- Eguneko zentroak

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro guztiak hartzen ditu barne, eguneko laguntza-zentroak eta zentro okupazionalak barne.

- Jantoki sozialak

Bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako jantoki sozialak hartzen dituzte barne.

Erabiltzaileak

Erabiltzaileak dira erreferentziako egunean (abendua 15) zentroak eskaintzen dituen prestazioak eta zerbitzuak zuzenean jasotzen ari ziren pertsonak.



SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN PLAZEI BURUZKO ALDERDIAK

Plazak

Egoitzakoak

Estatistikan aztertzen den urteko abenduaren 31n erabilgarri zegoen ohe kopurua, horiek okupatuta egon hala ez. Harrera-zentroetan, egoitza-zentroetan eta egoitzako suspertze-zentroetan biltzen dira.

Egoitzakoak ez direnak

Egoitzakoak ez diren zentroetan dagoen plaza kopurua, edo egoitzakoak ez diren zentroetan egoitzakoak ez diren zerbitzuak emateko erabiltzen direnak.

Plazei buruzko zehaztapena

Plazen banaketa artatutako biztanleria motaren arabera aztertzen dugunean, kontuan hartu beharra dago kasu batzuetan arreta mistoa izan daitekeela, hau da, biztanleria talde bati baino gehiagori zuzen dakiokela. Arreta mistoa eskaintzen duten zentroetan, baina, artatutako biztanleriari buruzko informazioa ez da xehatuta agertzen; izan ere, GZEZEren inkestan biztanleria mota bat baino ezin da adierazi. Hori esanguratsua da adineko pertsonentzako egoitza-plazen kasuan; izan ere, arreta-sare horretan askotan desgaitasun/gaixotasunen bat duten pertsonentzako plazak ere egon ohi dira. Hala ere, plaza horiek adinekoentzako plaza gisa sailkatzen dira, zentro horien xede nagusia adinekoei zerbitzua ematea baita.

Plazen titulartasuna

Egoitzako plazak eta egoitzakoak ez direnak sektore publikoak duen inplikazioaren arabera bereizten dira, bai titulartasunari dagokionez, bai finantzaketari dagokionez. Hona hemen azertu diren kategoriak:

Publikoak

Administrazio publikoen (Europako administrazioa, Estatuko administrazio orokorra eta Gizarte Segurantza, Erkidegoko administrazioa, foru-administrazioa, udal-administrazioak eta mankomunitateak) titulartasunpeko zentroei dagozkien plazak.

Itunpekoak

Titulartasun publikoa ez duten baina zati batean edo osorik sektore publikoak finantzatzen dituen zentroetako plazak.

Bazterkeriaren esparruko itunpeko plazei buruzko zehaztapen garrantzitsua:

Itunpeko plaza hauei dagokienez, gogoan hartu beharra dago bazterkeriaren arretaren esparruan interpretazio-arazoak daudela itunpeko plazak zein diren zehazteko. Hori horrela da esparru honetan Administrazioek ez dituztelako itunpeko plazak aipatzen, baizik eta hitzarmenak; horren ondorioz, datuak biltzerakoan, elkarrizketari batzuek itunpeko plazak aipatu dituzte, baina beste batzuek ez (pribatuak). Hasiera batean, emandako datuek elkarrizketari horiek emandako informazio zuzena dute oinarri.

Hala ere, beharrezkoa da adieraztea bazterkeriaren esparruan jokabide horrek gutxietsi egiten duela ekintza publikoaren benetako pisua. Ildo horretatik, erakunde edo elkarte pribatuek bazterkeria-egoeran edo -arrikan dauden biztanleei eskaintzen dizkieten arreta-baliabide asko % 100ean finantzatuta daude, eta administrazioa da erabiltzailea sare horretan sartu behar dela erabakitzen duena (hala ere, batzuetan egoera mistoak egoten dira, eta erakundeek ere erabiltzaileak sarean sartzeari buruzko erabakiak hartzen dituzte). Kasu horietan, pribatu gisa sailkatutako plaza ugari egiatan itunpeko plazatzat har daitezke.

Ondorioz, beharrezkoa da egoera hori kontuan hartzea itunpeko jarduketak bazterkeriaren arretaren esparruan duen benetako eragina aztertzerakoan.

Pribatuak

Sektore pribatuak oso-osorik finantzatzen dituen plazak (irabazi-asmorik gabeko jardueraren esparrua, elkarteak, elkarteen federazioak, fundazio pribatuak, ongintzako establezimenduak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako erakundeak; guztiz pribatua den esparruan, berriz, pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak, lan-sozietate anonimoak, ondasun-erkidegoak, kooperatibak eta esparru honetan sar daitezkeen gainerako erakundeak).

GASTUARI BURUZKO ALDERDIAK

Gastu arrunta

Operazio arruntetara bideratutako gastua da. Informazioa eurotan eman da, berariaz bestela adierazitako kasuetan izan ezik. Hurbilketak erreferentzia egiten dio aztertutako urteko aldiari dagokion gastu nominalari, salbu eta beste erreferentzia bat zehazten denean (esate baterako, urte zehatz bati dagokion balio baliokidearen bitartez zenbatetsitako gastu arrunta, Eustatek ezarritako inflazioaren bariazioa kontuan hartuta).

Gastu arruntak honako kontzeptu hauek hartzen ditu barne:

Erosketak

Kapitala areagotzea ez dakarten ondasun arrunten gastuak, horien iraupena urtebete baino gutxiagokoa bada, ezin badira inbentarioan sartu eta errepikatu egiten badira.

Kanpoko zerbitzuak

Konponketa eta kontserbazioari loturiko gastuak, profesional independenteen zerbitzuak, hornidurak, garraioak, aseguruen sariak, banku-zerbitzuak eta abar.

Langileen gastuak

Soldatak eta ordainsariak, Gizarte Segurantza eta langileen beste gastu batzuk.

Beste batzuk

Zergak, finantza-gastuak, amortizaziorako zuzkidurak, izangaien bariazioak, higiezinek eragindako galerak eta ezohiko gastuak.

Familiei egindako transferentziak

Kontrapartidarik gabeko eragiketa arruntak finantzatzea xede duten kredituak, pertsona fisikoei emanak, beharizan-egoerak konpontzera bideratutako programen bitartez.

Emitza

Eustatek ezarritako metodologiaren arabera, gastu arruntak aztertutako zentro edo zerbitzuak erreferentziako urtean izandako emitza ere barne hartzen du, defizit edo superabit terminoetan.



Erakunde publikoen edo zerbitzu publiko orokorren kasuan, arreta zehatz bati lotuta ez daudenean, defizit edo superabit hori gizarte-zerbitzuen egitura orokorrean integratuta dauden zentro eta zerbitzuei esleitzen zaie. Hori dela eta, Egitura eta Emaidza Orokorra epigrafearen azpian ageri da, batez ere finantzaketari buruzko atalean. Hurbilketa horrek azaltzen du, bestalde, diru-sarreraren dinamikak baldintzatutako urteen arteko zenbait alditan gorabehera handiak egotea egitura orokorrari dagokion gastuan.

Gastu arruntaren adierazleak

Hauek dira gastu arruntaren adierazleak:

Gastuaren ehunekoa BPGd-aren gainean

Ehuneko horrek gastu arrunta irudikatzen du, Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako zenbatetsitako BPGd-aren gainean. Ehuneko hori aldatu egin daiteke eragiketa batetik bestera, Eustatek aldi-an-aldian egiten dituen balioa eguneratzeko prozesuen mende baitago.

Gastua biztanleko

Kontuan hartutako gastu arrunta, zati Eustatek aztertu den lurralde-esparrurako ezarritako biztanleria.

Adierazle horiek urteka kalkulatzen dira.

FINANTZAKETARI BURUZKO ALDERDIAK

Finantzaketa: administrazio-jatorria

Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-prestazioen gastuaren finantzaketak, finantzaketa horren administrazio-jatorriaren arabera, honako administrazio hauek hartzen ditu aintzat:

Erkidegoz gaindikoa

Europako Administrazioaren, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Gizarte Segurantzaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Erkidegokoa

Erkidegoko Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Foru Aldundikoa

Foru Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne.

Udalekoa

Udal Administrazioaren finantza-ekarpenak hartzen ditu barne, baita Mankomunitateenak ere.

Pribatua

Erakundeek nahiz pertsonak egindako finantza-ekarpen pribatuak hartzen ditu barne, bereziki zentro, zerbitzu eta programetako erabiltzaileek egiten dituztenak.

Finantzaketa: izaera

Gizarte-zerbitzu eta gizarte-prestazioen arloko gastuen finantzaketak honako partida hauek hartzen ditu kontuan, diru-sarreraren izaeraren arabera:

Salmentak

Salmentek zentroa, zerbitzua edo programa ez beste iturri pribatu batzuetatik datozen diru-sarrerak biltzen dituzte, bukatutako produktuen salmentatik eratorritakoak.

Erabiltzaileen ekarpenak (prestazioak)

Prestazioek familiek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerak biltzen dituzte; ekarpen horren truke, zentroak zenbait zerbitzu eskaintzen dizkie (erabiltzaileen kuotak eta erabiltzaileei dagozkien beste diru-sarrera batzuk).

Diru-sarrera sozialak

Diru-sarrera sozialak familiengandik datoz, erabiltzaileen ekarpenak ez beste kontzeptu batzuegatik. Diru-biltzeak, partikularren emaitzak eta bazkide ongileen ekarpenak hartzen ditu barne.

Dirulaguntzak eta hitzarmenak

Dirulaguntzak onuradunak trukean ezer emateko beharrik gabe esleitzen diren ekarpenak dira; horien helburua da gutxieneko errentagarritasuna bermatzea edo ustia ketaren defizita konpentsatzea.

Itunek sinatutako hitzarmenetatik eratorritako diru-sarrerak hartzen dituzte barne. Oro har, hitzarmenak Administrazioarekin sinatzen dira, itunpeko erakunde edo zentroak zerbitzuren bat ematearen truke.

Erakundeari egindako ekarpenak

Beste bide batzuetatik estaltzen ez den defizita konpentsatzera bideratutako ekarpenak biltzen ditu. Administrazio publikoaren mendeko zentroetan, ekarpen hori aurrekontuaren bidez egiten da, oro har.

Diru-sarrera finantzarioak

Zentro, zerbitzu eta programen diru-sarrera finantzarioak hartzen ditu barne.

Beste diru-sarrera batzuk

Aurreko kontzeptuetan sartu ez diren diru-sarrerak hartzen ditu barne, besteak beste alokairuetatik, higiezinak sortutako irabazietatik edo ezohiko diru-sarreretatik datozenak.

Finantzaketa-adierazleak

Erabiltzaileen parte-hartzea finantzaketan

EHuneko honek erabiltzaileek zentro edo zerbitzuaren finantzaketa osoari egin dioten ekarpena irudikatzen du. Kuotak eta erabiltzaileek egindako gainerako ekarpenak hartzen dira barne.



LANGILEEI BURUZKO ALDERDIAK

Langile motak, zentroarekin duten loturaren arabera

Zentroarekin duten loturaren arabera, langileak era honetan sailkatuta daude:

Berezko langileak

Berezko langileak dira enpresarekin duten kontratu-harremana gorabehera erreferentziako aldian lan bat egin dutenak, lan hori diru bidezko ordainsariaren bitartez ordainduta edo ordainsaririk jaso gabe.

Ondorio horietarako, GZEZEK erreferentziako urteko abenduaren 15ean zegoen egoerari buruzko informazioa eman du, baina baita urteko batez besteko langileei buruzko informazioa ere.

Langileen kategoria horrek ez ditu azpikontratatuak langileak barne hartzen.

Azpikontratatuak langileak

Langileen kategoria honetan beste enpresa baten mende dauden eta beste enpresa horrengandik ordainsaria eskuratzen duten langileak sartzen dira, baita erabiltzaileei zerbitzua zuzenean ematen dieten langileak ere (arreta zuzenerako langile azpikontratatuak).

Kasu honetan, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

Langile boluntarioak

Langile boluntarioak euren erabakiz denbora tarte bat laguntza-lanak egiteko erabiltzen duten pertsonak dira, lan horren truke kontratu-harreman baten bitartez kontraprestaziorik edo ordainsaririk jaso gabe. Hala, ordaindu gabeko borondatezko lankidetzak da.

Azpikontratatuak langileen kasuan bezalaxe, GZEZEK ematen duen informazioak urteko langile kopuru osoari egiten dio erreferentzia.

Langileak, kualifikazioaren arabera

GZEZEren arabera, abenduaren 15ean, berezko langileak honako irizpide hauen arabera sailkatzen ziren:

Administrazioa eta orokorrak

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Zuzendaritzako eta administrazioko langileak: zuzendaritza eta kudeaketa, administrazioko langile teknikoak, administrazio-langileak eta laguntzaileak.
- b) Gainerako langile orokorrak (zerbitzuko langileak): langile urgazleak eta mantentze-lanetakoak, ostalaritza-sukaldekoak, garbiketakoak eta beste zerbitzu orokor batzuk ematen dituztenak.

Gizarte-lana

Gizarte-lanean aritzen diren teknikariak hartzen ditu barne.

Hezitzaileak, langile sanitarioak eta beste langile espezializatu batzuk

Langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Hezitzaileak: gizarte-hezitzaileak eta irakasleak, baita psikologian edo pedagogian adituak diren langileak ere.
- b) Langile sanitarioak: medikuak, erizainak edo fisioterapeutak, terapia okupazionalan jarduten dutenak eta droga-mendekotasunak prebenitzeko lanetan aritzen diren teknikariak.
- c) Beste teknikari batzuk: gizarte- eta kultura-animazioan adituak diren langileak.

Zaintzako langile laguntzaileak

Bi langile mota hauek hartzen ditu barne:

- a) Klinikako eta geriatriako laguntzaileak.
- b) Zerbitzu pertsonalak ematen dituzten langileak (zaintzak, etxeko laguntza eta abar).

Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak

Monitoreak, langilezainak eta tailerreko buruak hartzen ditu barne.

EZB langile-erabiltzaileak

Desgaitasunen bat duten eta gizarteratzeko eta laneratzeko enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsonak.

Gizarte-zerbitzuen erdigunearen kasuan, jarduera okupazionalak eta enplegu-zentro berezietako berezko jarduerak konbinatzen dituzten zentro mistoen kasuan baino ezin dira agertu. Azken mota honetako plazak ez dira, baina, aintzat hartu gizarte-zerbitzuen erdigune horri buruzko txostenean.

Langileei buruzko datuak: orokorrak eta LOB

Langileei buruzko informazioa modu orokorrean edo lanaldi osoaren baliokidea (LOB) terminoaren arabera eman da. Azken kasu horretan, langileei buruzko informazioa lanaldi osoa kontuan hartuta estandarizatu da, lanaldi osoa urtean 1.600 ordu edo asteen 35 ordu direla ulertuz.



KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Zentro edo zerbitzuen okupazio-adierazlea

Okupazio-adierazlea edo -ehunekoa erreferentzia-urteko abenduaren 15ean zeuden erabiltzaileen eta aztertu diren zentro edo zerbitzuetan zeuden plaza guztien arteko harreman portzentuala da.

Gastu arrunta erabiltzaileko

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu aztertu diren zentro eta zerbitzuei dagokien gastu arrunt osoa eta zentro edo zerbitzu horiek erreferentziako urteko abenduaren 15erako artatuak zituzten erabiltzaile guztiak.

Erabiltzaileko batez besteko kuota

Adierazle horrek termino absolutuetan lotzen ditu erabiltzaileek kuoten bitartez egin duten ekarpenaren zenbatekoa eta erreferentziako urteko abenduaren 15erako aztertutako zentro edo zerbitzuek izandako erabiltzaile kopuru osoa.

LOB erako berezko langileak 100 erabiltzaileko

Adierazle horrek erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak lotzen ditu, bider ehun egin ondoren.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

Langileko (LOB) batez besteko soldata

Adierazle horrek elkarrekin lotzen ditu erreferentziako urteko abenduaren 15ean aztertu diren zentro eta zerbitzuetan lanean ari ziren berezko langileak eta egun horretan zeuden erabiltzaile guztiak.

Adierazle hori egiteko, berezko langileak lanaldi osoaren baliokidea (LOB) aintzat hartuz kalkulatu dira.

Batez besteko ordainsariari dagokionez, aztertu diren zentro eta zerbitzuetako langileei egotz dakizkiekeen gastu guztiak hartu dira aintzat, baita enplegatzaileak eskudirutan eta espezetan ordaindutako guztia ere, aztertu den aldiaren egindako lanaren kontrapartida gisa. Soldaten ordainsariak honela banakatzen dira: eskudirutan eta espezetan ordaindutako soldata eta ordainsariak, enplegatzaileak egindako edo enplegatzaileari egotzi zaizkion gizarte-kotizazioak eta enplegatzaileak langileei ordaindu behar dizkien gainerako gastuak.

LURRALDEARI DAGOZKION ALDERDIAK

Udalergi motak

Hau da txosten honetan erabili den udalergien multzokatzea:

Gasteiz

Gasteiz hartzen du barne.

Arabako beste udalergi nagusi batzuk

Amurrio eta Laudio hartzen ditu barne.

Arabako gainerakoak

Arabako lurralde historikoko gainerako udalergiak hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

Donostia

Donostia hartzen du barne.

Gipuzkoako beste udalergi nagusi batzuk

Eibar, Errenteria eta Irun hartzen ditu barne.

Gipuzkoako gainerakoak

Gipuzkoako lurralde historikoko gainerako udalergiak hartzen ditu barne (baita Arabako esleitu gabeko erregistroak ere).

Bilbo

Bilbo hartzen du barne.

Bizkaiko beste udalergi nagusi batzuk

Barakaldo, Basauri, Durango, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao hartzen ditu barne.

Bizkaiko gainerako udalergiak

Bizkaiko lurralde historikoko gainerako udalergiak hartzen ditu barne (baita Bizkaiko esleitu gabeko erregistroak ere).